

Ibargutxi'tar J. G.

Eleiz Ama Deunaren

IKURTONAK







DNTX

Eleiz Ama Deunaren Ikurtonak edo Sakramentuak

Gippssee ^{von} Kartin Abdiasens

THIS BOOK BELONGS TO THE UNIVERSITY OF TORONTO

M. 54050
F. 54788

ATV
25221

JAUNGOIKO-ZALE BAZKUNA'REN IDAZTIAK
26 - GAĒNA

Eleiz Ama Deunaren Ikurtonak edo SAKRAMENTUAK

IBAĀGUTXI'TAĀ JON GURUTZ
JAUPARIAK
IDATZIRIKO IDAZTIA



ZORNOTZA'n (BIZKAYA)
JAUNGOIKO-ZALE'REN ETXE-ARGITALDARIA
1932-gaĒnean

Nihil obstat.

EMMANUEL DE LECUONA

Censor.


IMPRIMATUR.

Victoriae, die 10 novembris 1931.

Vicarius Generalis

DR. JUSTUS DE ECHEGUREN.





IRAKURLEAI

*N*oz-bait amaitu dogu, oratiño, «Jaungoiko-Zale Bazkunak» leporatu euskun sail au. Bizkoñago ezin, guretzako beñago diran beste zeregin batzuk menberatuta gaukez-ta.

Ikurtonak, Goi-bizitzaren iturbide diran ezkerro, alik zietzen eta sakonen azaltzeko alegin egin dogu. Ba-dira arlo batzuk euzkeraz landu-bañiak, adibidez eskañari ta meza edo jaupari yagokezanak. Onei, lenengotan, laztxoago eretxi bear. Enparau azalbenetarako, bai euzkeraz, ta bai erderaz, ondoen idatzita dagozan idaztiak erabili dodazala uste dot. Euzkerazkoak oneixek dira: IKASKIZUNAK (1), AGIRÉ'REN PLATIKAK (2), OTOITZ-GAYAK (3), GEROKO GERO (4).


Abegi ona egingo al dautsozu, ba, anai maite orék, eta sañi be sañi irakuñi, biotz-biotzez opa dautzudan idazti au.

(1) «Eleisaco zazpi sacramentuben Icasiquizunac, Aita Prai Bartolome Santa Teresac, Marquinaco Carmen Ortoceco Prioriac ateraac. III. Zatiña. Iruñean, Raba Alargunaren liburuguillean. 1819 urtean».

(2) «Jesu-cristoc bere Elizari utzi ciozcan, zazpi sacramentuen gañean eracusaldiac. Don Juan Bautista Aguirre, Asteasuco Erretore..... egiñac Tolosan, Andres Gorosabelen moldetegian, 1850 garren urtean».

(3) Jesusen amore-nekeei dagozten zenbait otoitz-gai, Jesusen Compañico A. Sebastian Mendiburuc egiñac. Tolosaco liburuguille E. Lopez-en echean, 1904 garren urtean».

(4) «Guero Guero..... Axular, Saraco Erretora. Edicione Berria Bayonan, Lamaignère, Alhargunaren moldeguintzan 1864».



BIĻABIDEA

Oñaldea

Irakufleai	V
-------------------------	----------

I IKASKIZUNA

Ikurtonak era batera	1
Zeinbat dira.....	1
Zeruratzeko artu-beařenak.....	2
Īlenak eta bizienak	3
Atz Donea	3
Zer diran	4
Nok eta noiz ipiñi.	5
Zelan emoten dabe ikurtonak goi-eskaña.	6

II IKASKIZUNA

Goi - eskaña (Grazia)	9
Jakin-beařeke ikaskizuna.	9

Eskafa zer dan.....	10
Giza-bizikerak	11
Zeinbatarikoa ete da goi-eskafa.....	14
Eskar donetzalea	14
Jaungoikozko izakia	15
Jaungoikoa'ren izakide.....	15
Eskar bizitza adirazteko irudiak	17
Gizona Jaungoikoa'ren seme ta zeruaren jabegei	19
Jaungoikoa'ren adiskide.....	21
Eskar-donetzale beaia	23
Sarigari	25
Eskar donetzalez zintzoro diarduenen irabazia	26
Oben astunean dagozanen egite onak	28
Eskar laguntzalea. — Zer dan.....	29
Eskar laguntzale beaia.....	31

III IKASKIZUNA

Bateoa. — Ugutza	37
Zertarako ipiñia.....	37
Ikurton ete	38
Noiz ipiñia	38
Zer bear	39
Ur utsa ¿zein ete?	40
Itzak.....	40
Zelan ezari ura?	41
Nok artu daike ugutza?	43
Noiz eroan umiak ugutza artzeko?	44
Ezagueradun diranen ugutza	44
Izena	45

Ofialdea

Ugutzaue beaía.	46
Aitama bitxi	47
Nortzuk izan daitekezan	47
Ugutza ondorenak	48
Jayotz beaía.....	49
Jatorizko obena kendu	49
Beste edozein oben	49
Oben nekea	50
Eskar edo grazia	50
Atz donea.....	50
Ugutza tuaren egin-beaía	51
Ugutza zerea	53

IV IKASKIZUNA

Sendatza	57
Zer dan.	57
Nok eta noiz ipiñia	57
Ikurtongeyak	58
Ondorenak.	59
Artu beaía	62
Sendazkerea	65

V IKASKIZUNA

Eukaristia	69
Izenak	69
Irudiak	70
Agintza	74

Noiz egin eban Jesukristo'k.	77
Zer dan.	77
Jesukristo gure Jauna Eukaristian.	78
Jazopenak.	87

VI JAUNARTZEA

Jaunartzea.	91
Zetarako ipiñia dan Eukaristia.	91
Bear dan lez artu.	92
Jaungoikoaren adiskide izan beaia Jaunartzeko	93
Deungaro Jaunartzea.	95
Gaiztakeri baltza.	96
Donauste ikaragaia.	97
Jesukristo gurutzeratu.	98
Judas'en laztana.	100
Eskuak lotu.	101
Zigoñak.	101
Jaunartzeko gertaera.	106
Jaunartzetik obari geyago eskuratzeko ger- takizunak.	106
Gogoa garbitu.	107
Siñesmen bizia.	108
Maitasun gorria.	109
Barau beaia.	111
Gexoak.	112

VII IKASKIZUNA

Ofialdea

Jaunartze ondorenak	115
Kristo gure Jauna artu	116
Nekaustea gomulerazo	117
Gogoa goi-eskañez bete.	117
Oben ariñak azketsi ta astunetatik jabon	118
Griña txafak ezi.	119
Jazopen bi	120
Geroko zorionaren bailura	123
Azken Jaunartzea	127
Eleizakoak artzeko gertakizunak	127
Safi ta egunero Jaunartzea	130
Ume ta gastien safi ta egunero Jaunartu beaía	131
Safi ta egunero Jaunartzeko atxakiai erantzuna	135

VIII IKASKIZUNA

Mezea deritxon opari deuna	143
Opari beaía	143
Oparia zer dan	147
Giza-Lege	149
Mois'en Lege	452
Lege Bañiko oparia ta Gurutzeko oparia	452
Jaupari ta opari	154
Lenengo Meza	157
Meza deuna	161
Meza ondorenak	165
Eleiz Ama opagile	166
Jauparia mezatan	168
Meza saria emoten dabenak	170

Jaupaldian izaten diranak.....	171
Biziak eta ilak jaupa-bidez jadetsi leikezan ondasunak.	172

IX IKASKIZUNA

Autoritza.....	175
Zertarako.....	175
Ikurton ele.....	176
Noiz ipiñi eban Jesukristo'k.....	176
Zeintzuk oben azketsi.....	178
Azketsiko eztan obena.....	180
Noiz artzen dogun.....	181
Azterketa.....	183
Oraindik autortu ez doguzan obenak.....	184
Azterketa zelan egin.....	186
Damua.....	187
Damu-beaña.....	188
Benetako damua.....	189
Zeinbat eratakhoa.....	193
Maite damua.....	194
Bildur damua.....	196
Bietatik onena.....	200
Zergaitik.....	201
Maite-damu ondorenak.....	201
Zaia ala efaza?.....	204
Bildur-damua naikoa ete da?.....	205
Asmoa.....	206
Sendoa.....	207
Eragilea.....	208

Ofialdea

Orokoña	209
Asmorik ez.....	209

X IKASKIZUNA

Aozko autoriza.....	213
Autortu beaña.....	213
Jesukristo'k jafia dala ezagutzeko bide bi...	214
Aozko autoriza, zer dan.....	223
Iñori egindako obenak.....	225
Badezpadako obenak.....	225
Apal eta lotsoña.....	227
Oben ariñen autoriza	228
Egin baizen laster autortu bear ele?.....	230
Deungaro autorizea.....	233
Lotsa ta bilduñik ez.....	235
Obenak ixilletik datorzan ondorenak.....	240
Deungaro autorizen danaren egin-beaña....	243
Ordaña, zer.. ..	246
Zetarako.....	246
Ordain - beaña.....	252
Burua nekatu	253
Antxiñako kistañen buru-nekeak... ..	255

XI IKASKIZUNA

Parkamenak.....	259
Zer diran	259
Eleiz Amaren ondasunak.....	260
Zeinbat eratakoak diran parkamenak.....	261
Zelan irabazi... ..	262
Onik ete datorkigun parkamenetatik.....	265



I IKASKIZUNA

IKURTONAK ERA BATERA

Zeinbat diran. — Zeruratzeko artu-beafenak. — Ilenak eta bizlenak. — Atz Donea. — Zer diran. — Nok, noiz ta zetarako ipiñiak.

—Zeinbat dira Eleiz Ama Deunaren ikurtonak?

—Ama Eleiza Deunaren ikurtonak saspi dira: Ugutza (bateoa), Sendatza, Jaunartza (Eukaristia), Autortza, Azken-igortza, Jaupalgintza (abadegintza), Ezkontza.

Saspi ikurtonok beti autortu ta erabili izan daroaz Eleizak, eta saspi dirala, ez geyago ta ez gitxiago, Trento'ko Batzar Nagosiak siñesgeitzat ebatzi eban.

Saspi ikurtonok, egin-egiñean yatorkez gogo-bearai ta gizonaren goitar-bizitzari.

Goitar bizitz ori, giza-bizitzaren antzekoa da. Giza-bizitzan, gizona lenen jayo egiten da; goitar-bizitza,

ugutza-bidez sortu ta jayoten da gure ariman. Gero sendotu; ta goitar-bizitza sendotu ta indartzeko, *sendatza* dogu. Bizitza sendo iraun - azoteko, janaria bear; gogo-bizitza sendo iraun-azoteko, *eukaristia*, Jesus'en Gorputz-Odola doguz janari. Gorputz-bizitza gexoaz legez, gogo-bizitzaz obenez (pekatuaz) galtzen dogu. gogo-gexoa osatu ta obenaz ildako arimea berpiztuteko, *autortza* dogu. Goitar-bizitzan eriotzaraño garbi ta zintzo irauteko, buñukaldi gogoñak jokatu beaña izaten dogu, batez bere azken-aldian; bizitza okeñaren azteñen eta orbanak kendu, ta arerioaren ziltzaldiak garaitzeko indaña, *azken-igortzak* damosku.

Gizona, bakañik bizi izateko sortu balitz, beste ikurton beañik elegoke. Ezta, baña, gizona bakañik bizi izateko sortu, giza-batzarako baña; gizadiari iraunera-giteko da *ezkontza*. Gizartean goitar-bizitza iraun-azo, ta Jaungoiko ta gizonak alkañegaz dabezan artu emonak atondu ta zuzentzeko, *jaupalgintza*. Aor ba, saspikurtonen bidez, goitar bizitzari gizartean dagokiozan gorabera ta bear-izan gustiak ziero ta añañiño orniduta.

—*Zeintzuk dira zeruratzeko ikurtonik beañenak?*

—*Zeruratzeko ikurtonik beañenak bi dira: Ugutza ta Autortza.*

—*Norentzat dira beañekoak Ugutza ta Autortza?*

—*Ugutza gustientzat da nai-ta-naiezkoa; Autortza, bañiz, ugutzau ezkerro, oben astunen bat egin dabenentzat.*

Ikurtonetatik, batzuk nai-ta-ez artu beañekoak dira, ugutza ta autortza.

Ikurtonok artzeke, norberen ezetsiz edo zabarkeriz laga ezkerro beintzat, ezin iñor zeruratu leiteke; ta ba-

tzuetan, artu ezinda itxita bez, geroago, ikurtonak banan-banan azaltzean, ikusiko dogunez. Beste ikurton batzuk, Eleizaren aginduz artu beaferkoak dira: sendatza, jaunartza, ta azken-igortza. Azkenengo biak, jaupalgintza ta ezkontza, nai edo ezkoak dira, artu edo ez artzea geure eskuetan dogu.

Ikurton batzuei *bizienak* deritxoe, gure gogo edo arimea goi-eskafer bizi dala artzekoak dira-ta, adibidez jaunartza. Ikurtonok eztabe, eurenez, goitar bizitza gure gogoan sortzen, sendotu ta geitu baño. Beste batzuei *ilenak* deritxoe, obenaz ilda dagon arimeari, goitar bizitza, lenengoz, damotsielako, adibidez, *ugutza* ta *autortza*. *Īlen* ikurtonak artzera doana, Jaungoikoa-aren adizkidetasunean ba'litz, goitar bizitzaz bizi ba'litz, ikurtonok bizitz ori sendotu egingo leuskioe; esaterako, *ugutza* artzera eltzen dan ezagueradun kistaferari, edo autortzera doanari, maite-damuz garbatuta elduko ba'litzoz, goi-eskafer geitu ta ugaritu egingo litzakio. Baita *bizienak* be, noz-bait, lenengo goi-eskafer emon legikie; oben astunez ilda dagon gogoa, piztu legikie.

—*Zeintzuk ikurton dira bein baño ezin artu daikezanak?*

—*Bein baño ezin artu daikezan ikurtonak iru dira: Ugutza, Sendatza ta Jaupalgintza.*

—*Zegaitik eztira Ugutza, Sendatza ta Jaupalgintza bein baño artzen?*

—*Graziaz edo goi-eskaferaz gañera, Atz Donea deritxon ezaugarri kendu-ezin bat ariman ezarten dabelako, Ugutza, Sendatza ta Jaupalgintza bein baño ezin artu daikez.*

Artzañak ardiak ezagutu, ta bereak eztiranakandik

bereizteko, belafietan akatza egiten dautsen legez, edota gizartean inarkun eta egikizun beregarrezko gizonak, gudari, jaupari ta abar, jantziz ezagutu ta bereizten diran legez, baita kistarak be, Atz Donez ezagutu ta bereziko gaitue. Atz ori etxaku egundo kenduko, ez biztaldi onetan, ez gerokoan. Zeruan eta gaiztokian iraungo dau, zintzoen dedu ta aintzarako ta gaiztoen lotsarako. Atz deuna beti ezarten yaku; ikurtonok deungaro artuta be bai; orixegaitik ezin leikez bein baño artu.

Orain ezin jakin geinke zer dan ikurtonak ezarten dauskun Atz ori; baña gotutsak (aingeruak) ikusten dabe, ta eurok legez gogo utsak ikustera eltzen garanean, geuk bere ba-dikuskegu.

Atz deunez, Jaungoikoa'ri bereziki opaltzen gaya-koz. *Ugutzaz*, Jaungoikoa'ren seme ta Kristo'ren anai egiten gara; *sendatzaz*, Kristo'ren gudari; *jaupalgintzaz*, Kristo'ren ordezeko.

Ikurton-atzak beste enparauegandik berezi; gure eginbearak betetako goi-indaña emon, eta Jaungoikoaren moñoitzan inardunteko bereziki beartu garoaz.

—*Ikurtonak zer ete dira?*

—*Jesukristo gure Jauna'k bere grazia (goi-eskaña) ta onoimenak guri emoteko ipiñi zituan ezaugarri agiriak, dira ikurtonak.*

Itzez-itzez, ta al dogunik eñazen, azalduko dogu.

Ikurtonetan, zerbait *ageria*, begiz joten gauzana, dago: ikuña; ta beste zerbait *eskutua*, ikusten eztoguna: goi-eskar ta onoimenak. Bateoan adibidez, ura ixurtea da *ikur ageria*; ura ixuriaz emoten dan goi-eskaña, *eskutua*, ta ura ixurteak adirazten dauskuna.

Zerbait adirazten dauskun edozer, ikuña da; keya suaren ikuña, bafe egitea, pozaren ikuña. Ikur batzuk dira, zerbait adirazi bai, baña egin egiten eztabenak; keyak sua dikuñ, baña egin eztagi. Beste batzuk zerbait adiraziz gañera, egin be egiten dabenak; eguzkiak, eguna ikuñi ta egin be egiten dau. Ikurtonak onetari-koak dira, ikur egitekoak, goi-eskaña adirazi ez-eze, emon be egiten dabenak.

Gauza batzuk, euronez, zerbait adirazteko jayoak dira; adibidez, keya berez da suaren ikur edo ezaugaña. Beste batzuk, gizonen aburuz edo itunbenez; onela eñi bakoitzeko ikuñin eta txindi-txartelak.

Ikurtonak eztira euronez goi-eskañaren ikur, ezau-gañi, Jesukristo'ren gogoz baño: Burutik bera ura ixur-teak edo eskuak orioz igurzteak, eztauko, berez, goi-eskañagaz zer ikusirik. Jesukristo'k bere gogoz ipiñi eban ikur oñeitan goi-eskaña ta onoimenak guri emoteko indaña.

—*Nok ipiñi ebazan ikurtonak?*

—*Jesukristo gure Jaun berberak ipiñi ebazan ikurtonak.*

Gizonai goi-eskaña emoteko erabili bear ziran ikuñak edo ikurton-geya; itzak; noz ta zelan emon bear zan ikurton bakotxa; zer ta zelako eskaña emongo zan ikurton bakotxaren bidez; gusti au, Jesukristo'k ebatzi eban. Eztakigu noz, ikurton gustietzaz beintzat. Jaunartza, Eguen Gurenez egin ebana badakigu. Enparauak edo eriotz-añetik edo, Leon Nagosiaren ustez, berpizkunde ta igokunde - bitarteko berogei egunetan. Ikurtonak Jesukristo ber-berak ipiñi ebazalako, ezin legike iñok euron izakera aldatu. Ezta Eleizari be ez eutson

emon Jesukristo'k, ikurton-izakerea aldatzeko almenik. Beraz beti saspī ta beti berberak izan eta izango be dira.


Goi-eskaña ta onoimenak emoteko ipiñi ebazan Jesukristo'k ikurtonak. Eztira, ba, ikur utsak, ikur edo ezaugañi egikoñak baño, adirazten dabena, eragozpenik bitarteko eztalarik, egiten dabena. Onela, burutik bera ura ixurten yakon umeari, ixurte oñetan Jaungoikoa'ren eskaña emoten yako; Jaungoiko-seme eginda gelditzen da. Ta ori norberak ezertxo egin ezta be bai, eragozpenik ipiñi ezik, edo ipiñita be, eragozpen ori damuz kendu ezkerō.


— *Zelan emoten dabe ikurtonak goi-eskaña?*

— *Berez, egiñaren indañez — ex opere operato — emon oi dabe ikurtonak goi-eskaña.*

Ez ba ikurtonak emoten dauzana edo artzen dauzana ona dalako. Beste egite onak, adibidez barau egiteak, egilearen indañez — *ex opere operantis* — dira eskaña irabazteko bide. Ikurtonak, Jesukristo'k ikur onei emondako indañez. Artzera doanak, eragozpenik ez ipiñi; eztau besterik egin bear. Egur igeña suari uñeratu, ta suak berialaxe artuko dau. Baña su ta eguñaren bitarte eragozpenen bat ba'litz, sua bizia izanañen, ezin eguñari eldu. Orixe jazoten da ikurtonakaz be; berez su bizia baizen indartsua da ikurtona; eragozpenen bat bitarteko ipinten ba'yako, ezin gure biotzak eskañez ornitu. Beraz ikurtonak emoten dauzana, danik deunge ta gaiztoena izanda be, ikurtonak bardin-bardin izango dabe goi-eskaña emoteko indaña. Jesukristo berbera da ba, ikurtonez goi-eskaña emoten dauskuna. Bateatzen dauanak, Jesukristo'ren ordeztu ta izenez ura ixuri ta itzak esan daroaz; Jesukristo'k bere ordeztuko

egin daroan garbitze oñez, Jaungoikoa'k jatofizko obena azketsi ta goitar bizitza emoten dautso. Edonor dala ikurtonak emoten dauzana, Jesukristo'k berofen bidez emon daroaz. Kepa'k ugutzau, naiz Juda'k ugutzau, Jesukristo'k, euron eskuz, ugutzau daroa.





II IKASKIZUNA

GOI-ESKAÑA (GRAZIA)

Jakin-beafeko ikaskizuna. — Giza bizikerak. — Eskafa zer dan. — Zeinbatarikoa. — Eskar donetzalea. — Jaungoikozko izakia. — Jaungoikoa'ren izakide. — Eskar bizitza adirazteko irudiak. — Jaungoikoa'ren Seme ta zeru jabegi. — Jaungoikoa'ren adiskide. — Eskar donetzale beafa. — Sarigafi. — Eskar donetzalez zintzoro diñarduenen irabaziak. — Oben astunean dagozanen egite onak. — Eskar laguntzalea. — Zer dan. — Eskar laguntzale beafa.

— *Ikaskizun au jakin beafekoa ete da?*

— *Bai bein, ikaskizun au jakin beafekoa da, kistar bizitzaren guna da-ta.*

Goi-eskañari deusala dabil kistar-ikasbide ta-bizitz oro. Eskar ori irabazteko egin zan gizon Jaungoiko-Semea; eskar ori da Jesukristo'ren nekauste ta-eriotz-saria; geuri eskar ori emoteko ipiñi ebazan Jesukristo'k ikurtonak. Eskar ori da, Jaungoikoa'k gizonari emon

darroatson bizitz baña, goitar-bizitz utsa; bizitz oñez, gizona Jaungoikoa'ren izakide ta zeruaren jabegi egin doya. Goi-eskañaz atzeñi onetan bizi gareana ta zori-ontsuak zeruan bizi direana, bizitz berbera da. Areik abeñian dira, gu atzeñian; areik elburuan, gu bidean; arein goitar bizitza, agerian, gurea eskutuan; areik arpegiz-arpegi dakuste Jaungoikoa, guk ilunpean, ispiluan legez. *Orain Jaungoikoa'ren seme gara; ta oraindik ezta agiri zer izango garean. Badakigu, baña, agiri orduko Aren idekotsu izango gareala, Bera danez ikusiko dogu-ta.* (I, JOAN, III, 2).

Gogoaren gogo, arimearen arima — *anima animæ* — da ba, Agustin deunak deritxonez, goi-eskaña. Gizonaren izate gustiak ofetaraxe joten dau; eskartsuago ta deunago; eskar - ezago ta deungeago; eskar ofetan iraun ba'dai, betiko zoriotsu; iraun ezpa'dai, betiko zoritxareko.

— *Zer ete da ba eskaña?*

— *Eskaña, uririk (duban) eta geure maitez emon oi yakun edozer da.*

Zor izan ez, ta maitez emon bear da, ba, zerbait eskaña izateko. Era onetan, Jaungoikoa'k egiten dauskun emaitz oro, eskañak dira; eztauskuz ba zor, ta maite gaitualako egiten dauskuz emokayok. Izan - azo, gogo-almen, gomutamen, adimen, naimen, eta asmen edo sentzunak, garean eta dogun gustia, Jaungoikoa'k bere ongi-nayez ta uririk emon izan dauskuz. Ezertxo be ez euskun zor. Bein gizona irazan (egin) ezkerro, gizonen inardunteko bear dauana, zor yako gizonari. Baña gizon izatea inori zor etxako-ta, gizonen jardunteko

beste emokayok be, zor eztiranak, eskañez ta ururik, duban, emonak, dira.

Eskar itzaz baña, giza-bizitza ta bizitz oñi yagokona baño zerbait bikañago ta gurenago, goitañago adirazi daroagu. *Zerbait* ori, giza-bizitza baño gorago dago. Etxako, iñundik iñora, giza-bizitzari zor. Gizonak ezin legike bere alez ta indañez eskuratu. Jaungoikoa'ren eskar utsa da. Ta gure gogo edo arimearen bizitza. ¿Zer ete da, ba, eskar ori? Azaltzen eñaz ezta. Zelanbait adirazi ta ulertu-azoteko, giza-bizikerak azalduko doguz.

— *Zeintzuk izan daitekez gizonaren bizikerak?*

— *Giza bizikerak iru izan daitekez: giza-bizitz utsa, giza-bizitz osokoa ta goitar-bizitza.*

GIZA-BIZITZ U TSA. Bizikera onetan, gizonak gizon denez bizi izateko bear dauan gustia izango leuke. Gogo ta gorputzez osotutako adimendun izakia da gizona. Berenez, ba, gogo ta gorputz-bizitza dagokio gizonari; besterik ez. Ezta egundo gizabizitz utsez bizi izan gizona. Baña Jaungoikoa'k bizikera oñetan jañi eikean. Bere legeak izango ebazan, eta lege ta aginduok ezagutu ta betetzeko indaña be bai. Ez eban guk ditxarogun lako zorionik izango; gogo-gurari zintzo ta zuzenak aseteko zoriona izango eban goi-buru.

GIZA BIZITZ OSOKOA. Giza-bizitz berbera da bizitz au bere, baña bizitz oñetik sortzen diran akatzik bage. Gexoa, neke-loña, eriotza, ta gogo ta gorputzaren griña ta irits arteko burukea, giza-bizitzatik berez sortzen dira, pagalandaratik paga-kimuak legez. **GIZA-BIZITZ OSOKOAN,** neke oñeitatik bat be etzan izango, Jaungoikoa'k bere esku-alatzez jabongo eban gizona-ta.

GOITAR-BIZITZA. Bizikera onetan, gizona zerurako

egiña da. Jaungoikoa'k semetzat artu daroa. Seme-izena ta izatea damotsoz. Gizon-almena baño goragoko zoriona, zerutar-zoriona, ta zorion ori bereganatzeko laguntza agindu daroatsoz. Zorion oren azia da *eskaña*.

— *Zeintzuk izan dira gizonaren bizikerak?*

— *Ona emen giza-bizikeraren gora-berak:*

LENENGO. Jaungoikoa'k giza-bizitz osoa emon eutson Adan'i. Ez eban, ba, bizikera onetan iraun ba'leu, ez neke-loñik, ez gexorik, ez eriotzarik, ez gogo ta gorputz - griña arteko buñukarik izango. Gorputza ta gorputz-griña, irits ta gurariak, gogoaren menbe ta jaurbidean egongo ziran. Orez gañera, Jaungoikoa'k zerurako egin eban lenengo gizona; zeruan, arpegizarpegi, Jaungoiko berberak bere burua ikusten dauan legez ikusi ta maite izanaz, betiko atsegiñetan bizitzeko; beraz Jaungoikozko edo goitar-bizitzaz bizi izateko. Onetara eltzeko, *eskar-donetzañeaz* ornitu eban. Eskar oregaz, gizona Jaungoikoa'ren izakide biurtzen da; goitar, zerutar-bizitzaren erkide (participante). Eskar donetzalean irauteko, ta zeruko zorionerako lain izan leitekezan egintzetan inardunteko, bañiz, *eskar laguntzale* deritxona emon eutson.

BIGAÑEN. Adan'ek Jaungoiko-legea ausi eban. Eta oben egin eban ezkerro, Jauna'k, be, berari ta bere oñordekoai emokai bikañok kendu egin eutsezan. Bilutsik, giza-bizitz utsez, ta gorengo malatik jausita gelditu ziran, ba, Adan eta bere jatoria. Bilutsik eta zaurituta. Bilutsik, *eskar donetzalez* eundutako soñeko edeña galdu-ta; zaurituta, neke-loña, gexo, eriotz, ta gogo ta gorputz-griña arteko buñukea, inoiz baño biziago beregan igarten ebala.

IRUGAÑEN. Baña Jaungoiko-Semea gizonaz efukitu zan. Eta eskar-bizitza gizonari bañiro emoteko, bere burua opaldu eban. Aldia bete ezkerro gizon egin zan, ta gizonarentzat goitar bizitza erostearen, eriotz gañatza iruntsi eban.

LAUGAÑEN. Ordutixek, giza-bizitzaz gañera, Jesukristo'ren irabaziz, eskar-bizitza emon yaroaku, bizitz onetan iraun ezkerro, zeruko zorionera eldu gaitekezan. Etxakuz baña beste emokayak, neke-loñik-eza, gexorik-eza ta abar emoten. Jatofizko obena kendu ta eskar donetzalez gure arimak apainduta be, gogo ta gorputz-graña arteko asaña amen gelditzen yaku, *ad agonem*, buñukarako.

BOSKAÑEN. Giza-bizitzak, gizonari gizon danez dago-kion bizitzak, yagokon lez iñardun eta elbururaño eltzeko, laguntza, almena eta indaña beañ dauan legez, goitar bizitzak be, laguntza bear dau ofetarako. Ta goi-laguntza oni ta ortik erne doan zeruko zorionari, *eskaña* deritxogu.

— *Zer ete da, ba, eskar ori?*

— *Jaungoikoa'k gizonari uñurik edo duban emon daroatson ta zeruko bizitz betikoñari zelanbait dago-kion emaitz goitaña da eskaña.*

* * *

Ori berori obeto adirazoteko ipuintxo bat.

Jaun batek ume zurtza semetzat artu eban. Umea, apain-apain jantzi ta seme-elestuna ezañi-ta aitatzako-aren ondasunez oparo bizi zan. Agindu bakar bat ipiñi eutson jaunak. Agindu ori egin ezkerro, aukeran bizi, ta

Jaun aren oñordeko geldituko zan. Agindua egin ezik, bañiz, Jaun aren semetza ta ortik etorkiozan eskubide gustiak galduko ebazan. Umezurtz esker gaiztoko arek, agindua ausi eban. Jauna'ren zigorpean jausi zan. Semetza ta ondasun gustiak galdu ebazan. Len legez ume zurtz ta bilutsik gelditu zan. Baña jaun arek seme bat bai eban. Seme bakaña ta kutuna. Seme au ume zurtzaz erukitu zan. Eta, ume zurtzaren antza, ta aren zoñak eta zor onei egokiozan neke ta zigoña bere lepoan artzeraño erukitu be. Ume zurtzaren zoña ordaindu ta aitagaz kitu jartearen, eriotz bortitza jasan eban. Aitak, orduan, semearen irabazi ta begirunez, ume zurtza azketsi eban, parkatu eutson. Eta bañiro semetzat artzen ebalako agiriz, atzamañean elestuna ipiñi eutson.

Jaun ori, Jaungoikoa da. Ume zurtza, gizona. Semea, Jesukristo.

Ta elestuna, goi-eskaña. Elestun oñetatik datorkioz gizonari, Jaungoikoa'ren semetza ta zeruko ondasunetarako eskubidea.

* * *

— *Zeinbaterikoa ete da goi-eskaña.*

— *Goi-eskaña bitarikoa da: eskar donetzalea ta eskar laguntzalea.*

Bioetatik beñena, donetzalea da. Berau ezto gunean, jadetsi, edo dogunean laguntzeko da eskar laguntzalea. Beste eskar-mota batzuk be badira, baña gustiak bi oneitara joten dabe.

— *Zer da eskar donetzalea?*

— *Gizona Jaungoikoa'ren seme ta zeruaren jabegei egiten dauan jaungoikozko izaki bat da eskar donetzalea.*

Irakurri bañero maratz-maratz, ta gozoro ausnartu, dakutzuzan gauz arigafiook. Bemosku Goiko Jauna'k, niri, irakaspén zailok éraz ta samur idatzi ta azaltzeko gatza; zuri, irakurri ta ikasteko gogoa, ta bioi bizitz bikain oñez bizi al izateko urgazpen eta laguntza.

JAUNGOIKOZKO IZAKIA. Ezta, ba, izaki gizakoya edo guk begiz ikusten doguzan beste izakien idekoa; ezta gotzon edo aingeruen antzekoa be. Izaki gusti oñeik baño gurenago ta goragokoa da. Ezta Jaungoiko berbera; jaungoikozko zerbait baño. Jaungoikoa'gandik eratorri ta gure arima erabiau, aldatu ta Jaungoikoa'ren irudi, Jaungoikoa'ren antz-antzeko biurtu daroan jaungoikozko diz-diza da. Eguzki biziak beraganatu daroan laño zuritxoa eguzkituta agertzen dan legez, eskar donetzalez jantzita dagon gogoa be, jaungoikoztuta geditzen da. Jaungoikoa'ren benetako irudi egiten gaitu ba eskar donetzaleak.

JAUNGOIKOA'REN IZAKIDE. Jaungoikoa'k Berari dago-kion zerbait emon daroasku eskar donetzalez.

Jaungoikoa'gan bai dago Berari bakar-bakarik dago-kion eta beste inñori egotzi ezin leikion zerbait: adibidez, *berenez izatea*, (aseitas), *Jaun izatea*, *Jabe izatea*, Jaungoikoa'ri bakar-bakarik dogokioz.

Izan, bizi, ulertu (aitu), *nai izan* eta oneitariko beste zerbatzuk, Jaungoikoa'ri ta gizonai yagokez.

Beste zerbait be bai da Jaungoikoa'ri dagokiona ta enparau izakiak euron alez ta indárez inñola be jadetsi

ezin leikiena: Jaungoikoa argi-argi, dan legez, ikusi; ta ikuste onetatik sortzen dan maitasunez maite izan; eta ikuste ta maite izate oneitatik deratoñen atsegiñez, zoriontsu izatea: au berenez Jaungoikoa'ri bakarik dago-kio ta osterantzeko izakiak «euren almenez» ezin iritxi legikie. Auxe da, ba, eskar donetzalez gizonari emoten yakon Jaungoikozko zerbait. *Eskar oñez*, gizonak Jaungoikoa begiz-begi, agiri-agirian, ikusi daike; ta ikuste oñetatik sortzen dan maitasunez maite izan be bai; eta baita ikuste ta maite izate oñetatik deratoñen atsegiñez, zoriontsu izan be. Beraz eskar bikain oñez, Jaungoikoa, jaungoikoz, Jaungoikoa'ri dagokion eraz ikusi; ta Jaungoikoa, jaungoikoz, Berak bere burua maite dauan eraz, maite izan; eta Jaungoiko-atsegiñez, Jaungoikoa zoriontsu dan zorunez, beraz, zoriontsu izateko bidean gagoz gizakiok. Gizon eraz ulertu, maite izan eta poz-artu al ba'legike abere batek, abere au gizonaren izakide izango litzaken legez, Jaungoikoa'ren antzera ikusi, maite izan, eta Jaungoiko-atsegiñez zoriontsu izan leitekene gizona be, Jaungoikoa'ren «izakide» izateraño eltzen da.

Bizitz bañia da, ba, eskar-bizitza, ta len doguna baño askoz gurenagoa. Gizonki, gogoz, ulertu ta maite izan daikegulako, gure bizitza aberiena baño gurenago da. Eskar - bizitza, ordea, au baño askoz bikañago, jaungoikoz, Jaungoikoa'ri dagokionez, bizi-azoten gaitualako. Bizitz onen ondoan, beste giza-bizitz ori, eriotza da. Idazti Deuna'k, itz bi oñeikaz adirazten dabez bizikera biok: giza-bizitzari, eriotza deritxoe, ta eskar-bizitzari, bizitza. *Ilda zagoze, ta zuen bizitza Kristogaz Jaungoikoa'gan ostentuta dago.* (KOLoss. III, 3). *Ugutza edo bateo bidez, Kristo'gaz ilobian eortziak (lurpetuak) izan gara, Kristo ilen artetik Aita'ren ain-*

tzarako berpiztu zan legez, geu be bizikera bañiz ibili gaitazan. (ROM. VI, 4). Jesus, Kristo, Jaungoiko-Semea dala siñestu dagizuen, gauz oneik idatzi dautzuedaz, ta siñesten dozuelarik, bere izenez BIZITZA izan dagizuen. (JOAN, XX, 31). Eriotzatik, — gizabizitzatik — bizitzara — eskar-bizitzara — aldatuak izan gareala badakigu guk. (I, JOAN, III, 14).

Bizitz onen bañi emon eutsonean Jesus'ek Nikodemori, au añituta geratu zan. Ona, bien alkar izketa:

JESUS'EK. — *Bene - benetan dirautzut, Jaungoikoa'ren eria iñok ezin ikusi leike, bañiro jayo izan ezik.*

NIKODEMO'K. — *Baña aguretu ezkerro, zelan jayo?*

JESUS'EK. — *Zin-ziñez dirautzut; urez ta Espiritu Santu edo Goteunez bañiro jayoten eztana, Jaungoikoa'ren erian ezta sartuko. Aragiz jayoten dana, aragia da: Gogoz jayoten dana, gogoa. Ez ba, añitu, "Bañiro jayo bear zara", esan dautzudalako. (JOAN, III, 1).*

ESKAR BIZITZ AU OBETO ADIRAZTEKO IRUDIAK

Basamatsak, berez, ale ta garaun gañatzak baño eztakartz; baña basamats ori mats gozoaren kimua ezañiozu, ta len ale gañatzak baño ez ekarzanak, gero mats gozoa dakarke. Orobat (bardin), elofitik, berez, arantzak baño eztira sortzen, baña elofiarri loñosea es-titu ezkerro, lili goñi usain gozodunak erneten dira.

Era berean, gure gogoak, berez, beroni dagokion bizitza baño eztauko; bizitz ori dagokiozan egiñetan baño ezin iñardun legike; baña Jaungoikoa'k eskar bizitzaren kimua gure gogoari ezañi daroatsonetik, gure arima zerutar eginda gelditzen da; len berezko bizitza baño ez eban, orain Jaungoikozko bizitzaz bizi da; len ale gañatzak baño ez ekarzan, orain zerutar ale ta

igaliak dakarz; len oben eta gaiztakeri naía ta otea baño etzan gure gogoan sortzen, orain, eskar donetzale indaíez, usain gozodun lili mardulak, Jaungoikoa'ren gogoa bete ta zerua irabazteko lain diran egintzak er-netzen dira.

Tximistargi-bonbila ori ekutzu. Bonbila ori, makiñatik yatorko indaía ta argia. Argi egiteko, bonbila orek makiñeari deutsalala egon bear. Bonbila gustiak eztabe bardin argi egiten. Batzuk besteak baño geyago, bonbilaren eta makiñatik yatorken indar neufiz.

Bizitz ituíria, Jaungoikoa da. Bonbileari makiñatik letxe, gure arimeari be, Jaungoikoa'gandik yatorko eskar-bizitza, Jesukristo'ren irabaziz ta Andra Maria'ren bidez. Bonbileak, argi egiteko makiñeari deutsalala egon bear dau. Baita gure gogoak bere, eskaíez bizi izateko, Jaungoikoa'ri deutsalala, Jaungoikoa'ri ezaíita egon bear. Aria apurtu ezkerro, bonbileak ezin argirik egin. Jaungoiko ta gizon adizkidetasun eta alkartasuna obenez ausi ezkerro, eskar-bizitza ezin gogora eldu. Bonbila gustiak eztabe bardin argi egiten. Gogo gustiak be eztabe eskar-bizitz bardiña; batzuk besteak baño eskartsuago, Jaungoikoa'gaz estituago, batago diran neufiz.

— *Beraz eskar-bizitza Jaungoiko bizitzaren antzekoa da?*

— *Olantxe da ba.*

Eskar-bizitza Jaungoiko - bizitzaren antzekoa da, ta ondiño antzekoago, irudi ori biribilago ta edeíago izango da, zeruan agertuko danean. *Agertuko danean, bere antzekoak izango gareana badakigu, Bera dan legez, ikusiko dogu-ta.* (I, JOAN, III, 2).

Loíatza norberaren irudia da; norberaren zerbait

oñatzean agertu oi da. Loñatza baño bikañago argazki-irudia. Ta ondiño bikañago, ispiluan agertzen dan norberen irudia; argazkikoa, irudi ila da ba; ispilukoa, irudi-bizia.

Ortzi-ludian dakuskun oro, Jaungoikoa'ren loñatza lez dira; Jaungoikoa'ren jakituri, ondasun eta almena diragarzkue.

Gizona, bera, berez, Jaungoikoa'ren argazkia: Eskardun gogoa, (grazian dagon arima) Jaungoikoa'ren irudi bizi-bizia.

Irudi ori, dan baizen eder, zeruan agertuko da.

GIZONA JAUNGOIKOA'REN SEME TA ZERUAREN JABEGEI

Jaungoikoa'ren Seme bakaña Jesukristo da. Gizonok, eskar donetzalez, baña bereziki, Jaungoikoa'ren *semetzako* egiten gara.

Norberena ezтана, semetzat eta ondasunen jabegei ta oñordekotzat artzea, da semetzakoa.

Semetzakoak semearen antza izan daroa. Beraz Jaungoikoa'ren semetzakuok, Jesukristo'ren antzeko izan bear.

¿Zelan, baña, Jesukristo'ren antzeko izan? Eskar donetzalez. Eskar donetzalez Jesukristo'ri ezañi egiten gayakoz, ta Jesukristo'ren bidez, Aita Jaungoikoa'ri. *Zeuk emon zeustan argia, Nik be euroi emon deutset, bat izan daitezán, Gu biok bat garean legez. Ni eurokan, eta Zu Ni'gan; bat izan daitezán.* (JOAN, XVII, 22).

Onetarakoxe gizon egin zan Jaungoiko-Semea, gu beragaz bat egiteko; gure izakerea berak artu, ta bere bizikerea, eskar bidez, guri emoteko.

Kimua adafari legez estitu, ta ezañi, ta itsasten ga-

yakoz Jesukristo'ri; ta kimua adafetik bizi dan legez, gu be Jesukristo'ren gogoz, Jesukristo'ren eskar indafez bizi goaz. Ta orela, Jaungoiko - Seme gizon egiñaren bidez, beste gizon oro, Jauna'k bere semetzat artzen gaitu: *Jaungoikoa'ren gogoak darabiltzanak, oñixek dira Jaungoikoa'ren seme: eztozue ba bañiro moñoi gogorik bildufez artu, semetzako gogoa baño; ta gogo oñek dei erazoten dausku: Aba-Aita.* (ROM. VIII. 14).

Adaña ta kimua bat diran legez, Jesukristo ta gu be, bat egiten gara. Kimua adafetik sortu, azi ta sendotzen dan eraz, gu be Jesukristo'gaz ta Kristo'renez bir-jayo, azi, sendotu, il, obira jatzi ta bañiro biztuko gara. Aitu Agustin deunaren itz afigañiok: *Poztu ta eskar egin. Kristo'tañak ez eze, Kristo bera egin izan garealako. ¿Ulertzen ete dozue, anayok, Jaungoikoa'ren erukia gutzaz? Añitu, poztu; Kristo egin gara. Kristo gure buru ba'da, gu bere atal: Bera ta geu, gizon osoa.*

Jaungoikoa'k semetzat artzetik, bere ondasun jabegei izatea, berez sortzen da. *Seme ezkerro, oñordeko bere bai; Jaungoikoa'ren oñordeko beintzat ta Kristo'ren oñordekide. Neke-lagun ba'gayakoz, aintza-lagun izatera be etortzeko.* (ROM. IBID). Beraz seme legez sartuko gara Jaungoiko'aren zorion-tokian; eta Jaungoikoa ta Jesukristo, gure Aita ta Anai nagosia zoriontsu diran atsegiñez, izango gara gu be zoriontsu.

—¿Zer alde ete dago Jaungoikoa'ren semetzakotik gizarteko semetzakora?

—Alde aundia.

LENENGO, gizarteko semetzakoa, semerik ez izatetik sortu oi da; Jaungoikoa'rena, gure Aita'ren ontasun eta maitasun lafegitik. BIGARENA, gizonak bere idekoa, ta

oñordeko izateko gai dana, artu oi dau, semetzat, Jaungoikoa'k semetzakoari bere antzeko izateko gaitasuna emon egiten dautso. IRUGAREN, gizarteko semetzakoa, azal utsekoa da. Abizena ta ondasunak itxi leikioz aitak semetzakoari, baña bere sanetan ezin ezañi legike bizitz bañirik, odol bañirik, izakera bañirik. Abizen eta ondasun-da gusti bere, len zana izango da gero be semetzakuari. Jaungoikoa'k, bañen-bañenetik aldatu daroa semetzakoa; bizitz baña, izakera baña, Jaungoikozko bizitza ta izakera emon daroatsoz, ta izakera oñetatik sortzen diran eskubideak bere bai. LAUGAREN, beraz gizarteko semetzakoak, jayotzaz zer-ikusirik eztauka. Jaungoikozko semetzakoa bir-jayotza da. *Begira zeinbaterañoko maitasuna erakutsi dauskun Aita'k, Jaungoikoa'ren seme-izena ta izana ditugu-ta.* (I, JOAN, III, 1). Gizarteko semetzakoak eritxi, bai, baña seme izan, eztira; Jaungoikoa'renak, eritxi ta izan be bai.

JAUNGOIKOA'REN ADIZKIDE

Alkar maite dabena, dira adizkide. Batek bakañik maite izatea ezta naikoa adizkide izateko. Biak alkar maite izan bear dabe. Ta maite izan, ez norberaren onuraz edo atsegiñez, maite danaren edeñez baño. Beraz adizkidea, maitearen gogoak darabil; maiteari on egiteko beti gertu dago.

Alkar maite dabela, jakin egin bear dabe. Alkañi zerbait emon, edo beintzat poz-atsekabietan erkide, lagun izan.

Idekoen artean sortzen da adizkidetasuna. Esakun zañak diño: *Idekoak alkañekin.* Adizkidetasunak idekoak alkañegaz batu, edo len etziranak, alkañen ideko egin egiten ditu.

Adiskidetasuna, berezkoa edo goitar-zerutara izan daiteke. Jaungoikoa'gazko adiskidetasuna goitar utsa da. Gizona, berenez, Jaungoikoa'ren moñoi da, ez adiskide.

Eskar donetzalez da gizona Jaungoikoa'ren adiskide. *Nik agindutakoa egiten ba'dozue, neure adiskide izango zarie. Eztautzuet moñoyak deituko adiskideak baño.* (JOAN, XV, 14). Oñela iñotsen Jesukristo'k bere ikasleai. Ta beste bein: *Zuei, nire adiskideoi, diñotzuet... Gizonak, agortu ezindako ondasun iturria dabe, ta ondasun oñeik darabilezanak, Jaungoikoa'ren adiskide egin oi dira.* (SAP. VII, 4). *Abañan, gure Aba, neke ta lor askoren bidez, Jaungoikoa'ren adiskide egin zan, iñon JUDIT'ek* (VIII, 22).

Zer, Jesukristo'ren adiskide eritxi ta izatea baño bikañagorik? (KUIRIL ALEXAND.) ¡O zeinbaterañoakoa dan gure Egilearen erukia! Moñoi izateko nor ezkara, ta adiskide eristen gaitu. ¡Zeinbaterañoakoa dan gizonaren aunditasuna, Jaungoikoa'ren adiskide izaterañoakoa! (GREG. MAG.) Adiskide izateko bear dan gustia bai dogu eskar-bizitzan.

Alkar maite izan. Jaungoikoa'k maite gauz. *Beti-raunez maite izan zaitut.* (JEREM. XXXI). *Zuzenak maite ditu Jauna'k.* (Ps. 145). *Neu maite nabena, neuk be maite ditut.* (PROV. VIII, 17). Onak eta zuzenak Jaungoikoa maite dabe, elitzakez bestela onak izango. *Zure Jaun eta Jaungoikoa gogo-gogoz ta biotz-biotzez maite izango dozu.* (MAT. XXII, 37).

ALKAREN EDEREZ MAITE IZAN. Jaungoikoa'k geure onez maite gaitu; geure onez, maitasunak eraginda, emoten dauskuz bere eskar ta ondasunak. Geuk be, Jaungoikoa berenez ta beste edozer baño geyago maite izan bear dogu.

ALKAR MAITE DANA JAKIN. Jaungoikoa'k badaki nor-tzuk maite daben. Guk be, ziur-ziur ezáren, gitxi goraberá jakin geinke Jaungoikoa maite dogun ala ez.

ALKAŖI ZERBAIT EMON. Jaungoikoa, bizitz onetan, eskar - bidez emoten yaku. Zeruan, agirian emongo yaku. Gizon onak, bere burua ta daukan gustia Jaungoikua'ri maitasunez emon daroatso, berberak eskatzen dautsonez: *Ene seme, ekatzu Neui zure biotz ori.* (PRO. XXIII, 26).

IDEKO IZAN. Eskar donetzález, Jauna'k bere ideko ta izakide egin garoaz.

— *Eskar donetzálea beárezkoa ete da?*

— *Zeruan sartzeko ta gure egite on gustiak sarigari ta ordaingai izan daitezán, nai-ta-naiezkoa da eskar donetzálea.*

Neu naz matzaren orpoa, zuek matsaren ayenak. Matsaren ayenak, berenez, alerik ez dakarken legez, orpoan ezpadirau, zuek bere ez, Ni'gan irauten ezpadozue, dirausku Jesus'ek, (JOAN, XV, 4). Eskar donetzález, baña, gatzakoz Jesukristo'ri. Nai-ta-naiezkoa da, ba, eskar donetzálea, gure egite onak sarigari izateko. Paul deunak: *Seme bagara, baita jabegi be; Jaungoikoa'ren jaraunsle, ta Kristo'ren jaraunsekide.* (ROM. VIII, 17). Jabegi izateko, seme izan bear. Jaungoikoa'ren seme, bañiz, eskar donetzález egiten gara. Bañiro beronek: *Neure eukite gustiak txiroen janaritzat zabalduko baneuz be... goi - maitasunik izan ezik, ezetarako be etxataz.* (I, KORINT. XIII, 2). Goimaitasuna ta eskar donetzálea, bata bestearen ondoren dabiltz. Eskar donetzálezari goi - maitasunak dañayo, landara mardulari liliburuak legez. Gure

egintzarik onenak zerurako alper-alpefikoak dira, ba, eskar donetzalez bizi ezpagara. Mendiak alde batetik bestera aldatzeko baizen siñesmen sendoa ba'gendu bere, edota gure ondasun gustiak beartsuen artean zabaldu, ta siñeste-alde sanetako odola ixurtzera elduko ba'giña be, au gusti au, Jaungoikoa'gazko maitasunetik sortzen ezpada, zeruratzeko alper-alpefiko da.

Au geure adimenez be badarakusku. Len esan dogunez ba, zeruko bizitza ta eskar-bizitza, bat berbera dira. Eskar-bizitza, eskutua; zerutar bizitza, ageria; eskar-bizitza, zerutar bizitzaren azia. Beraz eskar-bizitzarik eztauanak, ezin zerutar bizitzarik izan. Azirik eztauan biotzean ¿zelan lora-galdea sortu? Azia, sustraya, eskar donetzalea da; lora-galdea, azi ta sustrai ořetatik erneten dan zorion bizitza. Baña eskar donetzalez bizi diranen egintzak, oneik bai, sarigafi dira. Ainbat eratarra erakusten dauskue au Idazti Deuna'k. *Buruka ona egin dot; ariñeketea burutu dot; zintzo jokatu dot. Zuzentasunaren burestuntza daukat orain zain; eta Jauna'k, epaikari zuzenak, egun atan emongo daust; ez niri bakarik, baita Aren agertaldia opa daben gustiai be.* (II, TIMOT. IV, 7). *Eriotzaraño zintzo jokatu, ta bizitz-burestuna damoketzut.* (APOK. II, 10). *Gaitzaldia ondo daroana jorixe, bai, zoriontsua! Atan zintzo azalduak, biziaren burestuna, Jaungoikoa'k Bera maite dabenai eskiñi dautsena, jadetsiko dabe-ta.* (JAKOB, I, 12).

Burukaldian zintzo jokatu ta irabazten dabenai, burestuna (koroya) zor yaken legez, baita animako burukaldietan zintzo jokatu ta irabazle gelditzen diranai be, zorion burestuna zor yake.

¿Ez aldakizue, jolastokian, atxintxiketan gustiak egin bai, baña batek bakarik saria artzen dauala?

Bera eskuratzeko baizen laster egizu ba. (1, KORINT. IX, 24). Atxintxiketa-jokoan, sartu asko egiten dira, baña lenen eltzen danak bakarik irabazi daroa saria. Olantxe jokatu, ba, diñosku Belduak, saria irabazteko eraz. Baña irabazten dauanari, saria zor yako. Baita gure ibilera onetan, eskar donetzalez elburua artzen dauanari, be, saria, zorion betikoña, zor yako.

Poztu ta ikotu, zuen saria, goyan, ugaritsu izango da-ta. (MAT. V. 12). Lan egiten dauanari alogera zor yakon legez, Jaungoikoa'ren sailetan lan egiten dauanari be, betiko-alogera zor yako; etxako eskañez, ururik eta duban emoten.

Baña gure egintzak, alik eta bikañenak izan-da be, etziran sarigari izango, Jaungoikoa'k sari ori agindu ezpa-leusku. Eztauka inok, ona dala-ta, egintza gurenetan inardun dauala-ta, arotzeko biderik. Jaungoikoa'k bere erukiz emon daroasku, bai egintza onetarako goi-eskaña, ta bai egintza onei zor yaken saria.

Azkeneraño zintzo diñarduenai ta Jaungoikoa'gan itxaroten dabenai, Jesukristo'k, Jaungoikoa'ren semeai erukiz agindutako eskaña legez, ta Jaungoiko beraren aginduz, euren egintza onai ta irabaziai zintzoro emongo yaken saritzat, erakutsi bear yake betiko bizitza, diño Trento'ko Batzañak. (SESS. VI, CAP. XVI).

Eskar donetzalez ganera, gure egintzak sarigari izateko, onak izan, asmo onez inardun eta goitañak izan bear dabe. Onak izan, Jaungoiko-Legeari datxakozanak. Ondasun neuria Lege ori da. Lege orezkoak ba'dira, gure egiñenak onak izango dira, osterantzean, ez. Asmo onez inardun; eskaleari zerbait emotea, egintza ona da; baña asmo txañez, burua erakutsi edo txiroa atzipetuteko asmoz emoten ba'yako, asmo txar onek egintza ona be ziteldu daroa. Goitaña izan,

Jaungoikoz jardun, Jaungoikoa'ren edereez, ez beste ziok eraginda. Onela diñosku Jesukristo'k: *Zuek maite zaituenak bakañik maite ba'dozuez, ¿zer sari izan zīñai-kie? Ez al dabe ori obendiak bere egiten?* (MAT. V, 46).

ESKAR DONETZALEZ

ZINTZORO DIÑARDUENEN IRABAZIA

Eskar donetzalez zintzoro jokutzen dabena, egintza onetan diñarduenak, egintza onen neufiz goi-eskara ta beroni dagokion zeruko aintza ta zoriona irabazten dabe.

Eskar donetzalea geitu geinkela, Trento'ko Batzañak ebatzita dauka.

Zuzena dana, zuzenago izan bedi, ta deuna dana, deunago. (APOK. XXII, 11). *Uñi eraiten dauanak, uñi batu be egingo dau, ta ugari eraiten dauanak, batu be ugari.* (II, KORIN., XI, 6). *Jauna'ren etxean, ontzi batzuk uñezkoak, beste batzuk zidañezkoak, baita eguñezkoak eta bustiñezkoak be badirala,* diño Paul deunak. (II, TIM. 11, 20). Kistar artean ba, batzuk besteak baño zuzenago, batzuk besteak baño deunago dira. Ta zuzenak eta deunak diranak, ondiño deunago ta zuzenago izan daitekez. Deun izatea, baña, eskar-donetzalean dago. Eskartsuago ta deunago. Beraz egintza onen bidez eskar-donetzalean irabaziaz joan geintekez. Ta eskar donetzalean irabazten dogun neufiz, batuko dogu zeruan. Asko eraiten dauana, asko artzeko bidean dago. Eraiten uña danak, ezin asko batu. Bakotxari bere lanaren neufiz emongo dausku Jauna'k. Emen, Jauna'ren etxean uñezko dana, an, zeruko etxean be uñezko izango da. Emen zidañezkoa

dana, an be zidañezkoa, *Nire Aitarenean, bizitoki asko dira*, diño Jesus'ek. (JOAN, XIV, 2). *Batzuek eguzkiak legez, beste batzuek ilargiak legez ta besteak izañak legez argi egingo dabe. Izañetik izañera bere, alde aundia dago.* (I, KORINT. XV, 41). Alantxe izango da ba zoriontsuen artean be. Batzuk besteak baño argiago ta zoriontsuago, biztaldi onetan irabazi izan daben eskar donetzale neñiz. ¿Ez ete dogu, ba, alako ondasun bikañak eskuratzeko alegiñik egin bear? Emen, diru gøsez, alkar jaten gabiltzanok; ondasun gañez biotzak eřeta daukaguzanok; ez sitsak jan, ez lapuñak ostu, ez eriotzak ezin kendu leikeguzan betiko aberastasunak irabazteko ¿ez algara geitxoago igitu bear? ¿Asko eskatzea al da, beintzat emengo ondasun igeskoñak batzeko darabilgun beste buru-auste, betiraunez iraungo daben atsegiñak irabazten erabiltea? Au egingo bagendu ¡gu, bai, benetan aberatsak! ¡gu, bai, benetan zoriontsuak! Ta onetarako, eztogu darabilgun baño lor ta neke geyago artu beañik. Dagiguna eskar donetzalez ta Jaungoikoa'ren egin. Orixe naikoa dogu.

* * *

Lima'tař Eřose deunak negar egiten oi eban eriotz-aldian. Itandu eutsoen, ba, iya zegaitik negar egian. Deunak erantzun ei eutsen: Eztagit negar, ez oñazez, ez geroko bilduñez, ezta bizitzau izten dodalako be, zerua irabazteko lain neke eroan eztodalako baño. Gustiok dakigu, bañiz, deun onek buru-ukapen latzak eta neke gogoñak jasan ebazala Jaungoikoa'gazko maitasunez. Gitxi eritxoen, baña, betiko zorionaren ondoan.

Sayatu, ba, sayatu ikurton eta otoi bidez, orain es-

kar donetzalea ta gero, oñi dagokion aintza ta zoriona irabazi ta geituteko.

—*Eta oben astunean dagozanen egite onak, ez ete dira ezetarako gauza?*

—*Oben astunean dagozanen egite onak eztira, ez sarigari, ez ordaingai; baña euren bitartez Jaungoikoa'gandik mesederen bat eskuratzeko gauza dira.*

Oben astunean dagozanak be, egite onetan inardun legikie; otoi egin, jaupaldira eldu, beartsuai lagundu, gexoak zaindu ta abar. Baña goitar-bizitzarik eztabe-ta, egite oneik eztira ez sarigari, ez ordaingai.

Ezin legikie, ez betiko zorionik irabazi, ez oben-zorik ordaindu. Bai baña, Jaungoikoa'gandik bide onera biurtzeko erukia ta osterantzeko ondasunak jadetsi. *Ugitxoak* (limosneak) *obenak garbitu, ta erukia ta betiko bizitza idoro-azo egiten ditu*, diño Tobi'ren idazkiak. Manases, bakaldun gaiztoak, otoi ta buru-neke bidez jadetsi eban Jauna'gana biurtzeko erukia.

Gure Aita Goikoa biotz-beria ta esku-zabala dozu. Egintzarik txatxañenak bere, oparo saritzen bai-daki. Baña obendiari etxako zor eskar donetzalerik, ez zeruko atsegiñik. Uste osoz jardun begi egintza onetan; uste osoz eskatu begi damu ta garbaya. Jauna'k entzungo ditu bere otoyak. Besartean artzeko, esku-zabalik dogu gure Aita ona. Guk baño gogo biziagoa dauko gure Aita'k gu beraganatzeko.

ESKAR LAGUNTZALEA

—*Zer dira eskar laguntzaleak?*

—*Gaiztakeria itxi ta ona egiteko, gustioi Jauna'k emoten dauskuzan laguntzaldiak dira eskar laguntzaleak.*

Bitara eragiten dauskue eskar laguntzaleak, gure adimena argituaz ta gure gogoari bultz-egijñaz. Adimena argitu, ona ta txarra — Jaungoikoa'ren naya betetzeko, ta zoriona jadesteko egin eta itxi bear doguna — garbiro ezagutzeko. Gizonak bere ezagueraz be ikasi legikez oneitarako egi batzuk, idazti onak irakuriaz, bere kautan gogalduaz edo Jaungoikoa'ren itza entzunaz. Baña alde aundia dago, egi oneik norberak ikastetik, Goteun edo Espiritu Santua'k erakustera. Sañi-askotan bide biok alkar joten dabe. Egi oneik gogo onaz ikasten diñarduanari, Goteuna'k lagun dagitso. ¿Ez al yatzu iñoiz jazo, bein eta beñiz egi oneik irakurri edo entzun, eta otz-otz gelditu; ta urango, otoz-otoan, lenengoz irakurri edo entzungo ba'zenduz legez, argiro dakutzuzala? Goi argi ori dozu ba Goteuna'k bialtzen dautzun eskar laguntzalea.

Adimena argituaz gañera, eskar laguntzaleak gogoa be samurtu, igitu, kiñatu, bizkortu ta sendotu daroa, siñesmenak erakusten dauskuna egitzat euki, ona egin, bide zuzenari jaraitu, gaiztakeria itxi ta bide okefetik alde egiteko. On egiteko poz ta gogo zintzuori, Goteuna'ren eskaña dozu. Atsegin samurkoya ta gogo ona eztira beti batera ibiltan. Biotza espala baizen iger edo kedaña baizen latz izanañen, Jaungoikoa'ren naitara jarteko gogo bizkoña izan geinke.

Eskar laguntzaleak, bai adimena argitu, bai gogo bizkortu egiten dauzala, Idazti Deuna'k darakuskue: *Zuen alde eskar-egiten diñardut beti, Jesukristo gure Jauna'ren Jaungoiko Aita aintzatsuak... zuen biotz-begiak argitu ta aren dei-itxarokizuna zein dan jakin dagizuen* (EPHES. I, 16-18). *Argitu nire begiak, eriotz lozoroan loak artu ez nagian.* (Ps. 12, 4). *Adikuntza emoidazu ta zure legea aztertu, ta biotz-biotzez jabongo dot.* (Ps. 118, 34). Adimen argiari datxakoz otoi eskariok.

Ona emen gogo igikunari yagokozanak. *¡Zure itzak bai gozo yakozala nire estañari! estia ta esti-abea baño gozoago nire agoari.* (Ps. 118, 103). *Zure lege bidez atxintxika ibili nintzan, nire biotza zabaldu zenduanean.* (Ps. 32). *Ezin iñor Nireganatu leiteke, Ni bialdu ninduan Aita'k ezpadakar.* (JOAN, VI, 44). Itz onei buruz, txukunki diñardu Agustin deunak: «Ekarten baldin ba'nabe, zelan gogoz siñestu daiket? Nik diñot: gogoz, gitxi da, baita atsegiñez be bainakare. ¿Zer ete da atsegiñez erakartea? Jauna'gan poztu ta zure biotz-eskariak damoketzuz. Baida zerutar ogi a atsegin yakon biotz-poza. Olerkariak (VIRG. ECL. 2, 64), ba, esan al izan ba eban: *bakotxa bere atsegiñak dakar*; ez beañak, atsegiñak baño; ez bearkunak, gozotasunak baño; ez ete geinke guk obeto esan, egiaz, ta zoriontasunaz, ta zuzentasunaz, ta betiko bizitzaz atsegintzen dan gizona, Kristo'gana erakafia dala, ori gusti ori da, ba, Kristo? Ala gorputz-asmenak euren atsegiñak izan-eta gogoak ez ete dau atsegiñik izango? *Nire Aita'ri entzun eta ikasi dautson oro, Nigana dator.* Ikusi, ba, zelan ekañi oi dauan Aita'k, irakatsiaz poztu egiten dau, ez bearkunaz lotu». (IN JOAN. EVANG.) Agustin deunak darabilan poz-atsegin au, gogoaren

poza da, baruko gentza, Espiritu Deuna'k zintzoen biotzetan ixuri daroan bizkortasuna. Deun izatera eldu nai dauanak, zintzoro jaraitu begiz Goteunaren kiñakadok.

—*Eskar laguntzale ori bearezkoa ete da?*

—*Eskar laguntzalea bearezkoa da: bera barik ezin geinke, ez asi, ez jaraitu, ez amaitu zerurako ona danik ezertxo be.*

Zerurako egin eban Jaungoikoa'k gizona; zeruan Jauna ikusi ta maite izanaz beti-betiko atsegiñetan bizi izateko. Zerua jadesteko, gizonaren egintzak be goitarak izan bear dabe, zerutarak, gizonaren izakizunez gañetikoak. Ezin leike baña gizonak, bere alez ta indarez, zerutar egintzarik ez asi, ez jaraitu, ez amaitu. Beraz goitarki jardunteko, zerutar egintzak asi, jaraitu ta amaituteko, nai-ta-ez, bear dau eskar laguntzalea. *Ni matsondo jatorra naz, ta nire Aita nekazaria da... Matsondoan iraun ezik, ayenak, berez, alerik ezin ekari daiken legez, ezta zuek be, Ni'gan iraun ezik. Neu naz mats-orpoa; zuek mats ayenak. Ni'gan dirauanak eta Neuk arengan, ale ugari dakarke. Ni barik, ezertxo be ezin zengikie-ta. (JOAN, XV, 1, 5). Mats-ayenak, garaunak ernetzeko zumu, indar ta ura, orpotik artzen dauzan legez, gizonak bere, egite zerutarretan iñardunteko indara Kristo, mats-orpo benetakoagandik artu daroa. Ta mats-ayena, berez, orpotik aldenduta, ez bizi, ez asi, ez alerik ekarteko gauz ez-tan legez, ezta gizona bere, ezta gauza, berez, Kristo'ren indar barik, zerurako ezertxo ez asi, ez jaraitu, ez amaituteko. «Norbaitek uste ez egian aletxo batzuk*

beintzat ekañi al legikeazala, berez, mats - ayenak: *Onak bai alorta ugari dakarke, esan ebanean, eztiño: Ni barik gitxi al zengikie, ezertxo be ezin zengikie, baño. Ez gitxi ta ez asko, ezin leike ba, ezertxo be ezin leiken A barik, egin».* (AGUSTIN D., IN JOAN. EVANG.) *Iñortxo be ezin Nire'ganatu leiteke, neure Aita'k eskar ori emoten ezpadautso.* (JOAN, VI, 66). *Iñork ezin leike «Jesus Jauna» esan, Espiritu Deunaren indaréz izan ezik.* (I, KORINT. XII, 3). *Geu geurez zerbait asmatzeko be gai ezkara, gaitasun ori Jaungoikoa'gandik datorkigu.* (II, KORINT. 111, 5). Kristo'gandik datorkigu ba, zerutar arazoak gogoratu, aintzat artu, asi, jañaitu ta amaituteko bear dogun goi-indaña. Gizonok ezin geinke geurenez, ez orain, jatorizko obenez zaurituta gagozala, ezta jatorizko oben auretik bere, zerurako on danik ezertxo be egin. Gure indar ta al izatez goitikoak dira egintza oñeik. Baña eskar laguntzalez bai; eskar laguntzalez jatoriko obenak egindako zauriak osatu doaz; eta oben oñez, batez be, gure gogoan sortutako aulkeria sendotzen yaku, ta gizonok goitartuta gelditzen gara, eskar indaréz gure egintza on gustiak zerutar dirala.

—*Ta gizon gustiai emoten ete dautse Jauna'k bere eskaña?*

—*Bai, gizon gustiai emoten dautse Jauna'k bere eskaña.*

Baña gizona buruaren jabe da, bere eskuetan dauko, Jauna'ren deya entzun edo ez entzutea; Goteunaren eraikunari jañaitu edo ez jañaitzea.

Galdua zana gaizkatzeko edo salbatzeko etori

zan Giza-Semea. (MAT. XVIII, 11). Galdu zanaren bila, gaizkatzeko, etoñi izan da Giza-Semia. (LUK. XIX, 10). Gu gustiok bidekatu giñan ardi galdua legez, ta bakotxa bere bidetik joyan, eta gu gusion gaiztakeria aren lepoan ipiñi eban Jauna'k. (ISAI. LIII, 6). Gustiok galdu giñan legez, gusion bila etoñi be egin zan Jesukristo. Sakabanatuta dabilan artaldea legez, bakotxa bere bidetik genbiltzan, baña oro okefeko bidetik, oro kutsututa, oro galduta. Zerutik jatxi zan gure Artzain ona; gusion zoñak bere lepoan artu ebazan; gusion kutsu ta sorna bere odolaz garbitu euskun; gustioi dei egiten dausku; gustioi joten dausku bere txistu zolia; gustiok erakañi nai gaitu bere bañutira, gustiok bere eskortara. Jañaitu nai estautsonak, bere eñu izango dau. Osalaria gure zauriak sendatzera etoñi da; norbaitek osatu nai ezpadau, ezta osalariaren eñuz izango.

Gizon oro zeruratu ta egia ezagutzera eldu daitezala nai dau Jaungoikoa'k. Benetan nai be. Ta zerua irabazi ta egia ezagutzeko bear dabezan eskar ta laguntzak gizon gustiai damotsez. *Jaungoiko bat da, ba; ta Jaungoiko ta gizon artean bitarteko bat; Kristo Jesus, Jaungoiko-gizona.* (I, TIMOT. 11, 4). Jesukristo da Jaungoiko ta gizonen arteko bitartekoa. Jesukristo'k egin ebazan Jaungoiko ta gizon arteko bakeak; bioen artean obenak jañitako esia uratu; gizonak Jaungoikoa'ri eutson zoña ordaindu; gizonak egia ezagutu ta bide onari jañaitzeko bear dauzan eskar ugariak irabazi. Gizon oro bere odolaz erosi gauzan legez, gizon oroi damoskuz Jesus'ek zintzo izateko bear doguzan eskarak. Eskar onei erantzun edo ez erantzutean dago gure betiko osasuna. Ta ori geure eskuetan daukagu. *Zuek, buru gogoñok, ¡Zuek beti jarki egin zayakoze*

Espiritu deunari. (Act. VII, 51). Auxe gogorkeri au izan zan Jesus'en Biotza bizien mindu ebana bere eritarakazko artu-emonetan. *Loditurik dago ba eri onen biotza; belari goiak eta begi itxuak ditu, belariz entzuteke, ta begiz ikusteke, ta biotzez ulertzeke, biurtu ez dedin ta sendotu ez dagidan.* (MAT. XIII, 15).

Osagilea zuia izanaeren, gexoak osakairik artu gura ezpadau, sendatzerik eztago. «Zu barik sortu zinduzanak, etzaitu zu barik gaizkatuko», diño Agustin deunak. *Jaungoikua'ren eskañez naz nazana*, iñon Paul deunak, *baña eskar ori etzan nigan alpeñikoa izan.* Eta Kristo'ren alde, siñesmena zabaltzeko erabili ebazan neke loiak edestu ondoren, diño: *Ori gusti ori eneban nik egin, Jaungoikoa'ren eskañak nigan baño.* Bemoskuz Jauna'k, bere argia ikusteko begi zoliak: bere deya entzuteko belari azkañak; bere naitara jarteko biotz samuía ta Goteuna'ren eraikunai azkeneraño zintzoro jañaitzeko gogo sendoa.

* * *

Goi-eskar beaña ta norberen alegiñetik Goteuna'ren egikunetara dagon alde, obendia izan eta deun izatera eldu dan edozeñen biurkeran, batez bere Agustin deunaren biurkeran, argiro ta eskuz ikututa letxe ikusten da; baña bari samaña ta egi-egia dalako, urango jazokun au damingu.

Voz de Fatima deritxon ilerokotik artuta dago.

«¡Siñezbakoa nintzan! ¡Bekaitzez ikusten neban Eleizea! Iguiñez igaroten nintzan jaupari ondotik. ¡O neure Jaungoikoa; deunai buruz jardutea bai izaten yatala mingotz! Umetatik ogetabost urteraño olantxe bizi izan

nintzan, eta gaur bere galbide ofetatik nenbilke, Jaungoikoa'k bestaldera eragin ezpalost. 1926-gaŕen urtean, espetxean nintzala, be, Eleiz Orokoa gofoto neban. 1928-gaŕenean, Lisboa'ko espetxe baten nintzala, norbaitzuen ikertaldia izan neban. Gero jakin dot Paul'tar Bingen deunaren Bazkunakoak zirala. Nire ezbeaŕa eroateko itz edeŕik asko esan eustezan, eta entzun be bai, espetxean nengola-ta nire ileta ta asaŕea. Baŕu-baŕuraño sartu yatazan arein onu ta irakatsi estitsuak, eta asmo txararak erabili-ta be, nire gogoa zerbait aldatzen asi zala igarŕi neban; eta neure burua aztertu, ta kistar areik itxi eustazan idazti batzuk irakurten asi nintzan.

1928-gaŕen urteko dagonilaren gau bat oso artega igaro neban. Goizeko laurak ziran. Argia ixotu ta Kristiñau Ikasbidea artu neban. «Aita Gurea», «Siñezkintza» ta «Agur Eŕegiña» irakuŕi nebazan. Irakurte onek kez-kaz nastuta laga nindun. Ofaitiño Ikasbide osoa, azke-neraño irakuŕi ta polito-polito ausnartzen niarduala, biotza zabaldu ta begiak negar-malkoz bete yatazan. Otoi ta negaŕez, Jaungoikoa'ri sendotasuna ta eroapena eskatu neutsozan. Nire eskaria entzun eban Jauna'k, aŕezkero ba otoi nengian, eta eskuetara etorkidazan idaztiñoak azkuz irakuŕi ta gabak askoz artetsuago igaroten nebazan.

Uŕengo igandian, jaun berberai eskatu neutsen, ekarteko, aŕen *agurtza* edo eŕosario bat, eta autortu gura nebala. Ezin nengike itzez adirazi, autortu ondoren nire biotz baŕuan somau neban poza. «Gizon» izatera eldu nintzan. Ordurartean, ba, Jaungoikoa'gazko ta gure geideakazko egin beaŕak ezekiazan «gizaki eŕukaŕia» baño enintzan.

1929-ko epailan, espetxetik urteteko ile bi peitu nebazala, baŕiro artegatzen asi nintzan; diru - nekea

neban ba lepoan, eta neke ori dirutan ordaindu ezik, beste bederatzi ilebeterako, espetxeratu egin bear. Nora jo, eneban. Senideak be eninduen aintzakotzat artzen. Emaztea bakañik lagun, baña onek ezer ezin egin. Oñaitiño Jaungoikoa'gana jaso neban biotza; Fatima'ko Agurtzadun Ama, eskar gustien bitartekoa, aintzat artu ta neure guraria eskatzen asi nintzan. 1929-ko joñailan jakin neban, Jauna'k bete ebazala nire asmoak. Oñilaren 4-an Paul'tar Bingen deunaren Bazkunako lendakariaren idazkazala eldu yatan esaten, oñila - 1-ean ordaindu ebala nire diru-nekea. ¿Nok adirazi nire poza? Fatima'ko Agurtzadun Ama'ren domiñatxo bat neban idunean; pozaren-pozez negaía neriola asi nintzan mosuka ta esker egiten, Berau izan da, ba, espetxetik atera ta azkatasuna emon daustana.

Enintzan egundo eleizan izan, ezta jaupaldian be, ta Jauna'ri ta Fatima'ko Ama'ri agindu neutsen, espetxetik urtendakoan, eurontzako izango zala nire lenengo ikertaldia.

Oñilaren 26-an urten nintzan espetxetik, eta zuzen-zuzen joan nintzan Pedreira'ko Sebasten deunaren txadonara; autortu, jaunartu ta jaupaldian izan nintzan Jauna'ri ta Fatima'ko Ama'ri esker ona erakusteko. Orain, neure sendiaz bizi naz, iñoren bildur bage, bide onari jañaitzeko asmoz. Gizon zindoak aintzat artuko nabenen uste osoa Jaungoikoa'gan eta Andra Maria'gan daukat. Jauna'ren babespean eta etorkizun zoriontsuaren ustez bizi naz. Amaitu baño len, eskeñik beroenak Fatima'ko Agurtzadun Ama'ri; gogoz dagit otoi bere laguntza eskatzen dabenen alde, baita espetxean nire lagun izan ziranak, bide onera biurtu daitezcan bere.

Bereiro'n, 1929-ko oñilaren 31-ean.

JOSE DO CARMO VERISSIMO».



III IKASKIZUNA

BATEOA - UGUTZA

Zertarako ipiñia. — Ikurton ete? — Noiz ipiñia. — Zer bear. — Ur utsa ¿zein ete? — Itzak. — Zelan ezafi ura? — Nora ixuri. — Ugutzaria. — Nok artu daike ugutza? — Noiz eroan umeak ugutza artzeko. — Ezagueradun diranen ugutza. — Izena. — Ugutza beafa. — Aita-ama-bitxi. — Nortzuk izan daikezan. — Ugutz ondorenak. — Jayotz bafia. — Jatofizko obena kendu. — Beste edozein oben. — Oben nekea. — Eskar edo grazia. — Atz donea. — Ugutzatuaren egin beafak. — Ugutzera.

—Zertarako ipiñia ete da Bateoa?

—Jatofizko obena ta bateoa artzera datoñenak euki daiken beste edozein kentzeko, ipiñia da Ugutza.

Bateoa gerkerazko itza da; ta *garbitu*, *irukurtzi* esan gura dau. Siñesgeak, eta Israel'dańak bere bai, garbitze asko erabili oi ebezan, eta garbitze onei, soñeko loyak ez eze, gogoak be zelanbait kentzeko indańa emoten eutsen. Urez garbitzeak, berez, ořetarako in-

dañik eztaukana, gauza jakiña da. Ugutzak, jatorizko oben ta ugutza artzera datofenak izan daiken beste edozein kentzeko indaia dauka; ez berez, Jesukristo gure Jauna'k emoniko indaiez baño. Uraz ta itzez gogoa (arimea) garbitu ta bañiro jayoazoten gauzan ikurtona da ba Ugutza.

Bañiro jayo, lenengoz Jaungoikoa'ren asarepean jayo giñan; eskar bizitzara, ugutzaz jayoten gara. Giza-bizitzari, bizitza baño eriotza zuzenago deritxoke; gurasoak, ba, soferan bertan, gizabizitzaz batera, gogoreriotza emoten dauskue. Jaungoikoa'gazko ilda sortu, ta ilda jayoten gara. Bizitz bañiaren asiera, ugutzan emoten yaku. Eskar bizitza, ugutzaz asten da.

—*Ikurton ete da Ugutza?*

—*Ikurton izateko bear dan oro dago ugutzan.*

Ikuña ta ikur edo ezaugañi agiria alan be; *uraz garbitzea*.

Ikur ona ta egikoña, goi-eskaña adirazi ta eskañik lenena emon be egiten dauskuna. Jesukristo'k ipiña. Ikurtonetatik lenena ta enparauak artzeco nai-ta-naiezkoa. Auxe dala-ta, Ugutzari Eleizako atea deritxo. Ugutzaz lenengoz Eleizan sartzen gara.

—*Noz ipiñi ete eban Jesukristo'k Ugutza?*

—*Ugutza Jesukristo'k ipiñi ebala, siñestu beaño-koa da.*

Bene-benetan dirautzut urez ta Goteunez bañiro jayoten eztanik, eztala Jaungoikoa'ren bakaleñian sartuko, iñotson Jesus'ek Nikodemo'i (JOAN, III, 5). Ta ikasleak ludiz zier bialdu ebazanean, agindu eutsen:

Irakatsi gustiai, ta ugutzau Aitea'ren eta Semea'ren eta Goteuna'ren izenez (MAT., XXVIII, 19).

Noz ipiñi ete eban, ezta oñen agiria. Eretxi asko dira. Batzuk, berpiztu ta igokunde bitartean ipiñi ebala, uste dabe. Nekauste aúetik, bestebatzuk. Aburu onek egiantz geyago daukala dirudi. Ikasleak, Jesukristo bizi zala, emoten eben ugutza. Jesukristo'ren ikaslak ugutza emoten ebela-ta, Jon deunarenak asaíe ziran, eta espaz eldu yakozan Ugutzariari. Beraz, aldi atan, ipiñita eban Jesukristo'k ugutza. Ganera, Belduak Nekauste aúetik jaunartu eben; baita jaupari be, nekaldi aúetik egin ebazan: ugutzauta izango ziran ba ordurako, ugutza, beste ikurtonok artzeko ataria da-ta.

Jordan ibayan, Jon deunak ugutzau ebanean, jañi ebala Jesukristo'k ugutza, uste dabe geyenak. *Ura onetsi ta deundasuna zabaltzeko indaía urari emote-a'ren, nai izan eban Jesukristo'k, Jordan ibayan, ugutzau (NAZIANZ.'TAR GERG.).*

—*Bateoa egiteko ¿zer bear ete da?*

—*Ugutza egiteko GEYA ta ITZAK bear dira.*

Geya ur utsa da. Edozein ur da on. Baña estualdian izan ezik, ur garbia ta Larunbata Gurenez onetsi ta *Krismaz* nastaua erabili bear da. Itzak oneixek dira: *Nik bateatzen zaitut Aitea'ren eta Semea'ren eta Goteuna'ren izenez.*

Ura ta itzak, biak dira bear-beaíak. «Urari itzak ezañi ta ugutza dagi»; diño Agustin deunak ospetsu egin dan esakun oñetan. «Ura ezarten yako ugutzatzen danari—dirau Gergori Guraso Deunak—ta uragaz seiñari gorputza garbitzen yakonean, Gogo Deunak garbituten dautsa arimea obenetatik». «Gauza bat da ikurton-ura

ta beste bat Goteuna'ren ura. Ikurton-ura, ikusten dana da. Espiritu Santuaren ura ikusten ezтана. Ikurton-urak, gorputza garbitu ta gogoa garbituten dana adirazi daroa. Ta Goteuna'ren eskañak arimea garbitu». (ISIDRO, ORIG. I, 7, c, 3, IKASIKIZ. III, 37 oñi). *Uragaz garbitu ebala Jesukristo'k Eleizea*, diñosku Paul deunak. *Obenaren izurtura ta loi bagarik, oso Deuna, edeña, garbia ta goi-eskañez apaindua erakusteko* (EPHES, V). Uragaz bateatzean emoten dautso Goteuna'k arimeari eskar-jantzi garbi, eder au. Orduan geratuten da kistar bañiaren gogoa obenaren kutsu ta zeta bagarik, iluntasun eta baltzune bagarik, goi-eskañez zurituta, loratuta, argituta, deun eginda. Ta Jesukristo'k Eleiz osoa uragaz garbitu ebala dirausku Belduak.

—*Ur utsa ¿zein ete da?*

—*Itxaso, ibai, ituñi, oxin, edur, ixotz edo txingor ta leikañaldo urtua.*

Oneik ur utsa dira, beste gauzagaz nastau barik dagoan ura. Baita luñun, edo ormai ta oñi ta orbelai darioen ura ta miatz añtik ateraten dana be. *Urtzat* eztira artzen, eta, beraz, ugutza-gei eztira, igali, lili, bedar ta suster zumua; ezta izerdi, txistu, malko, akeita, te ta garardoa be. *Badezpadakoak*, ta beraz, bear-izan lañian izan ezik, erabili ezin daikezanak, salda garbi, lexi, garardome, gatsurtu, ta mats ta beste landara batzuetatik deratoñen zumua.

—*Ta itzak ¿zelan erabili bear ete dira?*

—*Jesukristo gure Jauna'k erakutsi euskunez.*

Ez geitu, ez gitxitu, ez nastu, ez birindu, ez beste

iñarkun edo aitu-emote batera ekañita. Itzez adirazi bear da ugutzaria: *NIK bateatzen..... Ugutzatua edo ugutza artzen dauana:..... bateatzen zaitut.....* Iru notin edo lagunak:... *Aitea'ren eta Semea'ren eta Goteuna'ren...* Ezin leike ba notin bitarteko *eta* uldu. Iru notiñen Jaungoikobatasuna:..... *izenez. Ugutzau edo bateatzen zaitu'en* ordez, *garbitzen zaitut* edo ofen ideko beste aditz bat erabili leike. Obe da baña *ugutzau* edo *bateatu* erabili. Esakera edo oguzkera okeñak, ikurpena aldatu ezik, adibidez *Aitea'ren* esan beañean, *Aitea'gen..... izenean* esateak, edo itzok jañaikiro esan beañean, estulez edo jardunez (esaterako «*Nik ugutzauten zaitut... ¡buru ori..!*») zelanbait eten-da, oguzteak, eztau ugutza galdu-azoten.

—*Zelan ezafi ura?*

—*Ura ezarteko iru era dira: Ura ixuri; uretan sartu; uraz busti.*

Lenengo gizaldietan, XIV eunkirarte, uretan sartuaz ugutzauten zan. Jaupariak (abadeak) eta aita-bitxik, edo, emakumea bazan ama-bitxik, eskutik oratuta oxinera, pontara, erazten eben. Sartu ta atera iru bider egiten eben, bitartean jaupariak Jesukristo'k agindutako itzak esaten ebazala. Iru sartu-ateratze oneik Irutasun deuna adirazi ta Jesukristo'ren obiratze ta irugañen eguneko piztueraren irudi ziran. Baita, ugutzan, gizon zaña bere gizakeriakaz obiratu, ta gizon baña, Jesukristo'ren antzekoa, sortu ta piztuten zala be esan gura eben.

Uraz bustita nekez ugutzau oi izan da. Gizataldea batera ugutzau bear zanean edo, Kepa deunaren itzez iru mile kistar egin ziranean, onela ugutzauko ebazan

ausaz. Gaur, bear-izan lañian izan ezik, ezin leike oñela ugutzau.

XV-gařen eunkitik ura ixurita ugutzau izan da. Ta, ziñez, umeak ugutzatzeko batez be, erarik erosoena ta adiñonena auxe da. Iru erak erabili leikez; baña ona emen Eleiz-arautegiak diñona: *Ura ixurita, edo uretan sartuta, edo uraz bustita ugutzau ledikenafen, lenengo edo bigařen era, edo bion nastekoa erabili bear da.....* (KAN. 753).

—*Zelan eta nora ura ixuri?*

—*Garbitzea izateko lain eta eraz ixuri bear da ura.*

Beraz urak umeari ikutu ta *ixuri*, zifizt egin bear. Norberen atza uretan busti ta bekokian igortzitako ugutza, badezpadakoa da; bigařenez ugutzau beařa izango leuke, lenengoa on ezpazan baldiñaz. Ura, burutik bera ixuri bear da; beste soin ataletan, besoan, oñean, bulařean ura ixuriaz egindako ugutza badezpadakoa da; bañiro ugutzau bear, baldin lenengoa on ezpazan esanaz. Ura ezarten yakonean, esan bear dira itzak be. Ura ezaři ta itzak esateak, biak bat egiteko eraz. Ez lenago, ez geroago. Ura ezaři ta itzak esan, norberak egin bear ditu. Badira, oñaitiño estutasunean, batek ura ezaři ta besteak itzak esanařen, ugutza ona dala uste dabentak (AREGI, SUM. THEOL. MOR. 517).

—*Nor da ugutzari?*

—*Berenez, jauparia (abadea) da ugutzari.*

Ugutzatzeko eskubidea, txanburuari (pařokoari) edo beronen ordezkoari yagoko.

Estualdian, bere senean dagon edozein gizaseme

naiz emakumek ugutzau daike. Ugutza ziñerazteko, ziñaldari (testigu) bi edo bat, al danez, artu. Estualdian be, jaupari ta eleizgizonak, eztiranak baño len dira; gizasemea emakumea baño lenago; ta beste edozein, gurasoak baño len. Baleiteke nozbait, edo garbiago ta eratzuago dalako, edo obeto dakialako, emakumeak gizasemeak baño egokiago ugutzatzea. Gurasoak besterik ezean baño ezin ugutzau daikie. Jatofizko obena kendu ta seintxoak zerurako bidean jarteko, ugutza bear-bearekoa dan ezkerro, ta ugutzerro, bateatzea, oren eñaza, ta jayo-pañien ilteko zoria ain uñekoa, kistar orok gaste-gastetxotatik ikasi bear genduke ugutza emoten. Jaungoikoa'k bere ondasun eta eñuki-ateak zabaldu ta edozeiñen eskuetan itxi daroa jayopañien betiko zoriona. ¿Zer, ura baño gauza ugariagorik? ¿Zer, *Aitea'ren*..... jakitea baño gauza eñazagorik? ¿Zer, ura eñazi ta ugutzauteko asmoz, itz oñein esatea baño eskuagorik? ¿Zer, ume jayopañiaren bizitza baño gauza aulagorik? Edonork, bā, ta edonun, estualdian, ura eñaziaz batera, ugutzauteko asmoz itzak esanaz, umetxu oren arimea betiko gaizkatu leike; gotzonen lagunkide dala, betiko atsegiñez, Jaungoikoa aintzatzera bialdu leike. ¿Ez al da emen ageri Jauna'ren eñukia ta gure gogoak beraganatzeko dauan eñafia?

—*Nok artu daike ugutza?*

—*Bizi dan edozein gizasemek artu daike ugutza, lendik ugutzauta izan ezik.*

Gai oni buruz, Eleiz-arau batzuk, jakingañi dira-ta, ementxe ipinten doguz:

LENENGOA. Amaren sabel bañuan, urteteko erea dagoneraño, ezin iñor ugutzau ledike. Ta norbait oñela

ugutzauko ba'litz, ba'iro baldiñez «baldin lengoa on ezpazan» ugutza artu bea'ra izango leuke (KAN. 746).

BIGARENA. Seiñak burua agertuko ba'leu, eriotz a'iskoan, buruan ugutzau bedi; ta o'ela ugutzauak, bizia'en, eleuke ba'iro ugutza artu bea'rik izango. Beste edozein soin-atal agertuko ba'leu, esaterako o'ña edo eskua, eriotz zorian, atal o'etan baldiñez ugutzau bedi. Ta gero, biziko ba'litz, ba'iro be baldiñez be'rugutzau.

IRUGARENA. Mugaitz jayoa (aldia ba'ño len jayoa) bizi ba'da, ugutzau; ta bizi ete dan ala ez, badezpadan, baldiñez ugutzau bedi. Oneitariko gustiak, egun gitxi-takoak izanda be, ustel-ustel eginda agertu ezik, baldiñez ugutzau bear dira. Gaur, ba, jakintsu gustiak uste dabe, sortu baizen laster edo gorputz ernea gai ja'ri baizen laster, ezarten dautsola Jauna'k gogo edo arimea gorputzari.

—*Noiz eroan bear dira umeak Eleizara bateatzeko?*

—*Albait laste'en eroan bear dira umeak Eleizara ugutzauteko.*

Judata'ak zortziga'en egunean bilebaiten ebezan euren umeak. Lege Za'ra gure Legearen irudi zan. Areago eroan bear gendukez ba guk geure umeok ugutzautera, bilebaite ondoan ugutzaren onaurki, onura edo ondorenak askoz bika'ñago ta ugariago diralako. Ga'nera, len esan dogunez, seintxoak ilteko a'isku geyago dabe. Atara, ba, agudo ume jayopa'niok gogaiz-toaren mende ta Jaungoikoa'ren asa'repetik, eta ugutza bidez Goikoa'ren seme ta adiskide egin.

—*Zelan artu bear ete dabe ugutza ezagueradun diranak?*

—*Ezagueradun diranak iru gauza bear dabez ugutza ondo artzeko.*

a) Dagiēna ziñez jakin:

b) Olde osoz nai izan.

z) Kristiñau-ikasbidea zietz ikasi-ta euki. Ta oben astunik ba'lebe, ugutza artu au'etik, bildur damuz beintzat, damutu.

Ezagueraduna eriotzaldian aurkituko ba'litz, ta siñeskairik nagosienak zietzago erakusteko astirik edo erarik izan ez, ugutza artzeko, siñeskayok egitzat daukazala zelanbait adirazi ta Jesukristo'ren Legeari jañaitzeko gertu dagoala benetan agintzea, naiko izango litzake. Ugutza, eskatu be ezin ba'legike, len edo orain bateoa artzeko asmo izpirik agertu ezker, *baldiñez* ugutzau bedi; osatuko ba'litz, lengo ugutza badezpada-koa da-ta, bañiro *baldiñez* ugutzau bear.

Bai jauparia ta bai ugutza artzeko dagon ezaguera-duna barau izatea, egoki da. Ta bein-beiñeko eragoz-penen bat izan ezik, ugutzaua berialaxe jaupaldi edo mezatera eldu ta Jaunartu begi.

—*Ugutzauai izena ipiñi bear ete yake ta zergaitik?*

—*Bai, ugutzauai izena ezari biar yake.*

«Ugutzauai kistar-izena ipinteko alegindu beitez txauburuak; au lortu ezin ba'legikie, bañiz, gurasoak ipiñitako izenari Deun baten izena ezari begikioe, ta izen biok idatzi Ugutzauen idaztian». (Orixe diño Eleiz-arautegiak KAN. 761-ikusi ugutzari yakozan enparau arauak be, askotxo itzez-itz artu doguz-ta). Gurasoai yagoke ba izena aukeratzeko eskubidea. Ta gurasoak deun-izena ipiñi bear dautsoe umeari. Onela umea Deun

ofen babes ta ardurapean jarten da ta Deun ori eredu ta jañaipidetzat emoten yako seintxoari. Norberen izeneko deunaren oitura, ekandun eta onoinenak jañaitzeko lotuta gagoz. *Alexander* eritxon gudari bat oso koldar ta bildurtia ei zan. ALEXANDER NAGOSIAK beiñola esan ei eutson: «Mutil, edo izena edo izana aldatu egik». Berebat esan legiskue guri be geure izeneko Deunak, baldin euren antzekoak izaten ezpagara; edo izena edo izana aldatu. Geure izeneko deunari eraspén berezia izan bear dautsogu, ta egunero bere kerizpean jañi.

—*Ugutza bagarik ez ete leiteke iñor zeruan sartu?*

—*Ez, ugutzau bagarik ezin leiteke iñortxo bere, zeruan sartu.*

Baña oartu egikezu, ugutza iru eratakoa izan daitekela: *urezko ugutza, odolezkoa ta naizko edo goimaitasun-ugutza*. Azkenengo biok, odolezko ta naizkoa, urezko ugutzaren ordeko dira. Ta Akino'ta'ak diñonez irurok batera jotén dabe (SUM. 3 p. q. 66. a XI). Ugutzari ba, Jesukristo'ren nekaustetik, Goteun edo Espiritu Santua'ren egitez datorkio jatorizko obena ta beste enparauak kentzeko inda'ra. Ta Goteuna'k eskar ta indar ori emon daroatsoz, bai Kristo'ren alde odola ixuriten daunari, baita maite-damuz Jaungoikoa'gana biurtzen danari be.

Jesukristo autortu ta siñesmena ez ukatzearen bizitza emoten dabenak, odolezko ugutzaz garbitzen dira. Ugutzau artu eben, Erodes'ek, Kristo'ren go'otoz, erail ebazan umeak. Emerentziane, Pilemon eta Alexandri'tar Katarine ziñopa deunak be, odolez ugutzauta il ziran.

Naizko ugutza artzen dabe, *urezko ugutza* artzeko gogo osoa ta nai egiazkoa izan, baña artzeko erarik

iñundik-iñora be izan ez, ta maite-damuz garbatuta ilten diranak. Siñesmena, Jaungoikoa'gazko maitasuna ta egindako obenen damua bear dabe, ba, urezko ugutzaren ordez naizko ugutzaz, parkamena jadetsi ta zeruan sartzeko. Kipiren eta Agustin deunen eretxiz, onela gaizkatu zan Jesus'en alboan il zan lapur ona.

—*Zer dira aita-ama-bitxi?*

—*Umea besoetan artzen dabenai deritxoe aita-ama-bitxi.*

Umearen guraso ordezeko lez dira, ta gurasoak ume-gorputzagazko dituen egin beařak dabez seintxoengogoetzaz. Umeak azi, sendotu ta bizibidean jarteko arazoa gurasoai yagoken legez, besoetako kistarki azi, mendu ta bide onean jarteko egikizuna leporatzen dabe aita-ama-bitxiak. Egikizun bikain au gurasoak betetan daben tokietan, aita-ama-bitxiak ezer egin beařik ez-tabe; baña edo gurasoak il, edo zabařak eta itxiak diranean, guraso ordezeko aita-ama-bitxi dira, ta arein semiekazko utsunea eurok ornitu bear dabe. Aita-ama-bitxi, bat edo, geyenez, bi, izan leitekez.

—*Zer bear da aita-ama-bitxi izan al izateko?*

—*Aita-ama-bitxi al izateko bear dira:*

a) Ugutzauta egon, ezagueradun izan, eta arazo au ondo betetako asmoa euki;

b) Ugutza artu bear daunaren aita, edo ama, edo senar-emazte ez izan;

z) Aitak edo amak, edo oneik ezean, ugutzariak izentau;

- d) Ugutzaldian umea euki, ikutu edo pontatik jasokeran, besoetan artu;
- e) Amalaugarfen urtean sartua izan;
- g) Siñeskayak jakin; eta lekaide, lekaime edo jau-pari ez izan.

Beste *zer* batzuk be badira, baña ez oren jakin-bearekoak. Aita-ama-bitxi zintzo ta kistar benetakoak autesteko arduratu beitez gurasoak. Kistar ona eztanak ezelan kistarki azi ta mendu besoetan artuko seiña? Kistar zintzoak, bañiz, umea besoetan artzeko buruak gertau begiez, maitasun-egintzarik bikañenetarikoa da-ta.

Ugutza-bidez, aita-ama-bitxi edo ugutzalari ta ugutzau artean, gogozko senidetasuna sortzen da; ta aita-ama-bitxi edo ugutzalaria ta ugutzaua alkañegaz ezin ezkondu leitekez.

—*Zeintzuk dira ugutzaren ondorenak?*

—*Ugari ta bikain - bikañak dira ugutzaren ondorenak.*

Giza-gogo edo arimearen jayotz baña, birjayotza, da ugutza, ta birjayotz onetara joten dabe ondorengo gustiok. Jesukristo'ren bateoan iragañita dagoz ugutzaren ondorenak. Jesukristo, Jordan ibaiko uretan sartu zan: ortzi edo zeruak, Jauna uretan sartuaz batera, idigi egin ziran: Goteuna Jesus'en gain jatzi zan: Aita Goikoa'k ots egin eban: *Auxe da neure Seme maite-maitea.*

Ugutza, obenaren loi ta kutsuak garbitzen yakuz; zeruko atea zabaldu; Jaungoikoa'k bere Semetzat artu; Goteuna'k emaitzez ornitu; ta kistar eginda gelditzen gara. Banan-banan atzalduko doguz ugutzaren etekiñok.

JAYOTZ-BAÑIA. Gizon bikoitza daroagu guk aldean; bata gizon *zaña*, jatorizko oben eta enparau zeta ta griña txarraz, Adan'etik datořena; bestea, gizon *baña*, Kristo'ren gizona, ugutzan sortzen dana. Paul deunak, garbiro ta sakonki azaltzen dauskunez, Kristo il ta gero, obiratua izan zan legez, gure gizon *zañau* be, ugutzan il ta obian sartu-ta geratuten da; ta Kristo ilen artetik piztu zan legez, ugutzan be gizon *baña*, gizona izakerara bañiaz, Jaungoikoa'ren semetzako izakeraz, piztutzen da. Beraz eriotzan Kristo'ri estitu ta bere antzeko izan ba'gara, piztutzean be, bere antzeko izango gara... *Kristo'gaz il bagara, Kristo'gaz piztu be egingo gareala uste dogu.* (Rom. VI). Jatoriz, Adan'i gaxakozala sortzen gara; baña ugutzan, Adan'en jatorizko gizon ori ilda geratzen da; ta bere ordezt, Kristo'ri estitutakoa sortu. Beraz Kristo da ugutzatuen buru, ta Kristo'gandik datorkio zerutar bizitz baña. Egokiro deritxo ba ugutzari, *Lavacrum generationis*, bir-jayoteko garbitokia.

JATORIZKO OBENAREN PARKAMENA. Oben au Adan'egandik deratorkigu; beraz, Adan'egandik datořen gizon zar au, ugutzan ilda gelditzen danetik, jatorizko obena be osoro kenduta gelditzen da. Ta oben au kenduteko, batez bere, ipiñi eban Jesukristo'k ugutza.

BESTE EDOZEIN OBEN. Baita ugutza artzera datořenak euki daiken beste edozein oben be, parkatzen da ugutzan. Naaman, Siro'taña, Jordan ibayan sartuaz, legenařetik garbi-garbi geratu zan legez, ugutzan sartzen diranak be, oben oron legenařetik garbituta ateraten dira. Baña ezagueradunak osterantzeko oben astun edo ariñak be euki daikez. Oben gusti oneik azkesten yakez ba. Ta ofetarako autortu beařik be eztabe; garbatu, bai, bildur, damuz beintzat. Auxe siñesten dogu: *Au-*

tortzen dot obenak azkesteko ugutz bakaria esaten dogunean.

OBEN NEKEA. Ugutzan Jesukristo'ri josi ta estituten gayakoz. Ta Jesukristo'ren irabaziz, obena ez eze, obenari yagokon nekea be, osoro parkatuten yaku. Jayopafia letxe, garbi-garbi, ezetariko zeta, kutsu, eru ta orbanik bage geratuten gara. Ugutzau-baria ilgo ba'litz, zuzen-zuzen sartuko litzake zeruan, Paul deunak eta geroz Trento'ko Batzarak dirakaskuenez. Au zala-ta, lenengo gizaldietan, asko be askok eriotzaldirako lagatzen eben ugutz artzea.

ESKAR EDO GRAZIA EMON. Eskar au da arimearen bizitza. Eskar donetzalea, Jaungoikoa'ren seme, deun, zuzen, Jaungoikoa'ren adiskide ta zeruko jabegei egiten gauzan zerutar bizitza. Eskar-bizitz onetara ugutzaz sortzen gara. Ugutza da, ba, bizitz onetarako sarbidea ta bertan emoten yakun eskar edo grazia, lenengo eskaia. Enparau ikurtonak, eskar au geitu edo galdu ba'daigu, bario eskuratzeko dira.

Eskar donetzaleaz batera, baita Jaungoikoa'gazko iru ekandun edo onoimen, — siñesmena, itxaropena ta goi-maitasuna, — ta Goteuna'ren sasi emaitzak be emoten yakuz. Ta orez gañera, eskar laguntzalea, Jesukristo'ri jaraitu, bere aginduak bete, ziltzaldiak azpiratu, itz batez, ona egin eta okefik ez egiteko bear dogun laguntza. Umeak ume diran bitartean, ez onik, ez txafik ezin egin legikie, buru-jabe eztira-ta. Bana bear izatera eldu daitezenean, eskar ori, ugutzan sortutako eskubidez emongo yake.

ATZ DONEA. Ikurton batzuk, bein be ezin kendutako atz edo ezaugaria ezarten dabela, arestian esan dogu. Onetariko bat eta lenena, ugutza da. Ugutzan Atz Deuna ezarten yaku; ta atz ori etxaku egundo kendu-

ko ez bizitzan, ez eriotzan, ez eriotz ondorean; zeruan naiz gaiztokian, kistar gustiak agiri izango dabe; zeruan, poz ta aintzarako; gaiztokian oñaze ta lotsarirako. Augaitik, eurenez, kistar diranak eztiranak baño neke geyago izango dabe gaiztokian.

Atz doneak, Kristo'renak gareala, Kristo'ren artaldeko, Kristo'ren eleiztar, eskubide eta egin bear gustiakaz, adirazi daroa. Ta kendu eziña dalako, ugutza bein baño ezin artu leike.

—*Zer egitera beartzen da bateatua?*

—*Jesukristo'ren siñestean iraun eta bere legeko aginduak betetzera, beartzen da ugutzatua.*

Jaungoiko ta gizon arteko egiune edo itunbena da ugutza. Jaungoikoa'k, bere aldetik, bere ardurapean artzen gaitu; betiko zoriona, ta ara eltzeko, len aitatu doguzan eskar ta ondasun bikain - ugariak, agintzen dauskuz. Guk, geure aldetik, Jaungoikoa'k erakusten dauskuna siñestu ta bere aginduak zietz betetzeko itza emoten dogu. Senar-emazteak alkarregaz egiten dabenen antzeko itunbena da au; senar-emazteak, alkar maite izan eta bata bestearentzat bizi izateko itunduten dira. Baita Jaungoikoa ta ugutzatua be, ofetarakoxe itunduten dira, alkar maite izan eta bata bestearentzat bizi izateko. Egokiro diño, ba, Epren deunak: *Itzetik artuko zaitu Jauna'k, zure bizikereak ugutzan eskiñiari erantzuten ezpadeutso, EX VERBIS TUIS CONDEMNABERIS: itzetik galduta zagoz. Ta zure bizikerea Jaungoikozkoa, ta Jaungoikoa'ren aginduegaz bat egiña bada, EX VERBIS TUIS JUSTIFICABERIS, itzez donetsiko zaitu.* (DE ABREUNT, 6. IKASIK. III, ZAT. 71).

Umeak, euronez, ezer ezin agindu legikie; baña

umien ordez aita-ama-bitxiak egin oi dabe agintzau. Ofaitiño adikuntzaldira eltzen diranean, umeok ugutz-agintzak euren agoz ta gogoz bañiro egitea, oitura eder, onurakoía ta, gaur egunean, beañekoa be bada.

Baita Eleiza'ren irakatsietara jañi ta bere aginduak bete be egin bear ditu ugutzatuak. Edozein bazkide bazkunaren uste ta erakutsiak jañaitu ta bazkun-legeai eusteko beartua dago. Ugutzatua eleiztar da, Kristo'ren batzar onetako bazkide. Beraz Eleiza'ren uste ta erakutsiak egitzat euki, ta aren legeak zaintzeko, lotuta dago. Itxasontzian sartzen dana, ontziburuaren menbe jarten dan legez, zeruratzeko ontzi onetan sartzen dana be (ta ara eltzeko danok, nai ta ez, sartu bear) Eleiz-buru diranen menbean dago.

—*Zer istera beartzen da bateatua?*

—*Diabrua (gogaiztoa) ta bere andikeri ta egite okeñak istera beartzen da ugutzatua.*

Ugezaba biren otsein ezin izan geintekenez; bata maite dauanak, ba, bestea gofoto izango dau; ta bataren aginduak egiten dauazana, besteari etxako gogoan sartuko. (MAT. VI). Jaungoikoa'ren seme ta otsein, eta gogaiztoren mofoi ezin izan geintekenez. Edo Kristo'ren ikufinpean, edo gogaiztoaren mende. *Neure alde ez-tana, neure aurka da*, diñosku Jesukristo'k. (LUK. XI). Eztago bitarterik. Ugutzan emondako itza zaintzen ba'dogu, Jaungoikoa'ren aldeko gara. Baña ugutzaldian egindako eskeñak aztuta, aragiaren griña ta gurari txarai, gizarteko afokeri ta gogaiztoaren garamura ta zirikadai jañaitzen ba'dautsegu, txerenen aldeko. Aragi-keria, loikeria, nasaikeria, lizunkeria, etsaigoa, eztabidak, leiakeriak, asafea, bufukak, ikusi-eziñak.....

bekaizkeria, gizon-erailketak, ordikeria, jangalea ta enparau onein ideko edo-ta oneitarako bide diranak, dira aragi-egipenak. (GAL. V, 19). Egipenok izteko beartzen da ugutzatua.

UGUTZERA

ELEIZ ATARIAN. Jatorizko obenez, Satanas'en mo'oi jayoten gara. Ezin, ba, Jauna'ren etxean sartu, areketa aita-ama-bitxi bidez siñesmena ta bizitz betiko'ra eskatu arte.

Seiña atarian dala, ugutzariak itanduten dautso: — *Zer eskatzen dautsozu Jaungoikoa'ren Eleizari?* — *Siñesmena.* — *Zer dakartzu, ba, siñesmenak?* — *Bizitz betiko'ra.* — *Betiko bizitzara eldu nai ba' dozu, Aginduak bete: Zure Jaun-Jaungoikoa biotz-biotzez, gogo-gogoz, adin-adiñez, ta adore-adorez maite izango dozu, ta geidea zeure burua legez.*

GURUTZEA bekokian eta bula'ean egiten dautso, kistar-iku'ra ezarteko. Bekokian, Jesus'en ja'faitzale izatez iñoiz lotsatu eztedin. Bula'ean, zintzo jokatzeko inda'ra Jesus'en Gurutzeko eriotzatik artu dagian.

ESKUAK IPIÑI, jayopa'ria Jaungoikoa'k bere ardurapean artzen dauala adirazteko.

GATZA AGOAN, Jaungoikoa'gazko ondasunak gogo biziz txastatu, ta kistar egikizunetan zur ibili al daiteken.

Beste otoi batzuk egin ondoren, ugutzariak *estola-ertza* emon eta diñotso: *Sartu Jauna'ren etxean, betiko bizitzan Kristo'gaz izan al zaitekezantzat.* Kredoa ta Aita gurea esanaz, etxe donean sartzen dira.

TXISTUA atzamar ertzean artu, ta su'ian eta belar'ie-

tan ezarten dautso, diñotsola: *Idigi zadiz, usain gozora*. Jesus'ek txistuzko baseagaz igortzita, itxuaren begiak argitu ebazan legez, ugutzak be, kistañaren belakiak argitu ta zurtuten ditu, Jaungoikoa'ren itza ta agintzak entzuteko. Ta zuña, zerutar onomen ta egintza onen usain gozoa artzeko.

ARENZAK. *Urten egik, gogo zikin oñek, Aita Jaungoiko Algustidunaren izenez, ta bere Seme Jesukristo gure Jaun eta Epaikariaren izenez, ta Goteunaren indañez, Jauna'k bere etxe donera dei egin dautson Jaungoikoa'ren izaki onetatik, Jaungoiko biziaren etxe biurtu dedin eta Goteuna beronegan izan daiten.*

Ugutzariak itandu ta umearen ordez aita-ama-bitxik erantzuten dabe: —*Satanas ukatzen al dozu?* —*Bai, ukatzen dot.* — *Ta bere egintza gustiak be bai?* —*Baita.* —*Ta bere aundikeriak be bai?* —*Baita.*

Orio deunagaz igortzi ta diñotso: *Osasun-orioagaz igortziten zaitut Jesukristo gure Jauna'ren izenez, bizitz betikoña izan dagizun.*


SINESMEN AUTORKETA. *Siñesten dozu Jaungoiko Aita alorodun, zeru-luñen egilea?* — *Bai, siñesten dot.* —*Siñesten dozu Bere Seme bakar, Jesukristo gure Jauna jayo ta nekaldua izan zana?* — *Bai, siñesten dot.* —*Siñesten dozu Goteun edo Espiritu Santua, Eleiz deun, orokoña, deunen alkartasuna, aragiaren biztuera ta betiko bizitza?* — *Bai, siñesten dot.* — *Ugutza nai al dozu?* — *Bai, nai dot.* Burutik bera ura ixuriaz ugutzatzen dau: *Neuk bateatzen zaitut Aitea'ren, eta Semea'ren, eta Goteuna'ren izenez.* Eleizak eztau seme-alabatzat artu gura, nai eztauanik. Orixegaitik itanduten dautso: *Ugutza nai dozu?* Ta arek-eta berak, edo bere ordekoak, *Bayetz* erantzun artean, eztau bateatzen kistargeya.

IGORTZA. *Krismagaz* buruan igortzi daroa, kistaña, (igortzia), deundua, dala adirazteko.

ZAPI ZURIA. Buruan ipinten yakon zapi zuriak, ugutzaz arimeak artu dauazan edertasun eta garbitasuna adirazten ditu, baita zintzo iraun badagi, zeruan izango dauan aintza be. *Zapi zuri au artu ta Jesukristo'ren auzitegian, garbi agertu egikezu*, dirautso.

ARGIA. Umeari edo aita-ama-bitxiai argia damotse. Siñeste ta ibilera zuzenez kistañak beste gustien argi, eredu edo jaraipide izan bear dabela esan gura dau. *Artu argi bizi au ta zure ugutza okeñik bage jabon; Jaungoikoa'ren aginduak gorde, Jauna esteguetara datorkenean, zeruko jauregian, deun gustiekaz batera Berari bidera urten, eta aldi oro bizi zaitekezantzat.*

Auxe da seintxoen ugutzera; edera benetan eta kistañak gogoz auznartu, ta orduan aita-ama-bitxien aoz egin genduan Satanas-ukatze ta siñesmen-autortza bayzteko, noizik bein bañiztu bear gendukena.




The first part of the history is a general account of the state of the world in the beginning of the world, and of the progress of the human mind from that time to the present. It is divided into three parts, the first of which is a description of the world in its original state, the second of which is a description of the world in its present state, and the third of which is a description of the world in its future state.

The second part of the history is a description of the world in its present state, and is divided into three parts, the first of which is a description of the world in its present state, the second of which is a description of the world in its present state, and the third of which is a description of the world in its present state.

The third part of the history is a description of the world in its future state, and is divided into three parts, the first of which is a description of the world in its future state, the second of which is a description of the world in its future state, and the third of which is a description of the world in its future state.



The fourth part of the history is a description of the world in its future state, and is divided into three parts, the first of which is a description of the world in its future state, the second of which is a description of the world in its future state, and the third of which is a description of the world in its future state.



IV IKASKIZUNA

SENDATZA

**Zer dan.—Nok eta noiz ipiñi.—Ikurton-geyak.—Ondorenak.
Artu-beafa.—Sendazkerea.**

— *Zertarako da Sendatza edo Konfirmaziñoa?*

— *Bateoan artu genduan siñesmena indartu ta sendatzeko da Sendatza.*

Krismagaz bekokia igortzi-ta sendoro siñestu ta siñesmena kementsu autortzeko, Goteuna'ren eskaña emoten yaku ikurton onetan.

Ugutzan kistar izatea artzen dogu; sendatzen, izate oretan sendoro iraun, eta buñukaldietan gogor jokatzeko bear dogun goi-indaña. Kistar bizitza, ba, eten bako buñukea da.

— *Nok ipiñi eban Sendatza?*

— *Beste ikurton gustiak legez, sendatza be Jesu-kristo'k ipiñi ebala, siñestu beañekoa da.*

Belduak, *Pentekostes* edo *Beñogetamarkaro* egu-

nean, suzko mingain irudiz, artu ebezan Goteuna'ren eskar ta emaitz bereziak. Belduok eurok, ugutzauta ziranai, sendatza emoten eutsen. Jerusalem'en ziranak, Samari'tarak Jaungoikoa'ren itza gogoz aditu ta ugutza artu ebela jakin ebenean, Kepa ta Jon bialdu ebezan ara, ta eskuak ezari ta Goteuna jatzi yaken (Act. VIII). Au berau egin eban Paul deunak Epeso'n. Noiz ipiñi ete eban Jesukristo'k sendatza, eztakigu. Batzuk, Eguen Gurenez ipiñi ebala uste dabe, ta beste batzuk, berpiztu ta zerura igote bitartean.

— *Zein da sendatz-geya?*

— *Sendatz-geya bikoitza da: KRISMAZ igortzi ta eskuak ezarte.*

Krisma igorzkia da; orioaz ta usaindun-zugatz-uraz (baltsamoaz) egindako igorzkia. Eguen Gurenez onetsi oi dau Gotzañak. Atzamar nagosia, azpurua, Krisman busti, ta eskua umearen buru gañean dauala, bekokian gurutz-irudiz igortzi daroa. Beraz esku-ezarte ta igorzte, biok batera, egiten ditu.

— *Itzak, ¿zeintzuk ete dira?*

— *Igortzi ta esku ezarteaz batera, Gotzañak itz oneik esaten ditu: Gurutz ikuñaz ikurtzen zaitut eta osasun krismaz sendotu, Aitea'ren, eta Semea'ren, eta Goteuna'ren izenez.*

— *Nor da sendazkari?*

— *Sendazkari edo sendatza berenez emon legikeana, Gotzaña da.*

Kistar-siñesmen-zabalkundea asi zanean, Belduak emon eroyen sendatza; Gotzañak dira belduen ordezeko;

Gotzañai yagoke, ba, sendatza emotea. Ta zuzenkiro alan be. Etxegintzan, ormak ezañi, argiñak egiten dabez; baña etxe-eralguntza, ta burutzea, ta azken-emotea, iragikari edo arkitetuari yagoko. Berebat, kistargintza jaupari edo abadeari yagoke; kistañ sendotu, osotu ta burutzea, gotzañai. Gudari-ikuña ezarte, gudari-buruari dagokionez, Kristo'ren gudaritzarako ikuña ezañi ta igorztea, gotzañai, gudarozte onen buru diranai, yagoke.

Jaupariak Aita Santuaren axu-ta lakemenaz emon legikie sendatza, Gotzañak uñi diran Belguntzetan. Eta orduan be, Gotzañak onetsitako *Krismagaz*.

— *Nortzuk artu legikie sendatza?*

— *Ugutza artu izan daben kistar gustiak artu legikie sendatza be.*

Ugutza, enparau ikurtonen sarbidea da-ta, nai ta ez, besteak baño lenago artu bear.

Adiñik onena saspì urte inguru dala dirudi; aldi ofetan ernetzen dira ba, giza-griñak; ta griña ta ifits ofei eusteko goi-indaña damosku sendatzak. Guretan ofaitiño, geyenak lenago sendatzen dira. Ortik eztator kalterik. Gauz onak, lenago ta obe. Saspì urterako artu eztabenak, ainbat lasterén sendatu beitez.

— *Zeintzuk dira sendatzaren ondorenak?*

— *Sendatzaren ondorenak oneixek dira:*

a) **ESKAR DONETZALEA GEITU.** Lenengo eskaña, ugutzan emoten yaku. Eskar ori geitu ta indartzeko da sendatza. Umea jayo ezkeroz, azi ta indartuaz joan oi dan legez, ugutzan jayoten dan zerutar bizitza sendotu ta indartzeko artzen doguz sendatza ta enparau ikur-

tonak. Kistarki bizi izateko, buñukaldi gogoñak jokatu beaŕean aurkitzen gara; gure arazo ta egikizunak zintzoro iñardunteko, zoztor ta eragozpen latzak eta ugari garaitu bear. Arerioak azpiratu ta eragozpen gustiak garaitzeko indaŕa emoten dausku sendatzak.

g) GOTEUNA TA BERE SASPI EMAITZAK EMON. Sendatzen, Goteuna ta bere saspí emaitzak artzen doguz. Ez agirian eta bereziki, Belduak eta aldi atako kistar askok artu ebezanez; eskutuan baño.

Saspí emaitzak, oneixek dira: JAKITURIA. Jaungoikoa'gazko gauzak ezagutu, zuzenetsi, aintzat artu, ta txastatu edo pozez gogoa ezarteko, goi-argia.

ADIMENA. Siñeskayak aditu, ta, al daiteken giñoan, ulertu, ta egia ta guzuŕa bereizteko argia. Zeintzuk diran Jaungoikoa'k erakutsi-ta egitzat euki bear doguzan siñeskayak, eta zeintzuk, siñeskaitzat saldu ta egiantz zerbait izanaŕen, guzur utsa diran uste ta irakatsiak: Nortzuk diran gure benetako Irakasle ta nortzuk, ardi-naŕuz jantzi-ta agertuaŕen, otso amofotuak diran irakasle guzurtiak, *adimen* emaitzez igarten dogu.

BURUBIDE ZUZENA. Bide askotatik bat, geure elburura zuzenen eroango gaituana, autetsi edo aukeratu beaŕez, saŕi izaten gara. Bide ori aukeratzeko; bide zuzenari eltzeko zurtasuna, Goteuna'k damosku; oŕixi deritxo *Burubide zuzena*.

JAKINTZA. Gure inguruan diran izaki gustiak zeruko argiz aztertu, ta Jaungoikoa'ganako mañatzat artu eragiten dauskuz emaitz onek.

SENDOTASUNA. Okeŕik ez egin eta bide onari azke-neraño zintzo jañaitzeko bear dogun indaŕa, batez bere ziltzaldi, eraso ta jasarpen aldietan eta egintza zaletan, emoten dausku sendotasunak. Emaitzetatik beaŕena auxe dala dirudi. Lenengo gizaldietan, siñesmen alde

bizitza emoteko; gero, siñesmena ausi daroyen uste ta guzuřetan ez jausteko. Orain bařiz, bai odola ixuri-ta be gure siñesmena autortzeko; bai edonun zabal dabil-tzan guzuřez, buruak ez nastutzeko; baita iñoren lotsa ta bildur barik gure siñesmena agertzeko be.

BIOZPERETASUNA. Jaungoikoa'gazko semekoi, ta ide-koekazko biozpera, erukior, legun, estitsu, amakoi egin oi gaitu Goteuna'ren emaitz onek. Jaungoikoa, Jaunaz ganera gure Aita da, aitetarik aitena. Aitatzat artu-azo ta seme zintzoak aita ona maite izaten dauan legez maite eragin, auxe dagisku biozperetasunak. Geideagazko, bařiz, biozpereak amakoi dira, amak bere umetxoak maite dituan legez maite dabez geide gustiak, lagun-urko gustiak, edonor ta edozelakoak dirala.

JAUNGOIKOA'GAZKO BILDURĀ. Jaun maitasunetik sortzen da bildur au. Alkar zintzoro ta sutsu maite dabentak, batak bestea minberatzeko bildur izaten diran legez, Aita Goikoa semekiro maite dabentak be, Aren biotza naigabetzeko bildur izan oi dira. Ta bildur onek Jaun-goiko - Legea austeko bide gustietatik alde eragiten dautse.

Oneixek dira gure adimena goi-argiz ta gure gogoa zeruko indařez ornitzeko, Goteuna'k sendatzen emoten daukuzan emaitzak.

Sendatz-ondorenok, sendatz-geyan zelanbait iragařita dagozala esan leike. Krisma, orio ta usain-gozodun ur-nastea dala esan dogu. Orioak sendotu ta zaildu egiten ditu gorputzak. Argigaři ta beraz pozgaři da orioa. Berez bare-baretsua da lobel au ta edozein uretara bota ezkerro, beti gañean jarten da. Gauzak garbitzeko bařiz ¡... naiz burdiñea dala, naiz zura dala, naiz ařia dala, eder-eder ta zal-zal lagatzen ditu beragaz igortzi-tako gauzak.



Argitasuna, edertasuna, gozotasuna, zaltasuna, sendotasuna ta osotasuna emoten dautse orioak, ezarten yakoen gauza gustiai. Ta orio au usain-gozodun zugatzuraz nastetan da. Or ba sendatzaren egiñenak. Sendotu, edertu, osotu ta zaldu gure arimako eskaña; gaiztokiko etsayaren zirikaldi ta asmo galduak iñoz goitu ez dagien; obenaren ustelkeriz ezaindu ez dedin.

k) IKURTON-ATZA EZARI. Atz ori zer ta zertarako dan, lentxoan esan dogu. Ugutzak ezarten dausku; sendatzak bere bai. Eztira, baña, bardiñak atz biok; bereziak dira. Ugutzan, *kistar*-atza ezarten yaku; sendatzen, Kristo'ren *gudari*-atza. Beraz, *kistar* gareala, ugutzan ezañitako atzez igañiko dauskuen legez; Kristo'ren *gudari* gareala, sendatzen ezañitako atzez igañiko dauskue.

ARTU BEARA

— *Artu-bearekoa ete da Sendatza?*

— *Ugutza baizen artu bearekoa ezta sendatza.*

Ugutza nai-ta-nai-ezkoa da; sendatza ez, sendatza artu bage zeruratu geintekoz. Baña norberen zabarkeriz sendatza artzeke gelditzen danak, oben dagi. Ta zabarkeri ori ikurton au aintzat ez artzetik ba'letor, oben astuna izango litzake. Iñoiz izatekotan, oraintxe, gure aldi onetan, dogu sendatz-beaña. *Kistar*-arerioak geroago ta ugariagoak dira; *kistar* garanen eta eztiranen arteko buñukea, geroago ta gogoñagoa; gugazko amoru ta goñotoz, gure odol-egañiz, gu bizirik iruntzi guraz dabiltz etsayok.

Orez gañera, esamesen bilduñez edo, okerkeri asko egin daroaguz; garan baño be gaiztoago agertzen doguz

geure buruak, eta ori, afokeriz. Geure buruak kistar ontzat agertzen lotsa gara; oitura ta egin ederik asko lotsaren itxi oi doguz. Oker egiteko izan bear gintzakez lotsa; on egiteko, egundo bez.

Geure siñeste ta uste zintzoak, gizonekazko lotsa ta bildurik bage autortzeko kemena, Sendatzak damosku. Kistar sendoak, izatez, itzez ta egitez bere burua, afokeri ta lotsarik bage, agertu daroa, Kristo'ren esana jaraituz: *Ni gizauréan autortuko nauana, Neuk bere neure Aitagoikoa'ren auréan autortuko dot. Ni gizauréan, ukatuko nauana, bañiz, Neuk bere neure Aitagoikoa'ren auréan ukatuko egingo dot.* (MAT. X, 32). *Nitzaz ta nire itzaz inor lotsa ba'da, Gizasemea be artzaz lotsa izango da, bere ospez, ta Aita'ren eta aingeru deunen ospez datorkenean.* (LUK. IX, 26). Ikusi zer jazo yaken Belduai. Bildurtiak eta arpegi gitxikoak ziran ikasleok, Jesus'egaz ebiltzanean, Jesus'en nekaldian, baita gañeko egunetan bere, Goteuna euretara jatzi artean. Judatarak Jesus lotu ebeneko, Belduak bilduréz iges egin eben. Kepa, gustien artean sutsuen, eta azartuena, emakumekondo baten itzez bildurtuta, iru bider ukatu eban Jesus, bere irakaslea. Jesus, ilenartetik biztuta gero bere, judatarén bilduréz etxean sartuta egozan. ¿Zegaitik bada au? Goteuna'ren indara oraindik artu ez ebalako. Goteuna'ren suaz galtzairotu barik egozalako. Goteuna artu ezkeroz, lengoak be ez irudien Belduak. Sendoro ta azarkiro inotsen judatarai: *Israel'darak: itzok entzun. Jesus Nazaret'ara, Jaungoikoa'k berak edefetsi dautzue, Aren bidez zuen artean egindako alatz, zantzu ta agerkariz, zeuek dakizuenez. Berau da ba, Jaungoikoa'k erabagi ta auretik jakiña ebanez, zuek, arerioai salduta, gaiztoen eskuz gurutzean josi ta il dozuena.* (ACT. 11. 23). Ta

Batzañak, Kepa ta Jon'i ixilik egoteko ta Jesus'en ize-
nez ezer ez irakasteko agindu eutsenean, oneik eran-
tzun eutsen: *Zeuek oldoztu, Jaungoikoa'ren aitzeñean*
(aurrean) *bidezkoa ete dogun, Jaungoikoa'ri baño zuei*
esaneago izatea. Ezin geinke, ba, geuk ikusi ta en-
tzun doguna ixilean euki. (IBID. IV, 19). Goteuna artu
eben ezkerro, ez agintariak, ez gudariak, ez aiztoak, ez
espetxeak, ez nafu-erazteak, ez samea ebagiteak, ez
beste ezertxok bere ez ebazan Belduak bildurtzen.
¿Zek deritxozu alan sendotu ebazala? Goteuna'ren in-
dañak; Sendatzen artzen dogun Goteun-eskañak. Ori
berori jazo da kistar zintzo artean. Kistar izan eta sen-
do izan, ideko dira; biok batera jotzen dabe; kistar-
-edestia, sendoen edestia dozu. Irakurri, ezperen, ziño-
pa edo martiri-bizitzak. Umetatik aguretarañoakoak da-
nok kementsu dakuskezuz.

* * *

Agure zartxo bat zan. Janzkorduna (kardenala) be-
rau. Zortzigarren Endika, Ingleterá'ko bakaldun. Eleiz-
aren arerio goñi onek gotzain Jaungoiko-zaletsua espe-
txeratu eban. Baita Kristo'ren ikasle ta jañaitzale adore-
tsua urkatzeko urkamendia jaso be. Espetxetik atera
eben. Gixaxoa, makal-makalik, geñia makurtuta, maki-
latxo bat eskuetan ebala, ibili ezin-da etoñen. Baña
urkamendi-begira eldu zanean, piztu zan; ta makilea
jaurti-ta bere kautan iñon: «Tira, oñok, jazkar ibili!
laster dozue amaitu zuen lana-ta». Eta pozez ta adore-
tsu antxe ipiñi eban burua urka-abea.

—*Zelan artu bear da Sendatza?*

— *Jaungoikoa'ren eskar edo grazian artu bear da sendatza.*

Beraz oben astunaren erudun diranak, edo maite-damuz garbatu, edo erazago ta eskierago, lenengo autortu egin bear dabe, sendatza artzeko. Obenbean artuañen, sendatza ona izango litzake; bañero artu beañik eleukake; baña oben astuna egingo leuke, ta sendatza-ren eskar ta emairik eleuke beraganduko. Obenaz sendatza artzea, ur edera ontzi loyan ipintea letxe da. Sendatz-eskar ta emokayak eskuratzeko, obenak bitartean jañitako eragozpena kendu bear da, ura bere bidean joateko, bitarteko esi ta zostorak kendu bear diran legez; eragozpen ori, bañiz, oben egiñaren damuz kentzen da. Gañera, sendatz - eskar ta Goteuna'ren emaitzak yoriago ta ugariago artzeko, ume koskonduak, ezagueradun diranak, zer ta zertarako dan ikurton au jakitea, gogo biziz sendatza artzeko auñeztik gertatzen eragotea, oso onurakor da. Eguña igerago ta suak biziago eldu daroatsonez, ikurtonak be, geu gertuago ta eskar ugariago emon oi dauskue.

Umeak mosu ta soñeko garbia dabela eldu bear dira sendatza artzera; bitxi ta jantzi edeñik ez, baña bai garbi. Ta, al danez, baraurik.

SENDAZKERA

ESKU EZARTEA. Gotzaña, gotzain-soñekoz jantzi, ta enparauak belauniko dirala, umeakana biurtu ta eskuak zabalik, uñengo otoi au esan daroa.

OTOYA

¡Jaungoiko algustidun betikoña! Zeuk urez ta go-teunez zure otseñok bañiro jayo-azo, ta euren obenak azketsi dautsezuz; bialdu, añen, oneikana zeure Goteun saspikotxa, zeruko poz-asetzalea. Amen.

Jakituri ta adimen Gogoa. Amen.

Burubide ta sendotasun Gogoa. Amen.

Jakintza ta biozperatasun Gogoa. Amen.

Zeugazko bildur-Gogoz bete egizuz, ta Kristo'ren gurutz ezaugariaz atzitu.

Lenengo esku-ezarte au ezta beañezkoa, baña bai oso egokia. Sendatza artu bear dabena, ordurako eleiz bañuan izan bear dabe, geyenez; asi aurretik itxi eragiten ditu Gotzañak eleizako ateak.

Gero, Gotzaña jezarten da, albo bietan aita-ama-besoetakoak dituala.

Umeak leño bitan jarten dira, mutikoak aita-besoetakoaren aldetik eta neskatilak ama-bitxiarenetik.

Ume bakotxak ingi ataltxo bat bere izenagaz, edo izena aldatu nai izan ezkerro, izen bañagaz eroan oi dau.

Koskondua ba'da, Gotzain aurrean belauniko jarten da, aita-ama-bitxik deitsoela; txikitxoak, aita-ama-bitxien altzuan. Gotzañak atz nagosia *krismaz* busti, ta eskua ume burugañean daukala, bekokian gurutz irudiz igortzi daroa, esanaz: *URLIA, gurutz ikuñaz ikurten zaitut, ta osasun-krismaz sendotu, Aitea'ren eta Semearen eta Goteuna'ren izenez.*


IGORZKETA ta esku-ezarte onetantxe dago sendatza. Orduantxe artzen dira, beraz, goi-eskar ta beste emaitzak.


BEKOKIAN gurutzea egiten dautso, lotsea bekokian agertzen baita, ta Kristo'ren gurutz ta kistar egin-beañak

zintzoro betetzeko lotsarik egundo eztozula izan bear adirazteko.

MATRALAKOA. Kristo'gaitik destain eta izeka oro eroateko gertu egon bear dogu. Gertu ez eze, Kristo'ren aldezko destain, izeka ta erasoak gure irabazi ta ondasun opagañientzat edefetsi bear doguz. Auxe adirazteko joten dau Gotzañak umea matralan.

GENTZA. Azkenez, Gotzañak gentza opa daroatso umeari. Goteuna'ren emaitza da gentza. Sendatuak, Goteuna'z batera, bere gogo bañuan, Aren gentza artu daroa, ta bake ta gentzaz irauteko alegin gustia egin begiz.





V IKASKIZUNA

EUKARISTIA

Izenak.— Irudiak.— Agintza.— Noz egin eban Jesukristo'k.
— Zer dan. — Jesukristo gure Jauna Eukaristian. —
Jazopenak. — Izenak.

Eukaristian, ogi ta ardaoaren antzpean, Jesukristo gure Jaun berbera dago; OPALDU ta ARTU egiten dogu (KAN. 801).

Opaldu ta artu, opari ta janaritzat itzi euskun Jesukristo'k Eukaristia. Opari danez jaupa edo mezea da, ta janari danez jaunartzea deritxon ikurtona. Lenengo, ikurton danez, ta gero, jaupa danez azalduko dogu.

— *Zeintzuk dira Eukaristiaren izenak?*

— *Izen asko ditu ikurton deun onek.*

Eukaristia deritxo geyenez, te itz orek «eskar ona», baita «esker-egintza» be esan gura dau. *Eskar ona*, ziñez Jaungoikoa'ren eskañik bikañena dalako. *Esker egintza* Jesukristo'k berau egikeran Aita Jaungoikoa'ri

eskeñak egin eutsozalako; ta Eleizak be berebat meza-tan ikurton au egin daroan bakotxean, Jaungoikoa'ri eskeñak dagijoz. *Ikurton deun-deuna*, ikurton gustietatik deunen eta gurenena da; beste ikurtonak Jauna'ren eskaña damoskue, ikurton onetan Jaun berbera artzen dogu. *Maitasun ikurtona*, Jesukristo'ren maitasun-agiri ta agerkairik gorengoena dalako. *Altarako ikurtona*, opamayan egin eta egon oi dalako. *Ostiya* «oparia», opari legez dago ba, Jesukristo ikurton deunean, ta opari legez bere burua eskiñi daroa. *Aingeruen ogia*; zeruan aingeruen bizitz, poz-atsegin dan berbera gure janaritzat emoten yaku. *Bidaria*, eriotz-aldian biderako janaritzat artzen dogulako.

IRUDIAK

—*Eukaristiaren irudirik izan ete zan Lege Zañean?*

—*Lege Zar gustia, Paul deunak dirauskenez, Lege Bañia'ren irudi izan zan.*

Beraz, guk jazota ikusten doguna, areik irudiz auzetik ikusi ta uñdik legez agurtzen eben. Izan ziran, ba, Lege Zañean Eukaristiaren irudiak, eta irudi bizi-biziak.

BILDOTSA. Eukaristiaren irudirik ospetsuena da; guraso deun gustiak aintzat artu izan dabe.

Aijito zigortu nai izan eban Jauna'k, Israel, bere eria, jarei guruez ebalako. Aijito'añen lenen-jayotako semeak ilteko aingeru bat bialdu eban. Ilte onetan Israel'dañen semerik jausi etzedin, akatzik edo obenik bageko bildotsa oso-osorik ere ta jan, eta bere odolaz ate buruak igortzi bear ebezan; ateburu gofia ikusi ezkerro, aingerua, gaitzik egin bage, auñera igaroko zan.

Bildots ori Jesukristo'ren irudi bizi-bizia da. *Jaungoikoa'ren bildotsa* deitu eutson Jon Ugutzariak; *akatz ta orban bageko bildotsa*, ostera Kepa deunak.

Israel'dar seme nausiak bildots-odola'ren eriotzatic gaizkatu (salbau) ziran legez, gu be Jesukristo'ren odol-inda'rez eriotzatic jabonak izan gara. Ta Israel'da'rak bildots e'rea janaritzat artzen ebenez, guk Jesukristo berbera artu daroagu.

MANA. Txingor antzeko garau zuriskatxo batzuk ziran. Egunero, euri-antzera, jausten zan. Goizian-goiz batu bear izaten eben, eguzkiak jo ezkeru urtu egiten zan-da. A'riekaz bi'indu, ta aren urunaz opilak egiten ebazan. Janari o'regaz alikatu eban Jauna'k bere e'ria be'rogei urte buruan, Aijito'tik Berak agindutako lu'aldera eldu ziran bitarte gustian. *Zeruko ogia ta aingeruen janaria* deritxo manari. Eukaristiaren irudi oso-osokoa da.

MANA, zerutik jausten zan; Eukaristia zerutik jasten yaku. MANA'ri aingeruen janaria deritxo; Eukaristia aingeruak legez garbi ta zindo diranen janaria da.

MANA, gozoa, estitsua ta idartsua zan; Eukaristia, si'nesten dauanaren atsegi'na ta inda'ra da.

MANA jan ebanik etzan gexoz il —il ziranak, edo Jaungoikoa'ren zigo'rez, edo urtien buruz, za'ren-za'rez, il ziran— Eukaristiak berebat, arimako gexoetatik jabon garoaz.

MANA, jausi au'etik, axe indartsuak lur azala garbitu egiten eban; geuk be Eukaristia artu au'etik gure gogoa oben astun gustietatik garbitu be'ra dogu. Lekaro edo basamortuan ibili ziran aldian, Israel'da'rak MANAZ janaritu ziran; erbeste onetan diraugin artean Eukaristia da gure gogo janaria.

MANA ain estitsua izana'ren, batsuei iguin egin yaken,

jatez aspertu egin ziran. Oneik etziran agindutako *luñaldera* eldu; bidean il ziran. Eukaristia ain gozoa danañen, oituraz, edo gogo bage, edo oben astunaz artzen dabenai, geza ta iguin egiten yake; eztira oneik be zerura elduko.

MELKISEDEK. Gizon zuzena ta Jaungoiko-zalea, eta jaupari (abade) ta Jerusalem'go érege zan.

Érege batzuk alkartuta, Lot, Abańan'en lobeia ta beronen sendi gustia, atzitu eben. Abańan'ek au jakin ebanean, bere menbekoak artuta, érege oñeik eta euron gudaroztea apurtu ebazan. Etxeruntz etoñela, Melkisedek'ek bidera urten eutson, eta onetsi ondoren, ogia ta ardaoia eskiñi eutsozan.

Paul deunak dirauskunez, Melkisede'k Jesukristo'ren irudia da. Érege zuzena ta gentzatsua; eta jaupari, ez jatoñiz, Lege Zañekoak izan oi ziran legez, bere onbide ta bikaintasunez baño. Ta Legekoa'k baño nagosiago, bada Abańan berak onetsi eban, eta Abańan'en érayetan bere oñordeko jaupariak. Eta ziñez, iñorbait onetsi edo bedeinkatu daroana, onespena artzen dauana baño gurenago da.

Jesukristo, berebat, érege da; érege ta buru bere izakeraz. Ta Jerusalem'go érege; érege zuzen eta gentzatsua.

Ta jaupari; ez yatoñiz, bada jaupariak Lebi'ren jatoñikoak ziran, eta Jesukristo Juda'ren erkikoa zan; jaupari bere bikaintasunez; jaupari Jaungoiko-gizona zanez, ta beraz bere izatez, Jaungoiko ta gizonen bitarteko.

Melkisede'k ogi ta ardaoaren opea egin eban: Jesukristo'k ogi-ta ardao-antzpean bere Gorputz ta Odola opaldu daroaz.

ALKARTASUN - KUTXA

Eleiz txiki bat egiteko agindu eutson Jainkoa'k Mois'i. Setin'go zur edeñaz eragin, eta baru ta azal uñez estali eban. Ganeko bi ertzetan, Kerubin bi, alkañi begira, egoak zabalik ipiñi ebazan, Jauna'ren Aintza gur egitego tayuan.

Kutxa-baruan, Lege'ko arlosa biak, uñezko ontzitxo bat *managaz*, ta Aaron'en makila alazkiña (milagrosua).

Kutxa onetan eroyazan Mois'ek bere egonak eta jardunaldiak Jauna'gaz; emendixek adirazi oi eban Jauna'k bere gogo; ementxe agertzen zan Jauna'ren Aintza ta Nagositasuna.

Kutxa ori gure Oteundegien (sagrariyoen) irudia da. Kutxea legez Oteundegiak be, zurik edeñenaz egiñak, eta uñe bitxiz estaliak izan oi dira. Oteundegian Jesukristo berbera dago, Lege Zar ta Bañia'ren buru; gogo zindoaren *mana*, ta Aaron'en makila alazkiña baño altsuago.

Kutxan Jauna'ren Aintza agertzen zan; Oteundegian Jaungoikoa'ren maitasuna. Kutxea Jaunaren eta bere eñiaren Alkartasun-agiria zan; Eukaristia, Jaungoiko ta gizonarteko batasun agiria. Kutxearen itzalez, arerioak, or-emen, batzuk igesi, besteak ilda jausten ziran; berebat jazoten yake Eukaristiaren etsyai be.

Kutxea zan Israel'dařen besoa ta poz-eguzkia; gure indaía ta eguzki dirdiratsua Eukaristia da.

ELI'REN OGIA

Eli, igarle ospetsua, Jezabel, bakaldun andre zitalaren eskuetan ez jausteko, iges egin beañean aurkitu zan.

Bersabe'n itxi eban ordurarte zeñaikion moñoya, ta

beste egun bateko bidea berak bakañik eginda, basoan sartu, ta giñarapean etzun zan. Biotza naibagez mindurik iñotson Jauna'ri: *Naikoa da, Jauna; kendu nagizu gizartetik, enaz ba ni, nire gurasoak baño obe.* Ta giñararen itzalpean loak artu eban. Onela zetzala, aingeru batek ikutu, ta esan eutson: *Jaiki zaite ta jan eizu.*

Eli itzartu zan; alboetara begiratu eban, eta ez eban iñor ikusi; baña bai bere buruko ondoan, sutazpian eřetako ogia ta pitxar bete ur. Jan eta edan ebazan, eta bañiro be loak artu eban. Aingeruak bigarenez itzartu eban esanaz: *Jaiki zaite ta jan eizu, oraindik bide luzea egin beara daukazu-ta.* Jaiki, ta ogi-urak jan-edan ebazan. Eta euron indarrez, berogei gau-egun, basoz-baso, igesi ibili zan, Jauna'ren mendia zeritxon Oreb-erpiñera eldu arteraño.

Ona emen Eukaristiaren beste irudi polit bat. Ogi ařigari arek legez, guri be zeruko ogi onek, arerioekandik igesi-ta, gizarteko arkaitz artetik Jauna'ren ondoraño eltzeko indara ta kemena damosku.

* * *

Lege Zarean, batez be igarrietan, Eukaristiaren beste irudi asko be badira. Baña, gure asmorako izendauak naikoa izango dirala uste dogu.

* * *

— *Noz agindu eban Jesukristo'k?*

— *Ogi-ugaritzea egin ondoren zan.*

Jesukristo Kaparnaun'era joan zan, eta aũreko egun-ean ogiz asetu eban gizataldeak be, ara jaraitu eutson. Ogi bizia ta bizigiña bilatzeko aizkatzen ebazan esanik: «*Ni nozue bizitz-ogia. Zuen asabak, basoan mana jan*

añen, il egin ziran. Ogi au zerutik jatzia da, jaten dauana, il ez dedin. Neu naz zerutik jatzitako ogi bizia. Ogi onetatik inork jaten ba'dau, beti biziko da: ta nik emongo dodan, gizabizirako ogia, neure aragia da. Judak mor-morka ziarduen alkañekin esanaz: zelan emon ete leiskigu onek bere aragia jateko? Baña Jesus'ek esan eutsen: Bene-benetan dirautzuet; Giza-Semea'ren aragia jan ta bere odola edan ezik, eztozue zuekan bizitzarik izango. Nire aragia jan eta nire odola edaten dauanak, betiko bizitza dau, ta neuk eregiko dot a azken-egunean. Nire aragia, ba, janari da ziñez ta nire odola edari da ziñez. Nire aragia jan eta nire odola edaten dauana, Nigan dago, ta Neu aregan. Ni, bizi dan Aitak bialdu, ta Aitarenez bizi nazan legez, Ni jaten nauana be, nirez biziko da. Auxe da zerutik jatzitako ogia; ez mana legez. Mana jan-da be, zuen asabak il egin ziran. Ogi au jaten dauana beti biziko da. Itz gustiok Kaparnaun'en, Sinagogan (batzar-etxean) ziarduala, esan ebazan».

«Bere ikaslietarik askok, ba, entzunik, inoen: gogoa da itz au: ¿Nok entzun? Baña Jesus'ek, oñetzaz mar-mar bere ikasleak ebiltzala bere kautan jakiñik, esan eutsen: ¿Zer? onek aritzen al zaitue? Oñaitiño be, Giza-Semea len egoan tokira igoten ikusiko ba'zendue... Bizikiña, gogoa da; aragia ezta ezertarako. Nik zubei esandako itzak, gogo ta bizitza dira. Baña zubetan badira siñesten eztaben batzuk. Bazekian, ba, Jesus'ek auzetik nortzuk ziran siñesten ezebenak eta nork salduko eban. Esan eutsen ba: auxegaitik esan dautzuet, Ni'gana inor ezin etori daiteke, neure Aita'k ezpadakar».

“Añezkero, ikasle askok atzera egin eben, eta etzi-

ran berakin ibilten. Amabi beldubei esan eutsen, ba, Jesus'ek: ¿Zer? zuek be alde egin nai ete dozue?"

«Simon Kepa'k erantzun eutson: *Jauna ¿norengana joko genduke? Betiko bizitzarako itzak dituzu" .*

Itzaldi onetan Jesus'ek, LENENGO Eukaristia agindu egin eutsen. *Nik emongo dodan Ogia, neure aragia da.*

BIGAREN. Eukaristia zer zan azaldu be bai: ogiaren eta ardoaren antzpean bere aragia ta odola artuko zitu-tuala, ta ori janaritzat. *Nire aragia jan eta nire odola edaten dauanak, betiko bizitza dau. Nire aragia janaria da, ziñez, ta nire odola, egiz, edaria.*

Ogi au manaren ondoan bikaña da. Mana Eukaristiaren irudi baño etzan. Mana janaren, il egin ziran. Ogi au da benetan zerutik jatzitako ogi bizi ta bikaña. Ogi oretatik jaten dauanik, ezta ilgo. Ikasle ta judar aditzaleak, Jesukristo'k inotsena ondo ulertu eben. Ori-xegaitik ziñoen: *Zelan emon ete leiskigu onek bere aragia jaten? Izketa ori gogoña da.* Ta alde egiten asi ziran. Baña Jesukristo'k lenari eragoyon: naizta judararak, eta ikasleak, eta belduak eurak be atzera egin, lenean zegon. Eta egi au ziñazoteko, beste alatz (mirari) arigari bat agindu eutsen: zeruetara-igokundea. Eukaristia siñesgaitza ba'da, ¿Giza-Semea zeruetara igotea ez al da arigariago?

IRUGAREN. Eukaristia artu beara ipiñi eban: *Giza-Semea'ren aragia jan eta bere odola edaten ezpadozue, ez dozue zubekan bizitzarik izango.*

TA AZKENEZ. Eukaristiaren ondorenak adirazi euskuzan. Gogo-bizitzari eutsin, iraunazo ta geitu. *Nire aragia jan eta nire odola edaten dauanak, betiko bizitza dau.* Jesukristo'gaz bat egin. Berenez bizi. *Neu'gan dago ta ni beragan. Nirez biziko da.*

NOIZ EGIN

—*Noiz egin eban Jesukristo'k Eukaristia?*

—*Eguen Gurenez egin eban Jesukristo'k Eukaristia.*

Urtebete lenago Kaparnaun'go batzar etxean agindu ebana, Eguen Gurenez egin eban Jesukristo'k... *Gizar-tean ziran beretañak maite izan ezkeru, azkeneraño maite izan ebazan.* (JON, XIII, 1). Eta maite agiririk bikañena, añañena, *Eukaristian* itxi eutsen. Azken-aparia egiteko bere ikasliekaz batu zan. Apari-azken-neruntz, maitik jaiki, zapia geñan lotu, ura eñetiluan ipiñi, ta oñak bere eskuz ikuzi ta geñiko zapiaz igortzi ta leortu eutsezan. Gero, bañero jezañi zan. Ikaslak añiturik egozan. Etzan gitxiagorako. Baña Jesus'en maitasun gaña ta Bera zan gustia guri emongurea etzan ase. Mai-ganean egozan ogietarik bat artu eban; onetsi ta zatitu ta ikaslai emon eutsen esanik: *Artu ta jan: auxe da neure gorputza.* Ta ontzia arturik, eskeñak egin, eta onetsi, ta emon eutsen, esanaz: *Edan bertotik gustiok: Auxe da, ba, Itun Bañiko neure odola, askoren alde, obenak parkatzeko izuriko dana. Au egingo dozuen bakoitzean neure gomutaz egikezue.*

Itz oneikaz biurtu eban Jesukristo'k ogia bere Gorputz ta ardao bere Odol, ta ikaslai ta euron oñordekoai, gizaldi azkeneraño, berebat egiteko almena ta eginbeaña emon eutsen.

Z E R D A N

—*Zer artzen dozu Eukaristia deritxon Sakramentu gustiz santuan?*

—*Altarako Sakramentuan egiaz ta benetan dagon*

Jesukristo, Jaungoiko ta gizon egiazkoa artzen dogu, Eukaristia deritxon Sakramentu gustiz deunean.

Bi gauza daukoz Sakramentu onek bereziak, beste Ikurtonak eztaukezanak.

BATA ogi ta ardaoaren aldantza. Bestietan, ikurton-geyaren izakizuna ezta aldatzen; adibidez, ugutzan ura, ur gelditzen da; urak eztau bere izakizuna sakramentuan galtzen. Baña Eukaristian, bai. Ikurton Deunean, geya (ogi ta ardao) bere izakeran osoro aldatzen da; Ikurton au egikeran, len, bere izakeraz ogi edo ardao zana, Jesukristo'ren Gorputz ta Odol biurtzen da.

BESTE, enparau Ikurtonetan Jesukristo berbera eztago: bateatzen dauana Jesukristo berbera ezta, jauparia baño, Jesukristo'ren ordeztu ta izenez; beraz Jesukristo'k bere ordeztu bidez emon daroasku goi-eskaña enparau ikurtonetan. Eukaristian Jesukristo berbera dago; Jesukristo berbera artzen dogu; Jesukristo'k berberak janaritzen gaitu; Jesukristo berberak emon oi dauku goi-eskaña. Baña ikurton deuna be, besteak legez jaupari (abade) bidez egin daroa Jesukristo'k; jaupari bidez ogi-ardaoa bere gorputz-odol biurtu, ta jaupari bidez Meza edo opari deuna Aita Jaungoikoa'ri eskiñi.

— *Zer dago ostian Mezerdiko itzak esan baño lenago?*

— *Ogi pizka bat dago ostian Mezerdiko itzak esan baño lenago.*

— *Zer dago kalizan Mezerdiko itzak esan baño lenago?*

— *Ardao-pizka bat ur-tanta batzukaz dago kalizan Mezerdiko itzak esan baño len.*

Ikurton deunaren geya bikotxa da: ogia, gure artean, Eleizaren aginduz, legami (lebadura) bakoa-ta ardao. Ardaoari ur-tanta batzuk nastutzen yakoz, *a)* Jesukristo'k orelaxe egin ebala uste dogulako. Judatañak, apari azkeneruntz uraz nastautako ardao edan oi eben. Orela iñotson senargeyari Kanaan'go esteguetan maiburuak: *Ardao ona gustiak asierako ezarten dabe, ta gero, maikideak zerbelduta dagozanean, txarñ; zuk, bariz, ardao ona oiaingo itxi dozu.*

b) Jesukristo'ren eriotz gomutaz: Gurutzean egoala, sayetza uratu eutsoenean, odola ta ura atera ziralako.

Ta *z)* irudiz. Batzea, alkartzea, da Eukaristiaren ondorena. Ta ura ardaoaz nasteak, eñiaren Jesukristo'gazko batu edo alkartzea iruditu daroa.

— *Zelan dakigu Eukaristian Jesukristo berbera dagola?*

— *Eukaristian Jesukristo berbera dagona, dakigu:*

a) Jesukristo'k aurreztik agindu eutselako ikasleai, bere aragia jaten eta bere odola edaten emongo eutsela. *Nire aragia, egiz, janaria da, ta nire odola, egiz, edaria. Nire aragia jan eta nire odola edaten dauanak, betiko bizitza dau.*

b) EUKARISTIA lenengoz egin eban itzetatik. Ogia bere eskuetan artu ta ikasleai emon eutsen, esanik: *Artu ta jan: auxe da, ba, neure gorputza: auxe da, ba, Itun (alkartasun) Bariko neure odola.* Itz lauak, garbiak, argiak, labur bezin egikoñak. Emen eztago ez nasterik, ez irudikirik, ez aitu-eziñik. Esan nai dana, Jesukristo'k egiyana, ezin lauago ta laburago adirazi ledike. Ta *gergerako* itzak ondiño biziago ei dira. *Auxe da neure soña, neure gorputz berbera, zuen aldez*

*emoten dana. Auxe da neure odola, nire odol berbera, Ziñalben bañiko odola, obenak parkatzeko, zuen alde izuria. ¡Jaungoikua'ren almen izugarria! «Betor argia». Ta argia sortu zan. «Lazar urten ortik». Ta Lazar jaiki zan. «Emakume, osatuta zagoz». Ta emakumea sendotu zan. «Auxe da neure Gorputza». Ta Jesukristo'ren gorputza da. Auxe da neure Odola». Ta Jesukristo'ren odola da. *Jauna'k itz-egin eta gauza gustiak sortu ziran. Etzana utsetik izan-azo eban Jauna'ren itzak. Ta itz oñek len dana, ez ete dau beste zer baten biurtu al izango? Ezta ba, eztana izan-azoteko, len dana aldatzeko baño almen gitxiago bear (ANBORTZI DEUNAK). Gauzarik etzan. Ez izatetik izatera, Jaungoikoa'ren itzak ekañi zituan. Ezta oñetarako, ogia Jesukristo'ren gorputz biurtzeko baño almen gitxiago bear. Bata egin ebanak, bestea be egin daroa.**

z). Ikasleak, berebat autortu ta irakatsi eben. Jakingañi dira Paul deunaren itzak: «Nik ba, Jauna'gandik artuta daukat, zuei irakatsi neutzuen au. Jesus Jauna'k, etsaipera eratoñi zan gau artantxe, ogia artu ta esker egiñik, zatitu ta esan eban: AUDA NEURE SOÑA, ZUEN ALDE EMON BEAÑA; AU EGIKEZUE NEURE GOMUTAZ. Berebat apal-ondoan, ontzia artu ta esan eban: ONTZI AU NEURE ODOLEZ ITUN BAÑIA DA; EDANGO DOZUEN BAKOTXEAN, NEURE GOMUTAZ EGIKEZUE AU. OGI AU JAN TA ONTZI ONETATIK EDANGO DOZUEN BAKOTXEAN, JAUNA'REN ERIOTZA IRAGAÑIKO DOZUE, BA, BERA ETORRI ARTE. Beraz, deungaro Ogi au jan, edo Jauna'ren ontzitik edango leukenak, Jauna'ren Gorputz-ta Odol-eñudun izango litzake. Oñezkero, bere burua len aztertu-ta gero, Ogi au jan eta ontzi onetatik edan begi; bear eztanez jan-edaten dauanak, bere gaiztespena jan-edaten dau-ta. Agaitik zuenean ainbeste ergal ta aul, ta lozoñoan etzanak. (I, KORINT. XI, 23).

Jesukristo'k, gau gomutagañi atan, Itun Bañia, Alkartasun bañia, egin gura izan eban bere efiagaz. Ta Mois'ek Lege Zafe'ko Ituna abere-odolaz izenbetu ta sendetsi eban legez, Jesukristo'k Bere odolaz izenbetu eban Alkartasun bañi au.

Siñeskai ta eskutapen ariñagañi au aitu-azoteko, gauza bi gogoratzen dauskuz Jon deunak: Jesukristo'ren almena ta Jesus'en gugazko maitasuna. Gauza bi oneitan dago Eukaristiaren giltza. *Jesus'ek, bañiz, dan-dana Aita'k eskuetara emon eutsola, ta Jaungoikoa'gandik Bera etoñi, ta Jaungoikoa'gana joateko zala jakiñik...*

Baekian, ba, Jesus'ek, al oro bere eskuetan ebala: Bere biotzak eskatzen eutson gustia, egin egikeala.

BERETAÑAK MAITE IZAN EBAZAN EZKERO, AZKENERAÑO MAITE IZAN EBAZAN. Eskuetan eukazan, ba, almena ta maitasuna. Jaungoiko-almena ta Jaungoiko-maitasuna. Jaungoiko maitasuna zer ta zeinbaterañokoa dan dakianarentzat bañiz, Eukaristian itzal ta ilunik eztago, argi bizi dirdiratsua baño: Jesus'en Biotz goritik baster gustietara, ludi egaletaraño zabaltzen dan argi bizi-goria.

d) ASABA DEUNAK, aldi oro (beti) siñestu, autortu ta irakatsi izan dabe. Iru bakañik aitatuko ditugu, siñeskai au ziero azaltzen dabenak. Geyago ikusi nai dituanak, irakuñi begi Jaupari-otoi-Idaztiñoa (Breviarium) Kristo'ren Gorputz zortziurēnean.

Lenengoa izan bedi Justin, jakintsu ta ziñopa (martiria). Bigañen eunki edo gizaldikoa da. Siñeste alde, Eroma'ko Kaiseñ'ari bialdutako agirian diñotso: «Guk Eukaristia artzen dogu, ez edozein ogi edo edari legez, bada Jesukristo, Jaungoikoa'ren itzez gizon egiñak, gure aragia ta odola artu zituala erakutsi dauskuen lez, baita janari onetsi aura, Mezerdiko itzez, Jesus gizon egiña-ren gorputz ta odol biurtzen dala be irakatsi dauskue».

Kuiril deuna, Jesusalen'go Gotzaña, Kistar-Ikasbidea azaltzen ospetsuenetarikoa zan. Eukaristiatzaz jakin bear ebena, umeai azaltzen diñardu ta zietz ázaldu be. Jesukristo'ren itzak aitatu ondoren dirautse: «Jaun berberak itz egin eta ogiatzaz esan daroan ezkerro: *Auxe da neure Gorputza* ¿nor ezpayan jarten asartu? Ta berberak esan dauskun ezkerro: *Auxe da neure odola*, ¿bere odola eztala nok uste izan? Lenagõ, Galilai'ko Kana'n, Berak ura ardo biurtu eban ¿ta ardao bere odol biurtu daroala, badezpadan ipiñi ete geinke guk? Ušte osoaz artu daigun ba, Kristo'k bere Gorputz ta Odoltzat emoten dauskuna. Ogiaren antzpean Kristo'ren Gorputza emoten yaku, ta ardaoaren antzpean Kristo'ren Odola. Kristo'ren Gorputza ta Odola artzen dituzun ori, bere gorpuzkide ta bere odolkide egin zaitekezantzat. Oñela Kristo geugan daroagu, bere Gorputza ta Odola geugan artzen doguz-ta... Sendoro siñestu bear dozu, ba, ogia dirudiana, ogia eztala, Jesukristo'ren Gorputza baño, ta ardao dirudiana, ardao eztala, Jesukristo'ren Odola baño, naizta dastatzean (gustatzean), ogi ta ardao irudi izan». (CATECH. CAP. IV).

Jon Kisostomo deunak biziro ta bikainki, oi ebanez, azaldu daroa eskutapen zoragañi au. Ona bere itz batzuk: «Zeinbatek esan oi dabe: Jesukristo'ren irudia ikusi gura neuke, bere soñekoa, bere oñetakoak. Oñ ba, Berbera dakutzu, Berbera ikutu, Berbera jan. Zuk bere soñekoa ikusi gura dozu; ta Berak, ez ikustea bakañik, baita jatea ta ikututzea be emon dautzu..... Zeiñen garbia izan bear ezta, ba, ogi onetatik jaten dauana? eguzki-izpia baño zeinbat dirdiratsuago, Gorputz ori zatitzen dauana? gogo-suaz betetako agoa, odol itzal-itzalgafiaz goñitutako mingaña? Begira zein baterañokoa zarean, zelako maitik jaten dozun. Aingeruak ikaraz ikusi, ta bikaintasunañen begiratzeko

kemenik eztaukena, orixe guk, jafen dogu, orixegaz bat egiten gara, Kristo'gaz gorputz bat egiten gara».

e) ELEIZAREN EGUZKIA DA EUKARISTIA. Izañak eguzkiaren ondoren dabilzan legez, beste eleizkizun gustiak be Eukaristiaren inguruán eta ondoren dabiltz. Gure etxe deunetan Eukaristia da buru. —Jauna'ren etxe sañeran, lenengo begiz joten doguna, Eukaristia da. Tokirik agiriena eta apañena Eukaristia eukiteko. Opañi, Eleiz-gizon, jantzi, bitxi, kanpai, argi, etxe deunaren egikera..... gauza gustiak, Eukaristiari begira dagoz, ta Jesukristo'ren Gorputz ostendua iragañiten dauskue. Ta oin legez, lengo gizaldi gustietan be berebat izan da. Eleiz-batzar nagosiak, batez be Trento'ko batzañak, ta eleizkizunak eraltzeko idazti edo liburuak, guk siñesten dogun egi berberau, geuk siñesten dogunez erakusten dauskue.

Oñetzaz ganera, eguzkiak bizitza, ta beroa, ta argia, baster gustietara zabaltzen dauzan lez, Eleizari be, bere bizitza, ta maitasun beroa, ta argia Eukaristiatik datorkioz. Deunak ituñi onetan edan izan dabe siñesmena, itxaropena, goi-maitasuna, garbitasuna, apal-izatea, ludi onetako atsegiñekazko iguñia, ta zeruko atsegin-egañia.

Otza, ñla ta ñluna benetan geldituko litzake luña, eguzkia ostendu ezkeru. Ba ain otza, ñla ta ñluna geldituko litzake Eleizea be, zeruko eguzki eder ori ostenduko ba'litz.

—¿Zer dago ostian Mezerdiko itzak esan ezkeru?

—Jesukristo'ren gorputza, bere odol, arima, Jaungoikotasun ta gusti, dago osti deunean Mezerdiko itzak esan ezkeru.

Mezerdiko itzen indaíez, ostian Jesukristo'ren Gorputza dago. Baña Gorputz bizia, zeruan dagona; beraz gorputzaz batera, odola ta arimea be bai. Baita jaungoikotasuna be, jaungoikotasunak bein artu ebana, egundo itxi ez daualako.

—*¿Zer dago kalizean Mezerdiko itzak esan ezker?*

—*Jesukristo'ren odola, bere gorputz, arima, jaungoikotasun ta gusti, dago kalizean Mezerdiko itzak esan ezker.*

Itzen indaíez kalizean Odola dago. Baña ez odola utsik, Jesukristo osorik baño; beraz odolaz batera gorputza, ta arimea, ta jaungoikotasuna bere bai.

—*Beraz Mezerdiko itzak esan ezker, Jesukristo osorik dago ostian eta kalizean?*

—*Mezerdiko itzak esan ezker, Jesukristo osorik dago osti osoan eta bere zati bakoitzean, eta bardin kalizean be.*

Azken aparian, Jesukristo'k bere Gorputza jaten emon eutsenean ikasleai, ez eutsen gorputz ila jaten emon, gorputz bizia baño; beraz odol, arima, ta jaungoikotasun ta gusti. Ta berebat odola edaten emon eutsenean, ez eutsen odola izuria, gorputzetik berezia edaten emon, bere Odol bizia, gorputzagaz arimeak piztutzen ebana baizik. Eta orain, Mezerdiko itzen indaíez ogia Jesukristo'ren Gorputz ta ardaoa Jesukristo'ren Odol biurtzen diranean, bai ostian eta bai kalizean, Jesukristo berbera dago, zeruan dagon baizen osorik eta aintzatsu, guk begiz ogiaren eta ardoaren antza baño ikusi ezafen.

Jesukristo osorik osti osoan, eta osorik, ostiaren zati bakoitzean. Jesukristo'ren egokera Eukaristian, gure gogo edo arimearen antzekoa da. Gure gogoa gorputz osoan osorik eta gorputzaren atal bakoitzean be oso-osorik dagoan legez, Jesukristo be osti osoan osorik eta atal bakoitzean be oso-osorik dago.

Beraz ogiaren antzpean bakarrik Jaunartzen dauanak, bietan (ogi ta ardao-antzpean) artzen dauanak beste artzen dau.

¿Zegaitik nai izan ete eban ba Jesukristo'k ogi ta ardao, bien antzpean gelditu? Bere eriotza ta Gurutzeko oparia gomutazotearen nai izan eban Jesukristo'k ogi ta ardao, bioen antzpean gelditu. *Neure gomutaz egikezue au*, esan eutsen, *Bialduai* ta euron oñordeko gustiai. Jesukristo'ren eriotz ta Gurutzeko oparia gomutazo daroaskuz ba Eukaristiak. Eriotzan, gorputza ta odola berezi egin ziran. Ta Eukaristian Mezerdiko itzen indañez gorputza ta odola berezita legez gelditzen dira. Itzen indañez oteunean Jesukristo'ren Gorputza dago, ta gorputz bizia dalako, odola ta arimea. Ta itzen indañez, ontzian Jesukristo'ren odola dago, ta odol bizia dalako, gorputza ta arimea.

— *Ogi ta ardaoa noiz biurtzen dira Jesukristo'ren Gorputz ta odol?*

— *Abadeak Mezerdiko itzak esanaz batera, biurtzen dira ogi ta ardaoa Jesukristo'ren Gorputz ta Odol.*

¡Une itsaltsua benetan! Jaun algustidunak *¡fiat!* esanaz batera, etziran gauzak izatera eldu ziran legez, jaupari gixaxo batek Mezerdiko itzak esanaz batera, ogia Jesukristo'ren Gorputz, eta ardaoa Jesukristo'ren Odol biurtzen dira. Siñesmena biztu, itzalez ta maitekiro

begiak jaso, ta gogoa adi dogula, esan bear ditugu, osti deuna jaupariak erakuskeran, Tomas bialdu deunaren itzok: *Dominus meus et Deus meus*: «Neure Jauna ta Jaungoikoa».

— *Eta Mezerdira ezkerro, ete dago ostian ogirik eta kalizean ardaorik?*

— *Ez jauna, Mezerdira ezkerro ez dago ez ostian ogirik, ez kalizean ardaorik, ogi ta ardaoaren antza, usaña, gozoa ta gañerako eraskiak baño.*

Ogia ta ardaoa Jesukristo'ren Gorputz ta Odol biurtu izan dira. Ogi ta ardaoaren antza baño ezta gelditzen. Ez uste izan baño, ogi ta ardaoa Jesukristo'ren Gorputz ta Odol biurtuařen, Jesukristo'ren Gorputza azi edo sendotu egiten danik, edo ogiaz egiña danik. Goteuna'ren egitez sortu; Andra Maria'gandik Belen'en jayo; Gurutzean il ta oraiñ Aita Jaungoiko Algustidunaren esku-maldean jezarita dagon berbera da, oteunean dagon Jesukristo'ren Gorputza.

— *Eta Mezerdira ezkerro, osti deuna, naiz kalizean dagona, zatitzen ba'da, zatitzen ete da Jesukristo be?*

— *Ez jauna, Mezerdira ezkerro, osti deuna, naiz kalizean dagona zatitu ařen, Jesukristo ez da zatitzen: zati gustietan eta bakoitzean oso-osorik gelditzen da.*

Arestian esan dogunez, Jesukristo gogo edo espiritu antzera dago ostian. Osti deuna zatituařen, ezta ba Jesukristo zatitzen. Zati gustietan eta bakoitzean, osti osoan baizen osorik gelditzen da. Norbere burua ispilu osoan osorik agertu; ta ispilua zatituařen, zati bakoitzean bere, osorik agertzen dan legez; edo norberak

esandako itzak askok entzunañen, entzule bakoitzak oso-osorik artzen dauzan legez, osti osoan, eta osti gustietan, eta ostiaren zati bakoitzean, Jesukristo oso-osorik dago.

JESUKRISTO GURE JAUNA EUKARISTIAN

JAZOPENAK

Idazti mardulak idatzi dira Jesukristo'k *Eukaristian* egin dituan agerketa, ta ikurton deunaren bidez egindako mirari edo alatzez. Bat edo beste aitatu doguz, entzutetsuenak eta egi-antzik geyen daukenak.

* * *

MANDOA GURTZALE EDO ANDONI DEUNAREN ALATZA

Toulouse aldean zebilan Andoni deuna. Eukaristia zala ta etzala, *albitar* maltzur batekin ezpai edo ausi agiria izan eban.

Eukaristian Jesukristo gure Jauna dagola ukatzen eban albitařak.

Oteunean Jesukristo berbera, egiz ta benetan, dagola erakutsi ta egiztu eutson Andoni deunak.

Zer erantzun ez ekian albitařak, baña alan-da gusti be, siñestu gura ez, ta siñesteko, alatz edo mirari bat eskatzen eutson.

— Zer mirari edo alatz nai dozu ba?

— Aara, nik iru egunean neure mandoa ezer jan eta ezer edan bage, etxe bařuan eukiko dot. Irugañen egunean etxetik atara, ta emen gagozan gustioen aũean, garagařa ipiñiko dautsot. Zu, osti deunagaz etořiko

zara. Garagaña itxi ta osti deuna gur egitera joaten ba'da nire mandoa, Jesukristo berbera dala siñestuko dot.

Asmakizun au ontzat artu eban Andoni deunak. Izendautako egunean, ozte izugafia batu zan Toulouse'ko enparantzán. An zan *albitaña* be, bere mando gosekilagaz. Andoni deunak Meza esaten ziarduan urerako eleizatxo baten. Jaupa egin ondoren, gure Jauna eskuetan artu, ta enparantzara etoñi zan.

Deunaren begirunea ta Jaun maitasunez bere arpegia suturik ikusiki, ozkiñiak artu eban zeyan egoan gizataldea. Siñestedunak belauniko jañi ziran. Besteak txapela itzalez erantzi ta ixil-ixilik egozan. Mandoagana ureratu zan deuna, ta ustetsu esan eutson: *Ire Egilearen izenez agintzen dauat: Osti deunaren aũean belauniko jañi, ta izaki gustien Irazlea gur egik.*

Itz au entzunaz batean, mandoa belaunikotu, ta burua luña joteraño makurturik, Jauna gur egiteko tayuan jañi zan.

Siñestedunak txaloka ta goraka asi ziran. Siñesgetatik, batzuk biurtu ziran. Besteak, lotsatuta, alde egin eben.

Baña albitañak berak emondako itzari eutsin eutson. Guzur-bidea itxi ta Eleizara itzuli zan, eta Eleizaren seme zintzo lez bizi, ta gure Ama onaren besoetan il zan (BOLAND, BAGILA 13'N. DEHARBE).

BOLSENA'KO MEZEA

Jazopen au ospetsuenetarikoa da.

Jaupari bat, Meza esaten iñañ-ebala, Jesukristo gure Jaun berbera Eukaristian ete egoan keska ta ezpai gogoñak artu eben. Mezerdiko itzak esan ondoren, kalizan egoana asi zan gora goraka, ganez egiteraño.

Azpiko zapi zuria odolez goñituta gelditu zan. Jaupaldian ziranak oartu eben. Orbieto'n aurkitzen zan, aldi atan, IV Paul, Doipurua. Jazo zana adirazi eutsoen. Zapi odoldua bertara eroateko agindu eban. Ibildeun ikaragaña egin zan. Eta gaurdaño antxe bertan gur-egiten da alatz edo mirari añañi au.

FABERNAY

1608'ko oñilaren 25'an jazo zan, bañiz, au.

Goteun-etorkundeko igandetik astelenera-bitarteko gabez, gure Jauna agirian zan. Opaña, olako eleizkizunetan oi danez, argiz, lora ta bitxiz, bikainki apaindurik. Argi zuri edo kandelatik txinparta bat jausi zan, eta lenengo lorak eta gero opañi inguruko oyalak su-gañak artu ebazan. Dosel-pean egoan gure Jauna. Ta dosela be, berialaxe sutan eñe zan. Kustodiari ez eutsoen gañak ikuturik be egin, eta eustazpia eñe zanean, airean gelditu zan. Ogetamairu orduan egon zan era oñetan, notintza izugaña añiturik begira egoala. Paskoa irugañenez, jaupari batek amañetako meza nagosia emoten ziarduala, mezerdian, osti deuna jaso ta erakuskeran, Kustodia be polito-polito, berez, jatsi ta zapi gañean jañi zan. *Longny'tar* Pernando, Besanzon'go Gongotzañak, jazopen au ziero aztertu, irañi ta Eñoma'ra bialdu eban.

MONTFORT


Koldobika, France'ko eñege deunak, Joinvile'ri edestua da, osteras, au.


Albitar mordoa eldu ei yakon bein Simon Montfort'eko kondeari esaten: Atoz agudo eleizara. —¿Zer

jazoten da ba? —Osti deunean, Jesukristo gure Jauna, ume-tayuan agiri da. —Zuaze zeuok, nik eztaukat ori siñesteko ikusi bearik. Joan, siñesten eztozuenok. Nik, ikusi bage, siñesten dot. ¿Ta badakizue zer irabaziko dodan? Aingeruak baño sari ederagoa. Bada areik, arpegiz-arpegi Jauna ikusten dabe-ta, nai-ta-ez, egitzat euki bear. Nik, bañiz, Jaungoikoa'ren itzez, Berak darakustana egitzat daukat.

MERMILLOD JAUNA

Egunero joan oi zan gotzain agurgarri au, ilunabañean, Ginebra'ko Andre Maria'ren eleizara, Jauna ikusi, argia zirikatu, ta gauza gustiak egokiro ete egozan, eleiz bazteñak arakatzera. Bein baten, bakañik aurkitzen zalakoan, zoko gustiak aztertu ondoren, opamai aũean itzalkiro belauniko egin eta Jauna'ren ondoan, auzpez, otoizka ziarduan. Bapatean saratea somau eban. Jaiki zan, eta ora nun autor-lekutik andrazko bat ateratzen dan. —¿Zer darabiltzu emen? —itandu eutson gotzainak—. Ara ba, ni protestantea naz: zuk ondo nazauzu; zure itzaldiak entzun ditut; zure irakatsiak egitzat daukadaz. Baña keska auxe nerabilan: ¿siñesten ete dau gero berofek erakusten dauana? Orixe jakitearen zeure zain egon naz. Oin bai, ikusi dot eta siñesten dot... Gure erlejiñora biurtu zan.





VI IKASKIZUNA

JAUNARTZEA

Zetarako ipiñia dan Eukaristia. — Bear dan lez artu. — Jaungoikoa'ren adiskide izan beafa, Jaunartzeko.—Deungaro Jaunartzea.—Gaiztakeri baltza.—Donauste ikaragafia.—Jesukristo gurutzeratu.—Judas'en laztana.—Eskuak lotu.—Zigofak.—Jaunartzeko gertuera.—Jaunartzetik obari geyago eskuratzeko gertakizunak.—Gogoa garbitu.—Siñesmen bizia.—Maitasun gorria.—Barau-beafa.—Gexoak.

— *Zetarako ipiñia da Eukaristia deritxon Ikurtona?*

— *Bear dan lez artu ezkerro, geure arimen janari ta Jaungoikoa'ren graziaren geigari izan dakigun, ipiñia da Eukaristia deritxon Ikurtona.*

Etzan Jesukristo gure Jauna Eukaristian gelditu, gure artean egoteko bakañik: opari deunean bere Gorputz ta Odolaren eskintza Aita Jaungoikoa'ri egiñaz gañera, gure arimen janari izan dakigun, gelditu zan.

Neu naz zerutik jatzitako ogi bizia; ogi onetatik iñok jaten badau, betiko biziko da.



Giza-Semearen gorputza jan ez, ta bere odola edan ezik, eztozue zuekan bizitzarik izango. (JOAN, VI).

Goizparkiko bazkari irudian aitatzen yakun janaria, auxe da. *Bazkaria gertu daukat; txal gizena ta egaztiak ilda; dana ger-gertu. Eldu, bada, nire maira. Gustioi dei dagisku. Ta deitu ez-eze, bide bazterak arakatu, ta jantoki onetara sartu gaitez an bultz eragiteko diñotse bere mofoyai. (MATH, XXII, 4). Bazkari deuna deritxo Eleizea'k Jaunartzeari. Ta bide batez bazkari onen ondorengo guri mamintsuak erakusten dauskuz. Jesukristo artu; bere nekaustea gomutaratu, gogoa goieskañez asebate; ta geroko zorionaren baiturean (señalea) emoten yakun bazkari deuna (1).*

Jauna'ren asmakizuna eritxon Isai igarleak Eukaristiari. Ta, ziñez, Jauna'ren maitasun almena ezin geyagora eldu leitekela dirudi. Jesukristo berbera emoten yaku. Giza-gorputza artu eban: gure alde bere odola izuri; ta gorputz ta odol ori, arima ta Jaungoikotasun ta gusti, janari bikain onetan damoskuz.

¡Ainbesterañokoa da Jesus'en gugaz bat eginda bizi izateko gogoa!

— *Zelan artu bear dogu Eukaristia?*

— *Bear dan lez gertautu, artu bear dogu Eukaristia.*

Sakramentu ain bikaña ta gurena dalarik, nagositasun oni dagokionez gertau bear gara Jaunartzeko.

Jerusalen'go jauretzea eragiteko egoala, iñon igarleak: *Lan ariña da au; ez diñardugu gizonarentzat biztokia gertatzen, Jaungoikoa'rentzat baño. (PARALIP, XXIX-1).* Ta ofetareko bildu eban ufe, zidar, ontzi,

(1) O sacrum convivium.....

bitxi ta ari eder pila, utsa zala uste eban. ¿Zer ete egoan, ba, eleiz atan? Kutxa; ta Kutxa baruan *mana*, Ikurton deunaren irudia. Ainbesterañoko itzala ta begirunea zor ba'yakozan Sakramentu onen irudiari, ta oren arduraz tokia gertatu ba'yakon ¿zein-bestekoa zorko etxako Jaun berberari?

Oíetzaz gañera, gertatuago ta eskar ugariago eskuratuko doguz Jaunartzetik. Ureske doanak, pitxar andi-agoa ta ur geyago etxeratzen dauan legez.

Ta ori, bai geure aldetik, egintza bizkor, gogotsuari, epelari baño irabazi geyago dagokiolako; baita Sakramentu berberaren aldetik be. Norbera gertuago ta Ikurtonak eskar ugariago; ondorengo yoriagoak ezañi oi dauskuez. Egur igeña, eñaz ta gozoro artzen dau suak; busti-gordiña, nekez. Ikurtonak berebat; gertu dagon gogoa, eskañez aberaztu oi dabe. Bear danez Jaunartzean, zerutar ondasun ugariak duakuz ba.

Bear danez Jaunartzeko, arimea ta gorputza gertatu bear doguz.

— *Zelan egon bear dau arimeak bear dan-lez Jaunartzeko?*

— *Jaungoikoa'ren aiskidetasunian egon bear dau arimeak bear dan lez Jaunartzeko.*

Sancta Sanctis, «gauza deunak deunai» esaten ekian lenago diakonuak, Jauna emon aurretik, *Deunak*, oben astunaren erudun etzireanak bakañik, Jaunartzera eldu eitekezala adirazteko. Mana eritxon zeruko janari bikaña, aldi luzean bialdu eutsen gauero gure Jaun maitegañiak Israel'dañai. Goitik jausten zan gauza ze-ze zuria zan janari ori. Ta lenago be esan daroagunez, Eukaristiaren irudia. Ona ba, zelan gertatzen zan: Luña

mana artu baño len, goizeko intzez estaltzen zan, eta iñontzaren gañean, luñari beinbe ikutu bage, gelditzen zan mana. ¿Zegaitik ete? Goi eskañaren iñontzez gure gogoak estali ta oben-kutsu ta zikiñik bage, Jaunartu bear dogula guri irakasteko.

Estegu-soñeko barik bazkaltzera sartu zanari, asafe egin eutson Jauna'k zirautsola: *Aiskide ¿Zelan sartu zara emen, estei-soñekorik ekartzeke?* Ta moñoyai agindu eutsen: *Esku-oñak lotuta, atariko ilundietara jaurti egizue. ¡An izango da negar-ulua ta agin karaskadea!* (MAT, XXII-I).

Jaunartzera doanak, bere burua len aztertu begi, ta gero ogi au jan eta ontzitik edan; bear eztañez jan-edaten dauanak, bere gaiztespena jan-edaten dau-ta. (KORINT. XI, 28).

Aztertu, ba, Jaunartu-aufetik, gure gogo ta biotzeko zoko ta bazter gustiak; gogoz, itzez edo egitez Jaungoikoa'ren agindurik ausi ete dogun, arimea garbi dogula, mai deun onetara eldu gaitezantzat.

Erne ibili zaite; etxake, ba, deungaro artzen dabena neke ta zigor txikia egotziko. Begira, bilau saltzale-agazko ta gurutzean josi ebenekazko dozun asafea: ez egizu zuk be, zeure burua Jesukristo'ren gorputz eta odolaren erudun egin. Areik Jesukristo'ren gorputza erail eben; zuk ainbeste mesede ta eskar-ondoren gogo zikiñaz artzen dozu. Etzan Jesukristo'ren maitasuna, gizon egin eta ukabilkadak artu ta gurutziltzatuaz ase; gugaz nastatzen da; gugaz bat egiten da; ta ez siñeste utsez, egiz ta benetan baño bere gorputz egiten gaitu.

¿Zein-besteraño garbia izan bear ez da ba, alako oparia jaten dauana? ¿ez ete eguzki-izpia baño dirdiratsuago, alako aragia zatitzen dauan eskua? Gogo-suaz beteriko agoa? ¿odol itzalgañiaz goñituriko mingaña?

Begira, zein-besterañoakoa zarean; zelako maitik jaten dozun. Aingeruak itzalez begiratzen dabena..... orixe jaten dogu, orixeri itsatsi edo ezarten gayakoz eta Jesukristo'ren gorputz ta aragi egin oi gara. (KISOSTOM, HOMIL., 6).

— *Oben astunean dagola jakiñaz ganera Eukaristia artzen dauanak artzen ete dau Jesukristo?*

— *Bai jauna, oben astunean dagola jakin eta Eukaristia artzen dauanak be artzen dau Jesukristo, baña bere kaltean, donaustea deritxon gaiztakeri izugaria egiten dau-ta.*

Deungaro Jaunartzen dabena asko be asko dirala uste dogu. Oben izugaria au bide dala, gure artean *gexo* asko dago; *grina* gaiztoak menderatu ta Jesukristo'ri gurutz - bidetik jaraitzeko kemenik ez daben gogo *gexoak*; baita Jaunartzetik obenera ta obenetik Jaunartzera doazan *eroak* be ugari dira. Ta *loak - artuta*, arimea eriotz - loaz ilda, bizi diranak, ez gitxi.

Oben onen gaiztakeri ikaragaria, ta gaizki Jaunartzetik datorkiguzan kalte, ta Jaungoikoa'ren zigor ta nekeak, alik zietzen adirazi gura gendukez.

— *Nortzuk dira oben astunaren erudun izanik Jaunartzen dabena?*

— *Oben astunen bat autortzeke, edo obena begitan artzen ez dabela, gaizki egiñaren damu barik; bañero obenik ez egiteko asmo bage; oben egiteko bidetatik euron burua atara nai ezabela; lera ta *grina* txarrik azpiratu ta eskuratzeko era-*

bagirik gabe, artaratzen diranak, dira deungaro, beraz oben astunean, Jaunartzen dabenak.

— *Ta oñela Eukaristia artzen dabenak, Jesukristo artzen ete dabe?*

— *Bai, oñela Eukaristia artzen dabenak be Jesukristo artzen dabe, baña euron kaltean.*

*Sumunt boni sumunt mali;
sorte tamen inæquali
vitæ vel interitus.*

*Mors est malis, vita bonis:
vide paris sumptionis,
quam sit dispar exitus.*

abestu daroa Eleizeak.

Onak artzen dabe; gaiztoak bere bai. Gaiztoentzako, eriotza da, onentzako, bizitza. Begira, artzetik artzera dagon aldea. Eukaristia gogoaren janari da. Baña gorputz ilarentzat janaria alpeñikoa dan legez, obenagaz ilda dagon gogoarentzat be, Eukaristia alpeñikoa da. Ta ez alpeñikoa bakañik, kaltegiña baño. ¿Zergaitik kaltegiña? Deungaro Jaunartzen dauanak, Eukaristiagaz batera bere etsipena (kondenaziñoa) iruntzi daroalako. Olantxe diño Paul deunak: *Ogi au jan edo ontzi onetatik deungaro edaten dauanak, bere gaiztespena jan eta edan daroa, Jaunaren Gorputza aintzat artzen ez daualako.* (KORINT. XI-27). Osterantzeko ogia ba'litzan legez: Jaunari zor yakon begitarte, ta lotsa ta itzal barik, Eukaristia artzen daualako.

Zorotzean be zorotzak eta oargañiak dira Belduaren itzok. Eztiño gaizki Jaunartzen dauanaren gain Jaungoikoa'ren asafea izango dala; edo Jaunak bere etsipena

idatzi edo iragañi egingo dauala; ezperen, bere epai ta etsipena jan, edan, iruntzi egiten dituala ta, beraz, jaten doguna gure odol biurtzen dan legez, deungaro jaunartzen dauanak, bere buruaren etsipena beragan daroala. Ta alan be, ¿ez ete gara lotsaz, bilduñez ta ikaraz erdi-ilik, deungaro Jaunartzerakoan mai atara elduko? ¡Gauza añaña!

DONAUSTE IKARAGAÑA. Jaungoikoa'ri eskiñita dagon *zerbait edo norbait* deungaro erabiltea, da donaustea.

Donauste batzuk besteak baño gaiztoago dira. Jaungoikoa'ri eskiñia deunago, gurgariago, ta donaustea oben astunago da. ¿*Eukaristia* baño gurgariagorik ete da ba ezer? Ez beintzat; Deunetan deunena, gurgarietan gurgariena da Ikurton edo Sakramentu Deun-deuna. Beraz gaizki Jaunartzen dauanak, donauste ikaragaña egin daroa. Jaunaren etxea, edo deun-irudia, edo gurutzea berbera deungaro erabilten dituanak baño askoz izugariagoa. Enparau donaustietan, Jauna'ren etxeari, edo deun-irudiari, edo gorpuzkiñai, edo Jesukristo'k bere odolaz goritutako gurutzeari lotsea galdu ta irain egiten yake; baño donauste onetan, Jesukristo berberari lotsea ta itzala ta begirunea galdu, ta irain egiten yako.

«Jesukristo gure Jaun berberari eskuak ezartea bezin irainkoña da deungaro Jaunartzea» (1).

Au dala-ta, *Ogi au jan eta Jauna'ren Odola deungaro edan daroana, Jauna'ren Gorputz ta Odolaren erudun dala*, diño Paul deunak.

Gaiztakeri berezia dau, ba, oben onek; berezia, baita beste obenetatik be. Oben egiñaz, Jaungoiko-Legea austen dogu, Jaungoikoa'ren nagositasuna eztoqu aintzat artzen, Jaungoikoa'ri jarki egiten gayakoz. Baña

(1) Kipiren d. De Lapsis. XI, 15-Deharbe.

deungaro Jaunartuaz, Jaungoiko berberari irain dagiogu. ¡Ta irain naskagafia alan be! Esku-artean deungaro darabilguna, Jesukristo berbera da, Jaungoiko ta gizon danez, eder utsa.

Ta ¿nun ipinten dogu Jaun eder-eder ori? Tokirik zikiñen-zikiñenean. Obenaz lizundutako gogoa baño toki zikiñagorik, Jauna'rentzat eztago. Danik loyen-loyena, infernu edo gaiztoki bera be, gaiztokitik obena kendu ezkerro, arima ori baño atsegiñago ta gogokoago izango litzakio, diño idazle batek. *Aptior plane locus Deo esset infernus, si culpæ non essent, quam domus peccatrix.* (PAUL PELAG. IN MATH., MENDIBURU).

Ezkuña ta bazka zikiña bilatzen dituan urdeari ez eyozue ari ederik jaurti, diño Jaunak. Bada gaizki Jaunartzen dauanak, ez ari edeña, Jesukristo Jaungoikoa'ren Seme bizia baño, emon daroatso bere atsegiñak, lizunkeriak edo beste griña txararak asetzean dituan gogoari. Eder-utsa, garbi-utsa ta garbizale dan Jaunari ¿irain iguingafiagorik egin ete leikio?

JESUKRISTO GURUTZERATU. Edozein oben astunek Jesukristo bañiro gurutzeratu daroala, diño Paul deunak. *Rursum crucifigentes sibimetipsis Filium Dei et ostentui habentes.* (HEB., VI-6). Baña Jesukristo istaz ta iriz erabili, bere nekaustea (pasiñoa) bañiztau, ta bañiro gurutzeratu, ori gusti ori, bereziki egin daroa deungaro Jaunartzen dauanak.

Getsemani'ko baratzean lotu ebenetik il arteraño, esan ezin ala iri ta ista egin eutsoezan Jesus maitegafiari judatar gogoñak. Soñekotzar gofi zar bat jantzi eutsoen; arantzezko koroya buruan ezafi; eskuetan kañabera utsa. Lotu ta begiak estali eutsoezan. Eta bein bata, ta bein bestea bere aurrean belaunikatzen

zirala, zirautsoen: *Agur efege*. Gero, miñera etorkioen txarkeri gusti-gustia esan, arpegia liztuz zikindu, matralla-ertzak ukabilkadaz mañatu, ta kañabereagaz buruan joten eben. ¿Ikusten dozu? Bada oñen antzekoa da gaizki autortuta Jaunartzen dauanak egin oi dauana.

Autor-entzulearen oñetan belaunikotu, *Ni obendi au* esan; bulaña jo; Jesus'i agur egin. Baña ¿zelan? Istaz ta ifiz. Bear dan lez bere obenak ez ditu autortzen; bear besteko damurik ez dauko; obena ta obenerako bidea izteko asmorik eztau benetan artu nai. Beraz, aren bular-gañeko ukabilkadak, axe utsa dira; ista ta ifizko gauzak. ¡Ta oñela Jaunartzera eltzen da! Bere bañuan Jesukristo gurutzeratzeko. Bere bañuan dauka bai, gaizki Jaunartzen dauanak, Jesus maitegañarentzat gurutze gogor-añigaña, ta gurutze oñetan Jesus ezañi ta josteko bearko dauan gustia.

Gaiztakeri ta oben-korapiloz beterik aurkitzen dan arima ori da gurutze onen zur zuzena. Gurutzearen beso biak, gogo beroñen adimen itxua ta naimen gogortua dira. Esku - oñetarako untzeak, deungaro Jaunartzen dauanak, bere esku zikiñez ta ibilera galduz egin izan dituan txarkeriak. Gurutziltzaleak, oñela Jaunartzen dauanaren griña asaldatuak. Untzeak sartzeko mañu edo garbea, obendi beroñen gogoñera. Ta Jesus'en bulañeko burdin uratzalea, obendiaren naikunde edo asmo oker bide bagekoa.

Oña bada, Belduak diñonez, deungaro Jaunartzen dauanagan, Jesukristo gurutziltzatuta.

Judatar gogoñena baño be oben gaiztoagoa dala ori diño Agustin deunak. ¿Zegaitik uste dozu? *Mitius peccaverunt judæi crucifigentes in terra ambulantes, quam qui contemnunt in cælo sedentem.* (IN PS. 68). Gizartean ebilela gurutziltzatu ebenak, zeruan jezañi-

ta dagoala aintzat artzen eztabenak baño oben ariñagoa egin eben. ¿Zegaitik? Judatarak guk baizen ondo Jesus ezagutzen ez ebelako. Guk baizen ondo ezagutzera, ez eben, ez, egundo gurutzeratuko, diño Paul deunak. *Si enim cognoviessent, numquam Dominum gloriae crucifixissent.* (KORINT. II, 8).

Orez gañera, Judatarak ez eben bein baño Jesus gurutzeratu, baña deungaro Jaunartzen dabenak, ori egiten daben gustian Jauna gurutzeratzen dabe. ¡Eskuzikiñak! diño Tertulian'ek: esku ausi ta ebagi beařak, gaiztakeri ori baizen lan ařigafia egunero gure Jesus onaren gorputzagaz egiten dabenak!

JUDAS'EN LAZTANA. Judatar gogořak, etsaitzar amofatuen eduz itxi eben gure Jesus maitegafia, untze sendofez gurutzetua; baña deungaro Jaunartzen dauan obendiak, adiskide-irudiz, agur egin ondoren, mingañean polito-polito artuaz, ta bere biotz alderaño zartuazoz, gurutzeratu daroa Jesus berbera. Ta adiskide saltzalearen gaiztakeri malmutza, etsai ezagunarena baño damugafiago dala ¿nok ez daki?

Gurutzean josirik il ebenai, ez eutsen Jesus'ek itzik esan; baña adiskide-irudiz, mosu emonaz, bere arerioen eskuetan Judas'ek itxi ebanean, bere naibage a agertu eutson esanaz: *Adiskide, ta zetara etoři zara zu ona? Judas: mosuz, Jaungoiko-gizona saltzen dozu?*

Zenbati ta zenbati, Jaunartzen datożan bakoitzean, ez ete dautse Jesus'ek berberau esango: *Adiskide, onetara zatoz zu nire maira? ¿onetarako Jaunartzen dozu? Apalki ta gur-egiteko tayuz, ta mun egiñaz ta mosu emonaz zure Jauna saldu ta bere etsayen eskuetan, zure naikunde ta griña makuren mendean ipinten dozu? ¿Ez al dakizu nire lenengo saltzale, Judas'en azkena?*

Bere burua urkatu, estanda egin eta urdail-esteak lertuta itxirik joan zala? ¿eztozu gomutatzen? Eta ¿ez ete leikitzu zuri beste ofenbeste jazo? Aren bideari jaraitzera, bere azken negargaria izango dozu noski.

ESKUAK LOTU. ¿Zertarako ete dator Jesus ona gure biotzera? ¿zeintzuk ete dira bere asmoak? Gugaz bat egin eta bidenabar, gu bere ondasunez bete, aberastu, orixek dira Jesus'en asmoak. Baña deungaro Jaunartzen dauanak, Jesus'en biotza biziro minberatu ta bere eskuak kate gogorez lotuta bezela lagatzen ditu. Ta ondasun orde z kalte izugarriak datorkioz Jaunartze bertatik. Israeldarai argi egioen laño zuri eder berberak iluntzen eban Aigitoaren bidea. Biotz garbia argitu ta indar zerutarez gogoa sendotu, ta goimaitasunez berotu egiten dau Eukaristiak, ta ikurton berberak biotz zikindunaren adimena ilundu, ta beronen gogoa auldu ta Jaungoikoa'gazko atzitu; ta gaizki Jaunartzen jaraitu badai, baita Jaunagazko gorotoz bezela suturik be itxi daroa.

ZIGOÑAK. Lurpeko leza-zuloak, edo urez edo aizez beterik ei dagoz. Aize au, an bere lekuan geldirik izten daben bitartean, geldi dago; baña geyegi estutu edo ertsitu ezker, lurpeko aize ori asaratzen da, ta bere bizkar gañetik ayenatzen ditu an aurkitzen diran etxeak, eta aitzak, eta mendiak eurak be, ta lasai ta bere aisa egoteko tokia nunbait bilatzen dau. Mendipeko aize estutua baño artegeago aurkitzen da gure Jesus, deungaro Jaunartzen dauanaren baruan.

Eta aize arenak baizen gauz arigarriak noizik-bein egin oi ditu, bere asarea agertzeko.

Eukaristiari zor yakon itzala adirazteko, oneitariko

batzuk aitatuko doguz, bai Lege-Zafekoak, bai Lege-Baŕikoak.

* * *

Lege-Zaŕa Lege-Baŕiaren irudi zala dirausku Paul deunak. Arei jazoten yaken dana, irudiz ta gure ikasbiderako jazoten yaken. Bada gauza deunai, ta deunen artean deunenari, Eukaristiari, zor yakon begitarte, ordutixek adirazi euskun Jauna'k. Ona emen *Kutxa deunari* itzala galtzearen ezaŕitako zigor batzuk.

KORE TA BERE LAGUNAK. Mois'en aldian, Aaron beronen anaya zan jaupari-buru. Ori eroan eziñik ebiltzan Kore ta beste gizon bi, Datan eta Abiron. Euron alde jaiki ziran beste beŕeun eta beŕogetamar. Aaron beste bazirala-ta, Jaungoikoa'ri kedatza (intzentsua) eskintzeko gertau ziran. Beŕeun eta beŕogetamar gizonok, bat-batean sortu zan suak kiskalduta itxi ebazan. Datan eta Abiron, etxeko atarian egozala, oinpeko luŕa, oŕoi izugaŕia egiñaz, uratu, ta euron emazte ta seme-alaba, mirabe, abere, etxe ta gusti ondatu ziran.

Kore bizi-bizirik lioŕak iruntzi eban. Kedatz edo intzentsu-ontziak baŕiz urtu, ta zigor onen gomutakitzat eta ondorengoak izutzeko, kutxa deunaren ateari josita gelditu ziran Jaungoikoa'ren aginduz.

AZOTO'N. Kutxa deuna Filistin'daŕen eskuetan jausi zan, eta oneik Azoto'ra eroan eta an *Dagon* eritxon jainko-izun zikiñaren ondoan ipiñi eben.

Biaramonean, ba-doaz jauretxera ta Dagon'en irudia, kutxa deunaren aŕean auspez datzala, aurkitzen dabe. Gora jaso, bere tokian ezaŕi ta ba'doaz baŕiro euren etxietara.

Ufengo goizean, Dagon'en irudia, ez jausita, beso biak eta burua gustiz ausi ta zatiak or-emen bananduta idoro zituen. Alan da be etziran seneratu. Baña afitzeko ta seneratzeko lain laster izan eben. Zauri biziz bete ziran; sabel-miñak eta berako latzak emon eutsen; atza ta kirats naskagaña erioela ilten asi ziran. Onezaz gañera, zelai-alorak sagu-samalda izugañiz bete ta euken gustia ortzikatu ta alpeñik galdu eutsoen.

Igañi eben Filistin'dañak nundik etorkioezan neke ta gaitzok. Dagon'en jauretaketik atera-ta, badaroe eñiz-eñi Kutxa deuna; baña eñi gustiai zigor berberau ezañi eutsen gure Jaun altsuak. Zenbatu ezin ala ilten ziran, eta zaurituak etziran osatu, arek-eta gaizki egiñaz damuturik, eta ondasunez beterik, Kutxa deuna Israël-dañen artera biurtzeraño.

BETSAMETAÑAK. Abade (jaupari) etzireanak, Kutxa deunari begiratzea-ta, are zoñotzago, ikututea, debekaturik euken. Betsametañak, Kutxa deuna itzuli eutsela jakin ebenean, estalia kendu ta bañuan egozan manantzi, Legeko ol, ta Aaron'en makilea ikusgureaz, ausarditsu uferatu ziran. Irurogetamar zaldun, ta gañerakoak beñogetamar mileraño oben onen zigoñez, an bertantxe ilda gelditu ziran.

OZA. Burdi bañi baten ipiñi eben Kutxa deuna, Jerusalem'era idiz eroateko asmoz. Idiok laster asaldatu, ta burdia zeañetara iraulten asi zan. *Oza*, itzai joyan. Kutxa deuna jausi etzedin, eskua luzatu ta eutsin egin eutson. Ikutu ordukoxe, Jaungoikoa'ren zigoñez, bertan ilik gelditu zan.

Kutxa deuna Eukaristiaren, edo zuzenago, oteundegiaren (sagrarioaren) irudia baño etzan. Bada irudiari

itzala galtzeak, orelako zigorak ekañi bazituen ¿zeintzuk zigor zorko etxakez gaizki Jaunartzen dabena?

ITUN-BARIKO ZIGORAK

Lege-Zaroko afigañien ondoan, oraingo zigorak ariñak dirudie.

Gogoña zan alabaña orduko legea; moñoi-legea zan; gurea bañiz, maitasun legea da. Lege onetan egiten diran utsak, ez daroye emen, biztaldi onetan, lenauko obenak aña neke ta zigor. Gerorako daukaz Jauna'k gure gaiztakeriari yagokezan oñaze latzak. Noizean-bein oñaitiño, Jaunartze deungearen itxusitasuna ta oñek gure Jesus maitegañiari emon daroatson asañe-bidea adirazteko, olako zigor batzuk ezañi izan ditu Jauna'k.

DUKE BATEN IKUSKIZUNA. Jaunartzen ziarduela sartu ei-zan bein eleiza batera *Bildekindo* eritxon Sajonia'ko dukea. Ume edeñaren irudiz ikusi eban Jesus Eukaristian. Batzuen agora poz - atsegin biziaz sartzen zan. Jaungoikoa'ren eskañez orniturik eta bear bezela gerturik Jaunartzera eltzen ziranak, ziran oneik. Baña jaupariak beste askoren espanetara eroyanean, Jesus Auña negar mosuaz jañi, ta bere esku-oñekaz, bere begi ta gorpuztxo gustiaz arein biotzean sartu nai-eza erakusten ebala zirudian. Gaizki autortu, edota gaizki gertatuta Jaunartzera etozanak ziran oneik.

ITOTA GELDITU. Emakume batek neke-bilduñez, siñesmena ukatu ei eban, diño Zipriano deunak (DE LAP SIS). Oben au autortzeke Jaunartzera eldu zan. Baña janari zerutar ordeñ eden eriozkiña artu eban, diño deunak. Ago erdi-erdian gelditu yakon osti deuna. Agoa ezin

batu; ezpanak itxi eziñik ta soña ikaraz dar-dar, bertan il zan.

BESTE ASKOREN ANTZEKO GASTE BAT. Filipiñak deritxon ugarte batekoa zan gizon gaste au. Ba-zebilan bere ideko beste asko ta asko legez, Jaunartzetik jolasera, ta jolasetik Jaunartzera, bere griñak ezi ta oben-bidetatik alde egiteko bear zan besteko asmorik bein be artzen ez ebala.

Seneratu nayez, emekitxo ba'zan be, Jesus'ek beronen asafea adirazi gura izan eutson. Jaunartu eban baten, osti deuna bere bañuan zaneko, sabel-min zořotz ařigariñoak emon eutsoen. Miñen-miñez egon eziñik, ba-doa gure gizatxar au, ta uřengo zikinkeriz beteriko zoko batera eldu zaneko, asi zan estulka ta estulka, ta bařukoekaz batera bota eban baita osti deuna be..... Bota ebanez batera, sabeleko bere miña joan yakon.

Jazoera onetan adirazi eban Jesus onak gaizki bizi danaren sabelean baño tokirik loyenean be nayago dauala egon. (MENDIBURU).

LENENGOZ DEUNGARO JAUNARTU TA IL. Oraintsu samar jazorikoa da au. France'ko uri ospetsu baten zan. Lenengoz Jaunartzeko egun zoragaña. Ba-zan an mosu alaya, iripaře gozo ta begi guraritsurik. Baña laño baltz izugari batek ilundu eban betiko egun argi aura. Mutiko bat Jaunartu ta bere tokira eldu zaneko, atzeruntz jausi zan. Konorte barik jaso eben bere etxera. Osagilien ekiñak alpeřikoak ziran; ezin seneratu eben. Oe alboan egoan jauparia be.

Alakoren baten mutikoak begiak zabaldu ebazan. Abadia itz egiten asi yakon. Mutikoak erantzun eutson: *Deungaro Jaunartu dot.* Ez eban geyago itzik egin. Arpegia ormaruntz biurtu ta bertantxe il zan.

JAUNARTZEKO GERTAERA

— *Eta oben astunen bat egin dauanak, bear dan lez Jaunartzeko, zer egin bear dau?*

— *Oben astunen bat egin dauanak, bear dan lez Jaunartzeko, autortu egin bear dau.*

Jaunartzera doanak bere burua aztertu begi, diño Paul deunak.

Buru-aztertze ori zer ete da? Oben astunaren erudun dana, naiz ta bere ustez maite-damuz garbaturik egon, Jaunartu aurretik autortu egin daitela, orixe da Belduak eskatzen dauskun azterketa, Trento'ko batzarak (SESS. XIII, CAP. VII.) ta Eleiz araudiak (KAN. 856) agintzen dauskunez.

— *Eta autortu ta gero, azturiko oben astunen bat gomutara yatorkonak zer egin bear dau?*

— *Autortu ta gero, azturiko oben edo pekatu astunen bat gomutara yatorkonak, oben ori autortu egin bear dau, edo Jaunartu baño len, edo ufengo autorkuntzan.*

Azturiko obenak autortutakoakaz batera parkatzen dira. Oben astunak ba, edo danak parkatu, edo bape ezta parkatzen. Baña gomutara etofi ezkerro, oben ori autortu beara dago, edo Jaunartu baño len, edo ufengo autorkuntzan, norberari egokien datorkionez.

JUNARTZETIK OBARI GEYAGO ESKURATZEKO GERTAKIZUNAK

Oben astunetik gogoa garbitu-ta bañiro obenik ez

egiteko bide galgañiak itxi, Jaunartzeko bein-beñekoa da; doi-doya, egin gengiken gitxiena ta nai-ta-ez egin bear doguna.

Baña Ikurton Deun-deunari dagokionez Jaunartzera eldu ta Jaunartzetik irabazi ta ondasun geyago eskuratu nai dabena, oñez gañera onomen eta eskañez gogoa apaintzeko sayatu bear dira.

Etxea, danik garbiena be, ormak agirian eta gelak soil-soilik daukazan bitartean, iñor artzeko eran ez dago. Are gitxiago, etxeratuko dana andiki omentsu-omengañi ba'litz.

¿Ba al da ba Jesus baizen andi omentsu omengañirik? Ta Jaunartzean ¿ez al da Jesus gure biotz-bañuraño zartzen? ¿Ez ete dogu, ba, gure biotza alik ederkien apaindu bear, Jesus'i gureganatzean, begia betetzeko, bere eskar ugariak irabazteko? Bai, ziñez. —¿Zer egin ofetarako?

LENENGO. *Gogoa garbitu. Sicut lilium inter spinas, sic amica mea inter filias.* (CANT. II, 2). Lili zuria arantz - artean legez, nire adiskidea alaben artean. Garbia benetan eta garbizale da Jesukristo, gure Jauna. Oben ariñak Ikurtonaren eskaña eragotzi ezañen be, baña goi - maitasunaren gaña epeldu egiten dabe, ta Jaunartzearen samurtasun eta gozotasuna galerazo.

Garbitasun au adirazteko, garbitu eutsezan Jesukristo'k ikaslai oñak. *Zuek garbi zagoze, iñotsen. Garbi dagonak, oñak garbitzea naikoa dau.* Oñetako auts oñeik egunero egin oi ditugun uts eta oben ariñak dira. Ori berori adirazten dabe jaupari edo abadeak meza-sañeran egin daroan damu-otoi ta enparau eskariak, baita eskintzaldiko atzamar-garbitzeak be. Ez ditu eskuak garbitzen, atzamar-ertzak baño. Oben astunetik garbi egonañen, oben auts ta samar oro be,

Jauna eskiñi ta artu baño len garbitu egin bear dituala erakusteko.

BIGAÑEN GERTAKIZUNA: *Siñesmen bizia*. Gela bat, danik edereña ta apainduena izanañen, ilunpean ba'dago, an sartu ta bizi naiko dauanik ezta iñor aurkitzen. Ilunak begietan jo garoaz. Gure buruak lasai ta aukeran izateko, argia bear dogu.

¿Zein ete da gure gogo-argia? Gure gogo-argia siñesmena da. Siñesmen biziago ta gogo begiak argiago ta zoliago.

Adimen (arazoi) argi ta indañez ikusi ezin daikeguna, siñesmen - argiz ikusi daikegu. Ta iñoz izatekotan, Jaunartzean gagoz siñesmen-beañez. Eukaristia, *mysterium fidei* deritxo: «Siñeskai - eskutua». Ogiaren antzpean, Jesukristo Jaungoiko-Seme bizia estalirik dago. Siñeste moteldunak, Jaunartzera be motel eltzen dira. Siñeste bizidunak ostera, apal - apal, itzalez ta begirunez bai, baña bai gogoz ta bizkor be, egañi dana itufi garbira joan oi dan baizen bizkor ta gogotsu.

Elisabete deuna, Andre Maria beronen etxera sartzen ikusi ebaneko, arituta gelditu zan, ta oñela ariturik iñon: *¡Baña! Nor naz ni, neure Jauna'ren Ama nigana etortzeko?* Berebat iñotson Jesus'i Eundariak, Bera beronen etxera etoñi ta moñoya osatuko ebala iragañi eutsonean: *Jauna, enaz ni nor Zu nire aterpera etortzeko; baña itzez bakañik esaizu, ta moñoya sendatuko da.*

Oñen ariturik, eta begirunez ta pozez eldu bear gintzakez gu be Jaunartzera. ¡Jauna! Zu nor zara ta ni nor naz, Zu nire biotz bañura etortzeko? ¿Ez al zara Zu Jaungoiko Seme Bizia? ¿Zugan ez al dagoz Jaungoikoaren jakituri ta ezaupideko ondasun gustiak? Eta ¿Zu, nigana zatoz?

Eregeen bigarren idaztian irakurten dogu, Dabid'ek Jonatas'en seme Mifiboset'i esan eutsola: *Zuk, gaurtik, nerekin neure mayan jango dozu.* Beronek erantzun eutson: *Nor naz ni, txakur zar bat baño, zuk nigan zure begiak ipinteko?* Oren pozez ta añiturik gelditu ba'zan gizon au, eregek bere maira deitu ebalako, ¿ez al gara gu pozago ta añituago Jaungoiko berberaren maira eldu bear?

Eukaristiari dagokion gerkunez Jaunartzera ezin eldu geintekizan ezkerro, eldu gaitez an beintzat apal-apal ta itzalez ta begirunez. Jauna, ¿nor da gizona zu oñela bera-gaz oroitzeko, ta nor gizasemea zuk ainbesteraño aintzatu ta jasoteko? Añiturik diño Eleizeak: «¡Gauza añaña! otsein txiro, apal, txatxañak bere Jauna jan daroa!»

IRUGAREN. Maitasunez goriturik eta uste osoz, eldu bear gara Jaunartzera.

—Baña ¿nun aurkitu maitasun eder ori?

—Otoitz onaren sutegian.

Jaunartu-añetik bastertxo baten jañi zaitez, ta an astiro ta añetaz zeure buruari itandu egiozu: —¿Ta zertara zuaz zu orain? —Jaunartzera. —¿Jaunartzea zer da? —Jaungoiko, gizon eña, janari-eran nik artzea. —¿Ezta gure Jaungoiko - gizon ori, Aita betikoaren Semea; Aita bera baizen bikaña, altsua, baster - bagekoa; asiera ta amairik ezin daukakena? Bere burua oñela emon daroastanak ¿zer emongo ez daust? Oso edeñki diño Krisostomo deunak. «¿Zein artzañek bere odolagaz ardiak janaritu ta alikatu izan ditu? ¿Zer artzañak? Amarik askok, oñazez sein-egin ondoren, beren eñayetako umeak beste emakume batzuei emon daroatsez titia emon eta azteko? Ez eban, ez, olakorik gure Jaun maitegañi onek egin; bere odolagaz janaritu, ta bereganatu eta bere biziz azi ta indañtu garoaz».

—¿Ta zertara etofí nai ete dau Jaun, ofen andi onek, nire biotza baizen toki zirtzil-loi-txaí batera? —¡Ni bere eskafez, bere bizitzaz, bere onaurki ta mesedez ofnitu ta aberasturik izteko. —¿Siñestuko zendun? Afitzeko ez al da au? —Baña, itxoin. Ez eban oben-izpirik izan Jesus'en Amak. Beti ta beti bizi izan zan Jaungoikoa'ren eskafez ta zeruko emaitzez edefturik. Lenaz gain, Ama onen baitan Jaungoiko Semea gizon egitera joyanean, Espiritu Santuak gertau eban beronen gogoa, ezin apañago. Ta alan da be, gure Eleiz Amak afiturik diñotso Jaunari: *Non horruisti Virginis uterum*. «Neskutzaren sabelak ez zinduzan ikaratu».

Bada gizadi osoaren onerako zala Jaunaren orduko Amaganatzea, ta izanik Ama Birjiña zan bezelakoa, gauza ofen afitzekoa ba'zan gure Jaunaren arganatze au, Jaun beraren niganatzea, nire on utsagaitik, eta izanik ni nazan lakoa, ¿nor ezta bertan afitua ta erdi-ila geldituko? (OTOITZ-GAYAK, MENDIBURU).

Au zuk, eta era onetako beste gauzaren batzuk astiz ta arduraz zure gogoan ausnartu; ta alan be, Jesus maitegaña gugana nayez dagoala ezagutu ezkerro, zure biotza, afizkoa ezpada beintzat, asiko da Jaungoiko-Semea maitatzen eta maitatzen. Zure begiak lotsaíen lufetik jaso ezin dituzula, baña maite zaituan Jauna zeuretu nayaz, Jaunartzera elduko zara. *Quemadmodum desiderat cervus ad fontes aquarum, ita desiderat anima mea ad te, Deus*. (PSAL. XLI). Basoko oraiñik bizkoñenak eztau, egañiz dagoenean, itufirako, gure Jesus maitegaña maite dabeñak Jaunartzeko beste nai ta gogo.

—*Bear dan lez Jaunartzeko, zelan egon bear dau gorputzak?*

—*Bear dan lez Jaunartzeko ta ofetan oben astu-*

nik ez egiteko, gorputzak baraurik egon bear dau, gaberditik eta Jaunartzerarte ezertxu be jan eta edan barik.

Agindu au zar-zaña da. Batzuen eretxiz, Belduak eurak ipiñia. Tertulian'ek beintzat, beste ezer baño len Jauna artzen ebela diño bere gizaldiko kistañak. Eta Agustin deunak, baraurik egozanak bakañik Jaunartu oi ebela. Gabeko amabietatik eta Jaunartzerarte, ezertxo be ezin jan edo edan leike, gexoaldian edo Eukaristia donausi edo deungaro erabilteko zorian izan ezik; eta jakiñez gañera zerbait jan edo edan ondoren Jaunartzen dabenak, oben astuna egiten dabe.

—*Nortzuk austen dabe barau au?*

—*Gabeko amabiak ezkeru zerbait jan edo edaten dabenak austen dabe barau ori.*

Iru gauza bear dira, ba, barau au austeko:

a) **AMABIAK JO.** Erloju bat baño geyago diran urietan, azkenen dabilanari jañaitu geinkio; baña bein joten asi ezkeru baraupean gagoz. Amabiak jo ete daben edo ez; amabiak jota, zerbait artu ete dogun edo ez; artu doguna jan-edari ete dan ala ez, *ezpai* gusti oneitan, Jaunartu geinke.

b) **JAN-EDARIA TA JAN-EDARITZAT ARTU.** Beraz ago ta agiñak uraz garbitu, espanak igortzi, txistu, samar, ari, eltxo, azur, atzaskal, tabakoñi, oyetatik darion odol, agiñartean geratzen diran ondakiñak... iruntziañen, ezta baraua austen.

z) **IRUNTZI.** Baraua austeko jan-edaria iruntzi egin bear da. Esne, salda, osakai, gozo... txastatu ta agoan erabiliañen, iruntzi ezik ezta baraua austen.

Ta oerakoan pastilaren bat aotan sartu ta iratzarke-
ran osorik dabenak? Oneik be Jaunartu legikiela diñoe
batzuk.

— *Barausita gero, noitzuk Jaunartu ete legikie?*

— *Eriotz aiskuan dagozanak, edonundik eriotza
datorkela, naiz gexotik, naiz osatebakuntzatik, naiz
epaikari zigoñez, barausita Jaunartu legikie.*

Ta bein eleizako legez artu ezkerro, gero, nai daben
egun gustietan, baita egunero be, eriotz-zoritik urten
arteraño. Eukaristia deungaro erabilteko zorian be,
lapuñak edo gaiztoak eleizara sartu ta gure Jauna
edozela erabilteko aiskuan, baraurik egon ezaren,
Jaunartu leike.

GEXOAK. Laster osatzeko itxaropen barik, ilabete
oyan daroyen gexoak, osakai edo edariz zerbait artua-
ren, astean bein edo biritan, autor-entzulearen eretxiz,
Jaunartu legikie. (KAN. 858).


Jaiki ta etzun ibili oi diran gexoak, edo oyan egon
ezinda, jezarita edo, egon oi diranak, eskubide ori
izango dabela uste dogu. Uruna edo afautzia iribiaua
esnetara edo saldara bota aren, naste ori edaritzat
artu legike.


GABERDIAN JAUNARTZEN DABENAK. Gabon gabaz edo
urtezar gabaz Jaunartzen dabenak, gaberdi - aurretik
baraua zaindu bearik eztabe, baña Eukaristiari zor
yakon itzalez ordubete edo bi aurretik baraurik egotea,
egoki baño egokiago litzake.

JAUNARTU ONDOREN. Txistua noz-nai bota leike. Ten-
telkeri utsa da, ba, zerbait jan arteraño txisturik bota
nai-ezta egotea, edo txistu botatze ori obena dala uste
izatea. Baita jan edo edan be. Ofaitiño Eukaristia

egosi arteraño ordu-lauren-bat inguru-baraurik egotea, askoz obe.

Barauaz ganera, garbi, txukun, jantzi, egoera ta ibileran gogo bañeneko siñesmen bizia agertzen dogula, eldu bear gara Jaunartzera. Emakumeak, batez bere, ezpeitez egundo soñeko motzakaz edo gizonen begiak eroateko alagalako diran jantzi nabarmenakaz, mai deunera eldu.





VII IKASKIZUNA

JAUNARTZEAREN ONDORENAK

Kristo gure Jauna artu.—Nekaustea gomuterazo.—Gogoa goi-eskafez bete.—Oben ariñak azketsi.—Astunetatik jabon.—Griña txafak ezi.—Jazopen bi.—Geroko zorionaren baitura.—Azken-jaunartzea.—Eleizakoak artzeko gertakizunak.—Safi ta egunero Jaunartzea.—Ume ta gastien safi ta egunero Jaunartu beaŕa.—Safi ta egunero Jaunartzeko atxakiai erantzuna.

JAUNARTZEAREN ONDORENAK

— *On asko ete datorkigu Jaunartzetik?*
— *Esan ezin ala onura ta bikain-bikaiñak dator-
kiguz Jaunartzetik.*

Atsegin eta ondasun bila zoraturik gabilz gizonok: ona emen, atsegiña ta ondasuna, ta diruz erosi ezin leiken biotzeko gentza darion iturri bizia. Ta joŕen gitxi eltzen dira iturri onetara!

Jaunartzen dogun baxotxean gomuterazoten daukuz Eleiz Amak Eukaristiaren onurak.

CHRISTUS SUMITUR. Kristo gure Jauna artu; enparau ikurtonetan, Jaungoikoa'ren eskaña artzen dogu, Eukaristian, Jesukristo berbera, eskañen sorburu ta iturria. Jesukristo'gaz bat egiten gara. *Concorporei et consanguinei*, diño Jerusalem'go Kuiril deunak. Jesukristo'ren gorpuzkide ta bere odolokide. *Nire aragia, benetan, janari da ta nire odola, benetan edari. Nire aragia jan eta nire odola edaten dauanak, nigan dirau ta neuk beragan.* (JOAN. VI. 56).

Beraz, janaria bafuko beroaren indañez, geure odol biurtzen dogun legez, Jaunartzean Jesukristo'k bere izakide biurtzen gaitu; janaria jaten dauanagaz legez, Jesukristo'gaz bat eginda gelditzen gara. Gauza afigari au zelanbait adirazteko, irudiki asko erabilten dabez.

Argizari-zati bi urtu ezkerro, biak bat eginda gelditzen diran legez, Jaunartzean Jesukristo'gaz bat eginda gelditzen gara. Eztogu, baña, Jesukristo geugan biurtzen; Jesukristo'k, berak beragan biurtzen gaitu; eztogu Jesukristo geure izakide egiten; Jesukristo'k bere izakide egin garoaz.

Sutan sartutako burdiñeak, suaren antza artu daroan legez, Jaunartzen dauanak be Jesukristo'ren antza artu daroa.

Ogi-ardaoaren eraskiak dirauen artean, Jesukristo berberak dirau gure bafuan. Baña Jesukristo'ren antzak beti iraun bear leuke. Bein Jaunartu ezkerro, Jesukristoren antzera apalak, Jesukristo'ren antzera garbiak, esanekoak, erukioiak, maitatiak izan bear gintzakez. Paul deunak diñoanez: *bizi dana ezpedi bere buruarentzako bizi, Jaungoikoa'rentzako baño. Ta bizi naz; ez gero neu, nigan Kristo baño.* Nire gogo, asmo, uste, itxarokizun, maitasun, ni nazan gustia, ta nigan agertzen dana, Kristo'renez bizi da: Kristo gure Jauna bizi da nigan.

RECOLITUR MEMORIA PASSIONIS EJUS. Jesukristo'ren nekaldia gomuterazo. Bere nekaldi samiña gomutazoteko itxi euskun Jesus maitati-maitagañiak ikurton gurgari au. Eguen Gurenez, lenengoz, ogi-ardaua bere gorputz biurtu ebazanean, Belduai iñotsen: *Au egingo dozuen bakotxean, nire gomutaz egikezue.*

Ogia egiteko, gari alea biñindu, ta egosi egiten dan legez, Jesus'en gorputza be, bere nekauste gogorean, zigoñez biñindu, ta eyo, ta naibage ta oñazez egosi egin eben. Ta ofela nekatutako gorputz ori, guri janari gozo ta estitzat emon daroasku. Latza ta samiña bereztzat; gozo ta estia gureztat. Biotzen apufik ba'gendu kistañok, pozez ta esker onez, egunero edo beintzat alik sañien, eldu bear gintzakez Jaunartzera.

MENS IMPLETUR GRATIA. Gogoa eskañez bete. Bear danez artu ezkerro, ikurton gustiak edo lenengoz eskaña emon edo eskar ori geitu egiten dauskue. Baña Eukaristia, bereziki ofetarakoxe ipiñia da. Ondoren ori adirazteko geratu zan Jesukristo, gure Jauna, ogi ta ardaoaren antzpean. *Sendoen ogia*, deritxo Eukaristiari. Janariz gure gorputza azi ta sendotu, ta gizendu egiten dan legez, aingeruen janari onez, gure gogoa azi ta gizendu ta sendotu egiten da. Jezabel, emakume nabarmenagandik igeska, Oreb mendiruntz joyan Eli igarlea. Nekearen-nekez aulduta, giñarape baten etzun zan. Luak artu eban. Aingeruak iratzartuta, iñotson: *Jaiki ta jan egizu.* Jaiki zan ba, ta sutauspean eřetako opila idoro eban. Jan-ondoren, bañiro bere bideari ekin eutson eta, eten bage, Oreb-mendirano eldu zan. Opil ori, Eukaristiaren irudi zan. Gizartetik igeska, deun izatera doazanak, zerutar ogi au sañi ta gogoz jan ba'dagie, deun izatearen mendi gurenera, gorengo malara elduko dira.

Eskar geitze onek, alik safien Jaunartzeko zaletu bear gindukez. Geroko zorionak, oraingo eskañari erantzun daroatso. Zorionaren azia da goi-eskaña. Emen eskartsuago ta gero zoriontsuago.

Janariak sendotuaz gañera, asetu ta atsegindu be egiten gaitu. Ta ori, jaki onaren eta jateko gogoaren neñiz. Jakia bikaiña ta jateko gogoa gartsua baldin ba'da, jatean artzen dan atsegiña be biziagoa izango da. Atsegin ori sortu daroa gure biotzetan Eukaristiak be. Ta ori, Jaunartzeko gogoaren neñiz; janaria, ba, berez bikain-bikaña yatzu.

OMNE DELECTAMENTUM IN SE HABENTEM. Atsegin oro beregan dauana. Mai deunetik, beraz, ase ta pozez jaikiten ezpagara, ezta janariaren eñuz, geure gogo epelaren eñuz baño. Gure aurretiko kistañak eraso ta jazañaldietan, edo eleizan edo etxean egunero Jaunartzen eben. Eleizara eldu ezin ziranai, etxietara eroaten eutsen. Zerutar janariz sendotuta, alai ta gogotsu joan oi ziran siñesmena autortzera. Ta guk, bizi-izatea baizen bizi, artzen eben areik Kristo'ren maitez eriotza. Areik legez elduko ba'giña gu be Jaunartzera, ligoieduz jaikiko gintzakez mai deunetik, txinparte dario gula ta txerenaren bildurgañi.

OBEN ARIÑAK AZKETSI TA ASTUNETATIK JABON. *Eguneroko obenak azketsi ta oben eriozkiñetik zaintzen gauzan sendakaya* deritxo Trento'ko batzañak Eukaristiari. Ta ori, era bitan egin daroala diño Akino'tar Toma deunak: Bata berenez, gogoaren janari danez. Egunero galtzen dogun gorputz-indaña janari bidez eskuratu daroagun legez, griña ta makurkeriz egunero galtzen dogun arimaren indaña, bear danez Jaunartuaz bañero geuganatzen dogu. Gero, Jaunartuaz goi-maitasuna geitu ta sutu egiten da. Maitasun oñek, bañiz, garbitu daroaz gure

arimako samar ta autsak. *Ogi onetik iñorbaitek jaten ba'dau, betiraunez biziko da.* Ezta egundo ilgo. Ofela iñotsen Jesukristo gure Jauna'k Judutañai. Gure griñak ezi ta arerioak azpiratzeko indaña emon daroasku Eukaristiak. Oben astunik ez egiteko sendakaya da, beraz.

GRİÑA TXAÑAK EZI. Zer ete dira griña txañak? Gure gogoia ta aragia alkañegaz zapuzka dabiliz. Gogoak nai dauana atsegiñik aragiak eztau gura, ta aragiak gura dauanik, gogoak nai ez. *Oneik biok, gogo ta aragia, alkañen arerio dira,* dirausku Paul deunak. Gure bañuan daroagun aragi edo gorputz-atsegin-gura oni, griña deritxo. Onerako naiz txañerako su-gaña emon leikegu griñak. Baña geyenez obenera nañaztu ta atsegin loyez zaletu garoazalako, griña edo iñitsa gauza txartzat ta lera okertzat artu oi dogu.

Gure griñok jatoñizko obenaz asaldauta, urdurituta doguz. Eztira era batekoak: batzuk bildurtiak, sutuak besteak, eta beste asko atsegin galduen bila dabilizanak. Atsegin txar loyen ondoren dabilana yatzu griña ta iñits artean galgañiena. Griña txar gusti oneik, eta batez bere lizunkeria azpiratzeko indaña damosku, ba, Jaunartze onak.

Gure gorputz berberak janaritu ta bazkatu ta sututzen ditu griña txañok; eta era askotara. Batzuetan, begiratu arin-lizunekaz sutu, edo begiak ikusten dabezan edertasunekaz, neufiz gora, zaletu egiten ditu. Gure belañietatik sartzen diran leusinga, maitekerizko itz, abesti ta soñuak, griña txañai atsegin yakezan janari ta bazka dira. Baita esku-ikutu, laztan, eta aragikoi-izketak soñerazten dabezan atsegin eta naikunde zikiñak be. Ta iñits oneik gura dituen gauza gustiak, gure gorputz berari atsegin egiten dautsoelako, griña txañok gura dabenera, osoro makurtua dago gure gor-

putza. Auxegaitik, ezta gizartean onek beste oben eta gaiztakeri eragin daroan griñarik. ¿Zer bide artu griña txarok ezi ta eskuratzeko? Zelan ito aragiaren naikunde zikiñok ¿Zelan itzali gure griña ats-loi-zikiñen sua?

Ofetarako eztago Jaunartze gogotsua lako biderik. Itufi onetako ur-garbi-zerutañak itxungiko ditu aragiaren txinparta goriak. Sartu gure baruan Jesus maitegarria, bere zeruko ur, iñotz ta aixe gustiaz, ta beronek sortuazoko dau gure biotzetan zeruraño jausten dan ur bizidun iturria.

Egi au siñestu-azoteko, jazopen bi aitatuko doguz, Lege-Zañekoa bata, oraintsukoa bestea.

IRU MUTILAK. Nabukodonosor eritxon Babilon'go elegeak, urezko jainko-aizun irudi ikaragarri bat eragin eban bein. *Dura* eritxon zelayan, mai baten ganean ipiñi-azo eban irudi au. Deitu ebazan gero bazter gustietako epaikari, zaldun, agintari ta zerbait ziran enparau gizonak. Irudia egoan tokira eroan, eta, berak ofetarako ots egiñaz batera, eresia jo eragiñaz batera, irudi a, euren Jaungoikoa bai litzan, belauniko jañi ta gur egiteko agindu eutsen. Soñua entzunaz batera egin eben bakaldun-agindua, iru Israel'dar ez, enparau gustiak.

Iru Israel'dañoi deitu ta badiñotse elegek, beste enpararuak egin ebena egin ezik, an, ofetarako gertu egoan laba gorian eñe, kiskaldu, urtu ta auts egin beañak zirala.

— Zeuk nai dozuna dagikezu, erantzun eutsoen iru mutilak Nabukodonosor'eri. Baña guk ezin geinke gure Jaungoikoa'ri izan ezik ezeri gur-egin. Eta Berak nai dauan eran, nai dauan aña eta nai lez atara geinkez sutarte ofetatik, baita zure eskuatatik bere. Nai ezpaleu bariz, jakizu, elege, zure jainkoaizunok eztoguzala aintzat artuko, ezta zure urezko irudiari gur-egingo be.

Ezin geyagoraño asarátzen da Nabukodonosor. Eragin leiken surik aundiena eragiten dau. Gañak ganez egiten dautso labeari. ¿Zeinbatez uste dozu? Berogeta bederatziz besoz. Ta oñak loturik, botatzen dauz iru Isráel'darok sutzar arigari aren erdira. Baña ¿zer jazoten da? Isráel'dařen botatzaleak labatik ataraten dan gañak ére ta ilten ditu; Isráel'dařak, osterá, lokañirik gabe, solozelayan ba'lebiltz legez, Jaungoikoa aintzatu ta Berari esker egiten diñardue.

Ikusi eban au Nabukodonosor'ek eta zan gustia ariturik geratu zan. Laba-agera ureratuki, iru Isráel'darokaz batera laugararen bat agiri zan, Jaungoiko - Semea zirudiana. Laugararen onek, laba atako gañak bastereratu, ta aixe-eze bigunez inguratzen ebazan Isráel'dařak. Deitu ebazan iru mutilak eta botazo ebazanean letxe atera ziran, ez éferik, ez kizkaltzerik, ez su kutsurik bape bage. (DAN. III).

¿Ikusten dozu gure Jaungoiko altsu maitegarriak legikena? —Su aregaz egin ebana ba, gure edozein griña txarez bere egin legike, naizta sua baizen bizia ta éretzalea izan. Ta orixe adirazten dausku guri jazopen onek.

—¿Zer dala uste dozu Babilon? —Gogo zikin, loyez-loi dabilanaren irudi da uri zantar zikin ori. —Eta ¿nor ete da uri onetako bakaldun, Nabukodonosor? —¿Zein ete da gogo-zikiñaren jabe ta buru? —Lizunkeria deritxon griña txara. —¿Zer, laba edo galtoki, karobi izugarri au? —Au da gure gorputza; azur-aragiz ta sanez egindako gorputza. —¿Nortzuk ete dira su ořetara gure gogoa jaurtitzen dabena? —Ořeik dira begiratze lizunak, aditze loi-maitekerizkoak, ikutze itxusiak, jan-edan beroak, irakurgai zikiñak, dantza lotua, zine zatařa ta ořelako gauzak. —¿Eta su ořetan jausitako gogorik ére

bage ete legoke? —Indar buruz, egin-beaíez, aratzen ba'da ta Isírael'daíen antzera an ba'dabil, bai. Bai; Jaunartzera ondo gertaurik eltzen danari; ta Jaunartu ondoren Jaungoiko-Semeak erakutsitako legez ta bidez dabilanari; emengo bide limurí-basatsuetan ez jausteko eskua ta laguntza eskatzen dautsanari, atsegin txarari lekuri ez egiteko iñontza ta aixe ezea, goi-eskaraz, oparo emongo dautsoz Jesus'ek.

Bai, diño Kuiril deunak, gure baruan dagonean gure aragiaren naikunde bero limurtiak eta griña ta irits asal-dauak ezi ta biguntzen ditu Jesus'ek; eta gure baruko su ta kezkek itzali. —¿Zelan itzali? —Mai onetan sortzen dan zerutar ura baster gustietara zabaldu daroan ituñiak. (MENDIBURU, OTOITZ-GAYAK).

SURTAN BIZIRIK. Kostantinopolis'en jazo zan bertoko Gongotzain, Mena deuna zala. Aldi atan, Jaunartu ondoren gelditzen ziran oteun edo osti-apurak, umetxoai emon oi eutsezan. Ostiak oraingoak baño aundiago izaten ziran; gure opilaren antzekoak. Beñola, kistar-umeakaz batera, judutar-kumetxoa eldu ei zan oteun-ondakiñok artzera. Etxerakoan, belu-samar zan-da, aitak itandu ei eutson: —¿Nun izan zara, seme? Mutikoak, zindo-zindo erantzun eutson: —Ikastolatik ara, kistar-mutilakaz eleizara joan naz. —¿Zer egin dozu, ba, eleizan? —Ba, an, Ogi deuna deritxona jan dot. Suak artuta gelditu zan aita. Kristalgiña zan, eta asarez burua galduta, mutikoa oratu ta laba gorira jaurti eban. ¡Oren gogofa yatzu judutaíen biotza ta ainbesterañokoa gure Jauna'ri dautsen amofua!

Ume-utsunea somau ebanean amak eta iñundik agiri etzala, zorabiauta eragoyon uri gustitik ume-bila.

Irugaíen egunean, laba ondolik igarokeran, mutikoak dear-egiñ eutson: —¡Ama! emen nago. —¿Nun, seme?

—Ementxe, laba-bañuan. ¡A poza! ¡A biotz zauzkadea! ¡A benetan gauza ari-gaia! Labako atea zabaldu ebanean, umea, bizi-bizirik, gordin-gordiñik, ére-kiratsik iñun be ez ebala, atera zan.

—¿Nok zaindu zaitu, seme, sutartean? —Andra eder-eder bat agertu yat eta suga-retik alderatu ta jatekoa emon izan daust.

Jazopen ari-gaia au, beingoan zabaldu zan uri gustian. Justinian, kaiser-agana be eldu zan. Egin alak egin ebezan judutar zitala damutu ta Jauna'rengana biurtu zedin, baña alegiñok alpeñikoak zirala ikusirik, agintariak urkatu eragin eban. (BOLAND. DAGONILA 25-GN. MENA DEUN BIZITZAN).

Ori baizen gauza ari-gaia egin daroa oteunak siñesmen biziz, biotz garbiz ta gogo sutsuaz Jaunartzen dabenez. Griña txar gustien su-ga-retik, baña batez bere, lizunkeritik zaintzen ditu. *Aukeratuen janaria ta giz-garbiak sortzen dituan ardao da Eukaristia.* Garbi, garbizale, garbi izan erazo ta lili garbi artean ditu bere atsegiñak, Eukaristian artzen dogun Bildots garbi, érugeak.

FUTURE GLORIÆ NOBIS PIGNUS DATUR. Geroko zorionaren baituratzat itzi euskun Jesukristo'k Eukaristia. Orixe irakasten dausku Trento'ko batzañak (1), eta berberori agindu euskun Jesus onak: *Nire aragia jan eta nire odola edaten dauana, betiko biziko da, ta neuk piztuko dot azken-egunean.* (JOAN, VI).

Atsegin baratzean zugatz bat ipiñi eban Jauna'k, zugatz onen igalia jaten ebanik il etzedin. Zugatz ori Eukaristiaren irudia zan. Zugatz aren arnariak bizitz-azia beragan eroyan legez, Eukaristiak be, zelanbait,

(1) Sess. XIII, cap. II.

bizitz-azia gure gorputzean erain daroa. Ta azi ořek Jaungoiko-itzaren indařez, azken-egunean indařa artu ta gure gorputza aintzatsu ta zoriontsu piztuko dau. «Jatořizko obenetik datorkigu eriotzaz gure gorputz usteltzea; bařa Jesukristo'ren gorputz-bidez gure aragia piztuko da; siřesgaitza da, ba, ta eziřa bere bai, Kristo bizitz berbera izanik, Jaunartzean Jesukristo gure Jauna artu ta euron baitan euki ta erabili izan dabenak, ez piztutzea. Bere aragia guri emotean, Jesukristo'k bizitz-azia ipiři daroa guregan, eta azi ořek kentzen dautso gure gorputzari beronen ustelkortasuna». (1)

Jaunartzen dabenak bakařik biztuko diranik eztiřogu; jakiřa da, ba, ugutzau ondoren ilten diran umeak eta maite-damuz Jauna'ren besoetan ilten diran nagosiak be, zoriontsu biztuko dirala; Jaunartzeak, ořez gařera, berbiztuteko eskubide bařa emoten dauskula bařo.

Jesukristo gure Jauna'ri, Jaungoiko-Seme zan ezkerro, piztutzea berenez egokion; bařa ořez gařera, nekauste, ořaze ta gurutzeko eriotzaz, piztutze ori irabazi eban. Berebat, kistařoi, Jaungoikoa'k semetzat artu gauzanetik, berbiztutzea ta zoriontsu izatea dago-kigu; bařa Jaunartzen dabenak, arez gařera, Jaunartzez piztutze ori irabazten dabe.

— *Jaunartzen dabenen ondasunak, ořen ugariak izanik ęzer dala-ta Jaunartzen daben askok eztabez ondasunok eskuratzen?*

— *Ondasun ořeik eztabez batzuk eskuratzen, oben ariřez beterik eltzen diralako Jaunartzera.*

Oben ariřok bitarikoak izan daitekez; geure argal-

(1) Kuiril Alexand. Deharbe.

keriz, oartzeke, egiñak, edo gogo osoz egiñak. Makalkeriz ta oartzeke egiten doguzan oben ariñok, eztauskue Jaunartzearen ondasunik eragozten; bai baña geure gogoz egin oi doguzanak. Era onetakoak dira, gauza txarrik ikusi ezañen, agertzen dan edozer ikusguz dabilzan begi ariñak. Inorgaitik gaizki aundirik esan ezañen, beti eragoten eta jardunean dabilzan baritsuak. Ezigaitzak, eta etxeko adiskide ta lagunak mindurik itzi oi dabezenak. Gaizkirik opa izan ezañen, arerio ta kaltegiñai betozkoa ipiñi ta amoru zerbait dautsenak. Loari, jan-edanari, jolasai bear baño esku geyago emoten dautsenak. Norberaren edo besteren arazoai bear danez begiratzen eztautsenak; baita guzurtiak, eta beste edozein uts txikitara oituak dagozanak bere.

Oneik gustiok oben lañirik izan ezañen, eztabez, bear danez gertauta doozanak artzen dituen eskar ta ondasun asko ta asko artzen. ¿Zegaitik ete? Ondasun oñeik artzeko lekurik eztabelako. Buru-maitekeriz beterik dagoz; purtzilkeriz orniturik dabe gogoa, ta Jauna'ren emokai ta ondasunentzako tokirik ez.

Eper bana jan begie osasuntsu dagon batek eta gexotia dan beste edozeñek. ¿Zer jazoten da? Osasuntsuari epeñak on egin eta indaña artueragiten dautso; gexoari, bañiz, on egin beañean kalte dagio. ¿Zelan baña? ¿Ez al zan eper bata baizen ona bestea be? Bai; baña ez izan erisko edo gexorik dabilen eper-jaleak, osasuntsuak baizen baru garbia. Ezin, ba, gexoak osasuntsuak beste atsegin-indañik artu. Ori berori jazoten da Jaunartzean be. Bik Jaunartuañen eta Jaungoikoa'ren eskar eta adiskidetasunean Jaunartuañen, gar-garbi ta gogotsu Jaunartzera eltzen danak ainbat gogargi, ainbat atsegin, ainbat ontzeko naikunde ta indar eskuratu daroa; baña oben ariñaren auts eta bitsez eltzen danak,

zerbait eskar ta indar artuañen, Jaunartze on-onaren gañerako ondasunak, edo beintzat asko galdu oi ditu.

Jaunartu ordukoxe batzuk gogo bañeyatzen dabe. Jesus maitea, bakar-bakarrik itzi, ta ba-doaz, nok daki nora, gogoak emoten dautsen tokietara ta bazter galduetara. ¿Ez al da au gauza negargañia? Jaun berbera gure etxean euki; guri geure biotzean itz egin nayaz; bere ondasunez gu bete ta aberastu nayaz. Ta gu bañiz, gogo ta biotzez nok daki nun ¡Jauna'ri begiratzen eztautsogula; bere itzik aitzen eztozula; bere ondasunik eskatzen eztautsogula! ¿Nun ete da gure sentzuna? Ereal biko bat gure Jauna'gandik artzea ba'gendu, afe-taz ta gogoz izango giñake diru zirtzil ori geuregandu arteraño. Ta ufe-zidar gustiak baño ondasun bikañagoak eztozuz aintzakotzat artzen. Eskatu alde emon gura, ta eskatzezañen, etoñi dan legez, edo beintzat atara gengiken laurenik atara bage joaten laga gure Jaun onari.

Jaunartzean, nozbait, arako biotz gozotasun eta samurtasuna somau ta nabaitu ezañen, enparau ondorenak eskuratu geinkez. Jatean atsegiñik izan ezañen, janak on egin legikio gexoari. Gozotasun eta samurtasun ori Jauna'k ukatu daroaskuz, arotu ez gaitez; garean baño geyago gareala uste eztaigun; geure buruak apaletsi daiguzan.

Baita geuk igafi ezta be, gogoz sendotuaz ta indartuaz joan geintekez. Bizidun gustietan jazoten da ori. Landaratxoa azi ta zugatz egin dala ikusten dogu. Baña azten eztauskusku. Geu bere, len ume giñan; txiki giñan; gero, azi egin gara; gizon egin gara. Baña azikera ori ixil-ixila ta eskutu-eskutua izan doya. Auxe jazoten da gogoari buruz be.

AZKEN - JAUNARTZEA

1. Eriotz aldian, edonundik sortzen dala, ezaguerudun kistar gustiok Jaunartu beara dogu. (CAN. 864).

2. Egun atan bertan Jaunartu izanañen be, bapatera eriotz zorian jañi diranak, bañiro Jaunartzea egoki be egoki izango litzake.

3. Eriotz-añiskuak dirauan bitartean, autor-entzule zuñaren eretxiz, egun berezietan, Jaunartu leike ta egoki da.

ELEIZAKOAK ARTZEKO GERTAKIZUNAK

Etxea ta gexoaren gelea, al danez, garbitu ta apaindu beitez gure Jauna'ri yagokon itzalez. Gexo-gelan eta, al dala, bere auñez-aur, maitxo bat oyal zuriz estalita jañi bedi. Mai gañean ipiñi bear dira: kandela bi, ur onetsia, kopatxo bat ur garbi pitin bategaz, Jauna emon ondoren jaupariak atz-ertzak garbitu ta gexoari edan eragiteko; zapi zuri bat gexoaren papañean, oteun zatitxorik jausiko ba'litz edo gexoak berak estulaz edo, botako ba'leu, zapien gelditu dedin.

Gure Jaunagaz batera, gaur oi danez ta oso egoki oi izan be, Azken-igortzia artu bear ba'leu, oñez gañera, gurutze bat, eñetiloan kiñu edo guate piskat igortzia leortzeko, ta eskuak garbitzeko ura.

Gexoagana Jauna'ri lagun egitea, eñuki egintzarik onenetarikoa ta Eleiz Amak nekazka edo parkamenez aberastua yatzu.

Baita etxekoak Jauna'ri argiekaz bidera urtetzea be, eraskizun begiko ta txalogañia ta etxera datorkigun Jauna'ri menduz ta maitasun legez zor dautsogun txera ta añera ona baño ezta.

— *Zelan egin bear dogu azken-Jaunartzea?*

— *Era aonetan egin bear dogu azken Jaunartzea:*

Edozein Jaunartzeri yagokoz orain artean adirazi doguzan garbitasun, gertaera ta gogo-apaintza. Baña are geyago azkenari. Azkenak ufengorik eztauko. Eztago, beraz, orduan egindako utsak bete ta okeak zuzentzeko astirik.

LENENGO TA BEIN, adionez Jaunartu bear dogu; burua nastu baño len; erioak bere erpa zofotzak egotzi baño len; konortea galdu-aufetik; egiten doguna alik arduratsuen egiteko gai gareala. Ez bildufegi izan. Jesus gure Jauna osagile lez datorkigu, gure gexoa sendatzera, egoki ba'da, edo gexoaren naibage ta onazeak emeki eroateko laguntza ta indara emotera. Azkatzale lez datorkigu, gu griña txafen eta arerioen menbetik azkatu ta Jaungoiko-umien jareitasun eta buru-jabetasuna emotera. Poz-asegile lez datorkigu, gure biotz-laria atsegindu ta gogo estua nasaitzera. Irakasle legez, gure siñesmena biztu ta adimen-ilundasunak uxatzera. Adiskide zara legez, gure gogoa sendotu ta etsayari gugandik iges eragitera.

GERO, lufeko gauzen ardurea gogoz ta biotzez itzi. Geldokira eldu dana, bultzitik jazten dan legez, eriotz-aldira eldu danak be, atzeri onetako arazo ta buru-austeak bidean doazanen lepo itzi ta Jaungoikoa'gazko zeregiñai gogo gustia ezari bear dautse. Bereak ezpada dituan ondasunak, bakotxari berea emon, eta enparauak dagokiozanari edo berak ondoen deritxonari; ta bear dan eraz, artzekodunen artean auzirik edo naibagerik izan eztedin.

Buruak aldi atan lagundu ezkerro, ta gexoa atarako dagola, bizitzako gaiztakeri ta oben gustiak gogora

ekari, ta alik zietzen eta garbien autor-entzuleari esan begioz. Lan au, uste baño eřazago ta gozatsuago dagike, len sari autortzera oitua dagon gexoak; len, bein eta bařiro bere bizitzako autorkuntza eginda daukan eriak; lenagoko bizibide txara itxi ta bide onari arduraz jaraitu izan dautsonak.

Era onetan bizi izan eztanari, jakiņa, neketsuago ta latzago egiten yako. Sukařez ta oñazez dauka gaxoak bere gorputza. Kezkak-kezken gain, naibage lařiak duakioz bere biotz erdi-ilerera. Ezpeite, baņa, gogo yotu. Ezpegi itxaropena galdu. Bizi garean artean zuzendu ezin leiken okeřik ezta. Gogo ona, Beragana biurtzeko asmo zintzoa baño eztautso Jaungoikoa'k eskatzen. Ori izan ezkerro, autor-entzule Jaungoiko-zaletsu bat deitu begi, ta beronek arildu daroaketso bařuko korapiřoa, danik nastuena izanda bere.

Damuz autortutakoan, Jauna'ri txerarik edeřena egiteko gertau beite. ¿Zer uste dozu egin ebala Jeronimo deunak une ořetan? —Damuzko soņezko baltza jantzi eban; gero, luřean belaunikaturik, garbaiz bere bulařa ukabilka nekatu, ta negar-sotiņez Jaunartu eban. Eztausku guri ořenbeste Jesus'ek eskatzen. Baņa bai, apal-apal, itzalez ta maitekiro Jaunartzeko gertau gaitetzala. Bidari da, zerura bideko gure janari. Bide luzea artzeko asmotan dagonak, biderakoa gertau daroan legez, guk be zerura biderako janari bikain ori artu bear dogu.

Jaunartu ondoren, bakar-bakari, ixil-ixilik geratu. Esker egin. Bere ondasunak eskatu. Bařuko poza, gexoko naibageak eroateko laguntza, eriotz ona, Jaungoikoa'ren naitara osoro etzuteko kemena. Ta aldi atan nekazka edo parkamenak irabazteko asmoa izan.

SAFI TA EGUNERO JAUNARTZEA

Siñesmena ta Jaunartzea, biok alkañegaz dabiltz. Safi ta egunero Jaunartzeak siñesmena biztu, ta siñesmen biziak Jaunartzeko gogoa, ta gogoa ez eze, gosea be sortu daroa. Siñesmen epelak Jaunartzeko gogoa be epeldu. Orixe jazo zan kistar artean. Eguneroko Jaunartzea itziaz, siñesmena epeldu ta oiturak usteldu.

Azkenengo gizaldietan, ezpai latzak sortu ziran, edonok egunero Jaunartu ete leikean ala ez; Kistar gustiai egunero Jaunartzeko ateak zabaltzea egoki ete zan ala ez; ta safi ta egunero Jaunartzeko, noizean bein artzeko baño zietzago gertau bear ete zan ala ez. Ona, Eleiz Amak ezpai onek ebazteko emon dituan arauak:

1. Safi ta egunero Jaunartzea Jesukristo'ren eta Eleizaren gogo-gogoko da; kistar gustiai, beraz, edonortzuk dirala, zilegi yake, ta mai deunetik ezin alde eragin leikioe, baldin Jaungoikoa'ren eskar ta adiskidetasunean eta asmo zuzenez eltzen ba'dira.

2. Jaunartzera eltzen dana, eztaitelatela oituraz edo burua erakustearan, edo gizonen ederez, Jaungoikoa'ri atsegin izan, Beragaz maitekiroago batu, ta osaki zerutar oñegaz bere utseite ta makalkeriak sendotzearen baño, mai deunera eldu; orixe da asmo zuzena.

3. Safi ta egunero Jaunartzen dabenak, oben ariñetatik, gogo osoz egiten diranetatik beintzat, ta oben oneik gura izatetik, garbi irautea, egoki be egoki izanaren, baña oben astunetik, egundo obenik ez egiteko erabagiaz, burua zaintzea, naikoa da; benetako erabagi onegaz egunero Jaunartu daroyenak, ba, oben ariña ta oben-gurea be, berez-berez itziko dabez.

4. Lege Bariako ikurton-arnari ta ondorenak, euro-

nez, ikurton indañez datorkiguz; baña norbera gertuago ta ikurton arnaria be ugariago izango da; beraz Jaunartu aurretik, arduraz gertau ta artu ondoren, bakotxak al dauanez, ta bizibide ta egin beafai legokionez, esker egiteko leyatu.

5. Sañi ta eguneroko Jaunartzea zuurkiroago egin eta irabazkořago izan dedin, autor-entzuleari beronen eretxia eskatzea egoki da. Ezpegie baña autor - entzuleak, Jaungoikoa'ren eskar edo grazian eltzen danik, sañi ta egunero Jaunartzetik aldendu. (1).

Oneixek dira Eleiz Amaren arauak sañi ta egunero Jaunartzeari buruz. Sañlau itzi baño len, gauza bi azalduko doguz: Bata, sañi ta egunero Jaunartzea, enparauentzat onuratsua dalarik, askoz onuratsuago dala gasti-tientzat. Bestea, sañi ta egunero Jaunartzeko atxaki ta akiakulai erantzuna.

UME TA GASTIEN SAÑI TA EGUNERO

JAUNARTU BEARA

Itxi umeak Nigana eltzen. (MARK., X, 14).

1. Umeak berez dira urduri, jolaskoi, zaratatsu, kaskarin; bañez edo negañez, alkañi kiñaka edo ziñika, ezin geldirik egon; umeak, ume. Bizitasun ori dala-ta, Jauna'ri itzalik eztautsela-ta, eztabez askok Jaunartzera ekañi nai izaten. Oraingoak legez Jesukristo'ren aldikoak be, ume ziran. Eta Jesukristo'k maite ebazan eta bereziki maite be. Ta bereziki maite ebazan, umeak apalak, zintzoak, tolesbageak, biotz garbidunak,—ume ba'dira beintzat — izan oi diralako. Ona nor dan eta nok

(1) S. C. C., 17 decemb. 1905.

maite dituan igarteko, umien begiak baizen begi zolirik ezta. Umien agotik artu ebazan Jesukristo'k omen eta gorespenik zindoenak bere egunik aintzatsuenean, abar-igandean, Mesia, Jaungoikoa'k bialdua legez, Jerusalem'en sartu zan egunean.

Ba-ziran, bai, orduan be umeai Jesukristo'ren ondolik puñustadaka alde eragin gura eutsenak. Umien abesti ta saratakaz min artzen ebenak. Baña Jesukristo gure Jauna umien alde jañi zan: *Itxi umeai Nigana etorten eta ez eragotzi, Jaungoikoa'ren eñia eurok lakoena da-ta.*

Ekañi, ba, umeak Jesukristo'ren ondora. Ekañi umeak Jaunartzera. Taketa lez zuti ta geldi egongo diranik ez uste: ez uste añizko diranik. Ume dira, ta ume bizi, urduri ibilikoi. Ba-daki ori Jesukristo'k. Ezta umien bizitasunez, gure antzera, asañe jarten. Ezta gure antzera, umez aspertzen. Alik ondoen Jaunartzeko gertau. Baña Jaunartzeko gertau, umeai yagokenez, ez irurogei urteko agureai dagokienez. Gogoan euki, sañi ta egunero Jaunartzeko, gauza bi baño eztirala bear: Jaungoikoa'ren eskardun izan eta asmo zuzenez Jaunartu. Umeak asmo zuzenez eltzen dira Jaunartzera. Jesukristo maite dabe. Jesukristo'ren gogoko dana egiteko gertu dagoz. Are gertuago Jesukristo bera artzeko.

Ta umien umetasuna (apal, men, zintzo, garbi izatea) zaintzeko beste biderik eztago; sañi ta, egunero obe, Jaunartuazo. Ori egiten eben lenengo gizaldietako kistar umeak; ikastetxetik urten dakoan, egunero Jaunartzera joan oi ziran.

İlero Jaunartu eragiteko umien bazkunak jartea (adibidez Koskatañak, Otoi-bialguntza, Tarsizi'tañak, Miren seme-alabak, lenengo mañea), lan eñaza baizen onuragiña ta gerorako mintegi ugaria dala deritxot. Batez bere, lenengoz Jaunartu ordukoxe ilen lenengo bedera-

tzi Barikuak eragin; eztira iñoiz Jesukristo'ren agindua irabazteko gertuago egongo-ta.

Baña, gaur egunean, umien eñugetasuna, biotzeko garbitasuna eusteko iñeroko Jaunartzea ezta naikoa. ¿Zer dala-ta? Batetik, txañerako goizago iratzarten diralako. Geroago ta zoliago datoz. Ona ta txaña ezagutzeko argiago. Ta argiago baizen buru ariñago ta txañerako makuñago. Otoyak buruz, zietz-zietz, dakiezan urte bi-terdiko umeak ezagutzen doguz. Ta sasaki urterako, gure amandreak beste dakienak be bai. Gero, gaurko umeak aixe ustela artzen dabe. Ikusi, entzun, irakuñi, arnasaz batera lizunkeria iruntziteko eguratsean bizi dira. Buru-arintasuna sendotzeko; Jaungoikoa'gazko bilduñez erabili ta obenerako goñotaz azteko, astero beintzat, egunero ezin ba'litz, Jaunartu beaña dabe. Bekie ori, seme-alabak Jaungoikoz azi ta landuteko leyatzen diran guraso bakanak.

Onegi edo menegi izango ete diran, ala jaupari edo lekaidetzan sartuko ete diran bilduñez, umeak sañi Jaunartzetik alderatu edo Jaunartzea galera zoten dautsen gurasoak, eztira guraso, umien iltzale baño.

GASTIEN SAÑI TA EGUNERO JAUNARTZEA

Etoñi Nigana neke ta loñetan zagozen gustiok; eta Neuk indartuko zaituet. (MAT., XI, 28).

¿Nortzuk ete dira neke ta loñetan dabilzan bidari oneik? ¿Nortzuk zamapean, lorpean dagozan langileok?

Ezagueradun kistar gustiok gabiltz neketan; ezagueradun gustiok gagoz zama ta lorpean. Baña gasteak, berez urduriago diran ezkerro, gastien neke ta loñak be, enparauenak baño eñe-miñago ta eroan-gaitzago yatzuz.

¿Ta zer neke ete dira bidari ta langileok dabezan nekeak?

Txeñenen aldetik, gizatxafen aldetik eta griña ta oitura gaiztoen aldetik datorkiezanak dira neke oneik; neke gogofak eta, iru areriuok, oi dabenez, alkar artzen dabenean, ezi ta eroan-gaitzak. Andik edo emendik, maltzur gaiztoak dakianez ta gizonagazko amofuak deragionez, txeñenak beti diñardu kiñaka ta zirika. Eztauka beste zeregiñik. Ez jan edo lo egin beafik. Ez bizi-bidean edo jolasetan astia erazo beafik. Gizona zirikatu; gizona obeneratu, are geyago gastea; orixe da gogaiztoaren asmo ta arazo bakafia. Ta gogaiztoaren zirikadak gitxi ba'lira legez, gasteak bere lagunak ditu zirikatzaie. Asafekeriak dirala, birao zantafia dala, lizunkeria dala, jolas labanak dirala, lokatz artean dabilana baizen arduratsu ibili-beafia dau gasteak, bere burua garbi zaintzeko. Ta batzuetan arerioen zirikada latzai jarki, ta beste askotan gizonen txarkeriak eme-emeki eroan-beafia, neke andi ta egiteko gogofa da.

Beste zirikatzaierik izan ezta be, beragan dau gasteak bere burua, bere griña txafak, bere aragia; aragi au atsegin loi galgafietara makurtuta dago; ta ara jausi eztedin beti tiraka ibili-beafia, zeregiñik nekegafiena da. Nekegafiago ondiño, len gaizki bizi ta obenak itxitako zauriak (oitura txar ta griña asaldatu-urduriak) lotuta ba'lebe.

Neke oneik edozeñi gogoa sumindu, gafaztu, ta gasterik asafienari ta kementsuenari buru-auste latza jarteko naikoa diralarik ¿zer izango ezta irurok bata bestien alde jokatu ta gaste gaxoa luferatzeko alkartzen diranean?

Ta ¿zer zama ete da gastien zama ta bustafi ori? Gure Jaungoiko berberaren bustafia da zama ori. Jaun-

goiko-Legea ziero bete-beaia; Jauna beste ezer baño maiteago izan beaia; gaizki egiten dauskuenai on egin eta gofoto gaituenak maite izan beaia; norberaren sentzun, biotz, gogo-almenak ezi; begi, belai, mingain, gogo ta soñari nai leukiezan gauza asko ta asko ukatu, ta gura eztabezan beste asko ta asko eragin beaia ¿ez ete da naikoa zama ta bustaia? Ta len aitatutakoaz gañera bustaia ori lepoan darabilana ¿ez al da erukaia? ¿ez al da, noizik-bein, atsedean bear, janari ona artuaz, indar baiak bereganatzeko? Ta ori adionez ez egitera ¿ez ete da zamapean, griña txaien atzamañetan eten-da jausiko?

Olakorik jazo eztakion da, ba, Jesus'en deya; zamapean auldu ez daiten, agindu ta eskiñi daraotso Jesus'ek zeruko janaria. Betoz gasteak saia ta egunero bazkari onetara Jaungoiko-Legeko bustaiapean eta griña txaien mendean jausi ta il ez daitezantzat.

Eli legez, mendi-goruntz doaz. Jezabel zitela gastien odol-egaia da. Griña ta gizatxañak, txaienak sututa, gastea galdu gurarik dabiliz. Zeruko ogia saia ta gogo onaz jan beañean dagoz, mendi-galuñera, kistar zintzoak izatera, deunak izatera, Jauna'ren aginduak zietz jabo-tera, eldu nai ba'dabe.

SAIA TA EGUNERO JAUNARTZEKO ATXAKIAI ERANTZUNA

1. *Enaz egunero Jaunartzeko baizen ona ta deuna.*

Orixegaitik Jaunartu bear dozu ba. Eztoigu onak garalako Jaunartzen, onak izateko baño; on izatearen saritzat etxaku Jauna emoten, on izateko bidetzat baño.

Gure gogoak sendotu ta gure biotzak goi-maitasunez sututzeko da Eukaristia. Gañera, ainbat bider esan dogu, Jaunartzeko gauza bi baño eztirala bear: Jaungoikoa'ren eskardun izan eta asmo zuzenez Jaunartu.

2. *Jaunartu aurretik ezin autortu neike-ta, bear danez, gertau bere ez.*

Eztozu autortu bea'rik be. Oben astunen bat egin ezik, Jaunartu baño len autortu bea'rik ezta. Egun bat edo bestean uts eginda bere ez. Beraz igandean Jaunartu ta egubaztenez mezatara ba'zoaz, bitartean oben astunen bat egin ezik, ardura barik Jaunartu zengike. ¿Jaupari ta lekaideak egunero Jaunartzen eztakusuz ala? Geyenez, ba, astean bein autortu oi dira. Ja'raitu, beraz, aren oiturai.

3. *Ta ¿oben astuna egin ete dodan ala ez, ezpayan ba'nintz?*

Autor-entzuleari gogoa agertu ta berak esangotzu zer egin. Baña jakizu, ba'dezpadako obenak autortu bea'rik eztautzula Eleizeak egotzi.

4. *Ta aztutako oben astunen bat gomutatzen ba'yat?*

Oben ori Jaunartu baño len autortu zengike, eroso ba'letortzu, osterantzean, ba'riz, u'engo autorkuntzan.

5. *Gertatzeko ta esker egiteko astirik eztat.*

O'fretarako ezta asti aundirik bear, gogo zindoa baño. Dolorkeri minga'fia da batzuk egin oi dabena: eleizan

sartu, autortu, bape gertatzeke Jaunartzera joan eta zuzen, Oteuna ondiño agoan dabela, eleizatik urten. Oñeitarikoak, baña, nekez Jaunartzera joaten diranak izan oi dira geyenez. Jaunartzeko, al dogunez, gertau ta artu ondoren esker egin beara dogu. Baña ori era askotara egin leike. Gabaz loak artu aurretik, ufengo goizean Jaunartu bear dozula gogora ekañi; iratzartutakoan, zure biotza Jaungoikoa'gana jaso; etxetik eleizara orixe gogoan erabili. Jaunartutakoan, bestetarako astirik ezpadozu, Miren Andera, aingeru ta deunai, zure ordez Jauna goretsi ta esker - egin dagioela eskatu; zeure burua ta egun-baño lan, neke ta jardun gustiak eskiñi.

Autor-entzuleari itandu ta berak irakatsiko dautzu zuri dagokitzun gertaera ta esker egiteko bidea.

6. *Jaunartzera oitu egingo ete nazan bildur naz.*

Ezkara, oituraz, Jaunartzera eldu bear; ori egia. Baña gizartean be, jakintsuekaz dabilzanak, zerbait ikasi egiten dabe; ta onakaz diñarduenak, eurak be, goiz-belu, ondu egiten dira. ¿Ez ete da, ba jakintsuetan eta onetan onena Jesukristo? Eldu, ba, eldu, ta siñeste bizi az ta gogo zintzoaz eldu; Jesukristo'gaz oñela ba' diñarduzu, bere ontasun zerbait ezañiko yatzu-ta.

7. *Jauna artzeko nor enaz.*

Jauna artzeko nor ez gareala ba-dakigu. Ostikopean zapaltzen dogun autsa baño autsago ta ezerezago gareala Jaungoikoa'ren ondoan bere bai. Orixe esanazoten dausku iru bidar gure Eleiz Amak: *Jauna, Zu nire bañuan sartzeko nor enaz ni, baña itzez bakañik esaizu,*

ta nire gogoa sendotuko da. Alan da be, Eleiz Ama berberak, urtean bein gitxienez, Jaunartu beara egotzi ta safi Jaunartzeko dei ta bultz egiten dausku.

Jaungoikoa bikaña da.

Bai, izakirik bikañena da Jauna. Bikaña ta aundia dalako zuk iges egiten dozu Jaungoikoa'gandik. Bear-tsua ta erkiña nazalako eltzen naz ni Jauna'gana.

Bildur zareala - ta, Jaungoikoa'gandik alde dagizu zuk. Ni, ostera, bildur nazalako Jauna'ren besoetan etzuten naz.

Aula ta argala zareala-ta, eztozu zuk Jaunartu nai. Ni, ostera, aula ta argala nazalako, Jaunartzera eltzen naz. Norberen burua aultzat euki ta Jaunartzera eltzen dana, bere burua makaletsi ta Jaunartzetik alde egiten dauana baño apalago dala deritxot.

Jaunartzera safi eltzen dana, nekez ta bakan eltzen dana baño gertuago izango dala be bai.

8. *Safi Jaunartuafen, eztot neure buruagan obekuntzerik ikusten.*

Obekuntzea norberak ikusi bearik eztago. Jan ez-kero, azi ta sendotu egiten gareala ikusten dogu, baña zelan azi ta sendotzen garean eztozu ikusten. Berebat jazoten da Jaunartzeaz be. Safi ta ondo Jaunartu ba'-daizu, oituretan garbiago, egin-bearetan zintzoago, ziltzaldietan kemenago ta bide onari jaraitzeko gogotsua-go zabilzala zure lagunak igariko dabe.

9. *Astero-astero autortzeko, autorkizunik eztot neure gogoan aurkitzen; autor-entzuleari zer esan eztakit.*

Oretarakoxe autortu bear dozu ba, autorkizunik izan

ezaizun. Sañi autortzen diranak nekez autortzen diranak baño oben gitxiago egin oi dabe, geyenez beintzat.

¿Autorkizunik eztaukazula? ¿Ez ete dozu nozbait obenik egin? ¿Auts artean ibili ta loitu ez?

Azkenez autortu ziñanetik, obenik ezpadaukazu, esan orixe autor-entzuleari: Jauna, oraintsuengo autortu nintzanetik, Jaungoikoa'ri eskeñak, obenik eztaukat, baña autortzen ditut neure bizitzan laugañen, edo sei-gañen edo zortzigañen aginduan egiñiko obenak eta enparau oben gustiak.

10. *Sañi Jaunartuañen be utseite bardiñetan jaus-ten naz; niretzako alpeñikoa da Jaunartzea.*

Jan be egunero egiten dozu. Ta egunero ta egunean iru bider janañen, bañiro be sendo irauteko jan bear izaten dozu. ¿Jatea alpeñikoa izango ete da ba? Sañi Jaunartu ezkerro, egundo geyago utseiterik izango ezta-bela uste izaten dabe batzuk. Oker dagoz.

Jaunartzeak goi-eskañez aberastu; gogoz sendotu; utseite ariñak parkatu egiten dauskuz. Baña ezkaitu uts-ezin egiten. Utseiteak beti izango doguz. Sañi Jaunartuaz uts gitxiago egin eta utsetietatik lasteñago jaiki egiten gara. Gexoti dana, janari bikañagoaren premiñan dago. Burubide eroa izango litzake, gexoti dala-ta, jan-nai-eza. Gexoti dalako, sañi ta obeto jan bear. Gexoti ta jausikor garealako, guk be sañi ta egunero Jaunartu bear.

11. *Mormoxitan egiteko bidea emongo ete do-dan nago.*

Egunero Jaunartu ta kistar onari dagokionez bizi

ezpazara, zeugaz nago. Egunero Jaunartu ta eleizatik urten ordukoxe, auzoko ipuin gustiak jakin gurea, batari gona-baíenak garbitu, ta besteari naíua eratzi, ba'diñarduzu; etxera eldu orduko, gau iluna baño betozko itzalagoa jaíi ta inguru gustiak agiraka ta asaíeka ba'darabiltzuz; iñok asetu eziña ba'zara; besteak zu baño onago edo aberatsago, edo begiratuago, ta aintzatsua-go ta zoriontsuago dirala-ta, eíeta bizi ba'zara... gaizki esango dabe; ez baña egunero Jaunartzen dozulako, oíen saíi Jaunartzen dauanari dagokionez bizi etzarako baño.

Saíi edo egunero Jaunartu ta kistarki bizi ba'zara, eztautsezu iñoren esamesai jaramonik egin bear. Dara-goyenak, ba, bitik bat; edo gizon-gizonak dira ta goretsi egingo zaitue ta zure egipideari jaíaitzeko gertatuko dira; edota buru-arin-txaplaten batzuk yatzuz, ta onein esanak eztira aintzat artu bear.

Saíi Jaunartzen dabenen utseite ariñak oartzea baño, Jaunartze bera bide dala, lagatzen dituen zalekeri ta oitura txafak begiz jotea obe litzake.

12. *Gure eíi aldean ezta oi.*

Atxaki labuía da ori. Gauza onak, oi nai oi ez, egin bear dira. Txafak, baíiz, oi izanda be, eztira egin bear. Saíi Jaunartzea, ez artzea baño oitura zaíagoa da. Oitura on-zaíai eutsin ba, ta oitura galduak eta ori baizen kaltegiñak itxi.


13. *Urtean bein edo noizik bein eztiñot, baña egunero Jaunartze ori, geyegi deritxat.*


¿Geyegi dala? ¿Ez al da, ba, ori Eleizaren asmoa?

¿Ez al da, ba, ori Jesukristo gure Jaunaren gogoa? Ta gure eretxi laburra ala Jesukristo'ren eta bere Eleizaren asmoa izango ete da egiago, onuratsuago ta jañaitu-gañoago?

Suari iraun-azoteko érekiña ezafi bear yako. Gure bañuko maitasun sua ta Jaungoiko - zaletasuna piztu, goritu ta gartutzeko érekiña, Jaunartzea da.

Aldiz-aldizko kistaña izan nai ba'dozu, noizik-bein Jaunartu. Baña bear dozunez, egunero kistar zintzo iraun nai ba'dozu, egunero Jaunartu.





VIII IKASKIZUNA

MEZEA DERITXON OPARI DEUNA

Opari beafa. — Oparia zer dan. — Giza-lege. — Mois'en Lege ta Lege Bañiko oparia. — Gurutzeko oparia. — Jaupari ta opari.— Lenengo Meza.— Meza Deuna.— Meza-ondorenak. — Eleiz Ama opagile.— Jauparia mezatan. — Meza - saria emoten dabena. — Jaupaldian izaten diranak. — Biziak eta ilak.

— Eukaristia Sakramentua baño ez ete da?

— Eukaristia ezta soil-soilik Sakramentu: Lege bañian dogun betiko oparia be bai da, ta oparia danez Meza Deuna deritxo.

OPARI BEAÑA

Egi bi onetan datza opari beaña: Lenengo egia; Beste iñori, okerkeri astunik bage, ezin egin legikeon geure buruaren opalben edo eskintza zor dautsogu Jaungoikoa'ri. Bigařen egia; Buru-eskintze au agirian egin beaña dogu.

BURU-ESKIÑI-BEAÑA. Diran oro Jaungoikoa'k egin eta, bakotxari dagokion eraz, Jaungoikoa'ganatzeko egiñak dira. Baña, batez bere adimendun izakiak sortu izan ditu Jaunak, Bera begiz-begi ikusi eta maite izan, eta, bear danez bizi ba'dira, Beragaz betiko jabetzeko. Onetarako Jauna'k bultz eragin eta lagundu-ta, auke-ramena kendu barik, Beraganuntz erakañi egiten ditu. Gizona, beraz, dan eta daukan gustiaz Jaungoikoa'rena da. Gorputz eta arima, soin eta gogo, gorputzaren sentzun edo asmenak, eta gogo-almenak, daukan gustia Jauna'gandik artu daroa ta Jauna'ri zor dautso. Ta izatea bera ez eze, izaten-jañaya bere, izaten-irautea bere, Jaungoikoa'gandik datorkio; izan erazo dauanak, baita iraun-azo be, Berak eragiten dautso. Izatea baizen Jaungoikoa'ri bakañik dagokion egiña da, ba, izatedun irautea.

Gizona osoz Jaungoikoa'rena dan ezkerro, daukan gustia Jaungoikoa'gandik artu daroan azkerro, Jaungoikoa egile ta jabetzat artu, ontasun-iturria ta *on utsa* dan Jauna gur egin; sorburu ta elburu, edo egile ta azken zoriona dan Jauna'ri buru ezkontzea, gizonaren lenengo eginbeaña da. Olantxe erakusten dausku Akino'tar Toma deun jakintsuak: *Sorburu danez, eragile danez, ta gure azken zoriona danez eskintzen dautsogu gure gogoa Jaungoikoa'ri; iru gauza oneik, bañiz, izaki gustien sorburuari bakañik yagokoz.* Izaki gustien Egile bakaña da, ba, Jaungoikoa; ta Jauna'k bakañik eragin legikio, nora-nai, giza-gogoari; ta Jaungoikoa'gaz atsegintzean dago gizonaren zoriona, arestian esan dogunez. Beraz, bere burua Jaungoikoa'ri eskiñi ta men egin eta bere menbean iraun, gizonaren Jaungoikoa'gazko egin-beañik lenena ta gorengoena yatzu; buru-makurtze ta eskintze oni deritxo *gurtza*.

Baña Jaungoikoa egile ta jabe ta nagosi izatez gañera, ondasun gustien itufia be ba-da; on oro Bera-gandik datorkiguz. Ondasun onein ordez, bañiz, eskeñak zor dautsoguz. Nagosi danez, beraz, *gurtza* zor dautsogun legez, ongile ta on utsa danez, *esker gintza* zor dautsogu.

Orez gañera, *on utsa'gan* dago gure zoriona. Zorion oren egañi gara. Zorion oñera joteko alegin egin bear. Zorion ori eskuratzeko, egin-alez, sayatu bear. Ezin, ostera, geurez zorion ori jadetsi. Oretarako, nai-ta-ez, iñoren laguntza bear. ¿Nori eskatu, ordea, laguntza ori? Zoriona legez, zorion ori jadesteko urgazpen eta laguntza bere, *on utsa* dan Jaungoikoa'ri. Ta gogotsuago eskatu ta ugariago emongo dausku. Norbait biozkoyago datzakonez Jaungoikoa'ri, ta Jauna'gazko gogotsuago ta jareyago agertzen danez, are jareyago ta eskuzabalago izango dau Jauna beragazko, ta Jauna'ren eskar ta arnari bereziak artzeko gertuago ta adiñonago izango dau bere burua, diño Iñaki deunak.

Iru gauza daroaz, ba, beragaz opariak: *gurtza*, *esker gintza ta eskaria*.

OPARIA, AGIRIAN EGIN BEAÑA. Gizona gogo ta gorputz da. Sentzun-edo asmen-bidez gauzak ulertu, ta sentzun bidez erabili oi ditu gizonak gogo-almenak. Ezta, beraz, naikoa gizonak Jaungoikoa egile ta nagositzat gogoz autortzea. Menbetasun ori, burumakurtze ori, Jaungoikoa Jabe oso ta gorengo Jaun dala autortze ori, erakutsi be egin bear dau. Ta au, bañuko gogoa agertzeko egoki izango diran gurkizun, edo ikur-ta ezaugañi ageriz.

«Sentzun bidez gauzak ulertzea berezko yakon ezkerro gizonari, ta giza-gogoak Jaungoikoa'gazko gauzak, eurak-eurakan, ikusi ezin legikeazan ezkerro, ikusten

diran gauzetan Jaungoikozko zerbait ipiñi eban Jauna'k, gauza onein bidez Jaungoikozkoetara egin egian giza-gogoak. Eta onetarakoxe jafita dagoz opari agiriak. Opariok eskiñi daroatsoz gizonak Jaungoikoa'ri, ez Jauna oñein bear dalako, bere buru ta enparau gustiak Jaungoikoa'ri, elburu ta egile ta jabe arduradun danez, eskiñi bear dautsozala adirazteko baño». (AKINO'TAR TOMA DEUNA).

Gañera, ¿ez al yako gizona, gogo ta gorputz Jaungoikoa'ri zor? ¿ez al dau gizonak, dauan gustia, Jaungoikoa'gandik artu? Bai orixe. Zuzen-zuzenezkoa da, beraz, gizonak Jaungoikoa'ri gogo ta gorputz, ez gogo utsez, Beragandik artu daroan oroz baño, men eta gur egitea.

Zerbait geyago oraindik. Gizona ezta bakañik bizi izateko sortua. Bere idekoakaz batua bizi izateko, egin eban Jauna'k gizona. Gizon bakotxarena legez, baita gizabatzaren egile, ta zaintzale ta arduradun be ba-da Jauna. Gizon bakotxa, Jaungoikoa'gandik etoñi ta Jaungoikoa'gana eltzeko egiña dan legez, baita gizadia bere, Jaungoikoa'gandik dator ta Jaungoikoa da bere elburu. Beraz, gizon bakotxak bere menbetasuna Jaungoikoa'ri agertu beaña dauan legez, baita gizadiak bere, menbetasun ori, ta Jaungoikoa'ren nagositasun eta jabetasuna autortu ta agertu beaña dau. Menbetasun ori autortzeko da oparia. Opari ori, bañiz, giza-batzaren opalguntza izateko, agiria izan bear; naita-ez, beraz, agiriak izan bear gure opariak. Baña gizadiak berak ezin egin leike opea edo opari-eskintza; norbait bear, oparia bere ordeztu ta izenez eskintzeko. Ta oña or opaldia edo eskintza egiteko jaupari edo ordezkari (ministro) beaña.

Argiro jafi doguzala uste dogu ba egi bi oneik; Jaungoikoa Jaun eta Jabetzat, ondasun gustien ituñi ta

bere elburutzat autortuteko, opariak eskiñi beara dauala gizonak.

OPARIA ZER DAN

Oparitzarako gauza bi bear dira; bata eskutua, ikusten eztana, gogo-eskintza; bestea, agiria; gogo-eskintzaren ikur edo ezaugarria. Gizonak bere burua eskiñi daroatso Jaungoikoa'ri, ta baruko eskintze ori azaltzeko, baruko eskintza berez ikusten eztana da-ta, ofen ezaugaritzat, agiria dan beste zerbait. Onela Abel'ek bere artaldetik bildotsik gurienak eskintzen eutsozan Jauna'ri ta Kain'ek lufeko igali ta arnariak... Baita gerokoak bere, orioa ixuri, ogia opamayan ipiñi, kedatza efe, ta onein ideko beste gauza asko egiten ebezan, opari ofein bidez Jaungoikoa gur egin eta bere jabetasun orokoña autortzeko. Opari oneik bein Jauna'ri eskiñi ezkerro, deunduta geratzen ziran. Gizonaren eskuartetik atarata; ezin leikean gizonak olako gauzarik bereganatu. Ezin leikean Jaunari eskiñitako ardaorik edan, ez ogirik jan. Jaungoikoa'ri eskiñitako ogia, ogi deun biurtzen zan eta berebat beste enparau gauza gustiak.

¿Zer ete da ba *oparia* deritxogun egintza arigari au? Esan dogunetik, eiaz ulertu geinke, Agustin deunak diñoskun au: *Sacrificium ergo visibile invisibilis sacrificii sacramentum, id est, sacrum signum est.* (CIVIT. DEI, I, 10, CAP. 5).

Opari agiria, opari eskutuaren ezaugarri edo ikurtona da. Ementxe dagoz oparitzarako biar diran gauza biak; bata ikurra, ezaugarria; bestia, ikur edo ezaugarriak adirazten dauskuna, geure buruaren eskintza. Naiz bata, naiz bestia kendu ezkerro, oparirik ez dago. Buru-eskintza kendu ezkerro, oparia azal utsezkoa izango litzake; azal-guzurra; guzur oparia. Ta baruz egiten dogun es-

kintza, azalez agertu ezik, oparia éfen geldituko litzake; ez litzake gizonari dagokion oparia izango. Bañuko eskintza, gogo eskintza, ta azalez agiri dana, biak batera bear dira ba, benetako oparia izateko.

Oparia Jaungoikoa'ri bakañik eskiñi leikio, ta obenik izugañienetarikoa da jainko-aizunai edo Jaungoikoa ez-tanari oparia eskintzea, Lege Zañean eriotzez zigortzen zan obena. Gai oni buruz, oso egoki, diño Agustin deun jakintsuak: *Kistar eñiak begirunez ospatzen ditu ziñopa edo martirien gomutak... baña areitako bati bere ez dautsa oindi edo opamairik jasoten, Jaungoikoa'ri bakañik baño, oindiok ziñopaen gomutaz jasoak izanañen. ¿Guretatik zein jauparik, deun-gorpuzkiñak datzazan oindira igonañen, esan daroa nozbait: Zuri opaltzen dautzugu Kepa edo Paul, edo Kipiren?*

Jaungoikoa'ri bakar-bakañik dagokio, beraz, oparia; ta deun-izenez egiten doguzan opaldiak, deunen bidez Jaungoikoa'ri eskintzen dautsoguz.

OPARI ORDAINGAÑIA. Gizona jausi aúretik, Jaungoikoa goratu, ta eskeñak emoteko, ta mesede-eskatzeko egin bear eutson oparia. Baña gizona jausi zan; oben egin eban; Jaungoikoa'ren Legia ausi eban. Obenak asañe gogoña sortu eban Jaungoiko ta gizonen artean. Asañe ori otzandu, ibitu, ta Jaungoikoa'ri egindako irañña, ordaindu beaña leporatu eban gizonak. ¿Zelan otzandu, baña, Jaungoiko asañetua? ¿Zelan ordaindu egindako irañña? ¿Zelan kitatu, oben egiñaz, gizonak bere gain eban zoña? Bere alez ta indañez, ezelan bere ez. Irañña ta zoña neuñi bagekuak ziran, ba; gizonaren almen eta indaña, ostera, oso neurtuak.

Oben egiñaz, bere burua eriotz erudun ikusten eban gizonak. *Oben-sari edo alogera, eriotza da*, diño Paul deunak. Beraz obena kentzeko, odola ixuri bear.

Odol-ixurtzerik bage, azkespenik eztago. (HEB., X, 22). Ezin leikian baña gizonak bere burua il. Ta bere orde, abere-odola ixuri ta Jaungoikoa'ri eskintzen ari zan. Uri ta mendi garayetan, basarte ta ibaíetan, baster gustietan oindiak jaso, ta abere odolez goñiturik agertzen ziran oindi bañenak, txiñoz ura bai'litzan, odol-eñekatxoak joyezala. Ta ez aberiak bakañik, baita giza-emiak bere ilten ebezan, eta, geyen batez, gastien artekuak, eñugien artekuak, arein odol garbia, enparauen odol zitaldua garbitzeko aukeratuena zala uste izanik. Oitura anker ta bidegabeko au, uskurtz edo erlejiño edestiak darakuskunez, ludi-baster gustietakoa izan da.

Oitura benetan negargañia, baña egi sakonak erakusten dauskuzana: Gizona eldu dan toki gustietan siñestu izan da, gizonok jatoñiz obendun sortzen gareala; Jaungoikoa'ren asañe-pean jausi giñala; Jaungoikoa-ren asañe ori ibitu beañ dogula; obenaz eriotz-eñudun egin giñala; Jaungoikoa'ren asañea otzantzeko ta oben zoña ordaintzeko, bizia zor dogula. Ta geure bizi oñen orde, enparauena opaltzen dogula.

Luña odolez goñituañen, odol oñek, batetik zitaldua zalako, ta bestetik aldintza edo balioz, gaiztakeri - onduan, oso uña, ezin egikean, ez Jaungoikoa'ren asañerik ibitu, ez Jaungoikoa'ri egindako irañik ordaindu, ez gizona Jaungoikoa'gaz kitu jañi. Onetarako, zerutik jatzi zan gizonen orde Gurutzean bere burua oparitzat eskiñiko eban Jaungoiko-gizona. Ta ordurarteko opariak, egizko opari bakar onen irudi izan ziran.

OPARIA, GIZA-LEGEAN

Giza-legea deritxogu Mois'en Lege añañetiko aldiari.

Aldi onetako iru opari aitatuko ditugu, irurak ezagunak eta Eleizak Eukaristi-iruditzat artuta, jaupa edo meza-otoyetan sartzen dituanak; Abel, Melkisede'k eta Aba'ran'en opariak.

ABEL'EN OPARIA. Abel artzaña zan ta Kain nekazaria, dirausku Mois'ek. Biak egiten eutsoezan opariak Jaungoikoa'ri. Abel'ek bildotsik goiztañenak eta gurienak eskintzen eutsozan Jaunari: Kain'ek lu'eko etekin eta igaliak. Baña Jaungoikoa'k Abel'enak, bai, ta Kain'enak ez ebazan ontzat artzen.

Oparia bera baño, Abel'en zintzotasun eta gogo ona ta Jaunak egindako abegi ta txeria ikasbidetzat jarteko aitutzen dauskula dirudi Eleizak opari au. Gu bere, bai jaupari, bai eleiztar, alakoxe asmo ta gogo onez eldu gaitezcan opaldia egitera.

MELKISEDEK'EN OPARIA. Lege - Zañeko opari gustiak ziran Eukaristiaren irudi, baña Melkisedek'ena baizen bikain eta egokirik, bat bera be ez. «Kodorlaomor ta iru lagunak garaituta, etxeruntz etofela Aba'ran, Sodomako bakaldunak bidera urten eutson. Baita Melkisedek, Salen'go bakaldunak bere, ogi ta ardao eskini eutsozan. Goikoa'ren jauparia zan ba. Ta Aba'ran onetsi eban esanaz: *Onetsi begi Aba'ran ortzi-ludiak egin ebazan Jaungoikoa'k. Gora zure arerioak zeure eskupean ipiñi dituan Jauna.* Ta Aba'ran'ek ondasun gustien amañenak emon eutsozan». ¡Gizon bakana ta añaña, benetan, gizon au! Siñesbakoan artean bizi zan eta egizko Jaungoikoa gu'egiten eban. Eta jauparia zan. Jaunari opariak eskintzeko Jaungoikoak berak aukeratu ta jaña. Ez aitarik, ez amarik, ez jatoririk, ez dazaugula, beingoan agertu ta eskutau doya gizartetik, Jesukristo'ren irudirik gorengoena bere ostekoai itxirik. Jaupari ta bakaldun zan batera; bakaldun eta jaupari

yaku Jesukristo bere; arerio gustiak oinpean dituala, Aita Jaungoikoa'ren eskumaldetik jezarita dagon bakalduna, ta Melkisedek'en erazko jaupari burua, Idazti deunak agertzen dauskunez. Zuzendasun-eta bake-edo gentza - bakalduna. Bada Melkisedek izenak *zuzen-bakalduna* esan gura ei dau; ta Salen'ek, *gentza*. Egin-egiñean bere, zuzendasuna ta gentza dagokioz Jesukristo gure Jauna'ren bakalduntzari.

Ogi ta ardaoaren opalguntzan, bañiz çnok ez dakus Eukaristiaren irudi ezin argiagoa? çez al dauz Jesukristo'k egunero gure opamayetan bere Gorputz eta Odola ogi ta ardaoaren antzpean eskintzen? Izan be, odol-ixuriz egiten ziranetan baño zietzago ta egokiago agertzen da opari onetan, Jesus'en maitasun-oparia. Lege Zareko oparietan aitagañiena ta bikañena da, ba, opari au.

ABAÑAN'EN OPARIA. Gau baten ots egin eta esan eutson Jauna'k Abañan'i: *Artuizu zure seme Isaak, zuk ainbeste maite dozun seme bakara, ta oparitzat eskiñi egidazu, an, neuk erakutsiko dautzudan mendi-muñoan.*

Eskintz au, gauza bizien bat il, sutan eñe ta auts biurtuaz egin oi zan. Itxu-itxuan burua makurtu ta bi-dean jañi zan Abañan. Irugañen egunean begistau eban mendia. Esku batean sua ta bestean semea erailteko aiztoa eroyan. Semea, bañiz, oparia eñetzeko egur sorta lepoan eroyala joyan aitaren atzetik. Aldapa gora, Isaak'ek iñotson aitari:

—Ene aita, eguñra ta sua ba-dakustaz, baña çoparia? çnun da oparia? Len saminduta ba'zegoan, seme kutunaren itaun zindoak erdibituta itxi eutson biotza.

—Ene seme, erantzun eutson Abañan'ek, Jaungoikoa'k eratuko dau ori. Opari - ardurea Jaungoikoa'gan itxi.

Isaak, Jesukristo'ren irudia da. Burua opaltzeko egu-
ra lepoan ebala, Moria-mendiz gora joyan legez, alan-
txe joan zan baita Jesukristo gure Jauna bere, Kozkot-
-mendira gure maitez, burua opaltzeko gurutzea lepoan
ebala.

Isaak zuzena ta erugea zan. Zuzenago ta erugeago
Jesukristo. Ilda be, Jaungoikoa'k bere semea bañiro biz-
tu leikeala uste izan eban Abaían'ek. Baita Jesukristo
bere, il da bañiro biztu eban Jauna'k. Abaían etzan bere
semea opaltzeraño eldu; aren gogo onagaz ase izan zan
Jauna. Baña Jesukristo gure Jauna bere burua opaltze-
raño eldu zan.

OPARIA MOIS'EN LEGEAN

Mois'en Lege-aldian beste era bat artu eban opa-
riak. Jaungoikoa'k berak ebatzi eban zer ta zelan, noz
ta nun eskintza egin, baita nortzuk izango ziran opal-
guntza egin eikeanak bere.

Ezin geinkez, opari-mueta gustiak, banan - banan,
aitatu. Ezta au gure asmoa. Oparia beti izan dala egiz-
tuteko, orain artean esan doguna, naikoa dala deri-
txogu. Geroago aitatuko dogu Mois'en Lege aldiko
oparirik ospetsuena, bildots-oparia.

GURUTZEKO OPARIA

Lege Zaíreko oparien buru ta Lege Bañiko opariaren
oñari dogu Gurutzeko Oparia. Opari oni dagokion gus-
tia, alik eta zietzen eta sakonen jakin beaña dogu, ba,
eleiztañok.

GURUTZEKO OPARI BEAÑA. Ondoren bi, gaitz bi, era-

toñi yakozan gizonari oben egitetik: Jaungoikoa iraindu ta goi-bizitza galdu.

Ta jau latza! gizonak legea ausi bai, baña bere alez ta indañez ezin eikean, ez Jaungoikoa'ri egindako irañik ordaindu, ez galdutako goi-bizitzarik bañiro eskuratu. Gizonaren otoi, eskari, neke, lor, ezta bere odol ta bizitza be, etziran naikoa, Jaungoikoa'ri eutson zoña kitatu ta galdu eban bizitza irabazteko. ¿Zergaitik ete? Aki-no'tar Toma deunak damosku onen zegaitia: Obena gizonagandik sortzen danez, gizona baizen motza ta mugatua izanañen, baña Jaungoikoa'ri datxakonez, Jaungoikoa'ren nagositasuna baizen mugabakoa da. Beraz oben zoña ordaintzeko, ordaiñak bere, mugabakoak izan bear. (1).

Goi-bizitza, Jaungoikozko bizitza, erosteko, berebat. Balioaren saneuñiz erosi oi dira ondasunak. Goi-bizitzaren balioa irazakiz gañekoa da; gizon eta gotzonak bere irabazi egikien baño gorakoago. Beraz, bizitz au bañiro irabazi ta eskuratu legikeana be, irazakiz gañekoa izan bear; gizon eta gotzonak baño geyago dana, Jaungoiko-gizon egiña.

¿Zer egin ba? Egia esan, Jaungoikoa'k efukiz, azketsi eikion gizonari beronek eutson zoña, edo-ta ordañez edozein neke artu eikean. Au ez zan baña kitu jartea. Kitu jarteko, Jaungoiko-Semeak gizon egin eta gure obenak bere lepoan artu, ta gure ordez bere bizitza opaldu bear eban. Auxe egin eban Jesukristo gure Jaunak.

(1) Sum. Theol. Pars III, quaest. I, art. II, ad 2, m.

GURUTZEKO OPARIA

Gurutzeko eriotza benetako oparia izan zala, bai Lege-Zar, bai Lege Bañiko idaztietan amaika bider argiro dakusgu. *Maite izan ginduzan eta gure maitez bere burua emon eban usain gozodun eskain eta oparitzat.* (EPHES. V, 2). *Orantza zaia zuen artetik jaurti egizue, ore bañia izan zaitezzen, otil zarien legez, Kristo gure Paska-bildotsa il dan ezkerro.* (I, KORINT. V, 7). *Eru ta kutsu bako bildotsa.* (I, PETR., 1-20), *gizarteko obenak kentzen dituan Jaungoikozko bildotsa, gure maitez ildako bildotsa.* Esakun gusti oneik, bildotsa opari-iruditzat artuta, irudi ori Jesu-Kristo'gan bete zala adirazten dauskue. Jesu-Kristo izan zala, gizarteko obenak garbitzeko, bere burua opaldu eban benetako Jaungoikozko bildotsa.

JAUPARI TA OPARI

Jaupari — opari egile — ta opari, biak batera izan zan Jesukristo gurutzeko eriotzan. Aaron eta bere erako jaupari gustiak baño bikañago ta ondorengo jaupari gustien buru Jesukristo dala, biziro azaltzen dausku Paul deunak bere eñitañai zuzendu eutsen idazkian. *Oñelako jaupari-buru beañ gendun: deun, utsik bage, garbi, obenditartetik atara, ta zerugañera jasotua; bere oben-ordez lenengo, ta gero eñiaren aldez, opariak egunero eskiñi beañik ez dauana; bere burua opaldu rik, bein betiko egiña dau ori-ta.* (HEBR., VII, 26).

Egokiro dirausku Agustin deunak: ¿Nor Jaungoiko-Seme bakaña, bere obenik, ez jatoñizkorik, ez osterantzekorik, garbitu beañik ez ebana baizen jaupari zintzo ta gurenik? Eta zer egokiago bereganatu eikean, gizon-

-aldez opaldu bear eban gizatasuna baño? Ta oparitzat ezer, aragi ilkoña baño adiñonago? Ta zer giza-griñak garbitzeko, sabel garbian sortu ta sabel garbitik artutako aragia baño garbiagorik? Ta zer gogotsuago eskiñi ta artu leike, gure opari-aragia, geure jaupariaren gorputz egiña baño? (1).

Jaupari ta opari zanez, gure obenak lepoan ebazala ta oben onei egokioen zigoñez eyota legez, egin eban Jesukristo'k gurutzeko oparitzaz. Gure obenak aldean eroyazan; eñiaren alde oparia eskintzen dauan jaupariak, ba, eñiko obenak bere gain artzen dauzala dirudi; eñiko ordezkari legez Jaungoikoa'ri aurkezten yako, eñuki ta parkaziño-eske otoi egiñaz. Ez eutsozan Jesukristo'ri gure obenak iñok leporatu; berak bere gogoz artu ebazan, maitasun-indañak eraginda. Aita Jaungoikoari eutson maitasunez, gizonak, oben egiñaz ukatu eutson maitasuna, biurtu nai izan eutson; zan gustia zor eutson gizonak Jaungoikoa'ri; beraz, al eban gustiz, biotz-biotzez ta gogo-gogoz maite izan beaña eban; baña maite beañean, iraindu egin eban eta or, Jesukristo'k, al eban gustiz ta Jaungoikoa'ri dagokionez maite ebala adirazteko, bere burua Aita Jaungoikoa'ri opaldu eutson.

Gizonari eutson maitasunez, bañiz, gure oben-zoña bere gain artu, ta Jaungoikoa'ren gugazko asañea ibitu, Jaungoiko ta gizon bitartean obenak jañitako esia uratu, Jaungoikoa'ri egindako iraña ordaindu, ta bizitza opalduaz, Jaungoiko ta gizon-artean betiko adiskidetasun-oñaria ipiñi eban.

OPARIA. Opari deuna, opari gogozkoa, opari neñiz gorakoa.

OPARI DEUNA. Lenengo, Jaungoiko - Semea'k bere-

(1) 4, Trin., 1, 4, c. 14- Myst, Fid, Elucid. II).

ganatzetik gizatasunari etorkion deundasunez. Jaungoiko gizon egiñagan ezin izan leiteke, ba, ez obenik, ez kutsurik, ez orban-izpirik, ezta ezetariko oker-unetxorik be. Gero, etzan Jesukristo beste Adan'en jatorikuok legez sortua izan, Espiritu Santua'ren egitez Andra Maria'ren sabel garbi-garbian sortu, ta Andra Maria'ren sabel garbitik artua baño. Jakob'en antzera, Esau'ren soñekoz jantzita agertua'ren, baña soñeko ba'uan bere Seme kutuna, atsegin gustiak Arengan ebazan Seme maitea, ikusten eban Aita Jaungoikoa'k. *Semetipsum obtulit immaculatum Deo*, diño Paul deunak. Bere burua garbi opaldu eutson Jaungoikoa'ri. Bear be bai. Giza-loyak garbitzera eto'ren bildotsa akats ta kutsu bage izatea, ta gure kateak apurtzera eto'ren azkatzalea, iñoren eta ezeren menbeko ez izatea, on baño onago zan.

OPARI GOGOZKOA. Lege Zareko opariak, indar-buruz, eroaten ebezan opamaira. Dear, ga'azi, ta, al ebenez, adirazten eben ez ebela nai odolik izuri. Jesukristo gure Jauna, bere gogoz ta gogo utsez joan zan guratzeko opa'ira. *Nai ebalako opaldu eban bere burua.* (ISAI., LIB. 7). *Neu naz neure bizitza emoten dodana... Iñok be eztaust bizia kentzen, neuk neurez ipiñi daroat.* (JOAN, X, 17). Jaupari ta opari, jaupari danez eskiñi, ta opari danez, emon egiten dau bere bizitza. Opari-irabazia onetantxe dago, ez indar-buruz bizia galtzean, norberen gogoz eskintzean baño. Bere eskuetan eban Jesukristo'k, bizitza emon edo ez emon. Arerioen amoru ta alegiñak gora-bera, nai izan ba'leu, arerioen eskue-tatik iges egin eikean, edota arerioen sartadak artua'ren, miñik artu ez, baita min artua'ren bere, nai eban bestean bizirik iraun; ainbesterañokoa zan Jaungoikotasunetik gizatasunari etorkion inda'ra. Baña au'reztik iraga'rita

egoan legez, erbeste onetan sartzean esan eutson Aita Jaungoikoa'ri. *Eztozu oparirik, eta eskaiñik nai izan; gorputza ezari daustazu, bañiz. Su-opariak eta obena-gaitikoak eztozuz edefetsi. Orezkero esan dot: Ona emen ni Jaungoikoa... zure gogoa egiteko gertu.* (HEBR., X, 6.)

NEURIZ GORAKOA. Neuri bakoa; muga bakoa; irabazi ta balioz neuri ta mugarik inundik eztaukana; itz batez, Jaungoikoa'ri dagokion anekoa, da Jesus'en oparia. Alde auxe dago, batez bere, enparau oparietetatik Jesukristo'ren oparira. Enparau opariak, bai opari, bai jau-pari-aldetik, motzak eta laburak ziran; Jesus'en oparia neuriz gorakoa. Jesukristo, Jaungoiko ta gizon da. Gizon danez, gurearen antzeko gorputz, gogo, biotz, adimen eta naimena ditu. Baña gizatasuna Jaungoiko-Semeari, Irutasun deuneko bigaren Notinari deusola dago. Ta egintzak notinienak diralako, notinari yagokozalako, Kristo'ren egintzak, Jaungoiko-egintzak dira; Jaungoiko - egintzaren balioa dabe. Oso ederto diño Paul deunak, etzala ordaña gaiztakeri-neuriz izan; gaiztakeria ugari izan ba'zan bere, ordaña askoz ugariago izan zala.

LENENGO MEZA

AZKEN APARIA. Eguen-guren goizean, ikaslak eldu yakoan Jesus'i esaten: *Nun gura dozu Paska atondu dagitzugun?* Paska-jana egiteko bein-beñekoa, areto aundi bat zan. Egun areitan, jayak zirala-ta, edonungo gizoste ikaragafia batu oi zan Jerusalem'en. Etzan, ba, alako lan eza aretoa aurkitzea. Ikasle bi kutunenak aukeratu ebazan Jesus'ek egikizun onetarako, Kepa ta Jon, sutsua ta eraña bata, biozkoya ta maitalea bestea.

Zuaze urira, esan eutsen, ta bertan sartzekoan, pitxar bete ur daroan gizona aurkeztuko yatzue; jaraitu etxeraño, ta etxeko ugezabari esayozue: Irakasleak diñotzu; ¿nun da aroztegia neure ikaslakaz Paskoakoa jan daikedan? Ta berak erakutsiko dautzue areto aundi apaiña; an atondu. (1).

Urte beteko bildotsa zan Paska-janaria, ta bildotsagaz batera, otila ta bedar garátzez egindako suku orizkea. Suku garátz orizkeak, asabak Aigitotañen menbean bustingintzan eroan ebezan neke-loñak gomutarazoten eutsezan.

Eldu ziran, ba, urira Kepa ta Jon, eta Irakasleak esan eutsenez aurkitu eben gustia. Ez uste, Jesus'ek azken aparia egin eban aretoa, gure jauregietako aretoak edo idantzezkietan ikusi izango dozuzanak baizen apaiña izango zanik, ez. Zabal-samaña izango zala badirudi, gaur gur-egiten dan eleizatxoa ba, toki berbertan iragita ei-dago, ta luze-zabalean 14×9 ei-daukoz. Etxe-goyan izan oi dira alde atan oneik aretuok. Gela zabala, orma zuriak, erdian mai aundi bat eta mai inguruan aulki irukoitzak; maikideak etzunda jarten ziran, eskeñeko ukondua aulkiari eutsola ta eskumea azke, jana artzeko.

Bildotsa erosi, jaupariari il eragin, opilak auspean ére ta ilun-abañerako bear zanez atondu eben. Bazkaldañak amañetik gora ta ogeitik bera izan bear eben. Jaten asi aurretik, eskuak garbitzen ebezan.

Jezañi zan, ba, Jesukristo gure Jauna mai-buruan, baita ikaslak bere, baxotxa bere tokian, nor lenengo izango ete zan alkañen arteko auzia, Irakasleak, apaltasun-irakatsi bikañagaz, ebatzi ondoren.

(1). Mat. XXVI. Luk. XXII.

Nekaldia baño len, Igaratz au zuekin jan gogo-gogo nintzan, — esan eutsen Jesus'ek. — Ba-dirautzuet ba, eztodala bañiro zuekaz jango, Jauna'ren erian beteko dan arteraño. Ta ardao ontzia arturik, esker-eginda, esan eutsen: Artu ta zuen artean banandu. Ba-diñotzuet, ba, matsardaorik edango eztodala Jaungoikoa'ren jauraldia (eregetza) etoñi arte.

Azken-aparia zan ba. Ez eban Jesus'ek bañiro ez jan, ez edango, biztaldi onetan bere ikasleakaz. Aita'renean batuko ziran. An jan eta edango eben, ez begiz ikusten dan janaria, Aita Jaungoikoa'k gertauta eukatsen zorion-janaria baño.

Artu eban, ba, Jesus'ek ardao ontzia, ta onetsi, ta esker-egin ondoren, bakotxari zufutadatxo bana emon eutsen. Gero, bedar gañatzak onetsi, ta *haroset* eritxon suku orizkean busti, ta jan ebazan. Berebat egin eben bazkaldañak. Orduantxe jarten eben bildotsa mai-ganean. Makila bi gurutzetara jañi ta oso-osorik ereta ataraten eben. Mai-buruak azaltzen eban bildots-janak adirazten ebana. Eresi batzuk abestu ta bigañenez betetan ebezan ardao ontziak.

Irugañen aldian, lendakariak opila artu, ta onetsi, ta zatitzen eban, eta zati bat, bedar gañatzagaz naste, suku orian busti, ta jaten eban; enparauak, bazkaldañen artean banatzen ebazan. Urango, bildotsa onetsi, ta arduraz puskatu ta jaten eben. Bildotsa zan janari-buru. Jan ondoren artzen eben irugañen zufutadea, *edari onetsia* eritxona. Ba-dira Jesus'ek ontzi au bere Odol biurtu ebala uste dabenak. Ebazten zala da orain ala geroago, Lege-aparia osoro amaitu ondoren, biurtu ete ebazan Jesus'ek ogi ta ardao bere Gorputz eta Odol; baña gure arlorako, gitxi doakigu ezpai onetan. Laugañen edakadeaz bukatzen eben aparia.

LENENGO MEZA. Mai-ganean egoezan opiletatik bat artu eban Jesus'ek, eta onetsi, ta esker-egin eta zatituta, emon eutsen esanaz: *AUXE DA ZEUN ALDE EMOTEN DODAN NEURE GORPUTZA*. Gero, ardao ontzia artu eban. Etzan guk mezatan erabilten dogun lako ontzia. Azpi motz ta ago zabaldu astabiko katilua ei zan. Ardao baltzez (alde atan, ba, baltza edaten eben geyenez), bete eban eta urez nastau. Esker-egin eta bere Odol biurtu eban esanaz: *EDAN GUSTIOK BERTATIK: AUXE DA, BA, NEURE ITUN- ODOLA, ASKOREN ALDE, EUREN OBENAK AZKES-TEKO IXURIKO DAN ODOLA*.

Itz gañantzidun asko esan ebazan Jesus'ek, edo obeto esateko, Jesus'ek aotik atera abazan itz gustiak ziran gañantzitsuak. Baña gitxi, oñ ipiñi doguzanak baño gañantzitsuagorik. Itz oñein indañez, Lege-Zañeko opariai amaia emon eta Lege-Bañiko oparia jañi eban, gizona gizon dan artean ekera-oxeskiraño eskiñia izango dan oparia, Malaki igarleak iragañi ebanez: *Ez zayataze gogoko, diño Gudarozte-Jaunak, eta zuen eskuko oparirik eztot aintzat artzen. Ekeratik oxeskiraño, ba, nire izena erietan goretsia da, ta edonun egiten dira nire izenez kedatz, opari ta eskiñi garbiak. (1)*.

Itz laburak baizen egikoñak. *Auxe da neure Gorputza*, edo *aramai* izketan, Jesus'ek erabilten eban elez: *Auxe neure Gorputza*. Au lako gogapenak azaltzeko aditz beañik ez ei dau ele oñek. Esakuna, bañiz, biziago ta zoñotzago da aditz barik. *Auxe da igaratz bildotsaren gorputza*, esan eban Jesus'ek bildotsa jaten emon eutsenean. Bildotsa Jesukristo'ren irudi zan. Iru-diak joan ziran ba; aitu ziran. Irudi ordeez, neure Gorputz berbera damotzuet. *Zuen alde damodan neure Gorpu-*

(1) Malk. 1, 6-15.

tza. Askoren alde, euren obenak azkesteko ixuriten dodan Odola.

Jesus'ek, jaupari-buru danez, bere Gorputz eta Odolaren oparia egin daroa. Orain ogi ta ardaoaren eraski ta antzpean; gerotxoago, gurutzean, odol-ixuriz. Baña ointxegandik egin daroa gurutzeko eskintza bere. Orixe adirazten dauskue itz oneik: *Zuen alde damodan Gorputza, zuen alde ixuriten dan Odola.*

Askoren alde, euren obenak azkesteko, ixuriko dan Odola: Onetarakoxe, obenak parkatzeko, egiten eban Jesus'ek bere buruaren opalguna; obenak azkesteko artzen ebazan nekauste ta gurutzeko eriotza.

Ganera, Jesukristo gure Jauna'k Jaungoiko ta gizon artean Itun-Baía jaí nai eban, Bera bitarteko zala. Auxegaitik diño: *Auxe da Itunaldi Baíiko neure Odola.* Sinai-mendian, Mois bitarteko zala, Jauna'k bere efiagaz egin eban Itunbena, abere askoren odolagaz bayetsia izan zan. Mois'ek odolagaz efi busti ta dear egin eban: *Auxe da Jauna'k zuekaz egin daroan Itun-odola.* Jesus'ek, Itun ori baízitu ta bayetsi nai izan eban, ez abere-odolagaz, Bere odolez baño.

Egiz diño, ba, Jon deunak aíturik, Jesus'ek ordu-rarte maite izan ebazanak, azkeneraño, ezin geyagoraño maite izan ebazala.

—*Zer da, beraz, Meza deuna?*

—*Gure altaretan, ogi ta ardaoaren eraskipean, Gurutzeko Opariaren gomutaz egiten dan Jesukristo'ren Gorputz eta Odol-oparia da Meza deuna.*

Gorputz eta Odol-oparia gurutzean egiñaz etzan ase Jesus'en gugazko maitasuna. Jaungoiko ta gizon artean Itun-aldi baía jaí eban. Itunak oparia eskatu daroa, ta

gizon izakereari dagokion oparia, opari agiria, begiz ikusten dan oparia. Gurutzean odol-ixuriz egin eban oparia gomutaratzeko, ba, ta gurutzeko opariaren irabaziak geuganatzeko, ta opari aren gomuteak, aldi oro, iraun egian, eta opari aren indañez gure eguneroko gaiztakerien azkespena jadesteko ipiñi eban Meza Deuna deritxogun opea.

Gauza bi bear ditu opariak; opageya edo opaltzen dana, ta opagilea edo oparia egiten dauana, jauparia.

Meza deunean, jaupari bi dira, bata jaupari nagosia baña eskutua, Jesukristo; bestea agiria baña ordezkoa, abadea. *Gurutzean bere buruaren opalguntza egin ebanak, egin daroa orain jaupari bidez. (1)*. Gurutzean opari egin eban berbera da, ba, Meza - oparia egiten dauana. Meza opalguntzan, ostera, ezta Jesukristo ikusten; oparia, bañiz, gizonari yagokonez agiria izan bear. Or ba jaupari-beaña. Azken-aparian jafi ebazan Jesukristo'k Itun Bañiko jaupariak. Ogi ta ardao bere Gorputz eta Odol biurtu ta eskiñitakoan, belduai esan eutsen: *Berauxe neure gomutaz egikezue. Ontzi onetik edango dozuen baxotxean, neure gomutaz egin. (2)*. Berak egin ebana egiteko almena ta bearkuna emon eutsen, ba, Jesukristo'k belduai ta euren oñordeko gustiai. ¿Zer egin ete eroyan, ba, Jesukristo'k? Ogi ta ardao bere Gorputz eta Odol biurtu ta eskiñi. Beraz orixe berberori egiteko almena ta agindua dabe jaupariak, ogi ta ardao Jesukristo'ren Gorputz eta Odol biurtu ta eskiñi. Egi au ezin geinke eleiztañak ezpayan ipiñi; Trento'ko batzañak siñestu beañekotzat ebatzita dauka. Jesukristo berbera da, ba, jaupari bidez Meza-

(1) Trid. Sess. XXII, Cap. 11.

(2) Mat. XVI, Luk. XII, I, Kor. XI, 25.

-oparia egin daroana. Edozein jaupari Meza - oparia eskintzen dakuzula, bere ostean Jesukristo berbera ikuskezu.

GURUTZEKO OPARIAREN GOMUTAZ. Ez, baña, gomuta utsez. *Una enim eademque est hostia... sola offerendi ratione diversa.* (1). Gurutzeko opari berbera egiten dogu meza deunean. Gurutzean odol-ixuriz, mezatan odola ixurtzeke. Opari bioen alde onetantxe dago.

Jesukristo'k bere buruaren opalguntza egin eban gurutzean. Bere Gorputza ta Odola eriotzez, opaldu ebazan opamai atan. Baña berpiztuta gero be, ba-dirau Jesukristo'gan opari izateak (2). Beraz, mezerdiko itzen indañez, Jesukristo'ren Gorputza ta Odola gure altaretan jañiaz, gurutzeko oparia bañiztu ta eskiñi egiten dogu. Baita eriotza be zelanbait iruditu daroagu. Bada oteun edo ostian Jesukristo osorik egon aŕen eta bardin kalizan, baña mezerdiko itzen indañez, oteunian lenengo ta bein, Jesukristo'ren Gorputza dago ta kalizan, lenengo ta bein, Jesukristo'ren Odola; beraz, Gorputza ta Odola, ikurtonki (*sacramentaliter*), bananduta agertzen dira. Ezin obeto iruditu eriotza.

Jesukristo'k, azken-aparian, ogi ta ardao bere Gorputz eta Odol biurtu ta opalduaz, Gurutzeko eriotza ta oparia auŕeztik iragañi ta iruditu ebazan legez, mezatan be, orixe berberori egiñaz, Gurutzeko eriotza ta oparia bañiztu egiten doguz.

—*Mezea nok eta zetako irasia da?*

—*Jaungoikoa goratu ta berari eskeŕak emoteko, ta*

(1) Trid. loc. cit.

(2) Ex sacrificio dominico permansit in Christo proprius intrinsecus que hostiæ consummatæ status. Myst. Fidei. Elucid. XXIV, Sect. III.

Gurutzeko Opariaren irabazki ta ordañak geuganatzeko, Jesukristo'k berak irasia da Meza Deuna.

Meza deuna, gurutzeko opari berbera dan ezkerro, bai Jaungoikoa gorestekoa ta bai Jaungoikoa'ri esker egiteko, gurkizun eta eleizkizunik egokiena yatzu. Jaungoikoa'ri legokion egintza bakara. Beste opari gustiak onen onduan utsak dira. Jaungoikoa maite dabenak; ta maite dabelako, gur-egin nai dabenak; maitasunak biotzean sortu daroan gara asetu nai dabenak, eta egunero Jaungoikoa'ren esku zabaletik artzen dabezan ondasun-ordez, esker adiñona agertu nai dautsoenak, ortxe dabe euren biotz-egaria nun ase; ortxe Aita onari eskerak zegaz egin.

Jaungoikoa goretsi ta eskerak egitekoz ganera, Jesukristo'ren irabazki ta ordañak geuganatzeko be, jaria da meza deuna. Gure zorak eta gaiztakeriak ugari ta astunak izanaren, Jesukristo'ren irabazi ta ordañak, asko be askoz ugariago ta aldintsuago izan ziran, ordain-indar mugabakoa eben-da. Bana irabazi ta ordain oreik geuri ezari egin bear yakuz; geuretu egin bear doguz. Ta ondasun bikain oreik geuganatzeko iturbidetzat ipiñi eban Jesukristo'k meza oparia. Aberatsa izateko, ondasun-artean bizi izatea ezta naikoa. Ondasunak norberaganatu egin bear dira. Gosea asetzeko, mai ona eukitea ezta naikoa. Mayan dagona artu ta jan egin bear da. Orixe egin bear Jesukristo'k guretzat irabazitako ondasunekaz be, eskuratu, geuretu. Ta, ora or, aberats izateko bide labura baizen efaza, meza deuna edo jaupa.

MEZA-ONDORENAK

—*Norentzat eta zetarako atera daiteke mezea?*

—*Naiz ilentzat, naiz bizientzat, eta arimearen ondasunak naiz gorputzarenak jadesteko, atera daiteke mezea.*

Meza-ondorenak eta irabaziak ziero aztertzeke, iru gauza euki bear dira gogoan: *oparia, opagileak*, eta opari bidez jadetsi geinkezan *ondasunak*.

Opariz, meza deuna gurutzeko opari berbera da-ta, neufirik eta mugarik eztauka. Gure oben-zor gustiak ordaindu ta Jaungoikoa'gandiko ondasunai yagoken ainbatez esker egiteko adiñona da. Baña, bai oben-zorak ordaintzeko indar ori ta bai enparau ondasunak, neufiz geuganutzen doguz. Neufi ori, nundik sortzen ete da? Ez opari aldetik. Ezta Jaungoikoa'ren aldetik be. Beraz, opalguntza egiten dabenen aldetik. Opagileak, oparia eskintzen dabena, gogotsuago, Jaungoikozaletsuago, azkutiago, ta oparitik datorkiguzan ondasunak ugariago. Olantxe irakasten dausku Akino'tar Toma deun jakintsuak: *Opari onek, berenez, oben-zor oro ordaintzeko indara izanañen, baña bai opagileari, bai oparia eskintzen dautsegunai, Jaungoikozaletasun, eta gogo onaren neufiz ezarten yake (1).*

Meza-baũuko otoyak be, auxe adirazten dauskue: *Opari au, Jaungoiko oñek, onetsi, artu, sendetsi ta gustiz zeuretzakotu egizu añen.*

Arpegi alaiz ta maitero begiratu ta ontzat artu egizuz, añen; Abel zeure ume onaren opariak, Abañan gure Erkabaren eskintza, ta Melkisedek zeure jaupari

(1) Secundum gradum suæ devotionis, (3. S. 79, 5 c.)

nagosiak opaldu eutzun eskain deun ta efubako oparia, artu zenduan legez.

Opea edo eskintza atsegin izanañen, opalguntza etxako atsegin, baldin opagilea gogoko ezpayako, ezeren bear izanik eztauan gure Jaungoikoa'ri. Ori bai, bardiñean, oparia bikañago ta opalguntza be gogokoago izango da, ta opalguntza artean gogokoena Jesukristo'ren Gorputz-oparia, oparirik bikañena be bera da-ta (1).

Beraz jaupagile edo meza-egileari oparitik datorkioz irabazi gustiak; baña ikurtonak artzen dabezanai, gertapen-neuriz deratorkioen legez eskar edo grazia, baita meza eskintzen dabena bere, eskintza egiten dabengogo, Jaungoiko-zaletasun, edo azku arauz deratorkiez opari onen ondasun eta irabaziak. Agortu ezindako ituñi bizia da jaupa edo meza; ituñi onetatik bakotxak bere gogoz edan leike; egañaren neuriz izango dira ortik eskuratuko dituan ondasunak, bai egindako oben-zor ordaingañitzat, bai Jaungoikoa'ri esker egiteko, bai nai dauazan ondasunak eskatzeko. ¿Nortzuk ete dira, ba, opagile? ¿Nortzuk eskintzen ete dabe meza deuna?

Opagileak, bat baño geyago dira, bakotxa bere mañan. Lenengo ta bein, Eleiz Ama da opagile. Gero, jauparia. Ufengo, saria emon eta jaupa agintzen dabena. Ondoren, jaupaldi edo mezatan izaten diranak.

ELEIZ AMA OPAGILE

Eleiz Ama da lenengo ta bein opagile. Jaungoikoa'ri egiten yakozan opari gustiak, Eleiz orokoñaren ordeztan izenez egiten yakoz. Kistar oro, ba, Kristo geure Buruari itxasita edo ezañita gagoz; ugutza-bidez Jesu-

(1) Bellarminus. De Missa. 1, 2, c. 4. cit. Myst. fid Elucid. XXV.

kristo'ri gaxakoz; Jesukristo'ren Gorputz atalak gara. Opalguntza egiten dauanak, eztau bere buruz, berea bai'litzan, oparia eskintzen, Jesukristo'ren Gorputz-atala danez baño. Beraz, mezatan iñor ezpalitz be, edo jau-paldian diranak ezetariko gogo barik ba'legoz be, edota jaupari berberak deungaro ba'liardu be, meza-oparia Jaungoikoa'ri atsegin eta gogoko izango litzakio, Eleiz osoaren izenez egiña dalako. Agirian, jaupariak bakañik iñardunañen, eleiztar gustiak, bai gizakume ta bai emakumeak, egiten dabe opari au; meza egileak eskuz dagiana, besteak gogoz. Argiro dakusku egi au meza-otoyetan: *Zuri, Jauna, zeure otseiñakaz, baita emengo gustiokaz be, euren siñesmena ta ontzaletasuna agiri yatzuz-ta, opa goralgañi au, geuk euren aldez eskintzen dautzugu, edota, eurak euren buru ta artekoen alde eskintzen dautzue.*

Argiro dakutzu, ba, or, jaupariak eleiztañakaz batean egiten dauala jaupa-eskintza. Zietzago ondiño: *Zeuri eskintzen dautzugu zure otsein eta gure Doipuru, geure Gotzain eta egizko siñeste orokar-beldutaña daben siñestedun gustiekaz batean.*

Egizko siñestedun gustiekaz batean, mezatan dirala naiz eztirala, egin daroa, ba, jaupariak meza eskintza. Beraz opalguntzan, meza-eskintzean, jaupariak bakar-bakañik ba'liardu be, ez leuke bere buruz jardungo, Kristo'ren Gorputzari siñesmen bidez datxakozan eleiztar gustien ordezt ta izenez baño. Eñi batek bere ongile norbaiti esker ona agertzeko zerbait eskiñi gura ba'leutso, ta opari egitera bere ordezt norbait bialdu, eskintza, batek bakañik egiñañen, eñi osoa beragaz izango litzake. Auxe jazoten da meza-opariaz. Jaupariak, bakañik jardunañen, eleiz osoaren izenez ta ordezt diñardu.

Meza-ondorenak ugariago izan, eta Kristo'ren Odol

edeña zoliago ta biziago eldu daiten Jaungoikoa'ren biotzera, eleiztar gustiok, gogorik sutsuenaz jaupaldira eltzeko alegindu bear gintzakez. Dear dagi, ba, Kristo'ren Odolak, baña gure aoz ta gure biotzez dear dagi. ¿Zer dala-ta, uste dozu, oñen zindoak zirala lenengo kistañak? Oro biotz eta asmo batekoak ziran; Kristo'ren jaubetza maite eben; emengo ondasun eta aundikerik ez eben aintzakotzat artzen; Kristo'ren uratzai zintzoro jañaitu ta gogo ta gorputzez garbiro irauten eben. ¿Zer dala-ta oñen sutsu ta gogotsuak? ¿Zer dala-ta zabaldu ete zan oñen bizkor ta añañiro baster gustietara Kristo'ren siñesmena? ¿Ez ete, aldi atan egiten ziran jaupaldietan gure Ama erukioña izaten zalako?

Sortuko al da, baita gure eleiztar artean bere, jaupaldira albait sañien eta gogotsuen eltzeko zaletasuna. Ementxe, geure eskuetan dogu gure gaiztakeriekaz biztutako Jaungoikoa'ren asaña ibitu, ta opa doguzan ondasunak jadesteko ur bizidun iturria.

JAUPARIA MEZATAN

Opagilerik agiriena jauparia da. Ortixek datorkio bere izena be. Jaupariak, Jauna'ri opa egiten daragoyona dikur. Ofetarakoxe aukeratu izan dauz Jesukristo gure Jauna'k: Berak gurutzean egin eban oparia, bere ordez bañiztu dagien jaupariak. Eleiza da lenengo ta bein opagile; baña Eleizak, jaupari bidez, egin daroa opalguntza. Ikusi, gizonak egiten dau. Baña ikustea begiari yagokon legez, jaupa egitea be, jaupariari yagoko.

¿Jaupari onarena baizen ona izango ete da jaupari deungearen oparia? ¿Bata baizen gogoko izango ete yako bestea Jaungoikoa'ri?

Oparia opari danez, deunarena baizen ona izango da gaiztoaren oparia. Baña opalguntza, jauparia deunago ta Jaungoikoa'ri atsegiñago ta gogokoago. Oparia opari danez, gurutzeko opari berbera yatzu. *Opari garbia ta apagilearen gaiztokeriz loitu ezin leitekeana.* (TRI. SESS. 22. C. I).

Oso ederto azaldu daroa egi au Krisostomo deunak: «Gauza gelgafia esatera noa; baña ez añitu, ez izutu. Oparia berbera da edonor dala opagile, naiz Paul, naiz Kepa. Orain jaupariak egiten dabena, Jauna'k ikasleai emon eutsen berbera da; ezta au-a baño gitxiago; ezta-be au gizonak deunduten, a deundu eban arek baño. Orain jaupariak esaten dituan itzak, Jaungoikoa'k esan ebazan berberak diran legez; baita eskintza be, berbera da. Au, ba, Kristo'ren Gorputza da, a legez; au a baño gitxiago dala uste dauanak, onek eztaki Kristo orain be jaupariagan dala, ta jaupariaz diñarduala». Gañera, jaupariak Eleizaren ordeztu ta izenez eskiñi daroa. Ta Eleizaren deundasun eta zintzotasuna, jaupari gaiztoaren gaiztokeriz zitaltzeko baño gorago dagoz.

Opagile danez, jauparia deunago, Jaungoikozaleago, ta opalguntza atsegiñago ta gogokoago yako Jaungoikoa'ri, ta, beraz jaupari zintzoaren bitartez eskar ta mesede ugariagoak jadetsiko dira Jaungoikoa'gandik. Bai, orixe: auxegaitik diñardu, ba, jaupariak, añen eta añen, bere opea Jaungoikoa'ri begiko izan dakiola eske ta eske. *Gogo apal ta biotz-damuz gatorkizuz-ta, Jaun oñek, artu gagizuz, ta zeure aũean gaur dagitzugun opari au, gogoko izango al yatzu, Jaungoiko Jaun oñi.*

Ontzat artu, añen, zure otsein onen opari au; eta nik, nor enazan onek, zeure, Jaungoiko oñen agerian egin dodan jaupa au, zeuretzat oldezkoa, ta niretza-

ko, ta euren aldez eskiñi dodan gustientzako, zeure erukiañen onurakoña izan beite.

Baita eleiztañak be, jaupariaren alde otoi egiten dabe: *Artu begi Jauna'k eskintza ori zeure eskuetatik, bere izena goraldia ta aintzatuia izateko ta geuri ta bere Eleiz osoari on egiteko.*

Gotzain bañi batek itandu ei eutson bein Kupertino'tar Joseba deunari:

—¿Zer egin ete neike nik neure jaupari ta eleiztañak deunak izan daitezan?

—Jauna, erantzun. eutson deunak, jaupea gogotsu egin begie; deun izateko biderik laburiena auxe izango dabe.

MEZA-SARIA EMOTEN DABENAK

Jaupari urango, jaupa-saria emoten dabena, meza agintzen dabena, dira opagilerik urena. Lenengo gizaldietan, jaupea euren asmoz egitea nai ebena, opageya (ardaoa ta ogia) ekarten ebezan. Orain, eleiz-gizonak bizi al izateko saria emoten dabe. Saria emoten dabena, jaupa zor yake; ofetarakoxe emoten dabe ba saria, sari orde, jaupariak euren asmoz opari au eskiñi dagan. Auxe da guraso deunen eretxia be. Ezin emen aitatu, luzeegi joango leikegu-ta. Meza-bañuko otoyak berebat, egi au argiro darakuskue: *Opa goralgañi au... eurak euren buru ta artekoen alde euren gogoak erosi, gaizkatu ta jabon izateko ustez... eskintzen dautzue.* Eurak, jaupa saria emoten dabena, gogo ta gorputz, gaitz gustietatik jabon izateko ustez, opa goralgañi au, Jesukristo'ren Gorputz eta Odol oparia, eskintzen dabe. Eleiztañak be, uste onetan dagoz. Uste ofez,

jaupa-ondasunak eurekanatzeko ustez, emoten dabe meza-saria. Ta zuzen alan be.

Norbaiti egin nai yakon oparia, batek bere lepotik erosiko ba'leu, beste enparauen izenez eskiñita be, oparia erosi dauanak, opalguntzan alde geyago izango leuke. Orixe jazoten da Jauna'ri egiten yakon opalguntzan bere. Opalguntza, agiria ta orokofa da, bai, Eleiz osoaren izenez egiña, baña opa-saria emoten dauanak alderik geyen bereganatu daroa.

JAUPALDI EDO MEZATAN IZATEN DIRANAK

Jaupaldian izaten diranak, jaupariagaz batera egiten dabe meza-eskintza. Jaupari-lagun dira Jaungoikozko jardun onetan. Bitzuok batera egiten dabe opalguntza, jaupariak Kristo gure Jauna'ren orde, ta jaupaldian diranak opalkide legez. Ta jaupariagaz batuago ta opalguntzan alde geyago. Ufenen meza - erasoleak; gero, mezatan gogotsuago ta adiago dagozanak. Eleiztar benak, gotzonen zeregintzat izaten dabe meza erasotea; ta izan be alantxe da. Batxo bere elitzake izan bear kristar artean jaupa erasoten eztakianik.

Jaupari ta eñiaz, alkar izketan diñardue jaupaldiko otoyetan. Jakintsuak diñoenez, jaupa-lenengo alkar izketaz asi ei da beti Eukaristi otoy (1).

— *Gora biotzak.*

— *Jauna'gan doguz.*

— *Gure Jaun eta Jaungoikoa'ri esker dagiogun.*

— *Egokia ta bidezkoa da ori.*

(1) Si l'on veut remonter a l'epoque anterieure a la formation du canon romain, il faut affirmer... que la priere eucharistique, sous quelque nom qu'on la designe, doit comencer avec le dialogue de la preface. Dom Cabrol, art. Canon.

Jaupariak, bira egin, eta eñari diñotso: *Otoi egin, anai oñeik, Nire ta Zuen opari au Aita Jaungoiko al-gustidunak ontzat artu dagikean.*

Jaupa-bañuan, bañiz, jaupariak Jauna'gaz ixilik diñarduala, Jauna'ri dirautso: *Gu, zure otseñok, eta zeure sendi osoak eskintzen dautzugun opari au, ibiturik artu, añen, Jauna.* Baita ogi ta ardaoa Jesukristo'ren Gorputz eta Odol biurtu ondoren be: *Guk, zure jopu oneik, baita zure eñi deunak be, zaran aundi bikain oñi, zeure emoyetatik opari garbia, opari deuna, opari orbangea, betiko bizitzadun ogi deuna, ta osasun iraunkoia dauan Edontzia eskintzen dautzuguz.* Otoi gustietan agertzen dira, ba, eñi ta jauparia, biak batera, jaupa egiten diñarduela.

Beraz, gure aberkide ta jakitun artean buru izan zan Bitoria'tar Pantzeska abak, diñon legez, jaupaldian eleiztar geyago ta jaupatik jadetsi geinkezan ondasunak, geyenez, ugariago (1).

BIZIAK ETA ILAK JAUPA-BIDENZ JADETSI LEIKEZAN ONDASUNAK

Biziak, jaupa-bidez, jadetsi leikezan ondasunak, oneixek dira:

LENENGO, gure gaiztakeri izugariekaz biztutako Jaungoikoa'ren asafea ibitu, ta gaiztakeri oñeitzaz damutu ta bideratzeko eskar ugariak Jauna'gandik iritxi. Trento'ko Batzar nagosiarena da irakatsi au: *Hujus quippe sacrificii oblatione placatus Dominus, gratiam et do-*

(1) Unde regulariter majoris valoris est missa dicta ubi sunt multi, quam ubi sunt pauci. (Summa Sacramen).

num pœnitentiæ concedens, crimina et peccata etiam ingentia dimittit.

Tximistoratzak, oñestuaren indaía bereganatu, ta iñori kalterik egiteko indar bage lagatzen dauan legez, meza-opariak be, Jaungoikoa'ren asaíea ibitu, ta Jauna'ren zuzendasuna eskuak lotuta legez lagatzen dau, bere zigora gizonaren gain jausi ez dedin. ¡Amaitxo bider, onezkero, ler egingo eban gizon gaiztake-
riz ziteldutako ludi onek, jaupea bitarteko izan ezpalitz! Gizonen oben-ordez eskiñi daroa Eleiz Ama'k Jesukris-
to'ren Gorputz eta Odol-opari bikain au, ta jaupeagaz bigunduta, gaiztakeririk baltzenak parkatzeko lain damu ta eskar ixuriten dau Jauna'k gizonen biotzetara.

Senar gaiztoa edo seme galdua etxeratzeko, negar ta negar bizi diran emakumetxoak, meza atera edo jaupaldira eldu beitez. Gaur ezpada, biar, arein biotzak samurtuko dira; goi-argiak joko ditu; goi-eskañak eragingo dautse; ez aspertu; ez mugarik eta eperik ipiñi Jauna'ren erukiari; jaupa eskiñi bidez biurtzen ezpadira, eztakit zegaz ta zelan biurtu leitekezan.

BIGAREN, oben neke-zora ordaindu. Obenak azke-tsita be, geyen batez, obenari yagokon aldiko nekea, parkatzeke gelditzen da. Neke ori, bañiz, edo emen edo garbitokian ordaindu bear. Jaupa bidez ordaindu geinke zor ori.

IRUGAREN, atzeri onetatik zerura bidean gabiltzanok, galtzeko zorian gagoz. Gure griña makuñak eraginda, okeñeko bidea artu geinke. Arerioak, ugari ta zoliak, bañu ta ate zirikatzen gaitue. Buñukaldi gogora jokatzen ari gara, eten-bako buñukaldi latza. Ta gudaldi onetan, nai-ta-ez, gure arerioak azpiratu ta Jaungoikoa'ren adis-kidetasunean azkeneraño iraun bear. ¿Nun, baña, oretarako laguntza? ¿Nun oretarako indaía? Urgazpen ori

ba, laguntza ori, eskatzen dautsogu Jauna'ri jaupa-bitartez. Opalguntza, otoyada, eskaria da; ta otoiirik aldintsuena. *Jauna*, diñotsogu, opalguntzan, *nik zerura joan nai dot; nik Zugana eldu nai dot. Baña, bide ayartsu ta luze onetan Zuganaño eltzeko, zeure laguntza bear. Ta laguntza ori neureganatzeko, opari au eskintzen dautzut.*

LAUGAREN, gogoaren kalte eztiran ondasun gustiak eskatu ta geugandu geinkez jaupa-bidez.


Garbitokiko arima gaxoak era bitara jadetsi leikiez jaupa-ondasunak. Edo eurak bizi zirala, euren alde jaupa egiteko aginduta, edo geuk arein alde jaupa eskiñita. Bizi zirala agindutako jaupen irabazkiak, oso-osorik eltzen yakez gogaxoai. Obe da, beraz, norbera bizi dala jaupak agindu, beste batzuen eskuetan itxi baño.

Geuk be gogaxoen alde jaupa egin geinke. Gure anayak dira; gure adiskideak; goi-maitasunez alkartuta gagoz. Areitariko bakotxa geure burua legez maite izan geinke. Ta arein zoia ordaintzeko, Jaungoikoa'k gure eskuetan ipiñi daroan opari garbia eskiñi.

— *On izango da, beraz, egunero meza entzutea?*
— *Aginduta eztago, baña gustiz on da egunero meza entzutea.*

Jaungoikoa gur-egiteko; Jauna'ren eskuetatik artzen doguzan mesede ordezesker-egiteko; Jauna'ri obenaz egindako irañak ordaintzeko ta azaldu doguzan ondasunak eskuratzeko, on be on da egunero meza entzutea.





IX IKASKIZUNA

AUTORTZA

Zertarako. — Ikurton ete. — Noz ipiñi eban Jesukristo'k. — Zeintzuk oben azketsi. — Azketsiko eztan obena. — Noz artzen dogun. — Azterketa. — Zelan egin. — Damua. — Damu - beafa. — Benetako damua. — Zeinbat eratakoa. — Maite - damua. — Bildur - damua. — Biñtatik onena. — Zergaitik. — Maite-damu ondorenak. — ¿Zala ala efaza? — ¿Bildur - damua naikoa ete da? — Asmoa. — Sendoa, eragilea, orokofa. — Asmorik ez.

— Zetarako da autortza deritxon Sakramentua?

— Bateatu ezkerro egindako oben edo pekatua parkatzeko da autortza deritxon Sakramentua.

Ontzia galdu daroan arantzaleak ¿zer egin? Zur-pusketa bati eldu; ol-zati bati deutsalara, ta igeri, itxas ertza irabazi. Ontzia galdu ondoren arapatzen dogun olaren ideko da autortza. Jatorizko obena ta beste enparau obenak parkatzeko ugutza dogu; baña ugutza bein baño ezin artu leike. Beraz ugutzau ezkerro jausi gareanok;

bateatu ezkerro murgil egin edo itxasoan ondatu gare-
anok, Jaungoikoa'k bere erukiz eskintzen dauskun bi-
gafen ol oni gogor eldu bear.

— *Autortza, ikurton ete da?*

— *Ikurton izateko bear dan gustia daukagu autortzan.*

EZAUGARI AGIRIA. *Autortzen danaren egintza eta autor-entzuleak esaten dituan itzak dira ezaugari agiri ori. Damua, autortza, ta ordaña, ikurton-gei edo dirala diño Trento'ko Batzarak. (SESS. XIV - III).*

Baña ikurton-indaña, batez be, azkespen edo obenak parkatzeko jaupariak esaten dituan itzetan dago.

Auzi edo epaikunde-antzera ipiñi eban Jesukristo'k autortza. Auzian, iñok salatzen gaitu; autortzan, norberak-norberaren burua salatu daroa. Auzian zigofa ezarteko asmoz salatzen dira okerkeriak; autortzan, parkamena jadesteko gogoz. Autor-entzulearen oñetan etzun, eta apalki ta damuz gure obenak autortzen doguz; ta autor-entzuleak Jesukristo'k emondako eskubidez, epaikari legez, oben oñeik epaitu ta parkatu daroaskuz. Azkespen-itzak esanaz batera gure obenak parkatu, goi-eskañez ornitu ta Jaungoikoa'gaz adiskidetuta gelditzen gara. Or, ba, ikurton - geyak; damu, autortza ta ordaña, ta azkespen-itzak ezaugari agiri; oben - parkamena ta goi-eskaña, ezaugari oñeik adirazten dabena; ta gusti ori Jesukristo'k ipiñia.

— *¿Noz ipiñi eban Jesukristo'k autortza?*

— *Il'en artetik biztu ezkerro, batez be, ipiñi eban Jesukristo'k autortza.*

Orduantxe emon eutsen Bialduai ta onein oñorde-

koai, obenak azkatu edo lotuteko eskubidea. *Ni Aitak bialdu ninduan legez, nik be zuek bialtzen zaituet. Au esanik, puts eginda, ba-diñotse: Artu egizue Goteuna: obenak azketsiko dautsezuezanai, azketsiak izango yakez, ta lotuko dautsezuezanai, lotuta geldituko yakez. (JOAN XX, 21-23).*

Lenago, Beldu gustien Buru, Kepa deunari, zeruko giltzak agindu eutsozan: *Zeruko giltzak zeuri emongo dautzudaz, ta zuk ludian lotua, zeruan be lotua izango da; ta zuk gizartean azkatua, zeruan be azkatua izango da. (MAT. XVI-19).* Baita enparau Belduai be esan eutsen: *Zuek luñean lotua, zeruan be lotua izango da, ta zuek luñean azkatua, zeruan be azketsiko da; benetan dirautzuet. (MAT. XVIII, 18).*

Obenak azkatzea, berenez Jaungoikoa'ri bakañik dagokio.

Elbañitu bat ipiñi eutsoen bein Jesus'i bere auñean. Jesus'ek ba-diñotso: *Gizon, zure obenak azkesten yatzuz. Parisai ta idazlariak asi ziran euren baitan asmatzen: Nor ete dok birau-ontzi ori? Obenak nok azketsi leikezak, Jaungoikoa'k bakañik baño? Baña Jesus'ek arein asmakeriok igañirik, itz-eginda ba-diñotse: ¿Zer ete da eñazago, gizon oni: «Obenak parkatzen yatzuz» esatea, ala «jaiki ta ibili zaite» esatea? Beraz giza-Semeak ludi onetan obenak parkatzeko almena daukala jakin dagizuen: Zeuri dirautzut, jaiki, ta zure zeñaldoa lepoan artu ta zoaz zeure etxera. (LUK. V-18-24).*

Obenak azkestea baizen gaitza zan elbañitua bat-batean sendatzea: bata zein bestea Jaungoikoa'ri bakañik dagokiozanak. Jaungoikoa'ri bakañik, obenak parkatzea; Jaungoikoa'ri bakañik, azur ta kirioak bijortuta, oyan datzan gexoa, itz batez ta beingoan sendatzea.

Beraz, agiri-agirian erakutsi eutsen Jesukristo'k bere arerioai, Jaungoikoa zala, ta elbañitua sendatzeko legez, obenak parkatzeko almena, be, bere eskuetan eukala. Almen ori emon eutsen Jesukristo'k bere Belduai. Orixe adirazten dabe «lotu» ta «azkatu» itzak. Arimaren lokaña, obena da. Obenaz gure gogoa lotuta gelditzen da.

Azkatu, Jauna, zure otseñari gaiztakeri-lokañiok, eskatu daroa Eleizak ilen aldezko otoian. Jaungoikoa-gazko zoña, arimari ezañitako zikiña, ta gaiztoki-suaren erudun jarrea dira oben-lokañiok. Eta lokañiok osoro azkatu ta garbitzeko almena emon eutsen Jesus'ek bere Bialduai. Ori berori adirazi daroa giltza-emoteak. Giltza zetarako ete da? Atea idigiteko noski... ¿Zein ate? Zeruko ate. ¿Zek itxi daroasku ate ori? Obenak. Beraz giltza-jabe danak, obenak azkesteko almena dauka.

Ta ez Belduai bakañik, baita onein oñordeko jaupari gustiai be emon eutsen Jesukristo'k almen ori. ¿Zer ba? Gizaldi atako gizonak bakañik zeruratzeko etoñi al zan Jesukristo gure Jauna? Ez, beintzat. *Deus vult omnes homines salvos fieri.* Gizon oro zeruratzea nai dau Jauna'k. Beraz, zeruratzeko bideak be egin ditu. Ta orduko gizonentzat baizen bear ta premiñazkoa ez al da geroko gustientzat, oben parkamena jadesteko bide ori? Gizona gizon dan arteko emon eutson, ba, Jesukristo'k bere Eleizeari, obenak azkesteko almena.

—*Zeintzuk oben parkatzen dira autortzaren bitartez?*

—*Oben astun eta ariñak parkatzen dira autortzaren bitartez.*

Obendi gustiei dei egiten deutse Jaunak: ardi galdu ta erenai, banan-banan, txistu egiten dautse gure Ar-

tzain onak. Eta oben oro, diranak dirala, asko ta izugarrienak izan da be, parkatzeko gertu dago, baldin biotz-damuz garbatu, ta oben oñeik autortzen ba'ditugu.

Obendi edo pekatariaren eriotzarik eztau nai Jaungoikoa'k, biurtu ta bizi daiten baño. (EZEK. XXXIII - II).
Ona ta biotzperea, eruakoña ta eruki - erukitsua, ta gaizki egiñaz garbatu ezkerro, biurtzen samuñ ta eraza da Jauna. (JOEL, 11-13).

Lege Zañean, parkamen-itza emonda eukan, gogoz garbatzen ziranentzako, naizta obendirik galgarrienak izan. *Gaiztoa, bere oben gustiekaz damutzen ba-da... biziko da, bai, biziko da ta ezta ilgo,* diño Jaunak. (EZEK. XVIII - 21).

Gure aldian, Jaunaren erukia ganezka agertu yaku. *Oben-eduz, eskaña ez... Okerkeria ugari izan dan antxe, ugariago orain eskaña.* (ROM. V-15-20).

Erükiz ta eruki lafegiz gure oben eta gaiztakeriak bere lepoan artzeco Jaungoiko-Semea gizon egin zan. Eruki berbera ta gugazko erukiaren ituñi bizia da Jesus'en Biotza. Ardi galdu, seme galdu, Samaritañ on eta beste eundaka ipuin eta irudiz adirazi euskun, obenak parkatzeko, obendi bila, gexoak sendatzeko, jatzi zala zerutik luñera. *Enaz gizona gaiztetsi edo kondenatzeko etoñi, gizona zeruratzeko baño. Sendo ta osasuntsuak eztabe osagilerik bear, gexoak baño. Gaiztoai dei egitera etoñi naz, ez onai.*

Zakai, Magdalataña, Matai, lapur ona, Jesus'en oñetara damuz eldu ziran gustiak, dan-danak garbituta, sendotuta jaiki ziran. Obena ilteko; gizartetik obena kentzeko, jatzi zan Jesus. Eta egikizun eta jardun oñetarako ipiñi eban bere ondoren bere Eleiza deuna, oñetarako bear ebazan eskubideakaz. Jesukristo'ren ordeztu ta berak emondako almenez parkatu daroaskuz

Eleizak gure okerkeri ta oben oro. Ez eban bat bera be berezi Jesukristo'k. *Azkatzen dozuen gustia, azketsia izango da. Gure obenak autortzen ba'ditugu, zin-ziña ta zuzena da Jauna, gure obenok parkatu ta gure gaiztariok garbitzeko.* (JOAN, I, 1-9).

Adeamus ergo cum fiducia... Ustetsu jo daigun, ba, esker ta ondasun jarlekura, erukia iristeko..... (HEBR. IV - 16).

Eleizeak oben oro parkatzeko almena eukiañen, baña jaupari gustiak ezin oben oro parkatu legikiez. ¿Zergaitik ori? Jesukristo'k epaikunde edo auzi-antzera ipiñi ebalako autortza. Ta epaikundean berengo epaikariari gorengeetatik datorkien lez auziak ikusi ta epaya emoteko eskubidea, autortzan be Aita Santuagandik Gotzañai ta Gotzañagandik deratorkie bere mendeko jaupariai, autor-entzuteko eskubidea. Abadegintzaz gañera goztain-almen ori bear dabe autor-entzun eta obenak azkatzeko. Gotzañak, bañiz, iru edo lau oben astunenak eta izugañienak beragandu legikez (CAN. 897); oben oñen parkamen-eske, beragana joan beaña ipiñi legike. Ta ori, oben oñein gaiztakeria erakutsi ta azkespen edo parkaziñoa jadestea zailtxo dala ikusirik, kistotañak obenok egitetik arduratsuago aldendu daitezcan.

Baña eriotzako orduan, etxetik urten ezindako gexoaldian eta beste ereti batzuetan, edozein autor-entzulek azketsi legikez obenok be.

—*Ez ete diño ba Jesukristo'k oben batzuk eztirala parkatuko, ez gizaldi onetan, ez gerokoan? ¿Zelan aitu ori?*

—*Bai, olantxe diño Jesukristo'k; eta ori, Espiritu Santuagazko birao ta obenatzaz, eztala ez gizaldi onetan, ez gerokoan parkatuko.*

—*Oben ori ¿zein ete da?*

—*Jaungoikoa'ren almenez egindako alatz edo mirariak demoniño edo gogaiztoari ezartea da Espiritu Santuagazko birao ori. Orixegiten eben parisai ta lege-gizonak, Jesukristo'k Beelzebud'en bidez egiten ebazala bere alatz edo mirariak iñoenian.*

—*Ta oben ori ezin parkatu ete leiteke?*

—*Oben ori ezin parkatu leike, ez Eleizeak ori parkatzeko eskubiderik eztaukalako, obendi edo pekatari berak parkaziñoko biderik nai eztaualako baño.*

Olantxe diño Akino'tar Toma deun jakintsuak. Eta ori bigaitik: lenengo oben ori gaiztakeri utzezkoa dala-ko. Or eztago, beste oben batzuetan lez, ez ezjakiñik, ez aulkeririk; arokeri utzezkoa da. Gero, oben o'rek argi-bide gustiak itxi egiten ditu. Begiak ataraten dituanak ¿zelan ikusi? Goteuna'ren argiz ezagutzen dogu Jesukristo, Jaungoiko gizon egiña. Argi ori, alatz, mirari o'reik, aintzat artzen ez dituanak ¿nundik eta nora Jesukristo ezagutu? Oben ori bide dala, euren burua jakituntzat dauken asko, itxumendian ondatu-ta gelditzen dira. Begirik eztaukanari be zelanbait ikusmena emon leikio Jaungoikoa'k; ta goi-argi ori ukatzen dauanari siñestu, damutu ta biurtzeko bidea be bai. Baña ori, legez gañetikoa ta alazkoya eta geyenez jazoten eztana da. Orixegaitik diño Jesukristo'k oben ori parkatzen zaía dala.

—*Noiz artzen dogu autortza deritxon Sakramentu au.*

—*Gure obenak ondo autortu-ta azkespena emoten yakunean, artzen dogu autortza deritxon Sakramentua.*

Bi gauza bear dira ikurton au artu ta oben-parkaziñoa jadesteko: ONDO AUTORTU. Beraz ezta egia, norbaitzuk esan oi dabenez, obenak edozelan autortu; autortu autortu alde, edo (mingafi ta tamalgafiago izan oi dana) obenak gananiñatzat legez autortu; ta parkatzen diranik. Parkaziñoa iristeko, ondo, Jaungoikoak ipiñitako legez ta arauz autortu bear doguz gure obenak.

AZKESPENA ARTU. Autortzaren indara, batez be, jau-
pariak esaten dituan itzetan dago. Bekie, ba, saspiki ta
buru-arintxoak autor-entzuleak azkitzok esan baño len
eztabeela autortokitik alde egin bear.

Autortu ondoren, jaupariaren irakatsi, onu, burubide
ta osabideak gogoz entzun; erakutsi eduz, zintzo egite-
ko asmoz gogoan artu ta parkamen itzak esaten dituan
bitartean, gurutzepean, Jesukristo'ren zaurietatik darion
Odol edereez garbitzen ba'gengoz legez, biotzez, maite-
-damu otoitza, «Jesukristo neure Jauna», esan.

—Autortza ondo egiteko zeinbat gauza bear dira?

—Autortza ondo egiteko bost gauza bear dira:
*azterketa, biotzeko damua, onduteko asmoa, aozko
atorkuntza ta txarto egiñen ordaña.*

Obenaz naibagetu ta iraindua, Jaungoikoa da. Jaun-
goikoa bera obena azkesten dauskuna. Beraz Jaunaren
eskuetan dago parkaziñoa iristeko baldintza ta arauak
ezarteak.

Trento'ko Batzarak diñonez (SESS. XIV, CAP. III,
CAN. IV), autortza ondo egiteko iru gauza bear dira:
Damua, Autortza ta Ordaña. Baña autortzeko, norberen
bañua aztertu ta obenak gogora ekañi bear dira; biotz-
-damutik, bañiz, berez sortzen da ontzeko asmoa.
Autortzan dago ba azterketa, ta damutik asmoa dera-

tor. Ta oñela lkasbideko bost gauzak, iru oneitara joten dabe.

Gogoz, itzez ta egitez ausi daroa gizonak Jaungoiko-Legea, ta oben egiñaz biotza zikindu. Zuzen danez, gogoz, itzez ta egitez, bere okeña zuzendu ta oben zikin ori garbitzeko jardun-beña dau.

Gogoz, damutu; itzez, obenak autortu ta egitez oben-nekea edo gaizki egiñen ordaña bete.

Bost gauza oneik ziero egin ebazan seme galduak. Bere baitan sartu, bere kautan gogoa batu ta Goteunaren argiz sokondo gustiak arakatu ta bere gaiztakeriak gogora ekañi ebazan (azterketa). Oben itxuskeria ta bere dolorkeri ta biuñikeria, bere aitagazko esker txaña ikusi ta garbatu zan (damua).

Bertatik jaiki ta etxeratu ta bizibide baña asteko erabagia artu eban (asmoa). Etxeratzean aitaren oñetan etzun eta bere oben eta okerkeriak autortu-ta parkeskatu eutson (autortza). Bere aitak bañero semetzat artzerik ez eban nai, mofoitzat baño, txarto egiñaren ordañez. Ta aitak besartean artu, ta laztandu ta mosu emon eutson (azkespena).

—*Azterketa zer da?*

—*Jaungoikoa'ri onetarako laguntza eskatuta gero, oraindik autortu ez doguzan oben edo pekatuak gogora ekarteko alegin egitea, da azterketa edo esamiña.*

JAUNGOIKUA'RI LAGUNTZA ESKATU. Toki ilunean zerbait aurkitzeko, argi-beña izaten dogu. Argi biziagoa, ilundegi oñetara sartzeko bilduñez ba'goaz. Ilunez-iluna da, ba, giza-gogoa, batez be arazo asko ta gañantzitsuetan edo griña ta oitura txañetan naspilduta, edo urduri ta

artega, biotzeko egañiz bizi diranen bañua; ta ilunez gañera, gizonak eztautsa ezertxori be, bere buruari beste bildur. Orixegaitik, norberen burua aztertu ta ezagutzea, gauza beahezkoa baizen zaia ta latza da.

—Jauna, nik eztaukat obenik. Inor eztoz il; ezer eztoz ostu. ¿Nundik eta nora izango naz, ba, obendun?

—Obenik eztaukazula? ¡A, gixaxoa! Bitarikoak bakañik eztera obendun: ezaguerara eldu ez tiranak eta ezaguera galdu dabena; umeak eta zoruak. Enparau Adan'en jatorikuok, obendun gara. *Obenik eztozula ba'diñogu, oker gagoz, ta egia gugan eztago.* (JOAN, I, 1 - 8).

Leyoak itxirik edo argirik eztagon etxean sartu ba'zaiz, autsik eztozu ikusiko. Baña zabaldu leyoak; eguzki-izpi biziak sartu beitez, ta len ikusten etziñituan milaka auts motatxoak dakuskezuz. Baso bete ur garbi eskuetan artu ta ezertxo eztozu ikusiko; baña argi izlara ipiñi, argiz zier begiratu ta autsak-auts gora ta bera dakuskezuz. ¿Zergaitik ezteritxozu zeure buruari obendun? ¿Obenik eztaukazulako? Ez, ikusten eztozulako baño. Baster baten, bakar-bakañik, jañi, ta Espiritu Santuari bere argia eskatuta gero, zure bañuko sokondoak ziero aztertu egizuz. Ikusikozu obenik agertzen dan ala ez.

ORAINDIK AUTORTU EZ DOGUZAN OBENAK. Oben astun gustiak autortu beaña dogu. Beraz, naiz geure erú barik, autortu ez ditugun obenak gogora ekañi beaña. Erú barik autortzeke itxi ba'doguz, aztutako obena autortzea naikoa da. Gure eruz autortu ezpagenduz, autortza ura ta enparau ondorengoak txañak dira, ta azkenez ondo autortu giñanetik onakoak arakatu, aztertu ta zuzendu bear doguz. Ormagintzan ari bat oker ipiñi ezkerro, aren gañeko ariak be oker joango dira. Ormea zu-

zentzeko, gañeko ariak kendu ta oker egoanetik zuzendu bear. Soñekoan botoi asko ba'daukazuz ta bat okerko begian sartu, besteak be oker joango dira. Zuzen ipinteko, danak azkatu ta bakoitza bere begian sartu bear. Berebat autorkuntzan be, lenengo oker egin zenduaneraño jo ta airezkeroko gustiak zuzendu bear dituzu.

ALEGIN EGIN. ¿Zeinbesteko alegiña? Edozein egikizun astun eta gañantzitsuri dagokion añakoa. Norberen burua arduratsu aztertu bear dala diño Trento'ko Batzañak. Urtean bein edo noizik bein bakañik autortzen diranak, astero edo sañi autortzen diranak baño ardura ta asti geyago bear dabe obenak gogora ekarteko.

Esku artean naste asko darabilenak, bizibide ekaña ta bardin samaña dagienak baño geyago. Griña txañai amain emoten dautsienak, norbere burua ezi ta neuñiz biziteko sayatzen danak baño geyago.

Gauza onek diran lez, aintzat artu ta zintzo jardun nai dabenarentzat, azterketea eñaza da. Baña iraitzez ta azal-azaletik, añapataka; txandea añapau guraz; ume-ki, ez gizonki bere burua aztertu ba-dai, uts asko gogora ekartzeke itxiko ditu. Ususkia azaletik darabilan etxe-ko andreak, sokondoetan auts asko itxi daroa. Zintzoki ta benetan jokatu bear dogu, ba, arazo onetan; ziñes-
tedun gizonari dagokionez.

Zintzoki, bai, baña ez artegaz ta keskaz. Batzuk ba-dagoz egundo asetzen eztiranak. Aztertu ta aztertu, ta bein be baretu ezin. Autortza ezta urkemendia. Autortza ezta gogoa estutu ta artegatu ta ari batetik biziteko; gogoa nasaitu ta baretzeko baño. Jakitunen eretxiz ta onuz jardun; autor-entzulearen esanera etzun. Keska ta artegatasun oñeik il, ito egin bear dira, Jaungoikoa'ren eskeña eragotzi ta azku ta bañuko berotasuna galazo baño eztabe egiten-da.

—Azterketa zelan egiten da?

—Jaungoikoa'ren eta Eleizearen Aginduak eta norbera ibili dan tokiak eta izan dituan zeregiñak gogora ekañiaz, egiten da azterketea.

Jaungoiko-edo Eleiz-aginduetan debekaturik dagon zerbait norberen gogoz egin edo agindurik dagona ez egitea da obena. Beraz, obenik egin dogun ala ez jakiteko, agindurik ausi ete dogun edo ez, ikusi bear dogu. Aztertu ba, aginduz-agindu, Jaungoiko-legea, ta agindu bakoitzean geure buruari itandu:

- 1). Agindu ori ausi ete dogun.
- 2). Zeinbat bider. Geroago esango dogunez, agindu bakoitza zeinbat bider ausi dogun autortu beara dogu, ta ofetarako azterketan ori berori gogora ekañi beara.
- 3). Oben berezirik egin ete dogun. Gizona il edo norberen aita il, oben bardiñak eztira. Bereziak dira obenok eta bereziki aztertu ta autortu bearekoak.
- 4). Obena aldatzen daben zertzeladak. Jai-egunean lan egiñaz, ikaspide ta jafaibide txara emon daroanak, oben bikotxa egiten dau ta zertzelada ori autortu beara dauka. Guzur kaltekoya diñoanak, ariñetik astunera aldatu daroa bere obena. Ta zertzelada ori bere aztertu ta autortu egin bear. Baita norberen bizibidea agertzeko egoki ta adiñon diran zertzeladak be, gogora ekañi ta autortu beara dogu.

Buruz baño eñazago ta zietzago egin oi da azterketa, batez be luzarokoa, eleiz idaztiño edo liburutxo batetik. Onako bat eskuetan artu ba, ta lotsaz ta damuz, egindako obenak gogora ekañi.

OBEN ARIÑEKAZKO AZTERKETA. Oben ariñak autortu bearik eztago, ta autortzekotan be, batzuk esan gein-

kez, besteak ez, geuk deritxogunez. Beraz aztertu ta gogoratu beańik be eztago. Bańa obenok, astunerako bide diralako, bedar txarńa orpotik aterateko, nagosienak beintzat eta beste askoren sustrai lez diranak autor-tzea, onuratsu ta bide onean auńera joan nai dabenen-tzat egoki bańo egokiago da.

EGUNEROKO AZTERKETA. Biotza garbi zaindu ta autor-tzarako eńaz gertatu nai dozu? Egunero zeure burua aztertu. Egunero garbitzen dan etxean, auts gitxi ager-tzen da. Sartu-urtenak, artu-emonak egunero zietz daroazan salerosleak, galdu-irabaziak eńaz jakingo ditu, baita nun eta zelan galdu ta noiz ta nun irabazi daroan be. Egunero norberen burua aztertzen dauanak, bere utseite ta grińa txarńak ezagutuko ditu; baita noiz ta nun jausten dan be. Nekezago jausi ta lasteńago jaikiko da. Grińa txarńen artean, bat bestien *jauntxo* lez izan oi dogu; gure utseite ta jauskerarik geyenak, ortxe euki daroe euren sustraya. Jauntxu ori erazteko, banako azterketa dozu biderik onena. Jońayagaz gari-ondotik mugitea ateraten dan legez, banako azterketeaz gure biotza jońatu ta onbide arteko grińa txar edo gaitzoime-na sustraitik atera daroagu.

DAMUA

— *Damua zer da?*

— *Egindako obenen gońotoa ta geyago ez egiteko asmoa ańerazten dauskun biotz-samintasuna da gar-bai edo damua.*

Bai obenen parkazińoa jadesteko ta bai autortza ondo egiteko beańezkoena, damua da. Ba'leiteke nozbait aztertu beańik ez izatea; baita oben astun oro (gus-

tiak) autortu bearik ez izatea be, baña damu barik obenak parkatzea, egundo bez.

Iru gauza doguz damuan:

EGINDAKO OBENEN GOROTOA, nayeza, iguña, garbaya, egin ezpagenduz nai izatea, gogo txaraz begiratzea.

BIOTZ-SAMINTASUNA. Goñotoz gañera, oben egiñaren tamal izan; oben egiñaz naibagetu; egindako obenak biotz-samiñez gogoratu, gurasoai emondako atseka-beak, tamalez ta samiñez gogoratzen doguzan lez.

GEYAGO EZ EGITEKO ASMOA. Erabagi ori artu nai ezpagendu ba, gure damua benetakoa eztala, azalekoa baño, ez gareala Jaungoikoa naibagetuaz damutzen, adiraziko genduke.

— *Bear-bearezkoa ete da damua?*

— *Oben egin dabeneztat, Jaungoikoa'ren eskar edo grazia ta zuzendasuna jadesteko edonoz izan da bear-bearezkoa damu edo garbaya. (TRID. SESS. XIV. CAP. I).*

Biurtu zaitzeze ta zuen gaiztakeri gustietzaz garbai egin: ta zuen deungakeria etxatzue ondamendi izango. (EZEK. XVIII-30). Damutzen ezpagara, Jaunaren eskupean jausiko gara. (ECCLI. 11-22). Garbai ezpazarie, gustiok olantxe zuzituak izango zarie. (LUK. XIII-5). Damutu zaitzeze, beraz, ta onbideratu obenak ezabazau dagizuezan. (ACT. III-19).

Lenagoko zarak esan oi ebenez, bide bi doguz zerurako; zuzenbidea ta damu-bidea. Zuzentasuna galdu dogunok, damuari eldu bear. Deun gustiak izan dira garbai-zale ta damuzale, baita garbienak, obengeenak, zindoenak dirudienak bere. Irakufi ezperen Gonzaga'tar Koldobika, Koska'tar Estanislao, ta gure gizaldi onetan

Jesus Umearen Teresetxo deunaren bizitzak. Etziñoan alpeñik Agustin deunak, kistar bat be elitzakela garbai ta neke ta loñez bere burua nekatu bage emetik bestaldera joan bear.

Parkaziñoa iristeko, Jaungoikoa naibagetuaz damutu bear dogula, berez, geure adimen-argiz, ikusi ta ulertzen dogu. ¿Nor asartuko litzake gizon bati egindako irain eta bidebagekeriaren parkaziñoa eskatzen, baldin gaiztakeri oñetzaz damurik ezpaleu? ¿Nor uñeratu, ba, Jaungoikoa'gana parkeske, oben egiñaz damutzen ezpada?

¿Zelan parkatu Jaungoiko deun - zuzenak biotzez damutzen eztanari?

— *Zer bear dau damuak benetakoa izateko?*

— *Benetakoa ta obenak parkatzeko añakoa izateko, iru gauza bear ditu damuak: biotzekoa, orokaña edo oben gustietzazkoa, ta zerutaña izan.*

BIOTZEKOA. Bañukoa, gogokoa, ez azalekoa bakañik. Damu gareala esatea; damu-otoya egitea; bulaña jotea; intziri ta negar-malkoak, gogotik zortzen ezpadira, utsak, ilak dira. *Eñi onek itzez ta mingañez goresten nau, baña euron biotza Nigandik uñin dago, iñon Jauna'k. Azal utsekoa zan Kaipas'en damua, Jesukristo gure Jauna'k birao egin ebala-ta soñekoa uñatu ebanean. Biotzez biurtu Nigana; uñatu zuen biotzak, ez zuen soñekoak.* (JOEL II, 12-13). *Biotz baña ta gogo baña, eskatu daroaskuz Ezekiel'en aoz. ¿Zer ete da biotz bañi ta gogo bañi ori?*

Oben egiñaz, biotza ta gogoa, Jaungoikoa'gandik alderatu-ta, emeko gauzetara biurtu ta etzuten ditugu; damutuaz, emeko gauza oñeik itzi ta bañiro gure biotza

Jauna'gana biurtzen dogu. Len maite genduana gofoto, ta len gofoto genduana maite daroagu. Lengo uste ta naikundeak erantzi, ta uste ta naikunde bañiak jantzi. Orixe da gogo bañiztutze ori.

Ta obena gofoto, ez edozela, gaitzik-gaitzena, gofotogañirik-gofotogañiena danez baño. Biotzez damu dana, Jaungoikoa'gaz adiskidetzeařen, edozertarako gertu dago; obenpidea, edozein dala, itxi; kalteak ordaindu, entzute ta ospe ona biurtu. ¿Zergaitik ori? Obena, beste enparau gaitz gustiak batera baño txaragotzat euki ta etsi daroalako.

Txaragotzat euki ta etsi diñogu. Emengo ezbear ta zoritxararak Jaungoikoa'gazkoak baño biziago ta nabarmenago sumintzen gaitue; gorputzeko gexoak arimakoak baño minbereago yakuz; semetxoaren eriotzak bere arimearenak baño sumiñago naibagetu daroa amaren biotza. Baña damu danak, beste ezbear gustiak baño txaragotzat dauka oben egitea, ta obena baño nayago ditu esbear oñeik; arimaren eriotza gorputzarena baño kaltegañiagotzat dauka, ta eun bider nayago dau gorputzaren eriotza, oben eriozkiña baño; seme-eriotzaz minbereago jañi ařen, oben egitea kaltegañiagotzat dauka ama kistararak, eta semearen eriotza, obena baño nayago dau. Somau, minberatu, naibagetu, biotz-samurtu, negar eragin, ori gusti ori emengo ezbeařak, oben egiñak baño eřazago ta samuřago legiskue; baña ořen gañetik obena, gauzarik txararentzat etsi ta gofoto bear dogu.

Biotzeko damu ori batzuetan azalean be agertzen da, batez be bizitxoa danean: Magdalatařa, damu ta garbaiz negařa eriola etzun zan Jesus'en oñetan; Kepa deunak gařazkiro negar egin eban; negar-malkoak zirala gau ta egun bere janari diño Dabid garbatuak. Samur-

tasun eta malko oñeik Jaungoikoa'ren eskar ta mesede bai, baña autortzarako beañezkoak eztira. Obena gofotito izan, orixe da autortzarako beañezkoa.

OROKOÑA. Ezta naikoa oben batzuen damua; oben astun gustiena bear da. Osoro ta biotz gustitik biurtu gaitezala Beragana eskatzen dausku Jaungoikoa'k. Itzulieta jafi daigula gure biotza. Biotz Baña egin daigula. Oben astun gustiekaz damutzen eztana bañiz, ezta *osoro* Jaungoikoa'gana biurtzen, erdizka baño; ezta biotz bañirik egiten, erdi bañi ta erdi zar baño, edo obeto esateko, lengo biotz zañaz gelditen da. ¿Zergaitik? Oben astunak, edo danak parkatu edo bape parkatzen ezta lako. Ezin geintekaz era-batera Jaungoikoa'gaz adiskide ta asafe izan; adiskide, oben batzuk egiñaz damu garealako, ta asafe, beste batzuen damurik ezto-gulako. Oñez gañera, Jaungoikoa naibagetu dogulako, oben batzukaz damutzen ba'gara, ¿zergaitik enparau-ekaz damutu ez, baldin oben gustiekaz Jaungoikoa naibagetu ta iraintzen ba'dogu? Iñor ilten dauanak legez naibagetu daroa Jaungoikoaz; baita jayegunak austen dituanak be; beraz iñor ilaz damu dana, jayegunak ausiaz be berebat damu izan bear.

Eztaukagu baña oben astun bakoitzaz, banan-banan gogora ekañi-ta, damutu beañik; Jaungoikoa naibagetzea, oben gustiai yagoke; beraz edo zerua galdu, edo gaiztoki ta betiko su ta oñazea irabazi, edo Jaungoikoa'ri asafatu eragin, edo on-ona ta maitegañi dan Jaungoikoa atsekabetuaz garbai ta samin edo naibage danaren damua, oben gustietara zabaltzen da. Oneitariko damu-egintzak oben gustiak artzen ditu.

Damu au oben arin gustietara zabaltzea ezta beañezkoa. ¿Zergaitik? Oben ariñagaz ezto-gu Jaungoikoa'ren adiskidetasuna galtzen, epeldu edo otzitu baño; beraz

oben ariñok, batzuk azketsi leikez besteak parkatzeke; batzukaz damutu geintekez, besteakaz damutzeke. Baña autortzera doanak oben ariñak baño ezpaleroyaz, edo oraintsu egindako oben ariñen baten edo len autortutako oben astunen damua bearko leuke, bestela autortza alpeñikoa ta utsa izango litzake-ta.

ZERUTAÑA. Damua, edo obenak dakarzan kaltietatik berez sortua edo zerutaña izan daiteke.

Batzuk oben bidietan gozoro ibili oi dira, emengo kalte edo okeñen batek buruan jo arteraño; baña oben-ondorengo gañatz samiña txastatu ta iruntzi badaye jorduan negañak! Urliak bere obena agertuaz entzute ona galdu; berendiak, lizunkerri ta jan-edanetan osasuna ta ondasunak ondatu; sandia, joko ta alperkeriari edeñetsi ta biñozik gelditu... Onelakoen damua ez oi da izan *zerutaña*, emengo kaltietatik jayoa baño.

Onelakoa zan Saul'en damua. *Oben egin dot, iñoan; Jaunaren itza ausi dot.* (I REG. 23). Damu zan, baña ez Jaungoikoa naibagetu ebalako, eñegetza galdu ebalako baño. Baita Antio'ko eñege gaiztoa be, bizi-bizirik añak jaten ebela, oyan zetzanean, Jerusalem'go eleiza donausiaz ta an egindako lapuñetakaz garbatu zan. *Oraintxe gomutatzen naz Jerusalem'en egiñiko gaiztakeriekaz, iñon; gaiztakeriok bide dirala gexo zantar au etoñi yat.* (MAR. I-VI, 12-13). Baña ez eban eñukirik Jaunagan aurkitu. Gexoaren miñez damutzen bai-zan, ez Jaungoikoa naibagetuz.

Obenaren ondorengo neke ta kalteok parkaziñoa iristeko naikoa ta adiñon izan ezañen, zerutar damua gure biotzetan zortzeko bide izan oi dira. Seme ondatzalea, aitak emondako ondasunak irautsoen artean, etzan seneratu; zorakerietan gozoki ebiñan. Baña dirutza aitu ta agortu, ta bere burua txañizain, ta gosez ta erdi

bilosik ikusi ebanean, bere etxeaz oroitu, gomutau zan; ta damu benetakoaz biurtu zan bere aita onagana.

— *Noiz izango da, ba, damua zerutaía?*

— *Goteuna'ren indaréz sortu ta damu-bide edo ziyotzat siñesmenaz agertzen dauskun egiren bat artzen dogunean, izango da damua zerutaía.*

Damu au Goteuna'ren indar ta laguntzaz gure gogotan sortu doala, Trento'ko Batzarak irakasten dausku. (SESS. XIV, 6-IV). Goiko laguntza bage ezin geinke arazo ta egikizun onetan, ez *Jesus* bat esan, ezta onerako gogorapenik euki be. Damu-bide izan leitekez, edo osoro on eta maitegarí dan Jaungoikoa oben egiñaz naibagetua; edo Jaungoikoa'ren eskar ta adiskidetasuna galdu izatea, edo zeruko zoriona galdu, ta gaiztoki edo inpernuko oñazeak irabazi izatea.

— *¿Zeinbat eratakoa da biotzeko damua?*

— *Biotzeko damua, era bitakoa da: Maitasun-damua ta bildur-damua.*

Damua maitasunetik dator (1). Ta Jaungoikoa'gazko maitasuna era bitakoa izan leiteken legez, oben egiñaren damua be era bitakoa izan leiteke. Jaungoikoa, berenez, on utsa ta maitegaría dalako maite izan geinke; edota guretzat ona dalako, guk bilatzen dogun eta egañi biziz gura dogun zoriona Beragan dogulako. Benetako maitasuna, lenengo maitasuna da; Jaungoikoa, dana dalako, maite izatea. Bigaíren maitasuna, geurekoyago da; geure buruari zoriona opa dautsogulako, maite dogu

(1) Suppl. Tertiæ Part. quæst. III, art. 1.

Jaungoikoa; lenengo gure zoriona bilatzen dogu; Jaungoikoa baño Jaungoikoa'ren atsegiñak opa-ago doguz.

Berebat jazoten da damuagaz be. Damu izan geintekenez, oben egiñaz Jaungoikoa iraindu ta naibagetu dogulako; Jaungoikoa'ren aginduak ausi ta bere gugazko eskubideak aintzat artu ez ditugulako. Obena gofoto, Jaungoikoa'ren gaitza danez; Jaungoikoa'gazko okerkeria danez. Ta auxe da benetako maite-damua. Jaungoikoa maite izatetik sortzen dan damua. Jaungoikoa maiteago ta obena gofotoago.

Baita damutu geintekenez ta obena gofoto izan geinke, gure gaitza dalako; ondorengorik negargañienak dakarguzalako, zeru-galtzea, betiko oñaze ta suaren erudun egitea ta abar. Damu au geure buruagazko maitasunetik sortzen da; geuretzat kaltekoi danez gofoto dogu obena. Bildur-damua deritxo damu oni. Jaungoikoa'gazko bildura damu-bide dalako.

Iruditxo baten bidez azalduko doguz damu bi onek. Seme bik euron aita naibagetu daroye, ta gañazkiro naibagetu be. Aitaren esan astunik eztabe egin; biak dira gaizki egiñaren damu. Baña bata aitari emondako naibageaz damutzen da; bere aita dan ona izanik ta ainbeste mesede ta ontarte berari egiñik atsekabetu daroalako, damu ta garbai da. Bestea be damu da, baña ez bere aita ona naibagetu daualako, bere aitak ezari leikion zigofaren bildurez baño. Or agirian bataren maite-damua ta bestearen bildur-damua. Bata, aitari ongi naye; ta bestea, bere burua maitez damuturik.

—*Zer da maitasun-damua?*

—*On utsa ta osoro maitegarria dan Jaungoikoa iraindu dogulako biotz-samintasuna, autortu, ondu ta oben-nekea betetako asmoz; orixe da maitasun-damua.*

ON UTSA izan, ondasun gustien sorburu ta iturria... ta Jaun ori itxi, gure biotza emengo purtzilkeri ta ezerezetan ipinteko... Begira zeru-lurak eta oñeitan dagon gustia; begira zeru goyetako aingeruak eta lurbira zabaleko gizonak; ortzeko izañak, axeko egazti, lur-gañeko zugatz, arnari ta liliak; itxasoa ta bere eñayetan bizi diran araiñak. Ori gusti ori, ¿zer da Jauna'ren ondoan? Ezer ezpalitz bezelaxe.

Ori gusti ori baño edeñago, bikañago ta maitegañiago da gure Jaungoikoa. Ta oben egiñaz, Jaun ori ezetsi dogu; eztoгу Jaun ori aintzat artu; Jaun oñen aginduak ausi doguz. ¿Ausarkeri nardagañi ta goñotogañia ez al da au? ¿Nor naz ni ta nor da Jaungoikoa, zimaур ustela nazan au oñela Jaungoikoa'ri jarkitzeko?

Baña ez zure Jauna bakañik, zure Aita ona naiba-getu dozu; Gurutze baten oñetan jañi zaite, ta gogora ekañi zure Aita'ren eskuetatik artu dozuzan ontarte ta mesedeak. Gauza gustiak zuretzako egin ditu; zure maitez. *Bere Seme bakaña be zure maitez emoteraño maite izan zaitu.* (JOAN, 111-16). *Maite izan nindun eta bere burua nire alde eskiñi eban,* esan zengike Paul deunagaz. Jesukristo'ren zaurietatik odola darion baizen ugari jario izan dira zugana Jaungoikoa'ren eskar ta mesedeak. Siñesmena, ikurtonak, eskar-laguntzaleak... Banan-banan, ziero gogoratu mesede oneik. Gure Aitak, ALGUSTIDUNA izanik be, emon dauskun baño geyago ezin emon; JAKINTSUA dalarik, ez eban jakin, zer geyago guri emon; eta ABERATSA ta gauza gustien jabea izanik, ez eban zer geyago emonik, diño Agustin deunak. Esaidazu ba; au gusti au gure maitez egin dauana ¿ez al da beragan on eta maitagañi izango? Ta Aita on au ez al dogu maite izango? Ontasun au maite ezpadaigu ¿zer maite izan geinke?

Baña jau dolorkeri lotsagafia! Maitasun ordez dolorkeria; esker onaren ordez, biurikeria; maite bearean, Jaunaren biotza iraindu ta naibagetu egin dogu. Dolorkeri onetzaz ezpatzen da gure Jauna Isair'en aoz: *Semeak azi ta goratu ditut; baña eurok enabe aintzat artu. Idiak bere ugezaba ezagutu daroa ta astoak bere jabearen askatxo; baña nire eriak, nire umeak, enabe Ni ezagutu.* (1, 2 - 3).

Gogoratze onek biurtu ebazan maite damuz Jaunarengana Dabid eregea, Maria Magdala'tara, seme ondartzalea ta Kepa deuna.

BILDUR - DAMUA

—*Zer da bildur-damua?*

—*Obenen ezaintasuna dala-ta, naiz inpernuaren bildurez, naiz zerua galdu dogulako biotz-samintasuna, autortu, ondu ta oben-nekea betetzeko asmoz; orixe da bildur damua.*

Norberen aita naibagetuaz damutu leiteke seme bat, aita on eta maitegari dalako, ta, baita norberen aita iraindu ta minberatzea txarkeri ezaña izatez gañera, aitaren asarepean jausi dalako be.

Berebat, Jaungoikoa iraindu ta naibagetuaz garbatu ta damutu geintekenez, gure aita on eta maitegari dalako, ta baita, obena gaiztakeri ezaña izatez gañera, betiko su ta garen erudun geure buruak egin-da zerua galdu dogulako be.

OBEN-EZAINDASUNA, ez geure adimen argiz ezagutu ta ulertzen dogunez, siñesmenak irakasten dauskunez baño. ¿Zetan ete datza ezaindasun ori? Oben egiñaz, gizonak bere burua azpikoz-gora ta buruz-bera jartean

datza ezaindasun eta bidebagekeri ori. Jaungoikoa'ren gogoa, Jaungoikoa'ren legea da gizonaren arau ta neurkiña. Beraz, gizonak gizonki jarduntzeko, gizonki ibilteko, Jaungoikoa'ren legez ta arauz ibili bear. Baña oben egikeran, lege ori ausi ta geure naikeri ta griña txarrek legetzat artzen doguz; azpikoz gora jarten gara, menbekoa buru ta burua menbeko. Gizon izatea galdu ta abereen malaraño jazten gara. *Homo, cum in honore esset, non intellexit; comparatus est jumentis insipientibus et similis factus est illis.* (PSAL. 48-XIII). Goyan dago Jaungoiko-legez dabilan gizona, baña bere aunditasunaz aztu ta abere-ondoan jarten da ta euron antza artu daroa, Jauna'ren legea itxi ta bere naikeri ta griña txarren jarai doana.

Jaungoikoa'ren gogoari jarkitea baño gauza itxusi ta ezañagorik, zer? Oretantxe dago, ba, obenaren gaiztakeri ta okerkeria, ta oretzaz ezpatzen da Jauna Jeremias'en aoz: *Nire uztaria ausi dozu, nire aginduen edeak uratu dituzu ta esan dozu; enaz Jauna'ren mendean egongo.* (JER. 11).

Luziper, Jauna'ren mendean egoan bitartean, eguzkia ta izarak baño argiago ta ederago zan. Baña arokeri ta antusteari leku emon eutson; Jauna'ren aurka jaiki zan; Jauna'ri jarki yakon: Eztot nai Jauna'ren mofoi ta mendeko izan, esan eban. ¿Eta nork esan, zein itxusi ta naskagarri gelditu zan? Irazaki artean bikañena, iguin-gariena biurtu zan. Sartu, ba, zeure baitan, eta begira, itxusi ta naskagarri egongo ez ete-zarean, ainbeste bider Jaunari jarki zayakozan ori.

INPERNUAREN BILDUREZ. Oben egin dozu. Ta zer irabazi dozu oben egiñaz? *Quem ergo fructum habuistis in illis, in quibus nunc erubescitis?*—diñosku Paul deunak. ¿Zer atera dozu orain lotsatzen zaituen oben ofeitatik?

¿Zer..? Betiko su ta oñazea. Oñixek dira obenaren irabazi ta ondorenak. Jatzi zaite orain gogoz toki izugarri atara, gero betiko jatzi etzaitezan. ¿Zer dala uste dozu gaiztokia? Oñaze-tokia. Jaungoikoa'k bere asarean piztutako suteya. Gaizto gustien tokia. Diabrua ta bere jañaitzaleak zigortzeko, Jaungoiko zuzen algustidunak ixotutako laba gorria. Sua, ta bein be itzaliko eztan sua, bada obendi berberaren erayetatik sortzen da su ori; agin-kañaskadea ta egundo ilgo eztan biotzeko arā; ta oñazez lertzen beti... beti... Jaungoikoa-Jaungoiko dan artean egon-beara, oñixek dira leku ikaragarri atako neke ta loñak. ¡Nozbait amaitu bear ba'lira oñaze oneik... ¡gaitzerdi litzake! Baña eztira beinbe bukatuko. ¡Ni, emen, eta betiko! ¡Betiko!.. Gogorapen oñek, ar biziak legez, ozka ekingo dautso gogo edo arimari. *Egundo* enaz zoriontsu izango; niri gogoko yatanik eztot *egundo* izango; atsegiñik bein bez, atsekabea beti. Ilunpean, goñotoz, okerkeri amofuz. ¿Ba al dakutzu zer irabazi dozun oben egiñaz? Ta ori ikusirik, ¿ez ete zara garaiz, osoro ta biotzetik Jauna'gana biurtuko?

ZERUA GALDU. Oben egiñaz, Jaungoikoa'ren eskar edo grazia ta zerurako eskubidea galdu dozuz. ¡Ay! ta ba'zenki zer dan emaitz ori! *Si scires donum Dei...* ¡Ba'zenki emaitz oñen edertasun eta bikaintasuna! Jañi pñlo baten emeko urē, zidar, bitxi ta enparau edergari ta ondasunak. ¿Zer dira oñeik eskar ta graziaren ondoan? Oinpean zapaltzen dozun autsa baño deusezago ta ezerezago. Bizitza bera ¿zer da zerutar bizitz oñen ondoan? Aintzat artzerik eztagokion gauz utsa. Eskar ta grazi ori guretzat irabazteko Jaungoiko-Semeak lufēra etoñi ta gurutzeko eriotz bortitza artu bear izan eban. Eskar onek, ariman sartzen dan unean bertan, ayenatzen ditu oben guztiak; obenez ñla aurkitzen dan

gogoa piztu daroa; Jesukristo'k *esteyetakoa* deritxon *jantzi*, zerutar onoimen emaitzez, apaindu. Eskar onek egin daroa gizona Jaungoikoa'ren seme ta adiskide; Jesukristo'ren senide; Espiritu Santuaren jauregi ta betiko zorionaren jabegei. Eskar ori da zerurako azia, erbeste onetan erain eta zeruan erne ta loratzen dan azia.

Ta ¿oren e'raz galdu dozu eskar ori? Oren e'raz ta merke saldu ta galdu dozu Jaungoikoa'ren antzeko, ta bere seme ta adiskide, ta Jesukristo'ren senide izatea? ¿Oren e'raz jaurti dozu Goteuna zure biotzetik ta Satanas'en mende gogorpean ja'ri zara? Miloika kista'rek, Espiritu Santua euron biotzetatik jaurti ba'ño len sanetako odola izuri nai izan dabe. Ta zuk, atsegin lotsaga'ri baten ordeez egin nai izan dozu egiteko zantar ori? Betiko bizitz zoriontsua galdu dozu; betiko poz-atsegi'nak galdu dituzu; zure Jaungoiko berbera galdu dozu. Au gusti au egin, ene gogoa, ta etzara damuz ta nega'rez lertuko? etzara damu ta nega'rez Jaungoikoa' gana biurtuko?

Jesukristo'ren gurutzeko eriotza bildur - damu - bidezta be artu geinke. *Vide severitatem Dei...* dirausku Agustin deunak. Begira gurutzea ta ekutzu or Jaungoikoa'ren asare ta zo'oztasuna. Zugatz guria, zugatz ezoa; zugatz loratsu ta igali ta arnariz apaindua da zugatz ori. Bada zugatz gurian o'relako triskantza egin ba'daroa Jaungoikoa'ren zuzentasunak, zugatz ige'rean zer egingo ez ete dau?

I'ñoren obenak leporatu ebazalako, ain gogor artu ba'eban Jaunak bere Seme maite-maitea, ¿zer izango da gutzaz baldin Jauna'ren asarepean jausten ba'gara? Bildur-damutik maite-damura e'raz jo geinke. Au adirazten dausku *seme galduaren* ipu'nak. Gaste oni ezeutson lenengotan aitaren naibageak mi'nik emoten. Bere burua

gosez ikusibeafak samintzen eban. ¡Zeinbat langilek, iñon, ogia naroro ta ugari jaten daben nire aitaren etxean!.. ¡eta emen nago ni goseak erkitua ta ilteko zorian! Baña gerora, bere buruagaz aztu ta aitari emondako naibageaz bakañik gogoratzen zan. *¡Aita! Gai-koa'ren aurka ta zuri buruz oben egin dot; enaz oñezkero, zure seme-izena eroateko gai; baña zure ogipekoetan artu nagizu, aien.* (LUK. XV, 21).

Obenaren ondorengo ta zigoñak, Jaungoikoa'ren ondasunak baño biziago eragin oi dautsa gure biotz txatxar berekoyari. Igo, ba, gogoz zerura ta ikusi an oben egiñaz galdu doguzan ondasunak... Jatzi inpernura ta biziuro gogoratu ango neke-oñazeak... Jañi gurutzepetan eta ikusi Jaungoikoa'ren ondasuna ta obenaren egitekoa. Iru ibilte oneik, gogoz egin ezkero, damu bikoitza, bildur-damu ta maite-damua sortuko dira gure biotzetan.

AUTORTZEKO ASMOZ. Damuan bertan dago autortzeko asmoa. Benetan damutzen dana, gaitzik-gaitzena danez obena gofoto dauana, obena kentzearen edozertarako gertu dago. Obenak autortu beafa Jaungoikoa'k ipiñita dogu; orixe da Jauna'ren naya; orixe eskatzen dausku Jauna'k parkaziñoa iristeko. Beraz damuturik dagona, geyagoko barik, obenak autortzeko gertu dago.

— *Eta zein da bietatik onena; maitasun-damua ala bildur-damua?*

— *Damurik onena maitasun-damua da.*

Maite-damua berez ta ondorenez da bildur-damua baño obe. Maite-damua, damu semekoya da; bildur-damua, moñoi-damua. Semea aitaren maitez ta aitaren onez damutzen da. Bere buruagaz ezta gogoratzen.

Aita naibagetuak biotza mindu ta samindu daroatso. Mofoya sari ta zigoñari begia deutsalara dago; saria galduak eta zigoña irabaziak, oker-egiñaz garbatu-azo ta zuzen erabili daroa. Edozein gurasori semearen maite-damua mofoyaren damu berekoña baño atsegiñago yakon legez, Jaungoikoa'ri be maite damu ori bildur-damua baño atsegiñago yako.

— *Zegaitik da maitasun-damua damurik onena?*

— *Bere bitartez eta gero autortzeko asmoz, berealaxe gure oben astunak be parkatzen yakuzalako ta Jaungoikoa'ren adiskidetasunean jarten garalako, da maitasun damua damurik onena.*

Oneixek dira maite-damuaren ondorengo guren ta opagañiak. Banan-banan azaltzera goyaz, kistañak aintzat artu ta damu ori zeruko giltza legez erabilten oitu ta leyatu daitezcan. Izan be zeruko giltza, zorion eñiko ateak noz-nai idigiteko, Jaungoikoa'k gure eskuetan ipiñi deuskun uñezko giltza da-ta.

OBENAK AZKATU. Diranak dirala, baita ortziko edo zeruko izañak, edo itxasbasteñeko area baño ugariago ta Judas'en bilaukeria baño baltzago ba'lira be. Maite-damuz «damu dot» esanaz batera, oben gustiok parkatuta gelditzen dira, ta eztira egundo geyago piztuko. *Gaiztoa bere gaizki egin gustiekaz garbatu ba'dai... bizitzaz biziko da ta ez ditut geiago bere gaiztakeriak gomutau ta gogora ekañiko.* (EZEK. XVIII). Jaungoikoa ezta bein egiñiko emaitz edo mesedeaz garbatzen; bein azketsi ezkeru, betiko azketsi darua. Itxas-ondora botatzen dituala diñosku damutzen danaren obenak.

Jakiña; benetan damutuañen, obenak autortu beara dau, ta adionez autortuko ezpalitu, oben astuna egingo leuke; baña lengo obenak, areik betiko parkatuta dagoz.

— *Ta obenak kentzeko, maite-damu bizia bear ete da?*

— *Ezetz diñosku Akino'tar Toma jakintsuak. Damua, danik eta txikiena, zeyena ta epelena izan da be, maite-damura eltzen ba'da, oben oro parkatuta ezebezteko naikoa da. (TERT. PART. SUPPLE. QUEST. V - ART. 111).*

OBENARI DAGOKION NEKEA. Neke bi dagokioz oben astunari, bata betikoa; oraingo edo aldizkoa bestea. Betiko oñaze ta nekea, oben astunagaz batera parkatzen da; oneik biok ba, batak besteari deusela dagoz: obena parkatu, betiko oñazea parkatu; obena agertu, neke ori be agertu.

Baña betikoa ez eze, aldizko nekea be parkatu leikigu maite-damu bidez, gitxi edo geyago, damuaren indar ta bizitasun neuriz. Or dogu Magdala'tar Maria; damuaren indañez oben eta oben-neke osoaren parkaziñoa jadetsi eban.

¿Zeinbaterañoiko bizitasuna bearko ete dau neke oñen parkaziñoa jadesteko? Orixe eztakigu; eztausku Jaunak agertu.

JAUNGOIKOA'REN ADISKIDETASUNEAN JARI. *Gaizto izatetik zuzen izatera, ta Jaungoikoa'ren arerio izatetik adiskide izatera biurtu daroa gizona maite-damuak, diño Trento'ko Batzañak. (SESS. VI, CAP. 7). Ikatza bai-zen baltz ta burdin zaña baizen ugertsu gelditu oi da*

gure gogoa oben egin ondoren. Baña sutan sartutako ikatza txingar gofi dizdiratsu biurtzen dan legez, ta suteyan goritutako burdiñeak zaña ta ugeña bota ta suaren antza artu daroan bezela, gure arimeak be, maite-damu suaren indañez bere oben-loi, uger ta zikin gustiak bota, garbi-garbi jañi ta goi-eskar edo graziaren apaindureaz Jaungoikoa'ren antza artu daroa. Damutu ordukoxe ba, Jauna'k gure oben oro azketsi ta bere eskar edo graziaz apaintzen gaitu, ta bere adiskide eginda gelditzen gara.

Orixo adirazi euskun Jesukristo'k seme galduaren ipuñaz. Beragana biurtzen zala ikusi ordukoxe, Aita biozpereak seme ondatzaleari bidera urten eutson, eta onek ezer esan baño len, mosu emon eta besarkatu ta laztandu eban. Bere etxean artu ta eskar edo graziazko soñeko edeña jantzi-azo; ta adiskidetasun ezaugaritzat erestuna ezarri. Oñetako bañiak ipiñi eutsozan — bide zuzenari jaraitzeko bear ebazan laguntzak. — Eta jai andia egin eban, bere seme ila piztu ta galdutzat eukana agertu zalako. *Olantxe, zeruan be damu dan oben-di bategaitik poz aundiagoa izango da, garbai izan bearik eztaben larogeta emeretzi zindogaitik baño.* (LUK., XV - 7).

IRABAZIAK ESKURATU. Oben egiñaz, ordurarteko irabazi gustiak galtzen doguz. Itxas erdian ondatutako ontzia edo lora-loran izotzak eretako baratza letxe, gelditzen gara, uts-utsik, biloiz-bilozik. Damu-bidez itxas-ertzera eldutakoan ¿ez ete dogu lengo ondasunetatik bape aurkituko? Gaiztokitik iges egiñaz ase beariko ete gara? Zerbaiten jabe izateko, bañien-bañi lanari ekin beariko ete dautsogu? Olan ba'litz-be, ezer esateko ziyorik ezkenduke. Obenak eta obenai dagokien betiko nekea parkatzea ¿ez al da naikoa eruki? Bilaukeriz gure

irabaziak galdu doguzanoi ondasun oñeik kentzea, ez al dagokigu?

Gure dolorkeria baño zabalago da, baño, Jaungoikoa'ren ontasuna. Bein parkatutako obenak, eztira egundo piztuten. Baña Jaungoikoa'ren eskar edo grazian egindako egintza onak, maite-damu bidez dandanak piztutzen dira.

Beraz bein ta bañiro jausiañen, Jaungoikoa'ren maitasunean ilten ba'gara, egintza on gustiai dagokien aintza ta zoriona izango doguz, bein be galdu ezpagendu legez.

—*Maite-damu-egintza ¿zala ala eñaza ete da?*

—*Bere Seme bakara emoteraño maite izan gaitu Jaungoikoa'k. Gizon oro zeruratzea nai dau Jauna'k. Gu gizonokaitik eta guri zeruko bidea nasaitzeañen, goyetatik jatzi zan Jaungoiko-Semea.*

—*¿Zer bide izan dabe gizonak zerua irabazteko?*

—*Lenengo gizona agertu zanetik Jaungoiko-Semea gizon egin arteraño, obendiak, maite-damua baño ez. Jesukristo gure Jauna etoñi ezkerok kristauok, autortza ta maite-damua, baño ez.*

Gizonik geyenok obendiak izan dira, *Omnes declinaverunt*. Asko be asko bider-galdu izan dira. Gizonok zeruratzeañen Jesukristo zerutik jatzi, gurutzean il, Eukaristian gelditu. Geyen-geyenok zeruratzeko maite-damua bear. ¿Nok uste ba, maite-damu egintza alako gauza zala izango danik? Bere Seme maite-maitia emon dauskunak ¿ez al dauskuz enparau ondasunak Beronekin batera emon nai izango? Ala guri emon ezkerok, uritu egingo ete dira Jauna'ren ondasunak?

Guk uste baño zabalago, ta uratuago, ta jareyago,

ta emokoyago izango dala gure Aita Jaungoikoa'ren biotza deritzat.

Gabero oyan etzun aurretik egin beintzat maite - damukintza, ta sariago egin ba'daizu, obe.

—*Eta autorkuntza ona egiteko bildur-damua naikoa da, ala maitesunezkoa bear ete da?*

—*Autorkuntza egiteko naikoa da bildur-damua; oba da oraitik maitasun-damua, ta au eukiteko alegiñak begiz autortzera doanak.*

Autorkuntza-bidez obenak parkatuta Jaungoikoa-ren adiskidetasunean jarteko, bildur-damua naikoa dala, erakusten dausku Trento'ko batzarak. (SESS. XIX). Ta ziñez, autortza ondo egiteko maite - damua bear ba'litz ezertarako litzake azkespena? Obenak azketsi ta parkatuta dagozala adirazteko bakañik? Ori ezin izan. Batetik, Trento'ko Batzarak uste ori guzurtzat dauka. Ta bestetik, azkespen edo absoluziñoa ezta ezaugarri utsa; adirazten dauana, egin be egiten dau.

Oba da oraitik maite-damua. Arestian esan dogu zergaitik dan obe. Ta au eukiteko alegiñak egin begiz autortzera doanak. Autortzetik ondorengo ugariagoak eskuratzeko ta autortzarako bear danez gertatu dala ziuñago ta eskieñago jakin dayan. Oben egin dozu? diño Krisostomo deunak, (HOM. 4 IN II AD KOR.) Zure Jaun eta Jaungoikoa naibagetu dozulako damutu zaitte. Bere Seme bakaña zure maitez emoteraño maite izan zaitu ba. Oñen ona da ta oñen besteraño zutzaz arduratzen da.

—*Noz euki bear da obenen damua?*

—*Autor-entzuleak azkespena emon aurretik euki bear da obenen damua.*

Norberen eruz edo zabarkeri ta ardurabakokeriz, azkespena artu aurretik damutuko ezpalitz, autorkuntza utsa izango litzake.

Aurretz ibiltea da onena. Aurreko egunean edo egun batzuk lenago, autortzarako gertatzen asi. Ta orduan sortutako damuak — bitartean obenerako bideak utsi ezkerro beintzat — autortzerarte dirau.

ASMOA

—*Asmoa zer da?*

—*Obenik bein be geyago ez egiteko ta obenerako bide gustietatik aldenduteko erabagi sendoa, da asmoa.*

Damu egiazkoari dairaiko asmoa. Damua benetakoa, biotzekoa, ba'utik sortua ta Jaungoikoa bide ta ziyo dala artua ba'da, ostera geyago obenik ez egiteko asmoa be sendoa ta benetakoa izango da. Damua ezin geinke ez begiz ikusi, ez eskuz oratu. Gogo-ba'eneneko gauza da. Ezin geinke ziur esan, oraintxe ba'daukat eta oraintxe eztaukat.

Baña damuaren ezaugarria asmoa da. Sustraitik ernea ta ernetik lorea ta loratik igali edo frutua datorzan legez, damutik asmoa dator. Ta sustrai sendotik erne guria, ta erne guretik lora mardula, ta lora marduletik igali ugari ta gozoa legez, damu benetakotik asmo zintzo ta benetakoa. Atsekabien-atsekabez garbatuta dagon obendia, Jaungoikoa'gan bere uste osoa ipiñita

jaikitzen da, ta bere lenengo erabagia auxe izan oi da: *Jauna, ez geyago obenik.*

¿Zelan igari, baña, erabagi ori itz utsezkoa ala benetakoa dan?

Benetakoa izateko iru gauza oneixek bear ditu: *Sendoa, egilea ta oben gustiekazkoa izan.*

SENDOA. Sendoa zer da? Zala, nekez ausi, zink egin ez, zintzo iraun eta bein artutako erabagian gogor eutsin; orixe da asmo sendoa ta ofelakoxeak izan bear dau obenik ez egiteko gogoak.

Oso ederki adirazten dausku asmo au Paul deunak. Jesukristo'k gure ongi-nayez egin eroana, batez be gurutzeko eriotza, gogora ekañi ondoren, biotza suturik itanduten dau: *Nok alde eragin guri Kristo'ren maitasunetik? Loñeak ete? lañiak? goseak? ezetsaldiak? bilostasunak? kalte-zoriak? ezpatak?.. Etsi-etsita nago, ez erioak, ez biziak, ez oraingo, ez geroko ezerk, ez beste izakiren batek ezin aldendu gauzala Jesukristo gure Jaunagandik, Jaungoikoa'k dauskun maitasunetik.* (Rom. VIII - 35). Ora or asmo sendoa. Oñen antzekoa izan dabe deun gustiak. Oñen antzekoa euki bear dogu guk be autortzera goyazanean. Oben egin edo entzute ona galtzeko aukeran ipiñiko ba'ginduez, galdu ospe ona, baña obenik egin ez, Susana deunak legez. Oben egin edo daukagun gustia galdu ta eñu barik espetxean sartzeko zorian jañiko ba'ginduez, galdu daukagun gustia, ta ez obenik egik, Jose antxiñakoak egin eban legez. Oben egin edo il? Il, bear bada, baña ez obenik egin, Eleazar ta enparau ziñopa edo martiriak egin eroenez.

Autortzera goazan bakoitzean gauza oneikaz burua keskatu beañik eztaukagu, ofatiño. Aukera ofetan jañiko ba'ginduz gure Jauna'k, neke ofeik bere maitez

eroateko indar ta kemena be, Berak emongo leuskiguz. Jazopen oñeik aitatu doguz, gure asmoa, ez ao utsezkoa, benetakoa ta biotzekoa baño, izan bear dauala adirazteko.

EGILEA. Edo obeto *eragilea*. Obenik geyago ez egin eta obenerako bidietatik aldenduteko neuri egokiak artu eragiten dauskuna. Benetan osatu nai dauanak, osasuna galtzeko zorietatik igesi-ta osasuna esku-ratzeko sendakayak artu nai ditu. Sendakayok latzak dirala, samiñak, mingotzak, neketsuak dirala! Ta zer? Osasuna nai dozu? Bada sendakayok, naizta latzak izan, naizta samiñak, mingotzak, neketsuak izan, artu egin bear dozuz.

Obenik ez egitea nai neuke... Oben-bide au itxi gura neuke... oitura zantar au kendu nai neuke... ¿Nai zenduke? Benetan nai zenduke? Egin ba. ¿Zerk edo nork eragozten dautzu? Nai neuke utsezko asmoa, asmo antzua da. Nai neukezkoa ei da gaiztoki edo inpernuko galtzadea. Pilatos'ek bere, nai leukian Jesus judatañen eskuetatik azkatu. Baita azkatzeko gogoa be erabili eban. Etzituan baña oñetarako neuri egokiak artu. Ta zetan geldidu zan Pilatos'en asmoa? Utsean. Erodes'ek berebat, Jon Ugutzari deuna espetxetik atara nai leukian. Baña etzeban oñetarako bide egokirik artu. Bere asmoa, autortzen datozañ askorena lez, nai utsezkoa, ao utsezkoa zan.

¿Zer dautsa lugin edo nekezari bati, lur onak eta iñaurkiñak ugari eukiañen, alperkeriari edeñetsi ta besoak-beso-gain dituala, astia ba'duakio? Arnaririk artuko ete dau? Ez noski. Zer egin arnari ta frutua ugaria artzeko? Eskuak lanari ezañi. Orixe egin bear, ba, gogoa garbi zaintzeko be. Eskuak lanari ezañi. Obenerako bideak itxi. Oitura txafak eratzi. Zintzo irauteko bideak

artu. Otoi egin, sañiago autortu ta Jaunartu, Jaunaren itza entzun, irakuñi ta gogoratu.

—Jauna, baña ori latza da, neketsua, samiña.

—Lagunak itxi... oitura txafak kendu... Gauza one-tan iñardun... Ta gero esamesak... ¿zer esango dabe nire lagunak?

—Latza dala diñozu? Ta betiko sutan egotea, ezta latza izango ala? ¡Lagunak zer esango ete daben..! ¿Ta Jaungoikoa'k zer esango ete dau? Eriotzaren bilduñak, ilteko añisku gustietatik iges eragiten dauskun legez, betiko galtzeko bilduñak, oben egiteko añisku ta bidietatik alde eragin bear dausku.

OBEN GUSTIEKAZKOA. Ura ituñitik legez sortzen dala damutik asmoa esan dogu. Oben gustiekaz damutu bear garean legez, ba, oben astunik beintzat, bein be ez egiteko asmoa artu bear dogu. Ta ona emen obendi askorentzat, batez be oitura zañez edo gurari gaiztoz itxututa aurkitzen diranentzat, aldapa gogoña. Gustiok dogu griña txafñen bat gure buru ta nagosi. Urlia aspaldi oitua dago edari-mota gustietara. Sandiak birao naskagañiak esateko oitura iguingaña dau. Berendiak lizunkerian ditu bere atsegiñak. Onek, guraso danez, itzez ta egitez bere umeai zerurako bidea erakutsi beaña dauka. Besteak, oker bidez eskuratu izan dituan ondasunak jabeari ordaindu beaña. Ta autorkuntza ona egiteko, griña txar gustiok eziteko asmo sendoa artu bear. Oben bide oñeik betiko itxi ta norberen egikizunak zintzoro betetzeko erabagia artu bear. Baña ¿artuko ete dau? ¡Au latza!

—*¿Eta nok uste izan daike bere autorkuntzean damu ta asmorik izan ez dauala?*

—*Obenerako bidietatik alde egiten ez dabenak,*

eta bein eta bañero autortuañen, oben bardiñak egiten dituenak uste izan daikie euren autorkuntzean damu ta asmorik izan ez dabela.

OBEN-BIDEA. ¿Zer ete da obenerako bide ori? Gure gogoia obeneratu ta oben egiteko aukeran ipinten gaituan zerbait edo norbaiti deritxo oben-bidea.

Bide au urëkoa edo urññekoa izan daiteke; geyen batez oben eragiten ba'dausku, urëkoa izango da; bestela, urññekoa.

Zuretzat bide urëkoa izan daiteke etxean edo auzuan dozun *urli* ori. Ba-dakizu ba urli oñregaz batu ezkerro, Jaungoikoa'ren legea austen dozula. Baita arako, autu loyak erabili edo gurari gaiztoak sortu-azoten dautzuzan etxe atara joatea. Edozer gauza esan, edozein lekutara joan, edozer egin edo edozela dabilzan zure kide, sentzun bageakaz, burua bat egitea. Jokoa geyegi galdu, edota galtzen daualako asafetu ta birauka ekiteko oiturrea daukanentzat, jokoa oben-bide urëkoa da. Berebat, sartzen dan bakoitzean orditzen danarentzat, ardangelea. Irakurgai lizunak, izpañingi, aldizkingi, zine ta antzerti nabarmenak, irudi, argazki ta margozki bilosak, ikusguraz bakañik doyan edonorentzat, obenerako bide urëkoak dira.

Obenik ez egiteko erabagi sendoa dauanak, obenerako bide urëkoetatik alde egiteko asmoa be izan bear. Ta obenerako bidea izteko asmorik eztaukanak, obenik ez egiteko asmorik be eztaukala adirazi daroa. Osasuna benetan nai dauanak, osasuna galtzeko bidietatik alde egin oi dau. Beraz oben egiteko bidietatik alde egiteko asmorik eztaukienak, txarto autortzen dira; etxakiez obenak parkatzen; autortzen diran bakotxean, lengoez gañera, beste oben bañi bat egiten dabe, deungaro au-

tortzen diralako. Abade edo jaupariak eztauke obenerako bide urkkoa itxi nai eztabenen obenak azkesteko eskubiderik.


¿Ta oben-bide ori itxi ezin ba'dai? Beingoan itxi ezin ba'dai, autor-entzuleak esango dautso zer egin. Baña nekeak-neke be, itxi al ba'dai, itxi egin bear dau. *Zure eskua edo oña obenerako bide ba'yatzu, ebagi ta zugandik jaurti; obeto yatzu, ba, eskumotz edo erenik bizitzan sartu, esku ta oin biak dituzala gaiztoki edo inpernuan eortzi izan baño.* (MAT. XVIII, 8-9). Beraz, esku edo oña edo begia galtzea baizen zail ta neketsu ba'litzakizu be oben-bidea iztea, zerua irabazteaŕen, bide ori itxi egin bear.


BEIN ETA BAŔIRO AUTORTUAŔEN, OBEN BARDIŔAK EGIN. Obenik ez egiteko asmoa sendoa ta biotzekoa izanaŕen, oben egin geinke; goŕoto genduana, baŕiro maite geinke; lengo obenetan jausi geintekez. Gizona gizon da. Dan baño geyago ezin izan leiteke. Gure gogoa, aula ta aldakoŕa da; gure griŕnak, bizi-urduriak; gure arerioen alegin eta ekiŕaldiak, eten bagekoak; obenerako bideak, ugari. Obenik ez egiteko erabagi zintzoa eban Kepa deunak. *Il bear ba'nintz be, etzindukedaz ukatuko,* iŕnotson Jesukristo'ri. Alan da be, Kepa jausi zan. Burua jausi zanez, mendekoak eŕazago jausi geintekez. Obenik ez egiteko neuŕiak artzen dauzanari buruz, benetako asmorik ez ebala, ezin esan leike.

Baña ez obenik, ezta obenerako bide dan lagunik itxi nai ez; griŕna txarŕa ezi ta ekandu gaiztoak kentzeko alegiŕnik egin gura ez. Beti lenean. Biraotia, biraoti. Ordia, ordi. Lapuŕa, lapur. Loya, loi. Gaizki-esalea, gaizki-esale. Etxe-galtzalea, galtzale. Guraso nasai ta ardura bagekoa, nasai ta ardura bagako. Jokolaria, jokolari. Gaur obenak autortu, biar, zuzentzeko asmorik



bage, oben bardiñak egin. ¿Nun da onein obenik ez egiteko gogoa? ¿Nun, onein erabagi sendo, egile ta oben gustiekazkoa? ¿Jaungoikoa naibagetuak miñik emon eutsela, esan ete geinke? Arnaritik ezagutzen dan ezkerro zugatza, arnari zimur, gafatz, mingotzok sortu izan dauazan damu ta asmoa, azal utsezkoak izan dirala uste beaŕean gagoz.





X IKASKIZUNA

AOZKO - AUTORTZA

Autortza beafa. — Jesukristo'k jafia dala ezagutzeko bide bi. — Aozko autortza, zer dan. — Oben ariñen autortza. — Egin baizen laster autortu bear éte? — Deungaro autortzea. — Lotza ta bildufik ez. — Obenak ixiltetik datozen ondorenak. — Deungaro autortzen danaren egin-beafa. — Ordaña zer? — Zetarako? — Ordain-beafa. — Burua nekatu. — Antxiñeko kistafen buru-nekeak.

— Obenak autortu beaía Jesukristo'k ipiñi ete eban ala gizonak asmaua ete da?

— Jesukristo gure Jaun berberak ipiñi eban oben astunak banan-banan autortu beaía.

Egi au kristaíontzat siñestu beaíekoa da. Ona emen Trento'ko Batzaíaren ebatzia.

«Jesukristo gure Jaunak, luíetik zeruetara igokeran, jaupariak itxi ebazan bere ordezkotzat eta siñes-tedunak egingo zituen oben eta gaiztakeri astun gustiak

ebazteko buru ta epaikari. Baña epaya emoteko ta oben bakoitzari dagokion neke ta zigofa zuzenez ezarteko, obenok banan-banan epaikariari autortu bear dautsoguzala, gauza jakiña da. Beraz, norberaren barua arduraz aztertu ondoren gogoratzen yakuzan oben astun gustiak, baita eskutuenak eta gogo ta gurari utsez egiñekoak bere, nai-ta nai-ez, autortu ta agertu beara dogu». (SESS. XIV-V). Ta gure obenok banan-banan eta ixilik, agopean, autortzeko era, Eleizan beti oi izan danez, Jesukristo'k ipiñi ta agindua eztala, gizonak asmaua baño, esaten dabenak, *doibazkatu* edo Eleizatik jaurti egiten ditu. (IBID. CAN, VI-VII).

Obenak autortu beara Jesukristo'k ipiñi ebala jakiteko, bide bi doguz. Bata gaurtik atzeruntz, urtez-urte ta gizaldiz-gizaldi jaraitu, Eleiza sortu ta jayo zaneraño. Bide au luze samaña ta nekatsua da, baña eskier-eskieña, ziur-ziurña. Emen eztago utseiterik; emen eztago iñok ziria sartzerik. Beste bidea laburago ta atsegintsuago da. Autortza bera-beragan ikusi, ta adialdu, ta baruko sokondoetaraño aztertu. Irudi bat Rafael'ena edo Murilo'rena dan ala ez jakiteko, iñok esan bearik eztoгу; ezta irudi-azpian ertilari ofein izena ikusi bearik be. Irudiak berak dirausku norena dan. Beragan daroa egilearen atza, egilearen ezaugarria, egilearen gogoa. Bide biok erabiliko doguz; aldi onetan, ba, autortzeak, arerio ta etsai asko dauz, baita gure artean be; ta gauz oneik alik argien eta zietzen azaltzea, egoki be egoki da.

I

ELEIZAN BETI IZAN DA AUTORTZA. Gaur egunean autortzen gara ta ezaguerara eldu garean kistar gustiok edonun autortu be. Gaste ta zar, aberats eta beartsu,

emakume ta gizon, jakinge ta jakintsu, beko ta goiko, kistar-lau ta jaupari, danok urtean bein gitxienez autortzen gara. Aita Santua, Kristo'ren ordezeko berbera, beste edozein kistar-lau legez, autortzen da. Ta gure Aita Santua legez autortzen zan bere au'ekoa, ta aren au'ekoa ta arena... Amaseiga'ren gizaldirarte ezaban iñok ukatu autortza Jesukristo'k ipiñia zanik. Gizaldi o'etan Lutero'k ukatu eban. Baña Lutero bera be autortu izan zan. Baita bestien autortza be entzun eban. Amairuga'ren gizaldian Iñozenzio iruga'renak ipiñi ebala autortza diñoe gure arerioak. Baña Iñozenzio III-ga'renak ez eban autortza ipiñi, urtean bein gitxienez autortzeko agindua baño. Amairuga'renetik seiga'renera ta seiga'renetik, atxaki biña, lauga'reneraño jatxi izan dira. Emen be ezin gelditu. Lenengo gizaldietan bi eratarra egin oi zan autortza; ixilean, orain legez, ta agirian. Obenik astunenak, agopean esan ondoren, autor-entzuleari ba'zeritxon, agirian, eleizan batzen ziran gustiak entzuten ebela, autortzen ziran. Oitura au galduaz ta kenduaz joyan. Ta gustiz, tuteñaz, kentzeko bidea emakume batek emon eban. Nektario, Konstantinopla'ko gotzain zala, lauga'ren gizaldi azkeneruntz, andre entzutetsu batek bizitz gustiko autortze ixila egin eban. Gero, eleiz erdian, agirian, bere obenak bañiro autortu ebazanean, oben nekea betetzen egoala egindako gaiztakeri itxusi-izuga'ri bat, bere gogoz, agertu eban. Esamez gogofak sortu ziran eta obenak agirian autortzea galazo eben. Geroztik ona autortza ixila baka'rik gelditu zan.

Garai o'etako ta au'erago Gura'so Deunak argiro aldezten dabe autortu beaña. Ezagunenak aitatuko doguz.

IV-GAREN GIZALDIA

AGUSTIN DEUNA. *Jaungoikoa'gaz adiskidetu nai dauan obendiak abadeak bilatu begiz; eurok ezariko dautsoez Eleizako giltzak; oben-nekea betetzeko bidea eurokandik artu begi, ikurtonak emoteko Kristo'ren ordezkari dira-ta; arduraz ibili bedi, lotsa gaiztoz, oben-zauriari afokeria ganeratu eztagioen. (SERM. 151, 9).*

Autortzen eztanak, zor gitxiago eztauka; zofo, bariz, etxakoz parkatzen. Lenengo ta bein, autortzak osatzen gaitu, gero biziera apal ta begiratuak, otoitz sutsuak, biotz-damuak eta biotzeko itufitik sortzen diran negar-malko zintzoak. Autortzak egiz ta benetan sendatzen gaitu. (SERM. 351).

JERONIMO DEUNA. *Norbait, diabru edo gogaiztoak usigi-ta, bere zauria eskutuan eukiteko zetutzen ba'da, ta bere anai oñi, osatzeko itza artu dauan irakasle oñi, autortu nai ezpadautso ¿zertarako dira oneik? ¿Zertarako osagilea, baldin gexoak bere zauria agertu nai ezpadautso? Eztakianik ezin leike osagileak sendatu. (IN CAP. X ECCLES.)*

Lege Zarean legenarduna garbi ala loi egoan jaupariak agertzen eban legez, orain be azkatu edo lotu gotzain eta jaupariak egiten dabe. (IN XVI, MATT.)

ASTERI DEUNA, AMATEA'KO GOTZAÑA. *Gogoz gexo zagozan ori ¿zergaitik etzara osagile bila bizkortzen? ¿Zergaitik eztautsozu autortza bidez zure gexoa autortu ta agertzen? ¿Zergaitik txaragotu ta zure aunditua pustutzen laga? Sartu zaitetz noizbait zure baitan; agertu eyozu zintzoro autor-entzuleari zure bearizana; bildur barik azaldu eskutuan daukazun ori; zure gogo-barena idegi, gexo eskutua osagileari ager-*

tuko zeunskion legez, ta berak zure izen ona ta osasuna zainduko dautzuz. (HOMIL. 13 IN PENIT.)

ANBORTZI DEUNA. Obendiren bat bere obenak autortzera eltzen yakon bakoitzean, obendiari negar eragiteraño berak negar egiten ebala dirausku bere bizitzan Paulin deunak; ezer ez jakitera, edozeñek, gotzain deun ori, eruduntzat artuko ei eban.

Ona emen autortzari buruz diñoana: *Osagileari erakutsi zakioz; zure zauria agertu eyozu, osatu zagizan. Jaungoikoa'k ezagutzen dau zure gaitza, baña zeuk zeure agoz autortzea nai dau. Inork salatuko zaituan begira etzaitez egon; zeuk zeure burua salatzen ba'dozu, salatzañien bildur izan bearik eztaukazu, geure obenen autortze apalak, ba, gaiztakeri gustietatik azkatzen gaitu.*

KRISOSTOMO DEUNA. *Aingeru ta goi-aingeruari emon ezteutsen almena emon dautse Jaungoiko eruki-bereak jaupariai; etxaken, ba, arei esan: Zuek gizartean askatzen dozuena, zeruan be asketsiko da. Ludi onetako nagosi ta agintariak lotu edo askatzeko eskubidea ba-dabe, baña gorputzak bakañik; gogo edo arimak lotu ta askatzeko almena jaupariai bakañik yagoke; ta onein almena bakañik zeruraño eltzen da, emen beyan eurok dagiena, Jaungoikoa'k ontzat artzeraño. (DE SACERDOT. LIB. II, CAP. III).*

Obendi gaxu ori ¿zer dala-ta, zure obenak autortzeko lotsa zara? Eztautsazuz gizon bati autortzen, zure obenak agertu ta zabalduko dauazan gizonari, ezta lotsaz ta destañez beteko zaituan lagunen bati be; Jauna dan berberari baño, zutzaz arduratzen danari, onberea danari, arixi zure zauriak agertzen dautsozuz. (HOMIL. XXIII IN JOAN).

ATANASI DEUNA. *Geure buruak aztertu daiguzan.*

¿Gure lokariak apurtuta ete dagoz? ¿Ez? Ba, Jesukristo'ren ikaslen eskuetan jari. Eurok bakarrik askatu gengikiez, Erosleagandik artu eben eskubidez, iñotsenean: Zuek askatzen dozuena, zeruan be azketsiko da; zuek parkatzen dituzuen oben oro, parkatuko dira. (SERM. XII).

NAZIANZO'KO GERGORI DEUNA. *¡Zoriontsuak gu, goetzain eta jaupariok, Paskaldi onetan ugutza-bidez ondu diranez gañera, aldi onetan, oben-neke ta autortza bitartez, eriotzatik bizitzara igaroten diranak be, Jaungoikoa'ganatuko ba'genduz! Gogotsu, ene adiskide, zuaz zure obenak abadeari autortzera, zure zauriak osagileari agertzera joan oi zarean baizen pozik. Ez bildur izan; zure osasuna baizen arduratsu zainduko dau jaupariak zure izen ona be-ta.*

III-GAREN GIZALDIA

ZIPRIANO DEUNA. *Ene anai maite oñeik: aien zue-tariko bakotxak, bizi dan artean, bere obenak autortu begiz; oraintxe bakarrik, ba, autortza, ta oben-nekea ta jaupari-bidez jadesten dan parkaziñoa, gogoko yakoz Jaungoikoa'ri. (LIB. «DE LAPSIS»).*

Deun berberonek diño: Jainko-izunak gur-eginda gero, autortu barik Jaunartzera joan zan neskatila bat, bapatera zigortu ebala Jaungoikoa'k; eta beste asko be, euron obenak autortu ez, ta oben-nekerik be egin ez ebelako, gogorki zigortu ebazala Jaunak. (IBID).

ORIGENES. *Gure obenak autortzen ba'doguz, ez bakarrik Jaungoikoa'ren aurrean, baita gure zauriak osatu legikezenen aurrean be, gure gaiztakeriok parkatuko dauskuz esan ebanak: Zuen gaiztakeriak laño*

baltza letxe urtuko dodaz, ta zuen obenak odeya legez. (HOMIL., XVII IN LUC.)

TERTULIAN. *Obendi askok, asapunaren baño lotsa galduaren arduratsuago, autortzea gerorako lagatzen dabe. Euron zauri eskutuak osagileari agertu nai ez-ta, piskat lotsatzearen, galtzen diran gexoak dira. Baña, norberak Jaunari egindako irain eta naibagea ordaintzeko, lotsa apur bat artzea, lañegi da ala? ¡Lotsa edera, ziñez, gaizki egiteko burua gora eroan, eta gaizki - egiña zuzentzeko bakarik bildur danarena!* (DE PENIT. C. IX).

IRINEO DEUNA. Markos zeritxon aztiak atzipetu eban emakumeak, iru malatan banantzen ditu: Batzuk bañiro Eleizara biurtu ta euren lizunkeriak autortu eban: Beste batzuk ixilez gañera agirian euren gaiztakeriak autortu ebezan: Eta irugañenak, lotseak eroanda, euron obenak eskutau eta, gero, buruai etzi ta betiko galdu ziran.

KELMENTE DEUNA. Kepa deunaren bigañen oñordekoa ta Paul deunak bere idazkietan aitatzen dauana da, Aita Santu au. *Bizi diran artean betoz ziñestedunak Jaungoikoa'rengana, bein emetik urten ezkerro ba, eztago ez autortzerik, ez oben-nekea egiterik.* (KOR. VIII).

JAKOB BELDUA. *Zuen obenak alkañi autortu egiozuez.* (JAKOB, V, 16).

JON BELDUA. *Gure obenak autortzen ba'doguz, kirmen ta zuzena da Bera, gure obenak azkesteko ta oker gustitik gu garbitzeko.* (I, JOAN, 19).

LUKA DEUNA. *Siñeztun egindako asko etozan euren obenak autortu ta erakusten. Eta aztikerietan jardun izandako askok, euren idaztiak ekañi ta guztien aurrean eñeten ebezan.* (ACT. APOST. XIX, 18).

Autortza beaña dala; autortzen eztana galduta da-

gola; geure baitan sartu ta obenak gogora ekarteko, sokondo gustiak zietz aztertu ta arakatu bear doguzala; oben egiñagaz damutu ta gexoak bere zauria osagileari legez, arimako zauriak jaupariari agertu bear dautso-guzala; gure obenak autortzeko lotsarik izan bear ez dogula; gauza gusti oneik, gaur, ogeigafen gizaldian irakasten diran legez, irakasten ebezan laugarenetik berako gizaldietan be, Agustin eta Kipiren deunak Afrika'n; Anbortzi'k Milan'en; Krisostomo'k Constantinopolis'en; Atanasi'k ta Basili'k, Sorkaldean...

¿Nundik batasun ori? Sustrai batetik. Orok bat siñesten eben eta orok bat irakatsi. Gaur letxe autortu izan dira, ba, gure aurretiko kistar gustiak, Guraso deun ofeik irakasten dauskuenez.

Aldi atan bertan, baita autortzen irakasteko idaztiño edo liburutxuak be argitaratu ziran. Jakiña, gaur baizen zietz ertzak artuta gauz oneik irakasten etzirana; beste enparau gauza gustietan legez, autortzeari dagokiozananak be, urtetik-urtera ofaztuaz joan dira, gaurko malara eldu arteraño. Baña eskutu edo agirian autortu beara, oben-ordaña ta azkitza, Belduen alditik ebatzita dagoz *Didake Kirion edo Jaunaren erakutsia, belduak eri gustiai* deritxon idaztian irakurten danez (1).

II

Autortzak beragan daroa Jaungoikoa'ren atza. Jesukristo'k ipiña dala jakiteko, iñok esan bearik eztoqu. Autortzaren bafua zerbait sakondu ezkerro, beingoan ikusten da Jaungoikoa'ren eskua.

Txateaubrian idazle ospetsuaren aurrean ezpayan ei

(1) Arintero, Evolución orgánica, lib. 1, pág. 359.

ziarduen bein, esakun entzutetsu bat Napoleon'ena ete zan ala ez. Esakuna auxe zan: «Neure burua ezagutzen dot, eta ziñez diñotzuet, Jesukristo gizon utsa etzala». Esakun au Napoleon'ena ete zan ala ez ezpayan ebiltzen artean, Txateaubrian'ek ařetaz irakuři ta esan eban: «Or eztago ezpairik. Legoyaren erpia agirian dago or». ¡Legoyaren erpia! Gizaguren gustiak ezarı daroatse erpe ori euren egintzai.

Berebat autortzan be. Gizon utsaren asmakizuna eztala; autortza asmau, ipiñi ta iraun azo daroana, gizon baño geyago dala, igarı-igarıan dago.

¿Zer bear da autortzarako? Autortzarako bi bear dira: autorlea ta autor-entzulea. Biok bata baño bestea zailagoak; bata zein bestea gizonarentzako eziñak.

¿Nok asmau autorlea? ¿Nok artu bere eskuetan gizona, dan baizen ařo, dan baizen berekoi ta esan: Zure ideko, zure antzeko gizon ořen oñetan belaunikotuko zara, ta zure gaiztakeri gustiak, baita eskutuenak eta lotsagařienak bere, zindo ta zietz, diran legez, zeuk dakizuzan letz, autortu ta agertuko dautsozuz.

¿Ta nortzuk egin bear dabe ori? ¿Nortzuk autortu bear dabe? *Danak*. Ez emakume argal, edo ume, edo gizon-lau ta zeak bakařik. Baita gizonik gorengoenak be, naiz ta burua ulezuriz jantzita euki, naizta gizartean buru izan, naizta jakingayetan gorengo maletara eldu, baita Eleizaren buru ta Kristo gure Jauna'ren ordezko berberak be. Danok dogu geure makalkeriak autortu beara.

¿Ta nori? Bearbada, edo jakingayetan, edo oitura onetan edo aginpidean eurak baño gitxiago dan bati.

¿Ta zer autortu? Oben oro. Gaiztakeri batzuk bada-goz itxusien - itxusiaz ixutu ta bildurtzen gaituenak, kezka ta bilduřez jarten gaituenak. Eta bařuko kezka

ta ar ori itoteko, bañua nasaitzeko, norbaiti esan bea-
fean jarten gaituenak. Naskagañi oñeik autortzea, gauza
beraza da. Baña ez oben izugañi oñeik bakañik, oben
astun oro, ta obena bera baño be, latzago ta gogoñago
egiten yakun obenaren zertzeladak autortu beañ dogu.

Oña or autortza-legea. *Danok* eta *dana*. Lege au
asmau, ta ipiñi ta beteazo; ogei gizaldi onetan iraun era-
gin, ta Eleiza zabaldu dan toki gustietan iraun eragin...

¿Gizonen lana ete da ori? ¿Oñetarako almenik ete
dau iñungo gizonek? ¿ez al da or, agiri-agirian, Jauna'
ren eskua ikusten?

Autorlea baizen zala edo zalago autor-entzulea.
¿Nork autortu-azo gizonari bere obenak? Eta nork en-
tzun eragin autortzera datozenen oben oro? Bat edo
beste, gogo bikañak, zintzoak, landuak autortzan entzu-
tea ba'litz... tira. Baña datozen gustiak eta diñoen oro
entzun bear. Datozan gustiai biotzeko ateak zabaldu;
datozan gustiak, aita-onak seme galdua legez besar-
katu; onak dirala, txañak dirala, begiko naiz begigaitz
dirala, maitegañi naiz gogaikañi dirala, danari txera ona
egin bear. Norberen biotza zetu, aldatu, erabiatu; sua
baño biotz goriagoa izan, obendiak maite izateko;
izotza baño otzago, bere biotza iñorbaiti ez ezarteko;
gogo-bañenak aztertzekeo begi zoliak, eta jakinguraz
ezerbait ez itandutekeo, begi itxuak; biotz - bañuraño
sartzekeo baizen itz zoñotzak, eta egundo zabalduko ez
diran espanak, entzundakoa ez zabaltzekeo. Ori, gusti
ori bear dau autor-entzuleak. Eta ori, gusti ori, gizona-
ren almen gañetikoa da. Gizonaren eskuetan eztago
oñetarako egipiderik. Beraz autortzak ogei gizaldi one-
tan ba'dirau, eta gizonak eziña ba'da, agiri - agirian
daroa, gizonaren gañetiko norbaitek ipiñia dala. Jesu-
kristo gure Jaun berberak jaña dala.

III

Azkenez, autortza gizonak asmaua ba'da, ¿nor izan da asmatzalea? Eleiz Amak arduraz zaindu ta goratu izan dauz, gauza onuragarrien bat asmau ta zabaldu izan dabenen izenak. Ba-dakigu nor izan zan otoizketa ta ařentza edo efogatibak ipiñi ebazan Doipurua. Baita nor zan Jesus'en Gorputz - jaya ipiñi ebana be. Nortzuk ziran kutun eta agurtza eratu ta zabaldu ebenak. Baña ¿autortza asmau ta ipiñi ebanaren izenik? Ogei gizaldiz zier ezta lořatzik be iñun agiri. Autortza bera bai, arestian ikusi dogunez. Guraso deunak gizaldi gustietan autortzari buruz itz egin eta euren erakutsiak emon izan dauskuez. Ez eleiztařak, ezta Eleizaren arerioak be, eztiñoskue nor izan zan autortzaren asmatzalea. Beti izan ditu Eleizak bere etsayak. Beti izan ditu siñeskai bat edo beste ukatu izan dabena. Baña amaseigaren gizaldirarte eztau iñok ukatu izan autortza Jesukristo-gandik datorkigula.

Beraz, beste ziyorik ezpagendu be, Agustin deunaren arauari eldu geinkio: «Noiz ta nun sortu zan ezta-kigula, oitura onen bat Eleiz bařuan dakusgunean, Jesukristo'gandik edo Belduekandik datorkigula, bidez uste geinke». Autortzea baizen oitura bikaña ta ařigaria, Jesukristo'ren ondorengoak ipiñi izan dabena ezta ageri; Eleiz bařuan beti oi izan dana ba-dakigu; beraz, beste ziyorik ezpagendu be, Jesukristo berberak ipiñia dala, bidez uste geinke.

— *Zer da aozko autorkuntza?*

— *Oben astun gustiak, oben nekea betetako asmoz, guzur eta naste barik, norberak dakizan lez, autortzuleari esatea da aozko autorkuntza.*

Ona izateko, iru gauza bear dauz autortzak: *Osoa, egizkoa ta apala* edo lotsoía izan.

OSOA. Trento'ko batzarak erakusten dauskunez, oraindik autortu ezto guzan oben astun gustiak autortu beara dogu. *Oben astun gustiak, baita gogo utzezkoak bere, gizonok asafe-seme ta Jaungoikoa'ren arerio biurtzen gaituen ezkerro, autortza egizko ta lotsati bidez gustioen parkaziñoa Jaungoikoa'ri eskatu bearean gagoz*, diño Batzar arek. (SESS. XIV, CAP. V).

Beraz, naiz azkenez autortu giñanetikoak dirala, naiz lenago aztuta edo lotsaz itxirikoak dirala, gure barua aztertu ondoren, gogora datorkiguzan oben astun gustiak autortu beara dogu.

ZEINBAT BIDER. Baita zeinbat bider agindu bakotxa ausi dogun be. «Biraoak esan ditut» edo «mezarik ezto entzun» autortzea ezta naikoa. Zeinbat bider egin izan ditugun oben ofeik, naiz beste edozein autortu beara dogu. Diran beste bider esanaz, zietz jakin ezkerro, edo gitxi gora-bera, ilean, astean... zietz jakin ezin ba'leike edo oben egiteko oitura ta ekandu txara ba'dau.

ZERTZELADAK. Batzuk obena geitu egiten dabe, beste batzuk ariñetik astunera aldatu, ta besteak obena astunagotu. Alakoetan, egite bategaz agindu bi edo geyago austen dira edo austen dan agindua astunago ta gaiztakeri geyagoz. Norberen aita ilten dauanak, egite ofegaz agindu bi austen dauz, boskarena ta laugarrena. Eleizan zerbait ostu daroanak, oben bikotxa egiten dau: bat, ostu dualako; bigarena, Eleizan ostu dualako. Eskondua izanik ezkonduagaz lizunkerian jardun dauanak, oben irukotxa egiten dau; bere ta beste ezkonduaren zuzenbeara ausi daualako oben bi; ta garbitasuna ausi daualako irugarrena. Guzurá esatea oben ariña da; baña guzurá esatetik norbaiti kalte astuna ba'letorkio, geiga-

ri orek, zertzelada orek, ariñetik astunera aldatu daroa obena.

Obena geitu, bikoiztu edo geiagotu ta ariñetik astunera aldatu egiten daben zertzeladak, autortu beaferkoak dira.

Obena astunagotu bakarik egiten dabenak, ez.

IÑORI ERAGINDAKO OBENAK. Baita iñori eragindako obenak be, autortu bear dira. Bitara izan geingioez beste batzuei oben bide. Besteak dakusela, entzuten dabela edo dakiela, oben egin dozu? Gurasoa, edo ugezaba, edo irakaslea, edo alduna, edo beste zelanbait ikusi edo entzun zaituenai ikasbide txara emoteko tayuan jafi ba'zara beintzat, arein oben erudun zara ta oben ori autortu beara dozu.

¿Norbaiti gaizki egiteko agindu, edo deitu, edo zirikatu edo beste edozela Jauna'ren legea austeko bidea emon dautsazu? Arek oben egin edo ez, zu beintzat oben-erudun zara, ari oben bidea emon dautsazulako.

UTSEGIÑEZKO OBENAK. Norberaren jardun edo zeregiñetan egiten diran utsak; jaupari, osalari, guraso, ugezaba, irakasle, epaikari eta abar. Bakotxak bere eginbeaferetan egiñiko utsak autortu beara dabe. Karlos kaisea joan ei zan bein autortzera. Autortu zanean, jaupariak esan ei eutson: «Tira; Karlos'en obenak autortu dozuz. Orain kaisearenak autortu bear dituzu». Egikizun zerbait euren gain dabenak, gizon diranez egin dituen obenez gañera, egikizunetan egin dabezanak autortu beara dabe.

BADEZPADAKO OBENAK. Irutarikoa izan leiteke badezpadea. Obenik egin ete eban ala ez. Egin ebana astuna ete zan ala ez. Egindako oben astuna autortu ete eban ala ez.

Edozertarikoa dala, badezpadako obena autortu be-

añik eztago. Beraz obenik egin ete zenduan ala ez zagoz? Eztozu oben ori autortu beañik. Oben egin zenduana ba-dakizu, baña oben ori astuna ala ariña ete zan zagoz? Ezta orduan be, eztozu autortu beañik. Oben egin zenduana ba-kizu ta oben ori astuna zala be bai, baña autortu ete zenduan edo ez ezpayan zagoz? Ezta orduan be, eztozu oben ori esan beañik. Bañua nasaitzeko ta ziuñago jokatzeko, obenok autortzea egokiago izan oi da. Baña autortzera doanak besterik ezpaleu, lenago egindako obenen bat autortu bear leuke.

EGIAZKOA. Norberak dakizan lez, guzur ta naste barik, esan bear ditugu geure obenak. Ainbat zietzen gogora ekañita. Ez edertuta, ta apainduta, ez gitxituta, ez geituta, ez iñori eñua ezañita, ez norberen burua garbituta. Jaungoikoa'ren begietan dagozanez baño. Jakiñez ganera, oben egiña ukatu edo obenik egin ez ta egin dauala esan; edo oben astuna arintzat edo ariña astuntzat autortu; edo egin dauazan baño gitxiago edo geyago esaten dituana, deungaro autortzen da ta oñetan esan daroan guzuña, guzur astuna da.

Enparauetan, autorkuntzarako bein-beiñeko ezpada beintzat, guzuña berenez ariña izango da. Oraingo obenak lengoakaz batera autortu leikez.

Autorkuntzan, al-dala, ezta iñor izentau beañ. Ezta norberen burua edeñesteko, iñori eñua ezañi be. Bakotxak bere obenak autortu begiz argi, garbi ta labur.

Ez gurasoak seme-alabenak ta seme-alabak gurasoenak. Ezta senañak emaztearenak, edo emazteak senañarenak be. Obena zelan egin zan autortu beañik be eztago. Zertzeladak bear-beañekoak bakañik esan; ortik gañera gitxiago ta obe.

Autor-entzulea osalari dozu. Osalariari gorputzeko gatxa autortzen dautsozun lez, autor-entzuleari gogo-

-gexo ta gaxak adirazi. Noz somau zenduan; nun; zertatik sortu yatzun; geituaz ala gitxituaz duan.

¡O ze ziatz adirazten dautzazun osalariari gorputzeko gexoa! Lenengoan zerbait aztu ba'yatzun, estu ta lafi egon oi zara bigafenean esateko. ¿Zergaitik ori? Osalariak gexoaren sustraia ziatz arturik, osaki egokiak agindu dagitzuzan. Berebat egizu arimako gexoagaz be. Zindo ta ziatz azaldu, ta autor-entzuleak agintzen dautzuzan osakayak gogoan artu, lengo gaxak osatuta, gerokoetan jausi etzaitezana.

APAL ETA LOTSORA. Apal eta lotsof joan bear dogu gure obenak autortzera. Ba-da lotsa bat, diño Goteunak, gaiztoa ta beragaz obena dakařena: onek eragozten dau esan bear ditugun gauzak esatea ta egitea. Ba-da beste lotsa bat, beragaz batera, aintza ta gorapena dakarguzana. Lotsa onek obenak autortzerik eztausku eragozten, apalki autortu eragin baño. Lotsa onegaz eldu zan seme ondatzalea bere aitarengana: *Aita, zirautson, oben egin dot. Zure seme izateko enaz nor, baña artu nagizu zure mořoi artean bederik.* Au berau adirazi euskun Jesukristo'k Parisai ta Zergalariaren ipuin edo irudian. Parisaitařa ta Zergalaria sartu ziran bein eleizan. Parisaitařa eleiz goyan, zutik, burua lerdan, asi zan Jaunari eskeřak emoten, baña ez apalki, ařokeriz ta buru-eretziz iñotsola baño: *Eskeřak Jauna, besteen ta arako or dagon zergalari ořen antzekoa egin enozulako; astean biritan barau egiten dot eta dodazan gauza gustien amařenak ordaintzen ditut.* Otoi egitera joan zan. Eta bere utseiteak apal-apal autortu ta parkaziñoa eskatu beařean, ařokeriz puztuta, bere egintza onak esaten jardun eban. Ořen antzera joan oi dira batzuk autortzera: taketa baizen zutik jaři, Jauna'ren auřean belauna luřari ezarte a lotsari ba'litz legez, ta *Ni gizon zuzena*

*naz, nik eztotsat iñori gatxik egin; ze kalte egin dautsat nik Jaungoikoa'ri?.. ta onein ideko esakun ganora bakoekaz, arokeri utsa agertzen dabela. Beste batzuk, obenik naskagañi ta iguingañienak edereñsi ta bape lotsa barik, gananiñatzak legez, utsa bai liran edo oben ordez, gauza on eta txalogañiak bai liran, autortu oi dabez. Etzan oñela eleizan sartu zergalaria. Atondoan belauniko jañi ta bere oben eta gaiztakeriak gogora ekañi ta begiak jasoteko adorerik ez ebala, bulaña damuz ta benetan joten eban esanik: *Ene Jaungoikoa: eruki, obendi onetzaz*. Oñelaxe joan bear dogu autortzera. Egikera ta egokeran lots ona ta apaltasuna agertu. Besteak autortzen diran bitartean, luzaro itxaron bear ba'da beintzat, zutik edo jañita egon geintekenez. Baña geure txandea eldu baño lentxoago belaunikotu, damua bañiztu ta Magdalataña Jesus'en oñetara joan zan baizen apal ta garbaitsu eldu autor-entzulearen oñetara.*

España'ko eregeak jezañita autortzeko oiturea ei eben. Isabel Katolikoak Zisneros aba bere autor-entzuletzat aukeratu eban. Lenengoz autortzera joan zanean, bestetan lez, jezañi zan eregiña. Zisneros abari etxakon gogoko izan egokera ori. Ta eregiñari esan eutson: «Andra, emen neu naz epaikari ta zu erudun; ni Jesukristo'ren ordezeko ta zu mendeko. Beraz nigaz autortu nai ba'dozu, erudunen tayuan, belauniko jañiko zara».

Gure obenak oñela osoro zintzo ta lotsaz autortu ba'daiguz, *Kirmena ta zuzena da Jauna*, diño Jon deunak, *gure obenok azketsi ta gure gaiztakeriok garbitzeko*. (I, JOAN, 1).

— *Oben ariñak autortzera bearturik ete gagoz?*

— *Ez jauna, ez gagoz oben ariñak autortzera bearturik; ona da, oñaitik, ariñak be autortzea.*

Lora-galdan dagon mastia da gure, Jaungoikoa'ren grazian, aurkitzen dan gogo. Masti onek bere lorea galdu ezpada, gure gogoak Jaungoikoa'ren eskañean iraun ba'dai, garaiz, bere aldian, mats-mordo edeñak eta ardao gozoa, Jaungoikoa'ren gogozko egintza eta zerurako irabaziak, ekañiko ditu.

Baña odei baltzaren añaak, edo txingoñada ta kaska-bañak, baita goiz-otzetako izotz eta leyak be, gure mastia igertu legikie, au da, oben astunak, goi-eskar ta graziaren lora mardula igertu ta gure arima, bilosik, egintza onen ardao gozo ta irabazi bage, baster igeña legez izten dabe.

Ba-ditu baña gure mastiak beste arerio batzuk be; oneik dira aixeri-kumak edo oben añaak; oneik eñaz eskutatzen dira nun-nai, ta apurka-apurka gauz onen sustrayak uratu, goi-argia galerazo, gurari onak ito, eskar-lora edeña ikoldu ta poliki-poliki oben astunera ekarten gaitue. *Aixeri-kumok añaau*, diñosku Idazti deunak, *mastia ondatzen diñardue-ta*. (KANT. 11 - 15).

Oben añaok, ba, autortu beañik izan ezañen, Jaunaren deyari jañaitzeko, biderditik kendu bear doguz. Ta oñetarako autortu, ta damuz autortu, ez oituraz. Ta autortu, batez be, bestien buru ta sustrai diranak. Oben añaen artean batzuk izan oi doguz kutunago; gogoñago lotu ta eñazago ta sañiago erazten gaitue. Oneixek dira Jaungoiko ta gure arimaren bitartean jañi ta goi-argia galerazoten dauskuen lañoak. Oneik garbitu ta eñe bear doguz. Osterantzean, gure griñai indaña artu-azo, gogoñak makaldu ta piri-piri oben astuneratuko gaitue.

—*Eta añaak baño beste obenik eztaukanak, zer egin daike eñazago damua artzeko?*

—*Oben añaak baño beste obenik eztaukanak,*

oraingo ariñez gañera, lenagogo astunen bat autortu daike, erazago damua artzeko.

Oben ariñak arigiñegitzat artzen doguz. Geyenoi beintzat eztauskue ainbeste eragiten. Benetan Jaungoiko-zale diranai bai. Onentzat oben ariñik eztago. Jaungoikoa'gazko naigabe ta irain oro, izan be alantxe data, gauza astuntzat artzen dabe. Enparauok, safi, autortu-autortu-alde egiten doguz. Beraz, damu beárez autortza utsean gelditu ez dedin, oso oitura edera da, ariñak baño beste obenik eztaukagunean, oraingo ariñez gañera, lenagoko astunean bat autortzea.

—Eta oben astunen bat egiten dan bakoitzean, beárezkoa ete da berealaxe autortzea?

—Ondo izango litzake oben astunen bat egiten dan bakoitzean berealaxe autortzea, baña ezta beárezkoa.

—Zer egin bear da, beraz, oben astuna egiten dan bakoitzean, bere parkamena jadesteko?

—Oben astuna egiten dan bakoitzean, bere parkamena jadesteko, benetako maitasun-damua artu bear da, Ama Eleiza deunak aginduta daukan aldian autortzeko asmoz.

Ondo baño obeto litzake oben astunen bat egiten dan bakoitzean berealaxe damutu ta autortzea. Azuía lokatu ordukoxe bañero bere lekuan sartzen eraza da, baña otzituden itxi ezkeru, luze ta zail da bañero bere lekura ekartea. *Gexo ta eritasun luze ta zarak nekatu daroa osagilea; baña labor ta bañiak egiteko gitxi emoten dautso; aura beingoan sendatzen dau, diño Idazti Deunak (ECCLI. X). Suaren lenengo txinparta itzali ta amatatzen eraza da; baña suari indaia artzen*

laga ezkerro, etxerik bikañena zuzitu legike. Oben astuna egin ordukoxe damutu ta autortzera doanari ezta-kartso obenak ainbeste kalte, edo beintzat obenetik sortu yakozan kalteak, éraz kitatu legikez. Gogo zindoak eta kementsuak, nozbait obenean jausi izan ba'dira, len baño gogotsuago jaiki izan oi dira; Jauna'ren bideari len baño gogotsuago ta apalago jaíaitu izan dautse. Basteretara begira astia galdu daroan bideztiak, bere erokeri ta zabarkeria oartutakoan, alpeñik galdutako astia irabazteko, abiadea artu oi dauan legez, emengo zorakeriari begira nozbait jaíi izan diran gogo zuñak be, euron erokeria oartutakoan, obenaz galdu dabena, garbaiz ta egintza onez irabazteko yoranez jardun oi dabe. Oneintzako, ba, suarentzat érekiña legez izan doaz utseite ta obenak be; Jaungoikoa'gazko maitasunez biotzak goritzeko érekiña.

Oben astunean luzaro dirauana, geruago ta nekezago jaikiko da.

Érekatxoa ezin igaro ba'daikezu, ibai aundia zelan igaro al izango dozu? Zugatz txikia, ondiño érorik ta sustrairik eztaukana ezin atara ba'dozu, zer egingo dozu, bada, éroztu ta aundi egin daitenean? Orain oben gitxi dituzunean eta gitxi oneik bañi diranean, jaikitzeke kemenik eta gogorik ezpadozu, zer izango da, bada, gero, obenaz beterik eta eurotan aldi luzeaz gogorturik zagozanean?

Orain oben bategaz diarduzu, gero amaíregaz jardun bear; orain urtebeteko oitura gaiztoa dozu, gero amaírekoa. Oben egiñaz, korapiloak ugaritzen dozuz, kate baña ezarten dautsozu zeure buruari; zama astuntzen dozu. Oraingo korapilo bakaña azkatu ezin ba'daizu, oraingo kate mea ezin apurtu, oraingo zama eroan ezin ¿zelan azkatu al izango dituzu geroko korapiloak,

zelan apurtu kate gogořagoak, zelan eroan zama astunagoa?

Obenean luzaro dirauana, zigor astunagoaren bildur izan daiteke. Eztau bein be Jaungoikoa'k izten gizona, baldin gizonak lenago itxi ezpadai Jaungoikoa, diño Agustin deunak. Ona, eřukiořa ta biozpera da gure Aita Goikoa ta gizon gustiok zeruratu nai gaitu. *Gustiok gure biotzetan ate-deika, ate-joka ta bultzaka daukagu.* (APOCAL. III). Eztausku bizi garan artean bere eřukia ta parkaziñoa ukatuko. Baña gauza gustiak neuřiz egin ditu Jauna'k. Gustiak dakusaz, gustiak dakiz ta gustiak Berak bere eskuz, bere gogoaren arauz, bear legez zuzentzen ditu. Ba-daki, ba, Jauna'k gure oben gustien baři; ba-daki zeinbat egiten doguzan, baita zeinbateraño itxarongo daukun be. Jakin begi guretariko bakoitzak, diño Agustin deunak, neuřia, oben-neuřia bete arteraño itxarongo daukula Jauna'k; baña bein neuřira eldu ezkerro eztagola geiago, ez itxaroterik, ez parkamena jadesterik. *Mugaz ta mugařiz inguratu neban itxasoa, ta ate-seřailak ipiři neutsazan; eta esan neutson: «onaxeño elduko zara ta ez uřiñago; ementxe geldituko zara; ementxe ausiko dituzu zeure uiñak eta olatu putsituak».* (JOB, XXXVI, 38).

Al dauanean on egin nai eztauanaren zigořa izan oida, gero nai duanean ezin al izatea, (AGUSTIN DEUNA). *Nire bila ibiliko zarie, baña enozue aurkitu al izango, diñotse onei Jesukristo gure Jauna'k.*

Eskumaldean eukan lapuřari parkatu eutson Jesus'ek, itxaropenik galdu eztaigun, baña bati bakařik parkatu eutson, Jaungoikoa'gana biurtzea gerorako edo eriotz-aldirako itxi eztaigun.

Ez eriotz-aldirako itxi oben egiñaren damua ta ontzeko asmoa, galtzeko ařiskoan jarten zara-ta.

Geroa ezta gurea. Eriotza lapuñá legez etoriko yaku, gitxien uste dogunean: *Gertu ta iratzañik egon zaitez, ezta kizue ez eguna, ez ordua-ta. Asko galdu izan ditu euren buruari, etorkizunaz, geyegi usteak.* (ECCLES. XXIX). *Eztaki gizonak bere azkenaren bari, baña araiña amok atzemon eta arapau daroan legez ta egaztia sareak, alantxe arapatzen dau gizona bere eriotzeak.* (ECCLES. IX). Araiña atsegiñen dagoenean, bazkari datzakoenean, eta bere ustez ondoen dagoenean arapatzen dau arantzaleak, eta bai egaztia be eiztariak. Olanxe arapatzen dau, bada, obendia be, bere eriotzak, obenari gogokoen datzakoenean, gozokien dagoanean eta gitxien uste dauanean. Gure egunak ur lastera legez doaz, ura legez linbuñtzen gara; beti goyaz; ezkara bein be gelditzen. Ez ba gerorako itxi, orain egin-al dozun garbaya. Gexoaren damua, damu gexoa da; iltzer dagonarena, ausaz damu ila. Biñtu, bada, garaiz; damutu ta autortu.

—*Dongaro nor autortzen ete da?*

—*Oben astunen bat lotsaz autortu barik izten dauana, naiz damurik edo onduteko ta oben-nekea betetako asmorik eztaukana, dongaro autortzen da.*

OBEN ASTUNEN BAT AUTORTU BARIK ITXI. Autortza ondo egin, ta gure obenen parkaziñoa jadetsi, Jaungoikoa'ren adiskidetasunean jari, ta enparau ondorenak geuganatzeko, gauza andirik ezta bear; gogo onaz, egindako obenen damuz ta parkaziñoa iristeko gogo biziaz, autor-entzulearen oñetara eltzea naikoa da. Baña gizonezkoak, obenik astunenak, zabarkeriz, aintzakotzat artzen eztabezelako, ta emakumeak, bariz, lotsaz obenak ixiltzen dabezalako, asko be asko deun-

garo autortzen dira. Diabruak onetan be beste askotan legez maltzurki jokatu daroa. Aixeriak samatik eltzen dautso ito nai dauan ardiari ta gogaiztoak be, eztañitik eltzen dautso, obenik autortu eztagian, galdu nai dauan kistañari. Oben eragiteko lotsea kendu, obena autortzeko lotsaz kikildu. Deadar egiteko iñotsen Jesus'en Tere-se deunak izlariai, deadar egiteko, oben astunak eskutatzen ebezanak, emakume artean batez be, asko ta asko zirala-ta. Urte askotako autor-entzuteak orixe berberori erakutsi dausku guri be. Beste idazle batzuekandik artuta ipiñiko ditugu emen, geyen batez eskutzatzen diran obenak. Ezpekioz iñori obenpide izan.

Zuk, gastetxoa ziñala, edo senide, edo auzokoren bategaz gaiztakeriak egiten ikasi zenduan; askotan etofi izan yatzuz gogora; baña oñeik autortzen lotsa izan zara; *Txikia nintzan*, esan izan dozu zeure kautan. —Txikia ziñala? —Zeinbat urte zenduan? —Saspi, zortzi edo geyago. —Eta gaiztakeriok egiteko bildur ez al ziñan? ¿Etziñan eskutatzen? Eginda gero, bañuko añik eta kezkarik etzendun sometan? —Bai, jauna.

Bildur izateko da ba, zure autortzak txañak izan izango ete diran.

Zu, askotan egon izan zara zeure artean garbitasunaren kaltezko irudikizun eta gogorapenetan. Len jazo-tako gauzaz gomutaurik, batzuetan poztu, bestietan, orduantxe gertauko ba'litzaz legez, atsegindu ta gozatzan ziñan, baita txañerako gurea be piztutzen zenduan; alan da be, etzenduan garbiro zure obena autortu; lotsatu egin ziñan; seigañen aginduan gauza andirik etzeunkala esan zenduan. Zure autortzak gaizki egiñak izan dira. Gogorapen eta gurari ta lera gaiztoak etortzea, ezta berenez oben; baña, oarturik, norberen gogoz, oñeitan poz artzea, au oben astuna da.

Zuk, umetan eta gero be bai, zeure buruagaz gauza itxusiak egiten zenduzan. Ona etzana igarten zenduan. Keskaz ta ilun gelditzen ziñan. Alan da be, ez dituzu oben oñeik autortu. Ta nozbait autor-entzuleak itandu-ta -edo autortu izan ba'dozuz, oben zireanik ezenkiala esan izan dozu. ¿Oben zireanik ezenkiala? ¿Itxuskeriok egiteko bildur ez ete ziñan izaten? ¿Gurasoen aurrean egingo ete zenduan olakorik? Zitz ta bitz zuzendu bear dituzu zure autortzak.

Ba-dira idekoak alkañegaz egin oi dabezan lizunke-riak, obentzat artzen ez dituen basati ta aberekoi batzuk. Bekie oneik idekoak alkañegaz, gizonak gizonakaz, ta emakumeak emakumeakaz egindako itxuske-riak osterantzekoak baño gaiztoagoak dirala. Beste batzuk uste oi dabe txarkeria egin ezik, eztabela obe-nik egiten. ¿Eta oneik, osotoro, noz autortu?

Zuk, senide edo bizibidean jañitakoren bategaz oben egin zenduan. Obena autortu zenduan, baño zure oben laguna senide edo bizibidekoa zala agertzen lotsatu egin ziñan.

Beste oñen beste jazoten da abereakaz-edo, lizun-keriak egiten dituen obendi naskagañiakaz be.

Ba-dira baita obenak autortu bai, baño *urlia* euron-tzako obenbide uñekoa dala, edo eurok *sandiarentzat* obenbide dirala autortzen eztabenak.

Baita egin dituen baño oben gitxiago, edo egitezko obenak gogo utsezko bai liran, edo gogo utsezkoak aintzat artu ez ta, egitezkoak bakañik autortzen ditue-nak be. Oneik gustiok txarto autortzen dira. Beste gixajo batzuk, autor-entzuleak obena bera izentau ezik, autor-tu beañik eztabela uste izaten dabe. Aumea ostu ei eban bein mutil batek. Autor-entzuleak itandu ei eutson: —*Bildotsik ostu dozu?* —*Ez jauna, erantzun eutsan.*

Eta eiten ei eban: *Bildots ordez aumea itandu ba'leust, galdua nintzan.* Autor-entzuleak itandu naiz itandu ez, obenak norberak dakizan legez autortu bear dira.

Zuk, senar edo emazte, ezkondu ezkeru, Jauna'ren legeak debekatzen dituan gauza asko egin dozuz, batzuetan seme-alabarik izan eztaizun, beste batzuetan zeuk dakizu zergaitik. Igarten zenduan zuk, bide nas-kagari o'reik Jaungoikoa'ren legekoak etzirala, baña kezka ta ezpai gogoretan jarduna'ren, autor-entzuleari ezeutson itandu, ta eskonduen artean dana zilegi dala-ta, oitura gaiztoetan au'era ja'aitu izan dozu. Kezka ta ezpai o'reik kentzeko ardurarik izan eztozulako, zure autortzak deungaro egiñak izan dira. — Jauna, ez ete da, ba, senara emaztearena ta emaztea senara'arena? — Bai, baña ez Jauna'k eragozten dituan gauzak egiteko. Zato edo botilan daukazun ardao be zeurea da; ez baña zeure burua edo besterik orditzeko. Zure irabazia zeurea da, ez baña etxe kaltez jokoan galtzeko.

Zuk, or-emen zabilzala, edari biziari edere'tsi dautsazu. Noizik bein begietan lausoa ja'ri yatzu; miña moteldu; oiñak lokatu; bideak estutu ta etxeak jira-biraka dirala, ezi-ezika, auzokoen ba'regari ta etzekoen negar-gari etxeratu izan zara. Ta edan ondorengo asareak? eta biraoak? eta autu loyak? Alan da be, *bear baño geitxoago edan izan dot*, esanaz autortu izan zara. Baketsu egon ete zeintekez?

Pro anima tua non confundaris dicere verum. «Zure arimagaitik etzaitez egundo zure obenak, diran legez, autortzeko lotsa izan.

— *Zegaitik eztoogu oben astunik lotsaz edo bildurez autortu barik itxi bear?*

— *Autor-entzuleari geure obenak autortuaz, Jesu-*

Kristo'ri autortzen dautsoguzalako ta autor-entzuleak, autortzan entzundako obenik, ezegaitik be, iragañi ezin leikelako, eztogu oben astunik lotsaz edo bilduñez autortu barik itxi bear.

Ona emen ziyo bi, zein baño zein gogofagoak, lotsaz edo bilduñez oben astunik autortu bage ez izteko.

a) AUTOR-ENTZULEA JESUKRISTO'REN ORDEZ DAGO. Jesukristo'k bere eskubide ta almenez parkatzen dauskuz gure obenak; autor-entzuleak Jesukristo'gandik artutako eskubide ta almenez. Norbait Jesukristo berberagaz autortuko ba'litz, eta beste norbait autor - entzuleagaz, bioen obenak era beran parkatuta geldituko litzakez. Autor-entzuleak azketsi ezin leikegun obenik eztausku Jesukristo'k be azketsiko. Ta oben oro parkatzeko berak daukan eskubidea, emon eutsen Jauna'k autor - entzuleai be. *Zuek parkatzen dozuen oro, azketsiko da.*

Biotz ta esku zabalez artzen ebazan Jesukristo'k beragana etorzan obendiak; eta artzain ona ardi galduaren bila legez ateraten zan, ez etortzanen bila. *Enaz ni gizona gaiztetsi ta galtzeko etoñi, gaizkatu ta zeruratzeko baño, iñotsen bere arerioai.*

Jesukristo'ren eñayakaz artu ta besarkatuko zaitu autor-entzuleak bere, maite-maiteki ta eme-emeki, aita onak seme galdua artu ta besarkatu eban letxe. Osalaria da, zure zauriak osatzeko dago, ez gañaztu ta minberatzeko.

—¿Nork esan baña autor-entzuleari oben ain itxusi ta nazkagañiak? Eztau iñork be egin izango nireak bai-zen itxusirik. —¿Ezetz? ¿Zer ba? Jesukristo gure Jauna zigorkatu dozu ala? Eukaristia oinpean erabili dozu ala? Gizonen bati nañua eratzi dautsazu ala? Ezetz uste dot. Eta ori gusti ori egin ba'zendu be, egindako obenen

damuz ta bañero ez egiteko asmoz eltzen ba'zara, samurkiro, amarik samuñenak bere seme gaxoa baño samuñago artuko zaitu autor-entzuleak.

—Baña zer esango leuke bere kautan, oben ain loyak autortuko ba'neuskioz? ¡Izututa geldituko litzake! —¡Bai zera! Lenago be lizunkerijalez, Jauna'ri gizona egiña garbatu-azoteraño, eldu ziran gizonak, eta gaur be, zoritxaréz, zureak baizen gordiñak edo gordiñagoak entzun edo irakuñi izango ditu autor-entzuleak. Artantxe jardun-da be, autor-entzuleak entzun edo irakuñi dauanetik susmau ezin leikean obenik, eztozu zuk autortu al izango. Bera be zeu letxe gizona da; zuk bezelakoxe griña txararak daukaz; zeuk lakoxe irits ta txarerako igikun eta kiñakadak; ¿zerk bildurten zaitu? «Zu legez ni be obendia naz», iñon Agustin deunak. *Peccator sum, sicut et tu.*

—Zer usteko zenduke nitzaz, itanduten eutson Sales'tar Prantzisko deunari obenditzar batek, zer usteko zenduke nitzaz, nire oben nazkagañiak autortuko ba'neuskizuz? —Oben egiñaren damu zara? —erantzun eutson deunak. —Bai, jauna. —Ba oben egiñaren damu ba'zara, deuntzat eukiko zindukedaz, zintzoro ta damuz deunak bakañik autortzen dira-ta.

b) AUTOR-ENTZULEAK AUTORTZAN ANTZUNDAKO OBENIK, EZEGAITIK BE EZIN IRAGAÑI LEIKE. Ezta lau zati eginda, bizirik eñeko ba'lebe be, ezin leike autor-entzuleak autortzan entzundako obenik agertu, ez itzez, ez idazkiz, ez kiñuz; ezta autortzan entzun dauanetik, bere burua aldezteko zerbait egin be; ezta autortu danari, ordurartean ontzat eta adizkidetzat euki ba'dau, geroz gogo txaraz edo begi zieñez begiratu be; autortzan entzun dituan obenak bere gogoan erabili bez. Beraz, egundo ezer entzun ezpaleu legez jardun bear dau

autor-entzuleak; gizatasunik eta notintasunik eztaukan ormazar bat bai litzan.

Neke gogoak ipiñita daukaz Eleiz Amak autortzan entzundako obenak agertzen dabezan autor - entzulientzat. (CAN. 2369). Baña, Jaunari eskañak, neke oñeik iñori ezañi beañik ezta izan. Alakoxe ardura berezia dauka Jauna'k autor-entzuleakaz. Ogei gizaldi daroaz autortzak gizartean. Ogei gizaldi onetan gaste ta zar, gizon eta emakumeak autor - entzulien agopean izuri izan dabez, euron gaiztakeri ta ergelkeriak; beste iñori, ez seme-alabak gurasoai, ez senar-emazteak alkañi, ezta adiskiderik kutunenak batak besteari, ezergaitik be, autortuko ezeutsezan utseite ta zauriak. Eta jau gauza añaña! jau alatz edo mirari gelgaña! leiza sakonera iraultzen dan añañaren otsik, adi-adi egonda be, entzuten eztan legez, autor-entzulien bañuan jausten dan oben-otsik be, ezta gaurdaño entzun izan. Gure etsayak urduri ta zuur ibili izan dira, iya nozbait edo nunbait olako aleren bat baño ezpada-be, aurkitzen ete daben; baña ¿zer? beste uts batzuk autor-entzulietan idoro izan dabez, ¿nola ez? gizonak dira-ta. Autortzan entzundako obenak agertu dituanik, ordea, ezta batxo be, ez ziñesmena ausi, ez burua galdu izan daben zoro gaxo artean be. ¿Ez al dakutzu emen agiri-agirian Jauna'ren eskua? Autortzan entzuna iragañi ta agertzeañen bizitza galdu dabenak, bañiz, askotxo dira. Euron artean oso ospetsua Nepomuzeno'tar Jon deuna.

Boemia'ko eñegiñaren autor-entzule zan deun au. Wenzeslau eñegeak, — gizon gaiztoa zan-da, gaizto bezela susmotia — estu artu eban, eñegiñaren autorkizunak berari agertzeko, edo bestela bizitza kenduko eutsola. Eñegearen alegiñak alpeñikoak izan ziran. Autor-entzuleak berean iraun eban. Ezer jadetsi ezin

eikeala ikusi ebanean, autor-entzulea, Moldaba ibaira jaurtitzeko agindu eban. (1393).

Praga'n 1719-gaŕen urtean, deunaren ilobia idigi ebanean, deun onen miña gordin-gordiñik aurkitu eben. Praga'ko eleiz-nagosian erakusten dabe urtero, deunaren jai-egunez, oñilaren 16-an.

OBENAK IXILTZETIK DATORZAN ONDORENAK

Orain artean irakuñi dozunak, zure oben astun oro autortzera kuturtzen ezpazaitu, aitu oben oñeik ixildu ta eskutatzetik datorkizuzan ondorenak.

LENENGOA, egunetik-egunera lotsa ugaritzea izan oida, ta autortzaldi bakoitzean, bere obenak esan gura ta esan nai ezta gelditzea obendi gaxoa. *Semeak jayoteko zorira etoñi ziran, diño Isaias'ek, baña etziran jayo, amak indañik ezeban-da.*

BIGARĒNA, gau ta egun obenaren arantza zoñotzagaz minberatuta bizitea. Eyo ta egosi eztan janak urdaila gafañtu ta jaurti arteraño bakerik emoten eztauan legez, autortu eztan obenak bere, gogoa mingoztuta, autortu arteraño eztausku arterik artzen lagako. Mirabe zabañak bazteñean izten dauan satza ta zimauña legez da autortzan ixiltzen dan obena, diño Bernardo deunak. Satz ori ustelduaz, inguru gustiak atsituten ditu, baita gure biotza be, an bañuan eskutatzen dan obenak.

Anditua azaletik lertu ta garbitu beañenan, bañuan lertzen ba'da, darion zorna edo zikiñagaz odola ziteldu ta eriotza ekañi daroa. Orixe jazoten da azaldu beañean gogo bañuan eskutau ta usteltzen dan obenagaz be, biotza ziteldu ta arimari eriotza dakartso.

IRUGARĒNA, autortza ona beti gerorako, beti urēngorako iztea; baña *gero* ori bein be ezta eltzen, bada len

esan genduanenez, otsoak ardia lepotik elduta estutzen dauan legez, oíoa egin eztagian, txerrenak bere, estaírtik eltzen dautsa obendiari, bere obenak autortu eztagizan. Eta atan-onetan, uste-bako eriotzak eruan oi dau bizitza onetatik. Alan jazo yakon beintzat, beste askoren artean, Valenzia'ko anderaño bati, ta oso jakiña ta zabal dabilana, ta oben ixiltzearen ondorenak zietz ta garbi agertzen dauskuzana dalako, ementxe ipiñiko dogu.

Umezurtza zan neskatila au. Gastetxo zala ama bari rik gelditu zan, eta mirabetzan sartu. Ona ta garbia ta elizkoya zan, baña, txerren zirikari, gudari bategaz adiskidetasuna artu eban, eta ibili ta ibili, lizunkerian jausi zan. Saritan autoírtzen zan, len oi eban legez, baña jazo yakona esatera etzan asaritzen. Iru urte joan ziran eranonetan deungaro autortu ta Jaunartuaz. Urte onein buruan belgundari edo misiolari ospetsu bat joan zan eí artara ta Jauna'ren itza atzaldu ta adirazten asi zan. Ezeban neskatila arek itzaldirik uts egin. Ta itzaldi bako txak buíuntzi goriak legez igaroten eutson biotza, bategatik bestera. Ezin negaréz ase zan eta bere baitan eta kautan iñon: *Betiko zeure burua galdu naiko dozu ala? Etzendun lotsarik oben egiteko, zer dala - ta izan bear dozu autortzeko? Bategaz autortzeko lotsa ba'zara, zoaz beste bategana; oía nun dozun belgundaria, ezezauna da; zoaz beragana ta ordu erdi baru urten zeintekez estutasun oíetatik.*

Onela buíuka ikaragaía erabilan bere buruagaz neskatila arek. Egun baten bestetan baño be biziroago ikutu eutson biotza Jauna'ren itzak, eta bere oben eskutukoa autortzeko erabagi sendoa artu eban. Gexoburu egin eta belgundariari bere etxera deitu eutson. Joan zan au lagun bategaz gexo ustekoaren etxera.



Entzun eban bere autorkuntza. Ta bere obenak, negar ta damu biziaz esan zituala ikusirik, pozez etxeratu zan. Belgundariaren laguna, gexoa autortzen zan bitartean, gustia ikusten eban lekuan aurkitzen zan, ezin ezer aitu ba'leikean be. Bitarte ofetan ikusi eban, oyaren barenetik noizik bein agertzen zala alako atzamartzar baltz uletsu itxusi bat eta bere atzazkal luzeakaz gexoaren estafia itoteko eran estutzen ebala. Etxeratu ziranean, lenengo nagosiari ta gero aren aginduz autor-entzuleari adirazi eutson ikusi ebana. Biurtu zan au gexoaren etxera, ta igauza negargafia! eri-buru egin ebana, ordurako il zan. Jauna'ren aufian jafi zan autor-entzulea, il zanaren alde otoi egiten, eta or, gaberdi inguruan, kate-otsak ta ileta ta intziri izugafiak entzun zituan, eta andik laster emakume zorigaiztoko a agertu yakon, garez inguratuta. — Neu naz, — esan eutson, — zugaz autortu nazan emakumea. — ¿Ez al zara ba ondo autortu?—egin eutson belgundariak. — Ez, enaz osoro autortu; txikienetatik asi naz, aundiak azkenerako izten nituala, onen artean orain iru urte jazo yatan oben au, ta arezkeroko autortze ta Jaunartze deungak. ¡Ai, aundienetatik asi ba'nintz! Baña lotsaz enintzan asi, ta geroago ta lotsago izan nintzan, eta arerioak gogora ekafi eustan, zuri nire obenak esanaz beste edozeñi esanda baño geyago galduko nebala; orduan, gexo-buru egiten ba-neban be, osasuna nebala, ta gexotzen nintzarian nire oben gustiak autortuko nituala. Zu, nire etxetik urtenaz batera, gelditu nintzan itzik bage, ta andik laster ilda. — Ta orain, ¿zek emoten dautzu ba atsekaberik geyen? — esan eutson belgundariak. — ¿Atsekaberik geyen? Jauna'k ni zerurako bidean ipinteko bakar-bakarrik ekafi zaituala zu urinetik ona, eta oren era edera neure eruz galdu dodala gogora-

tzeak, orixek sumintzen nau geyen. Au esanda, deadar ikaragaña egiñaz jatzi zan zorigaiztoko neskatilea betiko su ta oñaze-tokira.

Bitik bat aukeratu beaŕean aurkitzen zara ba, ene kistaŕa, edo orain zure obenak, agopean, egundo iragaŕiko ez dituan autor-entzuleari autortu, edo-ta gero azken auzian, gizarte osoaren aŕez-aur autortuaz gañera, betiko su ta oñaze artean zure erokeriz sumindu. ¿Zer aukeratu nai dozu?

—*Bere autorkuntza deungaro egiten dauanak, oŕetan oben astunik ete dagi?*

—*Bai, jauna, autorkuntzea deungaro egiten dauanak, donaustea deritxon oben ikaragaña egiten dau.*

Jaungoikoa'ren Legeko aginduetan azaldu gendun zer dan eta zelako oben ikaragaña dan donaustea. (Ikusi 68 - 70).

Oŕez gañera, arimako zauri ta eritasunak sendatze-ko osakaya da autorkuntza. Beraz osakai bakaŕ au, gure gaiztakeriz, eden biurtzen ba'dogu ¿zegaz osatu geintekoz? Len ustelduak eta kiraztuak ba'dagoz gure zauriak, txarto autortu ondoren askoz ustelago ta zornatsuago geldituko dira. ¿*Osagilerik ez ete da nire eŕian? ¿Zergaitik eztira ba nire eŕiko alabearen zauriak sendatu?* — itandu daroa Jeremi igarleak. (CAP. VIII). Bai, osagilea ta osakayak, biak dira, ta ugari izan be, Jauna'ren eŕian. ¿Zergaitik eztira, ba, gure zauriak sendatzen? Osagilien esanik egin gura ez, ta osakayak bear danez artu nai ez ditugulako; bear danez autortzen ez garealako.

Ontzia galdu ezkerro, ¿zer bide izango dau aŕantza-leak itxas-ertzerá eltzeŕko? Zur-puska bati eldu, ol bati

dautsala, igeri, kaya irabazi. ¿Ta ori nai ezpaleu? Ori nai ezpadau, itxasoan ondatuko da. Ontzi galdu ondoan ařapatzen dan ola bezela da, ba, oben eginda galtzera doyanarentzat, autortzea. Ta autortu ta ondo autortu nai ezpadau, oben-itxasoan ondatu egingo da.

—*Zer egin beařean gelditzen da deungaro autortu dana?*

—*Deungaro egindako autorkuntzan esan dituan oben astunak eta esan bakoak, eta ořetan egin dauan donaustea autortu beařean gelditzen da deungaro autortu dana.*

Len egindako autorkuntzak bařiztutea, batzuentzako bear-beařezkoa da; beste batzuentzako egoki ta onurakor; norbaitzuentzako kaltegin.

a) Obenak gogora ekarteko bear beste sayatu ez, edo egindako obenen gořoto ta damu bage, edo bařiro ez egin eta obenerako bidietatik alde egiteko erabagi sendo barik autortu izan diranak, edo oben astunen bat euren gogoz ixildu izan dabentak, nai - ta - ez, bařiztu bear ditue deungaro egindako autorkuntzak, eta autortu, autortze ořeitan esan izan dituen oben astunak, eta ixildu ta eskutau izan dituenak eta ořetan egin izan dituen donausteak. Utseite oneitzaz naikoa idatzi dogula deritxat; ořaitiño erabagiari buruz oartu, obenerako bide uřekotik alde egiteko gogorik ezaz, edo zořak eta iñori egindako kalteak ordaindu nai ez ditugulako, gure asmoa eztala sařitan obenak parkatzeko bear dan besteakoa izaten.

Norbaitek oneitan uts egin dauala ziur ba'leki, bere autorkuntzak bařiztu beařean legoke... Uts egin ete dauan ala ez, badezpadan ba'lego, berenez beintzat,

autorkuntzak bañiztu beañik eztauka; autor-entzuleari bere gogoa agertu begio ta beronen esanetara etzun.

b) Len egindako autortzak bañiztutea egoki ta onurakor izan oi da, umetan lenengoz Jaunartzean, edo toki askotan oi danez, Jaunartze nagosia deritxoena egiten dabenean. Lenengoz Jaunartuta gero, or amar-amaika urte dituela, zintzo ta zoli ibili oi dira, Ikasbi-dea zietzago ikasi ta Jaunartze nagosi ofetarako gertatzen. Sentzun geyago, ta burua argiago ta gogoa gertuago dabe-ta, garai onetan zuzendu legikiez ordu-rarteko autortzetan egindako utsak, eta damu biziagoaz ta asmo sendoagoaz autortzeko eran aurkitzen dira.

Bizibide bañia artzerakoan, naiz jaupari edo lekaide-tzan euren buruak Jaungoikoa'ri opaldu, naizta ezkontzako ikurton bidez kristiñau etxearen oñañia ipiñi.

Bizibide bañiak, egin bear eta egikizun bañiak bere ba-dakarts. Ta egin bear eta egikizun onek zeatz betetako, lengo zoñak kitatu ta okeñak zuzentzea, gauzarik onena.

Onbidean gorengo maletara eldu nai dabenezat, urtero-urtero autortza bañiztutea onuragiña ta premiñazkoa be ba-da. Gure etxeai, egunero garbituañen, urtean bein goitik berako garbitze bat emoten dautsegun legez, gure gogoari be, astero garbituañen, urtean bein goitik-berako bat onurakor yagoko. Gizon ardura-tsuak, euren sartu-urtenak edo zor-artzekoak eguneko liburuetan eroan añen, urtero zuri-garbia egin oi dabe, zordun ala artzekodun diran ziuñago ta eskieñago jakiteko, baita nun irabazi ta nun galdu izan daben aztertzeko be. Arimako arazoetan zuur ibili ta jokatu nai dabena, berebat egin bear dabe; urtero zuri-garbiak egin, galdu ala irabazi ta nun galdu ta nun irabazi daben ziu jakiteko.

Autortzak bañiztutea egoki da baita eriotz-aldian be. Emen geure buruak aztertu ta epaitu ta Jaungoikoa'ren ordezkoiari autortu ta parkezkatu, Goiko Epaikariak azketsi gaizan. Bake andian ilten dira, eriotzarako onela gertatzen diranak.

z) Autortzak bañiztutea kaltegarri yake, ondo autortu ete diran ala ez, damurik izan ete daben ala ez, beti kezka dabilzanai. Oneik autor-entzule zuur bat aukeratu begie ta bere esanak, burua makurtuta, jañaitu.

ORDAÑA

—*¿Zer da ordaña?*

—*Autor-entzuleak ezarten dauskun oben-neke edo penitentzia da ordaña.*

Norbaiti egindako okerkeri ta bidebagekeria zuzentzeari deritxo ordaña. Artzekodunari zor beste biurtzen dautsonak, ordaindu egiten dautso. Zoña izan leiteke edo ondasunetzaz, edo ospe onatzaz, edo begirape-nagazkoa. Edozertzazkoa dala, zoña dagon bitartean okeña dago, ta oker ori zuzendu ta kitu jarteko, ordaindu egin bear. Onela ordaindu eutsan Jesukristo gure Jauna'k Aita Jaungoikoa'ri gizonak geuntsan zoña. Baña autorkuntzari datzakonez, autor-entzuleak ezarten dauskun oben-neke edo penitentzia da ordaña.

—*Oben-nekea zetarako da?*

—*Geure obenak dirala-ta, Jaungoikoa'ri zor dautsagun aldiko-nekea ordaintzeko da oben-neke edo penitentzia.*

Jaungoikoa'ren Legea ausiaz bide bage ta gaiztakeri

itxusia egiten dogu gizonok; gaiztakeri oni deritxo *obena*. Ta oben astunak beragaz dakar zerurako esku-bidea galdu ta gaiztoki edo inpernuko su ta gar artean betiraunez egon beara. Naiz dala maite - damuz, naiz dala autortze on baten bidez bañiro Beragana biurtzean, obena ta obenari dagokiozan neke ta oñazeak parkatzen dauskuz Jauna'k betiko. Baña alan-da be, parkaziño onen ondoren, gelditzen yakuz geure oben eta gaiztakerien loñatz edo kutsu bi: LENENGOA, betiko oñaze-ordez emen edo Garbitokian igaro bear ditugun zigor ta nekeak, ez betikoak, aldizkoak baño, au da, nozbait amaitu ta bukatuko diranak. BIGARENA, oben egin ondoren, gure griñak urduriago, gogoñ makalago, ta beraz, txarierako makuñago ta etziñago gelditzen gara.

Kutsu bi onek dirala-ta, autor-entzuleak guri oben-nekea ezari-beara ta guk neke ori artu beara dogu, len egindako oben ordaintzat ta bañiro obenik egin eztaigun sendagañitzat. Zigorkai ta sendagañi yaku, ba, oben-nekea; len egindako obenen zigor, ta gerora jausi ez gaitean sendagañi. Onela erakusten dausku Trento'ko Batzañak. (SESS. XIV, CAP. VIII): «Obenik eztauala Jauna'k parkatzen, baldin obenagaz batera beroni dagokion neke gustia parkatzen ezpadau, au guzuña ta Jauna'ren itzetik alde (uñin) dagona dala autortzen dau Batzar deunak. Jazopen agiri ta ospetsuak daukaguz, ba, Idazti edo liburu deunetan, uste ori guzuña dala adirazteko». Arnari debekatua janaz egin eban obena ta oben oni egokion betiko oñazea parkatu eutsozan Jauna'k Adan'i, baña bederatzireun urte geyago igaro bear izan zituan neke ta lor artean, bere oben ordaintzat.

Israel'dañak Moises'en aurka gaizki esaten, mormoxitan, ekin eutsoenean, Moises ta Aaron eñi ta Jaun-Goikoa'ren bitarteko jañi ziran, eta bidebagekeri a

azketsi egiola, aŕen, eskatzen eutsoen Jauna'ri: Jaunak erantzun eutson: *Nitzaz gaizki esaka jardun dabenetatik bat be ezta sartuko, Nik aren gurasoai agindutako lu'aldean.* (LEVIT. XIV - 20). Baita Moises ta Aaron'i be, parkatu eutsen ura atarateko arkaitza bein ta beŕiz jotean, usterik ezaz egin eben obena, baña oben onen zigoŕez bata be etzan eldu, ainbesteraño opa ta gura eben lu'aldera; basartean il ziran biak.

Oben itxusia egin eban Dabid'ek; damutu zan; baita Jauna'k be parkatu eutson. Baña obenaren zigoŕez, Natan igarlearen aboz esan eutson Jauna'k: «Zure semea ilgo da».

Gizartean bere saŕi ikusi oi dogu onen antzeko gauza bat. Norbait eriotzez zigortzen dabenean, bitartekoak eŕukiz eskatzen dabela-ta, eriotz zigoŕa parkatu ta orde z bizitza gustirako edo onen beste urterako nekepean egon beaŕa ezarten dautsoe. Berebat egin daroa gure Jauna'k, Jesus'en eriotza ta Andra Maria'ren otoyak bitarteko dirala, gure gaiztakeriak, baita betiko su ta oñazeak be parkatzen dauskuz, ta oŕen orde z, emen edo garbitokian igaro ta jasan bear ditugun loŕak ezaŕi.

Ta au oso zuzenki, diño Trento'ko Batzaŕak: «Zuzendasunak eskatzen dauala dirudi, ba, era batean artu bear dituala Jauna'k bere adiskidetasunean, bateatu-aufetik, ezjakiñez, oben egin ebenak; eta beste era batean, deabruaren mendetik azkatuta gero, Goteuna artu ondoren, jakiñez gañera, *Jauna'ren etxea donausita Espiritu Santua naibagetzeko bilduŕik izan eztabenak*».

Baita Jauna'ren eŕukiari be ba-dagokio, bape neke barik gure obenak ez parkatzea. ¿Zergaitik? Obenok gauza arintzat artu eztaiguzan ta Goteunari iŕi ta irain

egiñaz, len baño astunagoetan jausi ez gaitezan, geure buruari asafe-egunerako ari gogofa batzen dautsogula.

Autor-entzuleak, nora - ezean, ezari beara dauka obenari ta obendiari yagoken oben-nekea. Oben geyagori, geyago. Oben gitxiagori, gitxiago. Oben astunari, astunagoa. Ariñagoari, ariñagoa. Saritako obenari, oiturazko obenari, beste batzuentzako jausipide dan obenari, eurai dagokioena. Baita obendiari yagokona bere. Zara ba'da, gastea ba'da, ezkondua ba'da, ezkon-gea ba'da, gurasoa ba'da, umea ba'da, aberatsa ba'da, txiro edo beartsua ba'da, gaxoa ba'da, osasuntsua ba'da, aundikia ba'da, nekezaria ba'da, ekandu txafekoa ba'da, obenerako bide-urtean bizi dana ba'da... bakoi-tzari dagokionez. Oben-zofa ordaintzeko artu al daik-guzan nekegariak iru eratan ipinten ditu Akino'tar To-ma deun jakintsuak (1). Eta dira: edo arimagazkoak, edo gorputzagazkoak, edo ondasunekazkoak.

Arimagazkoa, otoyta ta otoyari dafaikion gustiagaz Jaungoikoa goratu ta aintzatzea da. Gorputzagazkoa, *baraua* ta beste gorputzari mingari yakozan neke ta zigoak. Ondasunekazkoa, *ukara* edo limosnea, naiz ilentzat, ta naiz bizientzat.

OTOYAGAZ, autortu, Jaunartu, meza entzun, eleizak ikertu, agurtza esan, Jauna'ren aurtean belaunbiko egon, idazti onak irakuri ta beste onetarikoak adiraz-ten dira.

BARAUAGAZ, neuria baño zerbait gitxiago jan eta edan, lo gitxiago egin, miña ixilik euki, jolastokietara ez joan, gorputza astindu edo zurdatzeez ezi ta enparau gorputzaren nekegariak aitzen dira.

UKAR edo limosneagaz, txiro ta beartsuai, eleiza,

(1) 4 Sent. dist. 15. g. 1. a. 4.

mixiolari ta eri-etxeai, edo Garbitokiko arimen aldezko laguntza.

Oneitarikoak izan oi dira, geyen batez, autor-entzuleak ipinten dituan nekegarriak.

¿Eta zelan kobru emon bear dautse obendiak? Osotoro, ta autor-entzuleak agindutako era ta aldian. Onetarako aitu ondo autor-entzuleak diñotzuna, onu, burubide ta erakutsia, ala oben-nekea dan. Erakutsi, onu ta burubideak jaraituaz ondo baño obeto egingo dozu, baña etzaitue berenez obenpean lotzen. Oben-nekeak bai, ta berak ezaritako era ta garayan. ¿Ilean bein autortzeko agindu dautzu? Bada ilean bein autortu bear dozu. ¿Urli egunetan barau egiteko? Ba'da egun atan bertan barau egin bear. ¿Onako edo arako lagunagaz ez egoteko? ¿Etxe atan ez sartzeko? ¿Alako obena egiten dozun bakoitzean erial bat emoteko? Ba'da agindu dautzuna ta agindu dautzunez egin bear dozu.

Astunegia edo latzegia ba'deritxozu, aldatu dagizula eskatu zengio edo beste bategaz autortu zeintekez, baña jakin, obendia, bere ariz, autor-entzule, bere us-tez, nasayetara ba'doa, eraztoago, oben-neke gitxia-goz ta bere naira irago dagion, nekez ondo autortuko dala; Jesukristo gure Jauna'k diñoana jazoko yako: *Itxua ba'da itxuaren zuzentzale, biak lezan sartuko dira.* (MAT. V).

—¿Eta zelako obena egiten dau oben-nekea bete barik itxi edo betetea asko luzatzen dauanak?

—Oben nekea bete barik itxi edo betetea asko luzatzen dauanak, pekatu astuna egiten dau oben-neke ori astuna izan ezkerro; ta ariña oben-nekea be ariña ba'da.

Beraz, oben-nekea astuna edo ariña izan leiteke,

autor-entzuleak ezarten dauskun nekegaría astuna edo ariña danez. Astuntzat artzen da Eleiz Amaren agindu neuriz astuna dana; onela, meza entzutea, barau egitea, autortu ta Jaunartzea, bost amaírekoko Agurtza edo Érasarioa esatea... eta onein idekoak, astunak dira. Ariñak, bost «Aita gure» edo gitxiago esan beaíeko oben-nekeak.

Baita oben - nekea zatitu leikeana ta zatitu ezin leikeana be izan leike. Meza bat entzutea ezin zatitu leike. Barau bat egitea, ezin zatitu leike. Baña meza bi entzutea, bai. Bata entzun eta bestea itxi. Biñitan autor-tzea bere bai. Batean autortu, ta bestean ez.

Autor - entzuleak ezañi legiken oben - neke astuna betetako asmo ta uste barik autortzera doanak; edo ezañitako oben-neke, naiz bere zati astuna bete barik itxi, edo aztutzeko ańiskuan jarteraño luzatzen dauanak, oben astuna egin daroa. Oben-nekea *sendagaría* ba'da, oben bi egiten dira. *Sendagaríak* deritxoe bañiro obenik ez egiteko iminten diran nekeai. Sañitan egiten diran obenakaitik, oiturazko obenakaitik, eta obenerako bide uñean bizi diranai, ezarten yakez neke sendagaríok.

Birao egiteko oiturea daukanari, agindu leikio, egiten dauan bakoitzean *zerbait* eskekoai emoteko. Adiskide deungea auzoan daukanari, etxe atara ez joateko; ta iñoiz juaten ba'da, doyan bakotxeko meza bat entzuteko. Ordiari ardaotegian ez sartzeko, ta sartzen dan bakoitzean, agurtza esateko. Neke onek, osterá, pekatuan jausi eztaitezen dira. Nekearen bilduñez oitura txañá kentzeko alegindu, ta oben-bidea itxi dagien. Ta, askotan, obendiak uts bi egiten ditu alako nekegaría itxiaz. Bata obenerako ańiskuan bañiro jañi dalako, ta bestea autor-entzuleak egindua egin eztaualako.

Ona emen sail onetan zuzen ibilteko egin bear

doguna: LENENGO: Autor-entzulearen agindua betetako uste osoa artu. BIGAREN: Aitu ondo, autor-entzuleak azañitako oben - nekea. IRUGAREN: Autor - entzuleak emondako neke ori, ainbat ariñen eta zietzen betetako alegindu. LAUGAREN: Inoiz izten ba'dau autor - entzulearen agindu oso, edo zatia, urango autortzan esan zer eta zergaitik itxi eban.

— *¿Ez ete zan ba naikoa Jesukristo gure Jauna'k, Aita Jaungoikoa'ri gure obenen orde z eskiñi eutson ordaña?*

— *Bai, naikoa ta lañegi bere izan zan Jesukristo gure Jauna'k gure obenen orde z eskiñiriko ordaña.*

Etzan gaiztakeri-neufiz ordaña izan, diño Paul deunak, gaiztakeria baño ugariago baño. ¿Zergaitik ete dogu, ba, ordaindu beara? Gure neke gustiak ezin leikie Jesukristo'k eskiñiriko ordañik ezetan be geyagotu; baña ordaindu beara dogu, Jesukristo'ren antza artzeko (1). Zuzena ta erugea izanik, Jesukristo'k gure oben ordañez ainbeste neke ta oñaze eruan ba'zitian, berari jañaitu ta bere antza artuaz, guk be gure oben ordañez gorputza nekatu ta zigorkatu bear dogu; nekeetan bere antzeko izaten ba'gara, atsegiñetan be bere ideko izango gara-ta. Geuk geurez ezer ezin geinke; gure nekeai Jesukristo'renakandik datorkioe eben-zoña ordaintzeko indara; bera da gure Buru; gu bere gorputz - atalak; Jesukristo'gaz batuago ta gure nekeak irabazkoñago: Jesukristo'ren irabaziak eskuratzeko, ba, geure burua nekatu bear.

(1) Trent. Batz. Sess. XIV. cap. VIII).

— *Eta oben-nekeaz gañera, beste ezetara, aldiko nekeen zor au ordaindu ete geinke?*

— *Oben-nekeaz gañera beste edozein egite onen bitartez, parkamenak irabaziaz batez be, aldiko nekeen zor ori ordaindu geinke.*

Oben - nekeaz gañera beste edozein egite onez, meza entzun, Jaunartu, otoiz egin, beartzuai lagundu... aldiko nekien zora ordaindu geinke. Ta ez geuk geure buruari ezaritako neke bitartez bakarrik, baita bizitz onetan Jaungoikoa'gandik datorkiguzan gexo, atsekabe ta loñak, eta batez be eriotza, gogo onaz artu ta Jesukristo'ren bidez Aita Jaungoikoa'ri eskiñiaz be.

Baña autorkuntzan ipiñitako oben-nekeak, egintza onaren irabaziz gañera, aldiko zora ordaintzeko indar berezia dauka; berenez Ikurtona'gandik yatorkon indaía. Ta augaitik neke astuna ipinten dauskula-ta, minberatu beañean, geuk eskatu bear geunskio autor-entzuleari astunagoa ezari dagiskula.

— *¿Geuk geure burua ukatu, ta ezi, ta nekatu bearik ete dogu?*

— *Bai, orain artean egin izan ditugun obenen zora ordaintzeko, ta bai geyago obenik ez egiteko, geure burua ukatu, ta ezi ta nekatu beaña daukagu.*

Iñok etoñi gura ba'dau nire ondorik, artu begi egunero bere gurutzea, ta jaraitu begit,— diño Jesukristo gure Jauna'k. (MATT. XI). Jon'en egunetatik onakoan zeru jaureña oldartuta dabil, ta artzaz oldartuak jabetzen dira.

Zuzen egin eban Jauna'k gizona. Griña ta gurariak ezaguera ta gogoaren mendeko, gogoa, bañiz, Jaungoi-

koa'k nai ebanerako beti gertu. Bake gozoa eban, ba, bere buruagaz gizonak. Baña Adan'ek Jauna'ren agindua ausi eban, eta Jaungoikoa'ren eskařagaz batera, jatorizko zuzendasuna bere galdu; ta ordutik asi ziran gizonaren ifits, gurari ta griñak asaldatzen eta bako-txak bere aldetik etxeko bakea galerazten. Buřukarik gogořena darabilgu gizonok geure buruagaz, aragiak bere atsegiñetara ta gogoak bere aldera tira egiten dauskuela.

Arerio leuna, labana, lotsa-gaiztokoa, geugaz beti dagoana, gaiztakerirako eskaririk geyen egiten dauskuna, sařien menberatzen gaituana, ta iñoiz bere ondo ezi ta eskuratu ezin doguna, da gure gorputza.

Aragiaren gura ta griñak eleuskigue kalterik ekařiko, garaiz, adionez ta gogotsu eziko ba'genduz. Ezi bea-řean, jařaitu egiten dautsegu, ta aor, gure oben gustien sorburu ta ituřia. Gorputza eziteko; aragiaren gurari, ifits ta griñak eskupean erabilteko, norberen burua ukatu ta nekatu egin bear. Ořela egiten ebala, diño Paul deunak: *Gorputza astintzen dot eta eskupean darabilt, besteai Jaungoikoa'renganako bidea erakutsi ondoren, neu gaiztetsi ez nadin.* (I, KOR. IX).

Sentzunen bidez ikusten doguzan gauzakaz biztuten da gure griña txarřetan atsegin-egařia. Griñok itxartu ta asaldau eztaitezana, sentsunak ezi. Ezi begiak, gauza deungarik ikusi eztagien. Ezi ta eskuratu miña, gauza txarřik esan eztagian. Bai-ta belarřiak, be, oben dan gauzarik atsegiñez entzun eztagien. Ukatu ao ta sabe-lari gozoegi edo lařegi jan-edan gurea. Ezi gorputza, gogoa bereganatu ta azpiratu eztagian. Otoya, bakar-tasuna, jantzi latza, eriotzaren gomutea, inpernu edo gaiztoki-bilduřa, ludi onetako gauzarik aintzat ez artzea, Jaungoikoa'ganako gogoa ta biotz zabala ta bulartsua

dira gorputza neurira ekañi ta bere griñak eskupean erabilteko iskilu ta bideak.

ANTXIÑAKO KISTAÑEN BURU-NEKATZEA

Len eta orain, obenaren gaiztakeria bardin-bardiña yatzu. Bardin-bardiña obenagaz Jaungoikoa'ri dagiogun iraña. Bardiña obenari yagokon zigoña. Bardiña oben-zoña ordaindu beaña. Ta bardiña, neuriz ta legez ibilteko, geure burua ezi beaña. ¿Zergaitik eztauskuz, ba, Eleiz Ama'k lenengo kistañai lako oben-nekeak ezarten? Ama dalako. Oraingo kistañok, lenagokoen ondoan makalak eta epelak gara. Ta ama onak seme gaxo ta makala bigunago artu daroan legez, gure Eleiz Ama'k be bigunago artzen gaitu gu. Neke gogoñak bete gura-
-ezagaitik betiko galtzea baño obetzat etsi daroa, orain neke arintxoak ezañi ta betiko su-lezetik beintzat atera, gero garbitokian geure oben-zoña ordaindu beañez izango ba'gara be.

Izan be, Eleizaren aginduz, urtean bein doi-doyan, ostaz-osta autortzen diran kistañak; sañiago Jaunartzeko deya entzun gura eztabenak; oraingo barau ta aragi-izteai latzegi deritxenak, ¿zelango mosua ipiñiko ete leuskioe lenengo gizaldietan ezarten yakezan oben-nekeai? Onein bañi jakitea, oratiño, egoki yaku, nekerik artu gura eztozunok, obenik bere egin eztaigun. Anbortzi deunak diñonez, ba, oben astunik egin eztabenak aurkitzea eñazago ei da, oben eginda gero, bear besteko oben-neke ta garbaya egin izan dabentak idorotea baño.

Lau maña ebezan antxiñako nekeak (1). LENENGOA, *negartiena*. Maña onetakoak eleizako ate-auñean jarten

(1) Arintero O. F., Evolución orgánica, Lib. 1, cap. IV.

ziran, saku ta zurdatzez jantzirik, burua autsez estalita, auspez ta negar-uluz eleizan sartzen ziranai eskatzen, aŕen otoi egioela Jauna'ri euron obenak azketsi ta aibat lasterŕen bere ta Eleiz-baruan artu egizan. Onela egon bear izaten eben, batzuk lau urtean, besteak gixiago.

BIGAREN mala *entzuli*ena zan. Oneik eleiz barrenetik entzuten eben Jauna'ren itza ta itzaldia amaitutakoan eleizatik ateraten ebezan. Era onetan igaroten zituen iru, lau urte edo geyago.

IRUGAREN mala zan *auspez* egoten ziranena. Mala onetakoak eleiz-baruan auspez egon oi ziran. Damu ta negarŕez bulaŕa jo ta euren oben eta gaiztakeriak autor-tzen ebezan. Onela auspez egozala, gotzaña euren ondora jazten zan; berau be auspez etzun-da, jaupariak lagun ebazala, Jaungoiko ta gizonen bitarteko legez, auspeztuen alde otoi egiten eban. Gero, eskuak burugañean ipiñi, onetsi, ta eskintzaldi-aufetik ateraten ebezan.


LAUGAREN mala *iraunkoŕena* eritxon. Lenengo iru maletan zintzo iraun ebenak, meza-azkeneraño egon eitekezan. Baña ezin eikien, ez oparirik eskiñi, ez Jau-nik artu. Oneik etziran ibilten beste iru maletakoak legez garbai-soñekoz jantzita, ta nekepean egozala adirazteko beste igarkirik be ez eben erabilten.

Onezaz gañera, lenengo iru malatakoai batez be, barau latzak, lorik ezak, neke gogofak, gexo-zaintzea, ilak obiratzea ta onein antzeko garbai-nekeak ezarten eutsezan.

Neke oneik agirikoak ziran, eta oben astun agiria-kaitik ipiñiak. Ba-ziran beste batzuk eskutuagoak eta oben eskutuai ezariak. Aztiekana joyanari, bost urteko oben-nekea ezarten yakon; saspi urtekoa, aztikerietan

iñardun ebanari. Jai-egunez lanean jardun egianak, sei egunean barau egin beaía eban, ogi ta ur utsez. Gurasoi dedu ta lotsea galtzen eutsenak, amalau eguneko baraua; jo edo iraindu egiten ba'zituen, baíz, saspí urteko oben-nekea. Iñor joten ebanak, iru eguneko baraua; zauritu ezkeru, urtebeteko nekea. Norbait gofoto izan eta adiskidetu nai ez ebanak, adiskidetu arterañoeko baraua, ur ta ogi utsez. Lizunkerizko obenakaitik, iru, amar edo amabost urte, ta batzuetan bizitz osoko nekea azarten eben.


Oso ariñak eta labuñak dira, onein ondoan, gaur egunean ezarten yakuzan oben-nekeak. Ez, baíz, gure obenak areiñak baño gitxiago edo ariñago diralako, geu areik baño epelago ta makalago garealako baño. Beraz, edo geure gogoz burua nekatuaz, edo parkamenak irabaziaz, emen bizi garean artean gure oben zoía ordaintzeko sayatu ta alegin egin bear.



The first part of the paper is devoted to a general
 discussion of the problem. It is shown that the
 problem is equivalent to a problem in the theory
 of differential equations. The second part of the
 paper is devoted to a detailed study of the
 problem. It is shown that the problem is
 equivalent to a problem in the theory of
 differential equations. The third part of the
 paper is devoted to a detailed study of the
 problem. It is shown that the problem is
 equivalent to a problem in the theory of
 differential equations.

The fourth part of the paper is devoted to a
 detailed study of the problem. It is shown
 that the problem is equivalent to a problem
 in the theory of differential equations. The
 fifth part of the paper is devoted to a
 detailed study of the problem. It is shown
 that the problem is equivalent to a problem
 in the theory of differential equations.

9/1



XI IKASKIZUNA

PARKAMENAK

Zer diran.—Eleiz Amaren ondasunak.—Zeinbat eratakoak diran parkamenak.—Zelan erabazi.—Onik ete datorkigun parkamenafatik.

— Zer dira parkamenak?

— Edo bizitz onetan, edo garbitokian obenakaitik ordaindu bear dan neke-zoía garbitzeko Eleiza'k emoten dauskuzan eskar edo graziak dira parkamenak.

Jaungoikoa'ren Legea ausiaz, gaitz bi ezarten yakoz gure gogoari: oben-erua ta oben-nekea. Maite-damuz edo autortzaren bitartez azkesten yakuz oben-erua ta obenari dagokion betiko nekea. Baña betiko nekea azketsita be, edo bizitza onetan edo garbitokian, aldiko neke-zoía garbitu beara gelditzen yaku geyenez. Ta auxe, aldiko neke-zor au, ordaintzeko egokitzen dauskuz Eleiz Amak nekazka edo parkamenak.

— *Zelan azkesten ete dauskuz, ba, Eleiz Amak obenari dagokiozan neke-zořok?*

— *Jesukristo'ren, Andra Maria'ren eta enparau deunen ordain-irabaziak, gure ordez Jaungoikoa'ri eskiñiaz, parkatzen dauskuz Eleiz Amak oben-neke zořak.*

Gure obenai egokioezan nekeak baño asko be askoz ugariago izan zan Jesukristo'ren ordaña; Jesus'en odol-tantatxo bat, egiterik txikiena, nekerik ariñena, ordain indar mugabakoduna zan; beraz, berein gizon biferosi ta izan diran eta izango diran oben gustien neke-zořa ordaintzeko baño geyagokoa. Deunetarik askok be, zořetan izan daben baño neketan askoz geyago eroan izan dabela, ezin ukatu leike. Andra Maria'k ez eban egundo uts ariñenik be egin; ez eban, ba, ezer zor; ez eban ordaindu beařik. Baña ħnok neurtu bere neke-oñazeak? ħnok asmau bere ordañak? Deunetarik askok, berebat. Jesukristo'ren alde odola ixuri izan daben ziñopak; barau ta zurdatzez burua nekatuta, Kristo'gaz gurutzean josirik bizi izan diran kistar zintzoak; gogo ta soin, gorputz ta biotz, garbi-garbi, iraun izan daben neskutzak, zor eben baño geyago ordaindu ebela ħnok eztakus? Zořen ganetiko irabazi gusti oneik ba, Jaungoikoa'k Eleiza'ren eskupean ipiñi izan ditu. Ez alpeřik, kutxan sartuta, eukiteko; kistar artean zabaltzeko baño.

Siñestedun gustiok gorputz bat dagigu Kristo gure Jauna buru dala; etxe bateko umeak gara. Etxe onetan gure Burua aberats-aberatsa dogu; batzarkide asko, aberatsak; beste asko zorpean bizi gareanak, bai gu, oraindik bidean gabiltzanok, bai garbitokian aurkitzen diran arima gaxoak. Txiro ta aberats, gustiok dogu

Eleiza, agortu ezin leitekezan ondasun-jabe ta Ama. Entzun ba ¿ez al da sendi askotan beste oñenbeste jazoten? Ta sendi oñetako ondasunak agortu eziñak ba'litsoz, ta etxeko amak ondasun oñeik seme-alaba beartsuen artean banandu ta zabaltzeko eskubidea ba'leu ¿eztozu uste, bai senar, bai seme-alaba aberatsen ondasunekaz txiroen zoñak ordainduko leukezala? Bidezkoa litzakela beintzat ori, ezin ukatu. Orixe baño eztagi, ba, Eleiz Amak: Jesukristo'ren, Andra Maria'ren eta deunen goi - ondasunak seme - alaba beartsuen artean zabaldu, ta oneik deuten zoña arein irabaziekaz Jaungoikoa'ri ordaindu. Oñetarako eskubide osoa emon eutson Jesukristo'k Eleizari: *Zuk luñean parkatzen dozun oro, zeruan be azketsiko da.*

Eleiz-ondasunok, bidezti gareanok bakañik irabazi geinkez, baño garbitokiko arimai ezañi geingioez ta oñetarako alegin egin beaña dogu Belduak dirauskunez: *Zuen lañegiak arein uñitasuna bete begi, arein lañegiak be zuen uñitasuna bete dagian.* (2 KOR. VIII-14). Orain guk gokaxoen zoñak ordaindu, zeruratzen diranean eurak be gure alde jardun dagien.

— ¿Zeinbat eratakoak dira parkamenak?

— *Parkamena, osoa edo zatika irabazi geinke.*

Parkamen *osoaz*, oben-zor gustia ordaintzen dogu; beraz, au irabazitakoan norbait ilgo ba'litz, artez-artez zeruratuko litzake. *Zatika* irabazten danaz etxaku neke osoa azkesten, zati bat baño; egunka edo urteka adirazi oi da zati au, irureun eguneko parkamenok, beñogetamañekoak, saspí urtekoak eta abar. Urte ta egun oneik eztabe esan gura garbitokian beste ainbeste erazten diranik, lenengo aldietan Eleiza'k ezañi oi ebazan neke-

tan oñenbeste egun edo urte igarota aña zor ordaindu geinkela baño.

Parkamenak edo *notiñai*, edo *gauzai*, edo *tokiai* ezarten yakez; *notiñai*, norbaitek zerbait egin alde; *gauzai*, irudi, domiña, gurutze, eñosario ta abar; *tokiai*, eleiza edo beste toki deunen bat ikerten dabenai.

Toki deun, irudi edo antzekoai, gotzañak ezañitako parkamenak, Eleiz bañutian edozeñek irabazi legikez; Eleiz bañutik landara, gotzañaren menbekoak bakañik. (KAN. 927). Aita Santuak edo oñetarako eskubidea dauan jaupariak, irudi, gutun, eñosario edo oñetariko gauzai ezañitako parkamenak, gauza onein jabeak bakañik irabazi legikez; beraz, jabea ilgo bañlitz, edota gauza oneik besteren bati, beste onek parkamenak irabazteko asmoz emon, edo saldu, edo ukañez izanañen be, zerbait ordañez artu, parkamenak galduko leukiez.

Parkamenak izan leitekez baita *ezarkoñak* edo *ez ezarkoñak* be, garbitokiko arimai ezañi legikioezanetz. Aita Santuak emondako parkamenak, beste zerik izan ezik, garbitokian datzazan arimai ezañi legikioez. (KAN. 930).

—*Zelan irabazten dira parkamenak?*

—*Oñetarako agindurik dagoana, Jaungoikoa'ren grazian egiñaz irabazten dira parkamenak.*

Iru gauza bear dira, ba, parkamenak irabazteko: *Asmoa, agindurik dagoana ta Jaungoikoa'ren grazia.*

ASMOA. Bein betiko artu legike edozetariko parkamen gustiak irabazteko asmoa, baña sañiago bañiztau ta obe. Egunero beintzat, goizaldean, egun gustiko egikizunak eskiñiaz batera, egun atako parkamenak irabazteko asmoa be jañi.

GOI-ESKARA. Parkamen izakereak berak darakuskunez, norberarentzat parkamena irabazteko beintzat, nai-ta-ez, obenak azketsita euki bear; Jaungoikoa'ren eskardun izan bear. Garbitokiko arimen alde, obendun izanañen be, irabazi geinkezala diñoenorbaitzuek.

Obendun diranak, maite-damuz garbatuta irabazi legikiez zatika emoten diran parkamenak. Baña parkamen osoa irabazteko, autortu egin bear izaten da, geyenez beintzat. Ta gañera, oben arin gustiekaz be damutu. Norbaitek, autortu ezkeronoben ariñen bat ba'legi, beste enparau obenakazko parkamena irabaziko leuko; azketsitako obenenezofa, ordainduta leukake; ez baña azketsi bako oben ariñarena. Parkamen osoa irabazteko asmoz diñarduzunean, beraz, azken egintza baño len, parkamenak irabazkeran, maite-damuz damutu.

AGINDURIKOA EGIN. Zerbait egite alde, otoyen bat, eleiz-ikuste, euki-egintza edo abar, emoten dira parkamenak. Agindurikoa, agintzen dan eraz ta agindutakoan egin bear da, nekaska irabazi al izateko.

Legez edo aginduz norbait egitera bearturik dagon egintzaz, ezin leike parkamenik irabazi, parkamena emokeran orixe jañi ezik; oratiño parkamenak datzakoan egiñena, oben-neketzat ezañiko ba'leuskioe, biak batera egin leikez, oben-nekea bete ta parkamenak irabazi. (KAN. 932).

Gauza edo toki bati, askotara ezañi leikioz parkamenak; baña askotariko parkamenak daroazan egintza bategaz, ezin leikez parkamen asko irabazi, egiteko ori autortzea ta Jaunartzea izan, edota beste zerbait ziero ebatzi ezik. (KAN. 933).

Agindurikoa, norberak deritxon eraz bete leike; onela, autortu baño len eleiz-ikusteak egin leikez, baita Jaunartu be, oben astunik izan ezik.

Agintzen dana, geyenez, autortu, Jaunartu, eleiza ikertu ta Aita Santuaren asmoz otoi egin, izan oi da. Bakotxari buruz, zerbait desakegu.

AUTORTU. Parkamena ezañitako zortzi egun aurretik egin leike autorkuntza; baita urango zortzi egun buruan be.

Asteko edo iruruneke gogo-iñarkunai ezañitako parkamenak irabazteko autortza ta Jaunartzea, ondorengo zortzi egun buruan be egin leikez.

Īlean biritan beintzat autortu, ta egunero Jaungoikoa'ren grazian eta gogo zintzo ta sutsuaz Jaunartzeko oiturea daben kistañak, nozbait uts egiñaren, bitarteko parkamen gustiak irabazi legikiez, *jubileum* edo *jubileum*-antzerakoak izan ezik. Oneik, ba, autortza ta Jaunartze bereziak izan oi dabez. (KAN. 931).

JAUNARTZA. Parkamena datzakon aurreko egunean edo urango zortzi egun-buruan egin leike Jaunartza.

ELEIZ-IKERTZEA. Izendaurikoa ba'da, Portziunkula'n jazoten dan legez, izendauriko eleiza ikertu bear. Osterantzean, edozein eleiz agiri. Onago izateko edo ikasteko asmoz, edo gexorik etxe buruan datzazan giza-emeak eta onein moñoitzean diñarduenak edozein eleiza ikertuaz irabazteko emoten diran parkamenak, etxeko txadontxoak ikertuaz irabazi legikiez, txadon ofetan jaupaldian izanaz, mezatara eltzeke agindua bete al ba'daye beintzat, eta gañerako aginduak zintzo egin ezkeru. (KAN. 929).

AITA SANTUAREN ALDE OTOI EGIN. Otoi au aoz agin beañekoa da. —¿Zer ta zeinbat? —Sei *Aita Gure...* sartu-urten bakotxean.


Parkamenak irabazteko agindurikoa betetako eragozpena dabenai, beste egikizun batzuetara aldatzeko eskubidea ba-dabe autor-entzuleak. (KAN. 935).


—*Onik ete datorkigu parkamenetatik?*

—*On asko ta bikañak alan be, datorkiguz parkamenak irabaztetik.*

Lenengo ta bein, autortzan ezañitako oben-nekea, neke ariña izan oi da. Ez, ba, Jaungoikoa'ri dautsogun zoña ordaintzeko ainbatekoa. Zor ori ordaindu; Jaunaren zuzendasunari berea emon, egintza bikaña ta onurakoña ez al da? Gero, parkamenak irabazteko, beti izaten da, autortu, Jaunartu ta egintza onetan iñardun beña. Sañiago autortu ta Jaunartu, ta kistar bizitza be sendoago ta ugariago, ta gizonen ibilera ta jarduera zintzoago ta kistañago. ¡A! Beste azi-orañietan gabil-tzan legez, onetan be alkañen leyan ba'genbiltz gizonok, zorion oberik izango genduke gizartean.

Oñez gañera, parkamenak kistar gustion alkartasun eta anaitasuna gogoratzen dauskuez; bai zeruan zoriontsu ta aberats bizi diranak, bai arako bidean dagozan arima gaxoak, bai atzeñiko buñukaldietan diñar-dogunok, alkañen anai gara. Zeru ta garbitoki bitartean gagoz, ludian bizi gareanok; zeruko gure anai zoriontsuai esku bata luzetu ta arein ondasunak eskatzen, beste eskuagaz arima gaxoai laguntzeko.





XII IKASKIZUNA

AZKEN-IGORTZA

Azken - Igortza.—Nok ipiñi.—Nun igortzi.—Ondorenak.—
Artu nai eztabenak. — Zelan artu. — Zeinbat bider. —
Il antzekoak. — Jazokunak.

Boskañen ikurtonari «Azken-igortza» deritxo, bai Eleizaren igortzietatik azkena dalako, baita bizitzaren azken aldean emoten dalako. Lenengoz, *Bateoan* edo ugutzaldian igorzten gaitu Eleizak; bateoa-bidez bere ateak zabaltzen dauskuz. Gero Kristo'ren alde gogor jokatu ta kistar bideari sendo jañaitzeko, bañiro igorzten gaitu *Sendatzen*. Bidean artu geinkezan zauriak osatzeko daukagu *Autorkuntza*. Buñukan galdutako indañak eskuratu ta gure gogoa zeruko janariz indartu ta gordintzeko *Eukaristia*. Buñukaldirik gogoñena azkenengoa yaku, ta buñuka ori irabazi ta betiko bizitzan zartzeko, daukagu *Azken-igortza*.

Jauparien otoi ta orio igortziz gexorik txarto dagona

sendotzeko, Jesukristo'k ipiñi eban ikurtona da, ba, *Azken-igortza*.

— *Nok ipiñi eban azken-igortza?*

— *Jesukristo gure Jauna'k ipiñi ta Jakob belduak iragañi eban azken-igortza.*

Eztakigu noz ipiñi eban Jesukristo'k sakramentu au. Ikaslak, gexoak igortzi ta osatzera bialdu ebazanean, adirazi euskula beintzat, diño Trento'ko batzañak. (TRIDENT. SESS. XIV. CAP. I). Iragartzalea Jakob beldua izan zan: *Zuetako norbait gexorik al dago? Eleiz-jaupariak deitu begiz, ta oneik aren alde otoi begie, Jauna'ren izenez orioz bera igortziz. Oriela otoi uste-tsua gexoa sendotu, ta Jauna'k eregiko dau; ta oben egin ba'dau, azketsiko yako.* (JAKOB. V). Itz oneitan dakusguz ikurton-geya, emolea ta ondorenak.

IKURTON-GEYA. Orioa da; zugatz-orio ta onetarakoxe Eguen Gurenez Gotzañak, edo Aita Santuaren ordez jaupariak, bereziki onetsi ta bedeinkatua. Bein bañia onetsi ezkerro, zaña ezta erabili bear, estualdien baten-edo izan ezik. Orio onetsiari, onetsi bakoa ezañi leikio, baña beti onetsia baño gitxiago.

— *Nun igortzi bear da gexoa?*

— *Begietan (betazaletan, begiak itxita), belarrietan, suuñean, espanetan (espanak itxirik) eta esku ta oñetan egiten da igortza.*

Oñetako igortza edozer zio astun bide dala, laga leike. Estualdian sentzun bat edo obeto bekokia, igortzea naikoa da; baña eriotzak astirik emon ezkerro, enparau sentzunak be igortzi bear dira.

Igorzkeran esaten diran itzak dira: *Igortzi deun onen bidez ta bere eruki samur - samuñez, parkatu begitzuz Jauna'k begiz, belariz... egin dituzun obenak.* Estualdian beste oneik erabili bear dira: *Igortzi deun onen bidez ta bere eruki samur - samuñez, parkatu begitzu Jauna'k utseite oro. Amen. Olantxe.*

Osakai bikaña jaří euskun Jauna'k azken igortzan; gure arimeari gaitza datorkion tokian, antxe ipinten dausku, ba, azken igortzak osagaía be. Gorputzaren senak edo sentzunak dira gogoaren gaitz bide, ate ta sartulekuak. Bada obenak oi datoz arimara, edo ikusiagaz, edo esanagaz, edo jan-edanagaz, edo ibiliagaz, edo ikutuagaz. Begiak, belaríak, suuía, miiña, aoa, eskuak eta oñak dira obenerako bide. Ta bidenabar, obenak gexotuta izten ditu sentzun oneik. Emetik datoz arako oben-ari ugariak eta sustrai zitelduak. Ikusgurea, entzungurea, esangurea, gozogurea, ta leungurea, gorputzari bere sengarí gustietan naya ta griña ta ífíts ta lera txarí emoteko. Ta gurari ta ífíts gaizto oneik gorputzean indar ta aginte geyago, ta gogoa zeruko gauzetarako makalago, jausiago ta argalago aurkitzen da. Obenak itxitako kutsu, loíratz ta eío gaizto oneik osatu, ta arimari goi eskar edo graziaren indarí emoteko, dogu bada *Azken-igortzia*.

EMALEA. Berenez gexoa datzan eriko abade buru edo txauburua da azken igortzalea. Baña bear izanean, edota txauburuaren axu ta baimenaz, beste edozein jauparik igortzi leike.

Abade edo jaupariak gexoa igorzten diarduan bitartean, an dagozanak Andra Maria'ren ařentzak edo letaniak esan begiez. Ez ba, jaupari ta laguntzalea bakańik itxi, ta alde egin, batzuk oi dabenez. Gexoaren gelan gelditu ta otoitz egin, ainbat ondoen azken-igortza

artu ta eskar ta laguntzarik ugarienak Jauna'ren eskue-
tatic jadetsi dagizan.

ONDORENAK

— *Zetarako da Azken-igortza?*

— *Iru gauzatarako da Azken-igortza.*

LENENGOA. *Egindako bizitza okeñaren aztañen eta orbanak kentzeko.*

Bizitza gaiztoak ariman izten dituan kutsu ta aztañenak asko dira: Lenengoa, gaitzerako lera, makurtasun eta zaletasuna. Gexo asko ta astunak igaro dituan gorputza, gexobereago, edo edozein gaitzek artzeko gayago gelditzen dan legez, obeneratuta egon dan gogoa bere, lengo obenak parkatuañen, bañietarako leratsuago ta makuaño, ta oben-zaleago gelditzen da. Ta obenberatasun au kendu, edo beintzat gitxitu, egiten dautzaz Azken-igortzak.

Bigañen aztañena, onerako naña, nagia, gogo epel ta makala da. Gaitz ondoan gorputza zurbilduta, jateko gogo barik gelditzen da. Jagi ta ozta dabil. Jearita egoten be nekatu egiten da. Ez jateko, ez lo egiteko, ez itz egiteko, ez ibilteko, ez bañe egiteko, ezetarako adorerik eztauka; ezertxok be eztautsa gogoa argituten; senetik urtenda izten dau gexo-eriak. Beste ainbeste jazoten yako ba, arimeari be, bere gexo ondoren. Onerako epel, nagi, nañaz ta gogorapen txañak aye-natzeko aul ta makal gelditzen da, oben astunak parkatu ondoren. Eta Azken-igortzak kutsu ta aztañen ori kendu ta onerako bizkortasun ta bañuko poz-alaitasuna emon oi dautsoz.

BIGARENA. *Arerioaren zitzaldi edo tentaziñoa garaitzeko, arimeari indara emoteko.*

Ba-dirudi gure arerioak eriotzaldian aalak-al egingo dituala gure arimak arapatzeko. Ala diño beintzat Jon goizpargile (ebanjelari) deunak: *Væ terræ et mari, quia descendit ad vos diabolus, habens iram magnam, sciens quia modicum tempus habet.* (APOCAL. XII). «Begira luía ta itxasoa: gaizki doya zuetzat, bada zuetara jatxi da deabrua asafe aundiaz, jakiñik aldi gitxi daukala». Gustiak zirikatzen ditu deabruak, baña amofatuago bizitzaren azkenetan dagozanak. Ba-daki, ba, aldi gitxi daukola; astirik galtzeko eztaukola; laster amaituko dala aren bizitza; ta ondo edo txarto amaitze ofetan dagola gexo arentzako betiko gora-bera, betiko zoriona edo betiko nekea. Orduan eskuari eragiten derautso: orduan bere antze ta maltzurkeri gustiak erabilten ditu: orduan sakukoak ateraten ditu, ta ikusirik eskuartetik duakekiola, dakizan jokoak jokutzen ditu.

Orduan bizi gogora ekarten dautsaz kistañari, bere bizitzako oben astunak. Baita Jaungoikoa'ren asafe zofotza bere. Baita on izateko euki ta alpeñik galdu dituan eraak bere. Ofetarako bere gogo bañuan somau izan dituan goi-argi ta bultzakadak; entzun dituan itzaldiak; gaizki egin dituan eta ondo egin eikezan autorkuntza ta Jaunartzeak; ta gexo gaxoa ilundu, lañitu, estutu ta parkaziñoaren ustea gustiz galdu eragiteko asko diran beste gomuta bildurgañiak.

¿Zer beañago, bada, orduan gexo efukañiak, adime-neko argia ta gogo indara baño, etsayaren ziltzaldiak garaitu, biotza Jaungoikoa'rengana jaso, ta zeruko atietara gogoa biurtzeko? Onetarako da, ba, Azken-igortza: eriotzako aldi estuan arimeari indara emon ta gogoa jasoteko, Jaungoikoa'gan uste ona galdu bagarik,



gorputzeko gaitzak eta arerioaren ziltzaldiak igaro dagizan.

IRUGAĒENA. *Arimearen onean ba-da, gorputzari osasuna emoteko.*

Olantxe erakusten dausku Eleiz Amak. Osasuna ezta Azken-igortzetik datorkigun lenengo ondasun eta ondorena. Ezta oġetarako lenengo ta bein ipiġia Azken-igortza. Baġa gorputz-osasun ori arimeari kalteġari ez-payako; osasuna arimeari ondo ba'yuako, baita gorputzaren osasuna be, ba'damosku ikurton edo sakramentu onek. Eta osasun ori yatorku ez igortziaren indaġez, ezta Jauna'ren alatz edo mirariz be; lenengo, gogoa arindu ta lasaitu ezkeru, gorputza be bizkortu egiten dalako baġo, ta gero, Jauna'ren laguntza bereziz edo osalariak gexoa ta osakayak obeto ikusi ta osakayak be euren egitekoa obeto egingo dabelako ta abar.

—*ġNortzuk dira Azken-igortza artzeko beartuak?*

—*Ilteko aġiskuan gexorik dagozan ezagueradun kristiġauak dira Azken-igortza artzeko beartuak.*

ILTEKO AġISKUAN GEXORIK. Eriotza dakarken gexoa ba'da, Azken-igortza artu leike. Eriotz aġiskuan jarteko baizen astuna izan ezkeru, Azken-igortza artu beaġa dago. Berebat eriotza zartzarotik ba'letor be; beraz zaġen-zaġez kikilduta dagozanak, beste gexo barik be, Azken-igortza artu leikie. Eriotzak gexotik edo zartzetik etoġi bear dau, ikurton au artu al izateko. Oġegaitik etxake Azken-igortzirik emoten, ez gudaldi gogoaġean sartzen diranai, ez urkamendian erailten dituanai, ezta sein-egiteko dagozan emakumeai be.

EZAGUERADUN KRISTIġAUAK. Ezaguerara eldu eztiranak, edo ezaguera gustiz galdu dabenak, ezin leikie

Azken-igortzik artu. Beraz adikuntzaldira edo ezaguerara eldu eztiran umeai, ta bizi gustian tentel, ero edo zoro izan diranai, ezin leikioe Azken-igortza emon. Ezaguerara eldu ete diran ala ez, eriotzako aiskuan ete dagon ala ez, edo bizi ete dan ala ez, badezpada ta ezpai onetan, baldiñez emon bear da Azken-igortza. Umeai, saspi urtera eldu ezta be, ta bein be autortu ta Jaunartu ezta be, oben egiteko gai ba'dira, ona ta txara zer dan jakiteko beste adimen argi ta ezaguera ba'dabe, Azken-igortza emon bear yake. Baita bapatean konorgetuta gelditzen diranai be, lendik eskatu izan ba'dabe, edo buru-jabe izatera, eskatuko ebela ziñez uste ba'legi. Baita argi-aldiak daukezan zoroai bere.

—*Azken-igortza artu nai eztauanak obenik ete dagi?*

—*Azken-igortza zeruratzeko bear-bearekoa izan ezaren, ezin leike inok be ezetsi; ta arduraz ta alegiñez leyatu bear da, gexoak ezagueradun eta buru-jabe diran artean artu dagien. (J. C. 944).*

Azken-igortza artu nai ez izatea, berenez oben astuna danik ezin esan leike. Zabarkeriz lagatzen ba'da, oben ariña izango da. Ezetziz, arbuyoz edo aintzat artu ezaz itxiko ba'litz, edo artu nayeza beste batzuentzako obenpide izango ba'litz, oben astuna izango litzake. Ta au gure artean jazo leiteke.

—*Zelango obena dagi, Jaungoikoa'ren grazian egon barik Azken-igortza artzen dauanak?*

—*Jaungoikua'ren grazian eztagoala jakiñik, Azken-igortza artzen dauanak, oben astuna egiten dau.*

—*Zer egin bear dau beraz oben astunean dagonak Azken-igortza artzeko?*

—*Oben astunean dagonak autortu egin bear dau Azken-igortza artzeko, ta ori ezin ba'lei maite-damuz damutu bedi.*

Azken-igortza ezta bateoa ta autorkuntza legez, obenak azketsi ta lenengoz eskaña emoteko ipiñia. Bizien ikurtona da; beraz artzera doazanak bizirik, Jaungoikoa'ren eskar ta adiskidetasunean jañirik, egon bear dabe; ta oñetarako autortu edo autortzeko betarik ezpadabe, maite-damuz garbatu egin bear dira. Baña ez autortu, ez maitasun-damura ezin eldu ba'lira, bildur damuaz beintzat Azken-igortza artu ezkeru, oben astun gustiak parkatuko litzakioez.

Ikurton au etxake emon bear setatsu ta damurik bage oben astunean dirauenai; onetzaz ezpairik ba'lego, baldiñez emon bekioe. (J. C. 942).

—*Zeinbat bider artu ete leike Azken-igortza?*

—*Gexo-aldi bertan bein bakañik artu leike Azken-igortza.*

Baña gexoa sendatuko ba'litz ta bañiro eriotz - añiskuan, naiz dala lengo gexoagaz naiz beste bategaz, jañi, eriotz-añisku oñetan jarten dan beste bider artu leike ikurton au.

IL DIRALA DIRUDIENAK. Osalariak irakatsi ta jazokun batzuk bayesten deuskunez, gure ustez norbait il dala irudi izanañen, benetan ilteraño, arimeak gorputzetik alde egiteraño, aldi edo denpora zerbait joaten da. Luzaroan gexorik egon diranetan, ordu erdi bat beintzat.

Ta bapatera ilten diranetan, ordu bi edo geyago. Onei bere, konorgetuta gelditzen diranai letxe ta arei emoten yaken eran, Azken-igortza emon beara dago. Baita benetan ilda dagozala uste izanaŕen be, bapatera ta eleizakoak, naizta zabarkeriz, artu bage il ba'dira, abadeari deitu ta Azken-igortza emon bear yake. Aalak-al egin bear ditugu azken aldi onetan, txerenen atzamar artetik arimak atara ta zerurako bidean jarteko. Ez, ba, egundo norbait ilda aurkitu dogula-ta, bertan bera itxi; ots egin berialaxe uŕenengo dagon jaupariari ta beronek jakingo dau zer egin.

GERTAKIZUNAK. Azken - igortza emoteko gertakizunak oneixek dira: Maitxo bat zapi zuriz estalita. Ta bere gañean; gurutze bat kandela bien erdian; ur be-deinkatua; azpiltxo baten bost edo sei kiŕu edo algodoi boiltxo; ogi mamiña ta eskuak garbitzeko ura.

JAZOKUNAK

GARAIZ IBILI. Gure artean ezagun-ezaguna izan zan gizon jakintsu ta eleiztar zintzo Eleizalde'tar Koldobika'k, azkenengo gexo - aldian bere ondoan eukan Josu-lagunari egiten ei-eutson: «Tira, Aita, eriotzaldiko otoyak egin bear daustazuz —¡Bai zera! eztozu ondiño oŕen premiñarik. —Bai, Aba, nik gauza oneik astiro ta neure buru-jabe nazala egin nai ditut. Ez gero, azken unetxoan, aŕapataka ta egin-egite alde».

Olaxe gertau bear dira kistaŕak eriotz aldirako.


ILTEKO POZA. Suarez, Josu-lagun jakintsuak, ilten egoala esaten ei eban: «Eneban uste onen gauza gozoa zanik eriotza».


KISTAR LEGEZ IL. Villars eritxon gudari burua Malplaket'en zaurituta jausi zan. Txaferuntz joyala ikusirik eleizakoak eta azken igortza eskatu ebazan. Bere lagunak eskutuan ekañi nai eutsoezan. Baña berak erantzun eutsoen: —«Ez, agirian artu nai ditut; nire mutiak gudari legez ilten ikusi ezpanabe be, beintzat kistar legez ilten ikusi nagien. Al dala bizi ta il kistar legez egin; baña gizon legez bizi izan ba'gara be, beintzat il, kistar legez il gaitezela».

EZ GERORAKO ITXI. Bernardo deunak Malaki deunaren bizitzan urango jazokun au edesten dausku. Baigor'ko lekaidetxe inguruan bizi zan andra batek, ilagiñik egoala, Malaki deunari deitu ei eutson. Joan ei zan berialaxe Malaki deuna gexo arengana, ta bere onu ta itz gozoekaz aren gogoa poztu ta argitu ondoren, azken-igortza emoteko gertakizunetan asi zan. Baña gexoaren etxeakoak ekin eutsoen esaten, estualdia joan yakola - ta, biamonerarte itxi egiola. Gogoaz aurka baña... etxekeen esanetara jañi zan deuna. Gexoa onetsi ta bere lagunakaz etxetik alde egin eban. Andik laster jango istilu ta iskanbila! Bañero ots egin eutsoen Malaki deunari. Baña gexoa ilda egoan. Orduan eskuak gora jaso, ta andre a azken-igortzi barik il zalako erua bere buruari ezarten eutson. «Uts egin dot, iñoan sotinka, neuk uts egin dot, ez berak; bada berak azken-igortza artu nai eban». Gau osoa igaro eban gorputz-ilaren ondoan negar-malko biziz Jauna'ri bere alde otoi egiñik, eta au berau egin egiela beste enparauai eskaturik. Jauna'k entzun eban bere otoya. Egun sentian ila bizitz-agiriak emoten asi zan; begiak zabaldu ebazan, eta Deuna ezagutu ta agurtu eban, inguruko gustiak arituta geltzen zirala. Malaki'k, Jauna'ri esker egin eutson, eta berpiztua azken-igortzi eban.

Boíomeo'tar Karlo deunak, sañi be sañi, aitatzen ei eban jazokun au, eleiztañok garaiz ta arduratsu ibili bear dogula gexo-aldian adirazteko.

Gizakerizko atxaki ta bilduñak alde batera itxi, ta gexoai, ezagueradun diran bitartean — onena eleiza-koekaz batera — Azken-igortza artu eragin.





XIII IKASKIZUNA

ABADEGINTZA

Abadeak. — Zetarako dan Abadegintza. — Nok eta noiz ipiñi. — Meza esateko almena. — Obenak azketsi. — Beste almen batzuk. — Irakatsi. — Onetsi. — Bitarteko. — Abadegintzaren ondorenak. — Jauparien egin beařak. — Garbitasun legea. — Abade beafa. — Abadegeyak. — Itzal eta lotsea.

ABADEAK. Eři gustietan izan dira Jaungoikoa'gazko artu-emonak eta egin-beařak zuzentzeko gizon bereziak; gizon aukeratuak; eta zeregin oni bein-beñean datzakozan gizonak. Gizon onei deritxoe abade edo jaupariak. (*Jaupari* itza, *jaun - opa - ri* 'tik dator ta abadien egikizunik gorengoena adirazteko aukerakoa yatzu). Jaupariak Jaungoiko ta gizonen bitarteko dira.

Jauna'ren gogoa ta aginduak gizonai iragaři; ta gizonen opariak Jaungoikoa'ri eskiñi; gizonen alde otoitz egin; giza-gaiztakerien parkaziñoa Jaungoikoa'gandik jadetsi. Ořa or jaupari-egizuna. Ta egikizun arduratsu onetarako, gizonik onenak eta Jaungoiko-zalienak; eu;

ren buruagaz aztu ta Jaungoikoa'ren aintza ta gizonen osasuna bilatuko eben gizonak aukeratzen leyatu izan dira eñi gustiak, baita siñesbakoak edo jainko-aizunak ziñestu ta gur egin izan dituenak bere.

Lege Zafean Aaron eta bere oñordekoak aukeratu ebazan Jaunak zeregin onetarako. Baña Aaron Jesukristo'ren irudia baño etzan. Eta berebat Lege Zafeko opariak be, Jesukristo'k eskiñiko eban opariaren irudi ta kerixea baño etziran. Benetako jaupari bakaña, Aita Jaungoikoa'k Melkisedek'en eraz aukeratu ta ipiñitako jaupari nagosia, Jesukristo gure Jauna izan zan. Gurutzea opařitzat ebala egin eban Jesukristo'k bere buruaren eskintza. Gurutzean josi eban gure zor-agiria. Gurutzean ixuri eban Odolaz, garbitu euskuzan oben-loi ta orbanak. Gurutzetik iragañi euskun Lege Baña, maitasun-legea.

Baña etzan ase bein bakañik bere burua opalduaz, ta bein bakañik gure obenak parkatuaz. Gurutzeko opariaren irabaziak guk eskuratu al izateko, ta bañiro egingo genduzan obenak guri parkatzeko, bere oñordekotzat aukeratu ebazan Belduak. Eta onei emon eutsen, eurok eta euron ondorengoak, gizona dan arteraño, Jesukristo'ren Gorputz eta Odola eskiñi ta oben oro azkesteko almena. Belduen oñordeko dira Gotzain jaunak eta onei yagoke Abadeak igorzteko eskubide ta almena.

Jaupari ezin leike edozein igortzi, eñetarako Aaron-ek bezela, Jaungoikoa'ren deya dauana baño. Ezta, ba, ikurton au bear-beañezkoa, norberen gogozkoa, edo obeto esateko, oñetarako Jauna'k autetsi dituanena baño.

—Zetarako da abadegintza deritxon Sakramentua?

—*Eleizaren ordezkook, Abade ta onein urango abadegeyak igortzi ta eleizgizon egiteko da Abadegintzako Sakramentua.*

Abadegintzan sasaki mala dagoz: iru nagosiak eta lau txikiak. Gauza gustiak eraz ta neufiz egin izan ditu Jaunak. Bakoitza berari dagokion tokian eta egikizunetan ipiñi izan ditu, ta danak, bakoitzak bere bidetik ezertariko naste ta alkar-jote bage, Jaun berberak jafitako elburu edo azken batera joten dabe. Egokitasuna ta edertasuna agertzen dira Jaungoikoa'ren lan gustietan. Enparau gauzetarako maladia, baita Eleizan be, ipiñi eban.

Gorengo malan GOTZAINZTA dago. Abadegintzaren *kopurua* Gotzaintzan aurkitzen da. Gotzaiak bakaik emon legike abadegintzako ikurtona, ta berenez gotzaina da *sendatzaren* emolea be. Gotzainen-gotzain, baiz, ta Kristo'ren ordezko ta Eleizaren buru, Erromako Gotzaina da. Gotzain agurgari oni emon eutson Jesukristo'k ardi ta bildotsak, eleizgizon eta osterantzekoak, zaindu ta zuzentzeko ardurea ta eskubidea.

Gotzainen urango, jaupariak datoz. Gotzainen ordezeuron ardurapeko eleiztaiak zaindu, ta Jesukristo'ren Gorputz eta Odol-oparia eskiñi ta obenak parkatzeko almena yagoke.

DIAKONOTZEA, da jaupari edo abadetzaren urango malea. DIAKONOAK, ordezko, laguntzale, otsein esan gura dau. DIAKONUAREN zeregiñak dira meza nagosietan Gotzain jaunai ta Abadeai lagundu. (Au dala-ta euskera garbiz *jaupaltseña* deritxo diakonuari). Goizpar edo Ebanjelioa abestu. Beste inork ezean, Jauna emon, eta bateatu ta itzaldiak egin; baina bi onetarako, gotzainen axu edo baimen berezia bear dabe.

SUBDIAKONOAK eleizkizunetan, batez be meza nagosian, diakono'en mendeko ta laguntzale dira. (Orixegaitik deritxe *jaupaltseñorde*). Ostia, kaliza, ardao ta ura, ta beste mezatan bear diran gauzak, diakonuai eskura emoten dautsez, ta meza nagosietan Epistolea edo Idazkia abesten dabe. Onein ondoren datoz beste lau mala txikiak. *Meza-laguntzalea*, meza erazoteko. *Etsai-kentzaleak*, etsaya eleizatik arroteko. *Irakurleak*, Goizparki ta Idazki edo Epistolaz gañerakoa elizan irakurteko. *Atezañak*, eleizako ateak zaintzeko. Gaur kistar lauak egin oi dabez lenengo gizaldietan eleizgizonen esku ta ardurapean egozan zeregiñok. Etsaikentze edo txonoratzea, bañiz, abadien ardurapean dago.

Eleiz-gizon izateko asipena, gotzain jaunak jaupari izan gura dauanari ulea mostu ta koroï egitea da. Ulemozte onegaz beste enparau gizonakandik ta erbeste onetako azi-orazietatik berezita, aldenduta, gelditzen da jauparitzarako Jauna'ren deya bere bañuan somau dauana.

Oña or Eleiz-maladia berengotik gorengoraño, ulemoztutzetik gotzaintzaraño. Maladi oretan abadegintza ta diakonotza ikurtonak dira: gotzaintza, ete dan edo ez, ezpai gogoñak erabili izan ditue, baña bayetz dirudi. *Subdiakonotza* ezta ikurton. Ta ainbat gitxiago beste lau mala txikiak; abadegeyak Jaungoikoa'ri opalduta dagozala adirazteko otoizketa ta eleizerankuntzak baño eztira.

— *Nork eta noiz ipiñia da abadegintza?*

— *Abadegintza Jesukristo gure Jaun berberak ipiñia da.*

Eguen Gurenez, berak Lege Bañiko jaupari nagosi

legez, lenengo meza emon ebanean, Belduai beste ainbeste egiteko eskubidea emon eutsen, esanaz: *Au egingo dozuen bakotxean, neure gomutaz egingo dozue*. Itz onein bidez ogi ta ardaoa bere Gorputz ta Odol biurtu ta Jaungoikoa'ri opaltzeko almena emon eutsen Jesus'ek Beldu ta euron oñordeko gustiai. Ta obenak parkatzeko almena, bañiz, geroago, ilen artetik piztutako aratsaldean, danak bapatera egozala agertu ta esan eutsenean: *Goteuna artu egizue. Obenak azketsiko dautsezuezanai, azketsiko yakez; ta lotuko dautsezuezanai, lotuta geldituko yakez*.

ABADETZAREN ALMENAK

MEZA ESATEKO ALMENA. Eskubide ta almen bi yagoz abadetzari, gizonen itzez adirazteko baño be arigariago ta sakonagoak. Lenengoa, meza esateko almena. Edozein jauparik, naiz ona ta deuna, naiz gaiztoa ta deungea dala, bost itz esanaz bakañik, Jesukristo Jaungoiko ta gizon egiazkoa, noznai zerutik eratzu ta opamayan Aita Jaungoikoa'ri eskintzeko almena dauka. Guraso deunak, arituta, zer esan eztakiela gelditzen dira, eskubide ta garaitasun au goraltzeko. Euron esakun batzuk aitatu nai doguz, eleiztañak jaupari ta enparau eleizgizonak aintzat artu, ta gure erietan oñartean izan dautsen lotsa ta begirunea, emetik aurrea be izan dagioen Jaungoikozko gizonoi.

Gauza andia ta arigaria izan zan Josue'ren otsera eguzkia geratzea. Baña ori baño andiagoa ta arigariagoa da jaupari al izatea. Gorago eltzen da, zeruraño bertaraño, diño Krisostomo deunak. *Ad cælos usque pervadit*. (DE SACERD. 1, 3). Josue'k guri argi dagiskun eguzki au geratu eban; jaupariak *zuzendasun-eguzki*

berbera geratu ta bere eskuetara dakar mezatan. Josue'k bein geratu eban eguzkia; jaupariak egunero ta egunean saritan. Josue gizon ona ta Jaungoikoa'ren adiskide bafu-bafukoa zan; jaupariak ona izan ezta be, almen izugafi ori dauka.

Ludian izan dan jazotekorik eskutuena ta Jauna'ren eskua ta ala, bizien agertzen dauskuna, Juangoiko-Semearen gizakundea da. Andra Maria'k *bayetz* esanaz batera, bere sabel garbian Jaungoiko-Semea gizon eginda gelditu zan. Jaupariak mezerdiko itzak esanaz batera, Jaungoiko-Semea bere eskuetan agertzen da; ogi ta ardaoak euron izakizuna galdu, ta ogi ta ardao ordez Jesukristo berbera jarten da Eukaristian. *Vere veneranda sacerdotum dignitas, in quorum manibus Dei filius, velut in utero Virginis incarnatur.* (AUG. HOM. 11). Agurgafia, ziñez, jauparien garaitasuna, bada Andra Maria'ren sabel garbian legez, euron eskuetan bere, Jaungoiko-Semea gizon egin doya.

Itz oneik azalduaz, zerbait ausartuago ta goragafiago dirausku ondiño Ferrer'tar Bingen deunak. «Andra Mari zorientsuak, diño, bein bakafik zabaldu-azo eban zan zeruak; jaupariak, meza gustietan. Andra Maria-rena baño be geyago dala dirudi jaupari-almena; Andra Maria'ren sabelean, ba Kristo ilkoña, eriozkoña sortu zan; abadearen eskuetan il eziña ta sorgor edo jasan (sufridu) eziña. (SERM. 1-IN FESTO CORPORIS CHRISTI). «Aingeruak baño gorago jafi zaitue, dirautse Bernardo deunak. Bada gizona erosteko aingeruak beraganatu ta beretu etzitian legez Abafan'en jatofia baño, bere gorputza ta odola donetu edo mezerdian ogi ta ardao bere Gorputz ta Odol biurtzeko almena be, gizonai emon eutsen, eta onein artean jaupariai bakafik». (SERM. AD PART. IN SYM.)

«Etzare gizon utsak, Jaungoikozko gizonak baño». *Qui sacerdotem dicit, divinum prorsus insinuat virum.* (ANBORTZ. DEUNA. CHAIGNON MED. SACERD. 1). Jaungoikoa gizon artera ekañi ta gizona Jaungoikotzeko egikizuna esku-artean darabiltzuenok, diñotse Nazianzo'ta Gergori deunak. *Deum existentem et deos efficientem.* (ORATI. APOL.) Esakun oneik eztira geyegizgoak. Siñesmen argiz gauzak aztertu ta sakondu ezkerok, itz oñeik adirazten dabena, egin-egiñean jazoten dala dakusku. Jauparia Kristo'ren ordezeko agiria da, ta Jesu-Kristo gure Jauna'ri berenez dagokiozan eskubide ta egin-beañak, jaupariari, Kristo'ren emokunez ta aginduz, dagokioz.

Txorta baten legez batzen ditu Kasiano'k guraso deunen goralbenok, jaupariari dirautsola: «¡O jaupari Jaungoikozkoa! Zeruari begira ba'dayozu, zu gorago zagoz: Eguzkiaren, ilargiaren, eta izañaren argi ta edertasuna begiz jo ba'daizuz, zu argiago ta edeñago zara: Begira, aingeruen izate jaso ta bakana; bada zu jasoago ta bakanago zara: Begira, jaun altsu ta aundikien nagositasuna; bada zure al izatea oñenen ondoan altsuago ta jaikiagoa da. Jaungoikoa, gauza gustien Egilea bakañik da zu baño aundiago ta bikañago». *Solo Deo et creatore, tu inferior es.*

Zuzenki esan geinke ba, lñaki ziñopa edo martiri deunaren aoz: *Sacerdotium est apex bonorum omnium, quæ sunt in hominibus.* Gizartean diran gauza on gustien erpiña da abadetza.

Garaitasun au dagokio jaupariari meza esale denez. ¿Ta oben-parkatzale denez?

OBENAK PARKATZEKO ALMENA. Auxe da Jaungoikoa'k jaupariari emon daroatsoen bigañen *almen* añaña: Bere ordezek ta izenez obenak azketsi al izatea. Obenak

parkatzea Jaungoikoa'ri berari dagokio. *Zure obenak parkatzen yatzuz* — iñotson bein Jesukristo'k elbaridun gexoari. Ta judutar irakasleak izututa baizen asafez iñoen: ¿Nor da au obenak parkatzeko? ¿Nok parkatu leikioz gizonari bere obenak, Jaungoikoa'k izan ezik? Egia, Jaungoikoa'k baño ezin leikioz gizonari bere gaizki egiñak parkatu. Ez aingeruak. Ez deunik gorenguenak. Ez gizagurenak. Gizarteko jaun aundiak bere ez. Jakitunak bere ez. Aberats-aberatsak bere ez. Jauna'renak dira obenaz ausitako aginduak. Jaungoikoa obenaz iraindu ta naibagetua. Beraz Jaungoikoa'ri bakar-bakarrik dagokio berari egindako irain ori parkatzea.

Beste iñok ezin legiken gauza aundi au egiteko almena ta eskubidea emon dautse ba Jaunak jaupariai. Jaupariai esaten dautse Jesukristo'k eta bere ordeztu ta aoz Gotzainak, abadegintzan: *Artu egizu Espiritu Santua: Zuk ludian parkatzen dituzun obenak, zeruan be parkatuak izango dira; ta zuk emen lotuten dituzun obenak, zeruan be lotutzat etsiko dira.*

Ona, ba, jauparia Jaungoikoa'ren ordeztu ta auzirik astunenean epaikari jarita. Zerua ta luña bere zain dagoz. Oben oro ta obendi gustiak, diranak dirala, lenengo malatik gorengoraño, bere artaldea laratzen dauan artzainetik asi, ta Kristo'ren ordezkoraño gizon danak, bere epaipean dagoz. Beronek azkesten ba'ditu, zeruan be azketsiko dira; beronek parkatzen ba-dautse, zeruan bere parkatuak izango dira; beronek gaiztesten ba'ditu, oster, zeruan be gaiztetsiko dira; beronek parkatzen ezpadautse, zeruan bere eztautse parkatuko. ¿Ez al da au almen arigafia? Onen antzeko almenik ¿ba ete da gizartean? ¿Noren ondoan jariko

zaituet? — diñotse Anbortzi deunak jaupariai (1). Éregeren ondoan? Éregeari gorputza menderatzen yako; zuoi, gogoia. Éregek, Napoleon aundiak esan oi ebanez, gorputzen gain dauka bere eskubide ta aginpidea; zuok, arimen gain. Éregen ondasunak úfe ta zidaña dira; zuen ondasunak, Jesukristo'ren Odol ta goi-eskañak. Éregeren aginbideak bere mugak daukaz; zuonak eztau mugarik, goiko erpiñetatik beko bañeneraño, ta baster batetik besteraño eltzen da. Érege bera obenik egin ba'dai, zuen oñetan jañi beañean dago; zuek epaikari ta bera epaitua. ¿Nor ete da ba geyago, epaikaria ala epaitua? Berunak ete dauka úfeagaz zer ikusirik? (2). Bada úfetik berunera baño alde aundia-goa dago jauparien *al izatetik éregen al izatera*. Abadiena gogoagazkoa; éregiena, gorputzagazkoa.

BESTE ALMEN BATZUK. Jauparien eskuetan ipiñi ebanzan Jesukristo'k ikurtonak. Ikurtonak zerutar bizitzaren ituñi dira; bateo bidez jayo; sendatzaz sendotu; obenaz galdutako bizitza autortza bidez biurtu; Eukaristiaz janaritu; azken-igortzaz eriotz-aldiko buñukarako igortzi; eleizakoekaz azken-biderako sendotu. Eleizkizun gustiak jauparien ardura ta zuzentzapean dagoz. Éri gustien ordeez ta izenez otoi egin daroa. Itz baten, geroago zietzago azalduko dogunez, gizonen Jaungoikoa'gazko egikizunak eta gizonari buruz gure Aita Goikoak dituan asmo onak, jauparia bide dala betetzen dira.

IRAKATSI. Ona emen jauparien eskubide ta egikizun bikañenetako bat. Jaupariak beti diardu irakasten, itzez ta egitez. Eme-emeki, zarata gitxigaz, geyen'ba-

(1) De Dignit. Sacerd. c. 2.

(2) Joan Crisost. De Sacerd. 1. 3.

tez beintzat, sirimi-antzera gizonaren gogo-biotzak ezotu, ta bigundu, ta oitura ta onoimenai indaía artu eragiteko giñoan gertatu oi ditu. Zafai ta gasteai, umeai ta gizon elduai, aberatsai ta beartsu ta txiroai, jakintsuai ta ezjakiñai, mendu ta era gustiko gizonai daroatsez kistar-ikasbideko egi sakon gordin-gordiñak, eta bakoitzaren egin-beaíak; eta erakutsi, bakoitzak eíazen eta argien ulertuko dituan eran. Irakatsi, bañiz, Kristo'ren ordeztu ta aginduz, Irakasle bakaíaren ordeztu ta aginduz. «Zu zareana izanda, zegaitik joaten zara txauburu gixajo oíen itzaldiak entzutera? — iñotson bein bere lagun batek Donoso Kortez, diplomatiko ospetsuari.

—¿Zegaitik joaten nazan diñostazu? Ba txauburu ostean eta bere agoz itz egiten, Jesukristo berbera ikusten dodalako joaten naz, erantzun eutson gizon zuur siñesmen bizidun arek.

Irakatsi au gizartean izan ezpalitz, ¿nungo zingirartean ez ete zan onezkero gizadia ondatuko? Alako gatza artuta bere, oíen usteldurik agertzen bada gizadia ¿zer izango ete zan bera-beragan, griña tartean bizi izan ba'litz? Gure neufiko basapiztirik etzan, ausaz, abere artean idoro al izango.

ONETSI. Eleiza bizi-gogo da. Kistaíen onerako diran gauza gustiak onesten ditu. Etxe, baratz, baster, janari, edari, soñeko, ibilpide, egabide, jayotz, ezkontze, gexo, ilak, ilobi, oñaí, ikufin... tira, gizonak bere onez erabili leiken oro. Betoz gero gure arerioak Eleiza iluna, ta laía, ta bizitz-etsaya dala esaten. ¿Noiztik edo? Ta gauza gusti oneik onesteko eskubidea jau-pariak dauka.

BITARTEKO. Jaungoiko ta gizonen bitarteko jaírita dago, ba, jauparia. *Medius stat sacerdos inter Deum*

et naturam humanam. (JOAN CHRISOST. DE SACERD. VI, c. 4). Gizonen otoi, eskari, bear izan, opari, egintza on, baita txarrik be, Jaungoikoa'ri aurkeztu daroatsoz, ta Jaungoikoa'gandiko eskar, mesede, laguntza, parkaziño ta onespenak gizartean zabaltzen ditu. *Illinc venientia beneficia ad nos deferens, et nostras petitiones illuc referens* — diño oso polito Krisostomo deunak. Jakob'en eskilara - maladia legez da; betik gora gizonen eskari ta egintzak Jaungoikoa'gana jasoten ditu, ta goitik bera Jaungoikoa'ren eskar ta mese-deak eratzi.

Ta bitartekotasun onek ludi zabalean diran gizon gustiak artzen ditu. Ta ez ludi onetakoak bakarik, baita garbitokian dagozanak bere. Gizadi osoa bere ardurapean jarita ba'lego legez, edo gustien aita ba'litzanez, alantxe Jaungoikoa'ren ondora eltzen da. (IBID.)

Ez uste izan, bañiz, Jaungoikoa'k eztauala abadien bitartekotasun au aintzat artuko. Ez al dira jaupariak Jesukristo'ren ordezeko? Ez al da Jesukristo berbera jaupariekan diarduana? ¿Ez al da Jesukristo, eskutuan ba'da be, jauparien gogoz ta agoz, jaupari bitartez Aita Jaungoikoa'ri otoi dagiona?

Ta Aita Jaungoikoa'k ¿ukatu ete leikio ezer, bere Seme kutunari?

Asafe zan Jauna. Israe'ek oben egin eban. Gaiztakeri zantaña egin eben judutañak. Parkatzerik ezegokion. Galdu zedila, ondatu zedila agindu eban. Baña Mois, Jauna'ren adiskide zindoa, bitarteko jari zan. *Placatusque est Dominus, ne faceret malum quod locutus fuerat adversus populum suum.* (EXOD. XXXII, 14).

Ta Jauna'ren asafea ibitu, bigundu ta ezeutson bere eñari agindutako zigorrik ezañi. ¿Nor zan ba, Mois? Jauna'ren adiskide bai, baña gizon utsa.

Jauparia ezta gizon utsa, Jaungoikozko gizona da, *homo Dei*. Bada Mois'ek gizon utsa zalarik eta bere esku-artean Jaungoikozko oparirik ezebala, Jauna'ren asafea ibitu ta eskatu ebazan eskañak jadetsi ba'zitian ¿zer jadetsiko ez ete dabe Lege Bañiko jaupariak, Kristo'ren ordezeko izan eta Jaungoiko asafetu ta gizon gaizkiñaren bitarteko opari deuna, opari Jaungoikozkoa egin leikien jaupariok?

ABADEGINTZAREN ONDORENAK. Ikurton edo sakramentu onen ondorenak dira:

1-go. Goi-eskaña emon. Ikurton gustiai, bear dan legez artu ezkerro, yagoke ondoren au, goi-eskaña emon edo lendik eskardun ba'dira, eskar ori geitu.

2-en. Elizgizonai euron egin-beañak zintzo ta zietz betetzeko laguntza emon. Geroago aitatuko doguz banan-banan egin beañok.

3-en. Elizgizon bakoitzari bere mañako zeregin, arazo ta iñarkunetarako eskubide ta almena emon. Diakonoai jaupaldi edo mezatan lagun egiteko; jaupariari obenak azketsi ta ogi ta ardao eskiñi ta Jesukristo'ren Gorputz ta Odol biurtzeko; gotzani, oñez gañera sendatza ta abadegintza emon al izateko.

4-en. Ikuñatza ezari. Gudariak euron ezaugaria eroaten daben legez, kistañoi ikurton batzuk ezaugaria berezia ezarten dauskue. Kistar gustioi bateo ta sendatzak, jaupariari abadegintzak. Eleizgizon bakoitzari bere mañako ikuñatza ezarten ete yakon ala danena bat dan, auzipean dago. Baña dana dala, abadegintzak ezañitako ikuñatz ori, ezta egundo ez aldatu, ez kendu, ez ezabatuko, beti iraungo dau jaupariaren gogoan, zeruan bere aintzarako, gaiztokian bere lotsakizunerako.

JAUPARIEN EGIN-BEAÑAK. Len aitatu izan doguz ba-

tzuk. Arez gañera, ona emen Eleiz-legediak jaupariari ezarritako egin-beařak:

1-go. Enparau kistar lauak baño deunago izan beařa dabe, bai gogoz ta bai agirian.

2-en. saři autortu ta egunero gogarte ta buru-azterketa egin, eta agurtza esan.

3-en. Gogo-iñarkunak iru urterik bein gitxienez; Gotzañari men egin; jauparitzari dagokiozan ikaskizunak alik eta sakonen ikasi; Eleiz-otoidia, egunero ordu-bete gitxienez bear dabe otoidi au ondo egiteko; luřalde ba-koitzean oi dan abade-soñekoa erabili; koroya buruan; garbitasuna zaindu. Ezin leike jauparitzari eztagokion ez egikizunetan, ez sal-erostietan, ez jolasetan, ez beste edozer arazoetan jardun.

GARBITASUN-LEGEA. Sarkaldeko (eguzkia sartzen dan aldeko) jaupari gustiak, Eleizaren aginduz, gizkarbi iraun-beařa dabe, ezin ezkondu leitekez. Eleizaren asmo ta alegiñak, bere jayotzatzik, beti ořa jo izan dabe.

Ta polito-polito agindu ori ipinteraño eldu da. Bikain eta onuratsu yako jauparitzari garbitasun au. Bikain dala erakutsi beařik bere eztago. ¿Bikain ez al da sastegi onetan aingeru antzera bizi izatea? ¿Garbi-garbia ez al da abadeak esku-artean darabilan oro? ¿Garbi-garbia ez al da, egunero opa-mayan eskiñi daroan Bildots erugea? ¿ez ete garbi-aratza bere biotz bařuan egunero artu daroan Jauna? ¿Ta autor - entzutea, ume-aztea, gaste-zuzentzea... garbi ta bikañak ez al dira zeregin zerutařok?

Bere egikizunetarako onuratsu yakola garbitasuna, ezin ukatu leike. Paul deunak darakuskunez, eskonge danak, gizkarbi danak, eztauka emazte ta umien ardurarik; Jaungoikoa'gazko egin-beařetara oso-osoan bere

burua etzun leike. Ezeren buru-auste ta ajolarik bage, bere sailari ekin eta jaraitu leikio. ¿Batzuk jausten dirala? ¿Ta zer? ¿Beste bizibidekoak ez al dira jausten? Batzuen txaragaitik enparauen ona ezin leike galerazo.

ABADE-BEAÑA. Gizonaren Jaungoikoa'gazko egin-beafak zuzentzeko ta Jaungoikoa'gandiko ondasunak gizartean zabaltzeko, nai ta ez bear ditugu jaupariak. Jaupari oro gizonen artetik artu ta Jaungoikoa'ri dago-kiozanetan, gizonen alde jarita dago, dirausku Paul deunak. *Omnis Pontifex ex hominibus assumptus pro hominibus constituitur in iis quæ sunt ad Deum.* (HEBR. V. 1). Ikurton gustiak eta bakotxa dira goi-eskar edo graziaren iturri ugariak. Baña gustien giltza dala, esan leike, abadegintza. Kendu bediz jaupariak Eleizatik, eta ¿zer gelditzen da? Kendu bedi abadegintza, ta ¿nok egingo ditu beste ikurtonak? ¿Nok azketsi obenak? ¿Nok sendatu? ¿Nok meza esan? ¿Nok ogi ta ardaoa Jesukristo'ren Gorputz ta Odol biurtu, ta Aita Jaungoikoa'ri eskiñi ondoren, gure altaretan ipiñi ta guri janaritzat emon? ¿Nok igortzi iltzer dagozan gexoak? Jauparia kendu ezkerro, iñortxok bere ez. Jesukristo'ren ordezt bere zeregin gustiak dagiz jaupariak gizartean. Abadietan itxi euskun Jesukristo gure Jauna'k zerua jadesteko bear dogun gustia. Ta gizonak lur gañean diraun arte iraungo dabe baita jaupariak be gizartean.

Onezaz gañera, jaupariak *gizarteko argia* — «lux mundi» — *ta luñaren gatza* — «sal terræ» — dirala dirausku Jesukristo'k. Argia ¿ez al da argi egiteko? Ofetarakoxe dira ba jaupariak be, argi egiteko. Iluntegi onetan bizi diran giza-gogoak goi-argi-izpi bizi-biziekaz argitaratzeko. Iluntegian bizi gara gizonok eta gozoro bizi bere. Saritan eztoigu iluntegi onetatik argitaratu

nai izaten. Begi-ezkelai eguzkiaren argi biziak legez, guri bere, zerutik datorkigun argiak min emoten dausku. Egia da gure gogo - argia. Ta jauparien abotik datorkigun egia, gure griña txafai mingotz izan oi yakelako, abadea ta bere espanetatik aditzen dogun egia, biok batera gofoto izan oi doguz. Eguzki argirik ezpalitz ¿zer izango ete litzake luñau? İla ta otza; gaba bezin otza ta İla. Bada ludia eguzki-argi bage baizen otz ta İlun geldituko litzake giza-gogoa, jauparien irakatsiak edatu ta zabaltzen daben argi bizia kendu ezkeru.

Luñaren gatza, gizarteko gatza, dira jaupariak. Gatzak aragi zauritua eře, mindu, baña usteltzeke iraun-azo ta osatu daroa. Ori berberori egiten dabe jaupari onaren otoi, irakatsi ta oitura ta jarduera zintzoak giza-biotzagaz. Eře bai ta eřetean mindu be bai, baña bai usteltzeke iraun - eragin eta osatu bere. ¿Zein-beste raño endekatuko ez ete litzake giza-biotza jaupariak ezpalira? ¿Noraño jausiko ete litzake gizona, beronen griña txafak nafas eraginda, jaupariak eutsingo ezpa-leuskioe? Gogoratzeak bere, ixututa, atzera eragiten dau. Eriak izan leiken ondasunik opagařiena, jaupari zintzoak dira. Ori eskatu begioe gure Jauna'ri. Eskeřak eta eskeřik gogotsuenak zor dautsoguz gure Jaun onari, eřian-eřian eta orduan-orduan jaupariak gertu daukaguzalako. Eztogu Jerusalem'go oxİnera joan beařik eta aingeruen zain urte askotan egon beařik, gure arimak garbitzeko, obenen parkaziñoa iristeko, zeruko ezteyetara gertatzeko. Ludi osoan jaupari bat baño izan ezpalitz... Amabi baño izan ezpalira... ¿Zer esan geinkion Jaungoikoa'ri? Ezer bere ez. Esker egin, bat ba-kařik itxi euskulako bere. Baña ¿zeinbat neke meza baten izateko? Obenak autortzeko? Jaungoikoa'ren itza

entzuteko? ¿Zer siñestu, zer egin eta zer artu bear dogun jakiteko?

Eskeřak, ba, ta milaka eskeřak, gure Jauna'ri abadegintzatic, bai geu bakoitzari, bai Eleizeari ta bai gizarteari datorkiozan onura ta edertasunakaitik.

ABADEGEYAK. Edozein giza-seme bateatu izan leiteke abadegei. Baña artzain onaren eraz atetatik sartze-ko, ta ez leyotik lapuřen antzera, Jaungoikoa'ren deya bear dau ofetarako. Ezin leike edozeñek abadetza artu, Aaron'en antzera Jaungoikoa'ren deya daukanak baño (HEBR. V-4). Jaupari-arazo, bizi-bide ta jardunetarako, gogoa bear da, ta abadetzari dagokiozan egikizunetarako gaitasuna, Eleizaren lege arauz ta Gotzañaren ertxiz. Abadegintzara eltzeko, gauz oneik eskatzen ditu Eleiz-legediak: 1, Sendatza artuta euki. 2, Abadetzari dagokiozan oitura onak. 3, Legediak eskatzen dituan urteak; jauparitzarako ogetalau. 4, Bear dan jakituria. 5, Berengo malak artuta euki. Sasi mala ditu abadegintzak, lenago azaldu izan dogunez. Ezin leike ba goragoko malara igo, beragokoa artu barik. 6, Bitarteak zaindu. Abadegintzako mala bat artu ta ufengoa artu orduko, legedian izentauriko aldi bitarteak igaro bear dau. 7, Ogi-bizi-bidea. Mala nagosietarako da; abadeak zegaz bizi izan dagien, bizi-bide zertxobait eskatzen dautse Eleiz-legediak.

—*Eleizaren ordezkoi itzal eta lotsarik izan bear ete yakez?*

—*Bai jauna, Eleizearen ordezkoi berarizko itzal eta lotsa izan bear yakie, abadeai batez bere.*

—*Zegaitik izan bear yakie lotsa ta itzal andia abade ta gañerako eleiz-gizonai?*

—*Jaungoikoa'ren ordezko ta Jesukristo'ren oñor-*

dekoak diralako, izan bear yakie lotsa ta itzal andia abade ta gañerako eleiz-gizonai.

Honora Deum ex tota anima tua, et honorifica sacerdotēs. (ECLI. VII). Goretsi egizu Jaungoikoa zure gogo gustiaz ta goratu, itzal izan, jaupariak. Maia berean jarten dituala dirudi Espiritu Santuak Jaungoikoaren gorapena ta abadiena. Aintzatu Jaungoikoa ta aintzatu jaupariak. Lotsa ta itzal izan Jaungoikoa, ta lotsa ta itzal jaupariak. *Zuek aintzat artzen zaituenak, Neu aintzatzēn nau; ta zuek ezetsi zaroyazanak, Neu ezetsi naroa.* Jaupariai egiten yaken omena, Berari egiña legez artzen dau Jesukristo'k, eta jaupariai egiten yakezan irañak, Berari egiñak legez zigortzen ditu. Oñartean eruz erakutsi izan dogun legez, ba, jaupariak euron egikizun gustietan Jaungoikoa'ren ordezeko ta Jesukristo'ren oñordeko dira.

Edonun eta beti izan daroatsie itzal andia jaupariai, bai siñestedun eta bai siñestebako gizonak.

Alexander Nagosiak, *luñari ixildu eragin eutson* (MAKAB. 1-3) gizon kementsu arek, Tir beregandu ondoren, Jerusalem'i inguru gustitik gudarozte - esia ipiñi eutson. Danak uste eben uri au zuzituko ebala ta abade-buruari narua eratziko eutsola, Tir artzeko eskatu eutson laguntasuna ukatu eutsolako. Jaddo, jaupari Nagosia, soñekorik onenak jantzi, ta eleizgizon ta eritañak ondorik ebazala, garaitzale bulartsuari aurkeztu yakon. Alexander, jaupari Nagosia beraganuntz etofela ikusiki, aren buruko txapel bañenean Jaungoikoa'ren izena irakuri ebanean, burditik jatzi ta gur egiteko tayuan auspez jañi zan. Gero, alkar agurtu eben eta eskatu eutson gustia emon eutson Jaddo'ri. Ikusleak añituta gelditu

ziran. Ez eben uste Alexander'ek ainbesteraño burua eratzi leikeanik.

Parmenon eritxon bere kutunak itandu eutson: iya zer zala-ta, ainbesteko buru-mukurtzea. Alexander'ek erantzun eutson: Ez dot nik Jaddo gur-egin, Jainkoa baño, bada Jaddo Jaungoikoa'ren ordezeko da.

Jaupariak Jaungoikoa'ren ordezkari dirala uste eban, ba, gudari aro arek eta Jauna'ri zor yakon itzala, zor yakiela abadeai.

Au berau egin eban Aita Santu Leon Nagosi deunak, Atila, gudari buru basatia, Eroma'ra uri au suzitzeko asmoz etofela. Basati be basatia zan gudalburu ori. Bere zaldiak oña ipinten eban tokian, etzala bañiro bedañik ernetan esan oi ei eban. Alan da gusti be, Leon Nagosia, Aita-Santu-jantzirik bikañenagaz ikusi ebanean, bildurturik atzera egin eban. Oren besteko itzala izan dautse aundiki siñestebakoak jaupariai. Siñestendunok are geyago. Asis'tar Pantzeska, zan baizen deuna izanañen, etzan egundo abade-mala artzera asartu. Ta esan oi eban: *Zerutik jatzitako deun bat, eta jaupari bat, biok batera, etoñiko ba'litzakoz auñera, lenengo eskuan mun egingo leuskiola bizirik dagoan abadeari, ta gero agurtuko leukeala zerutik etoñi yakon deuna.*

Sena'tar Katariñe, lekaima zuur, kementsu ta Jaungoiko - zaleak, jauparia ikustean, lufari mun - egiten ei eutson.

Jon deun Goizpargileari agertu yakon bein aingeru bat; bereala auspez jañi zan deuna; baña aingeruak esan eutson: *Ez ofelakorik egin; moñokide gara biok, Jaun baten moñoyak.*

Lotsa ta itzal au çabade zintzoai bakañik zor ete yake ala danai? Danai zor yake itzal au. Deungea izan

añen, jauparia jaupari da. Deungak, gaizto-gaiztoak ziran Jesukristo bekaizkeriz gaiztetsi eben jaupariak. Baña ez eutsen Jesus onak lotsarik galdu. Ez eban Jesus'ek ezerbere esan euren aurka. Ixil-ixilik egin eban arek agindu eutsoen gustia. Jauparia, gaiztoa ba'da, ez jañaitu bere egipideari. Baña bere erakutsiak entzun eta bere esanak egin. Gurutzea eztozu gur-egiten urrezkoa dalako; gur-egin barik itxi bere ez, loituta eta ausita egonaren. Gurutzea gur-egiten dozu, Jesukristo'ren irudia dalako. Jauparia bere, jaupari dalako gur-egin bear dozu. Ak bere utsak izango ditu ta guk geureak. Baña aren ta gure epaikari Jaungoikoa da.

Gauza bi gogoan euki: Ez abade baten gaizki egiñak beste enparauai ezari. Judas, bilaua, saltzalea, deunge - deungea izan zala-ta ¿Jesukristo'ren beste ikaslak bere, gaiztoak izango ete ziran? Osalari bat txarñ dala-ta, enparauak nundik eta nora ete dabe txarñak izan beañ?

Abadien artean gustitarikoak egon leitekez. Batzuk oso onak. Geyenak zintzoak. Banaka batzuk abadegintzari dagokionez bizi ez diranak. Onai ta zintzoai jañaitu. Arein antzekoak izan. Ez litzake gizartea gaizki, enparau gizonak ontasunean jauparien neurñira elduko ba'lira. Abadien utseitiekaz jazoten da soñeko zuri garbira jausten dan orio - tantakeagaz jazoten dana. Asteguneko soñeko zikin batera jausi dedñla orio-tanta bat, eta iñok eztau aintzat artuko. Jausi bedi orio-tanta ori jai-eguneko soñeko zuri-garbira, ta danak oartzen dabe. Gaiztakeri bat egin dayala edozein gizonek, eta iñok eztau aintzat artzen. Baña orixe berori jaupari batek ba'dagi jene, Jauna! ango iskanbñla.


Gero, eleiztarok garean baño eruki-bereago izan bear dogu gaizki egiten daben abadietakaz. Goñoto izan


gaiztakeria, baña eruki gaizkilea. Ez beti jardun. Ori gorotogarria da. Ezta ori zuzentasuna maite izatetik sortzen, norbera dolora ta biotzez zitela izatetik baño.

Konstantin kaiserak esaten ei eban: Jaupari bat idoroko ba'neu oben egiten, neure soñeko jantziagaz estalduko neuke laster, iñok ikusi ez dagian.

Eta *Pastor*, oraintsu il dan edeslari ospetsuari itandu eutsoenean, iya zelan argitaratu zituan gorengo eleizgizon batzuen utseiteak, erantzun ei eban: Seme onak amaren utseiteak argitaratzen dituan legez argitaldu ditut, biotza naibagez ausita.

Orixe da eleiztar zintzoen jarduerrea.





XIV IKASKIZUNA

EZKONTZA

Norberaren bizibidea. — Bizibidea aukeratzeko era. — Norberari ez dagokion bizibidea artzeak oi dakazan kalteak.

Gizon bakoitzak zerurako bidean bear genduazan gauza gustiak gertau euskuzan Jauna'k lenengo bost ikurtonetan. Seigafenean, baita enparau sakramentuen egile ta emalea be itxi euskun. ¿Zer geyago asmau ete zeinkean Jesus'en gizonagazko maitasunak? Bai orixe. Gizona ezta bakañik bizi izateko sortu. Alkañegaz batuta bizi izateko jayoak gara gizonak. Eta egin-egiñean bere, gizadiaren iturburua ta lenengo oñafia onetsi ta bedein-katu nai izan ebazan Jesukristo'k eta oretarakoxe jaso eban ezkontza ikurton izatera. Sakramentu au aundia ta ongañia da Jesukristo'ren Eleizan, eta Eleizeak nai dauan eran artuko ba'litz, etxe ta eñi ta gizabatzaren zorion iturñia izango litzake. Alik eta zietzen azaltzeko alegin egingo dogu. Lenengo ezkontzarako gertaera.

Bigarren, ezkontza bera. Ta irugarren, ezkontzaren ondorenak.

I

NORBERAREN BIZIBIDEA

1. Betiko bizitza jadesteko, Jaungoikoa'ren eta Eleiz Amaren aginduak zintzoro gordetzea naikoa da. Baña gure izakera, griña, ifits eta gurariak eztira bardiñak, eta batzuentzat oso neketsua da Jauna'ren aginduak bizi-bide baten zaintzea, bestearentzat ez ainbeste. Batzuentzat neke aundikoa izan oi da ezkonduen bizi-bidean Jauna'ren aginduak egitea; eta au berau jazonen da beste bizi-bideakaz bere. Oregaitik ez eban gura izan Jauna'k, gizon eta emakume gustiak biziera bati jafaitzerik. Ez eban gura izan gustiok bide batetik zerura eruaterik. *Nire Aitarenean bizitoki asko dagoz, diñosku Jesukristo'k (JOAN XIV)*. Zeruan bizitoki asko dira, diño Krisostomo deunak. Aukeratu begi, ba, baktxak berari ondoen datorkiona. Onetantxe dago untzea ta gure etorkizunaren ardatza.

Bizibide nagosiak bi dira: edo ezkonduena, edo Jaungoikoa'ren gogoa obeto betetearen, ezkondu bagarik gelditzen diranena.

Lenengo gustiena bide bakarra da. Eztogu ba ezkontzako ikurton bat baño. Naiz aberatsa izan ta naiz txiro-beartsua izan, nai entzute andikoa izan ta naiz gitxikoa izan, ezkondua ba'da, ezkonduaren bearak egin bear ditu, zerura joateko.

Jaungoikoa'gazko maitasunez ezkontzeke gelditzen diranen bizibideak, bere bide-zidoak ditu. Oneixek dira: Edo gopatz (ordena) baten sartuta, iru eskain eta boto bidez euren buruak Jaungoikoa'ri eskintzen dautsoezan

lekaide - lekaimeak (praile - monjak). Edo abadegintza artzen daben eleiz-gizonak. Edo gorputzeko ta biotzeko osotasunaren eskiñia (gizkarbi edo birjin-eskaiña) Jaungoikoa'ri eginda, gorputz ta arima, oso ta garbi, lekaidetzan (erlejiñoan) sartu bagarik, bakoitza bere etxietan bizi diran gizon eta emakumeak. Edo gizkarbitasun (birjiñidadea) galduaren, auera beti garbi izateko eskiñia Jaungoikoa'ri eginda, ezkondu barik, euren etxietan bizi diranak. Edo azkenez, garbitasunaren eskiñirik Jaungoikoa'ri egin bage, Jesus'en maitasunaren ezkontzeke ta garbi euren etxietan bizi diran gizon eta emakumeak.

Ona emen zeinbat bizi-bide itxi dauskuzan Jaungoikoa'k zerua irabazteko. Bakoitzak artu daike nayan dauana. Batari gaitza ba'deritxo, bestea. Ari astuna ba'deritxo, au. Gura dauanak, gura dauana. Bada gustiak dira berenez onak. Bide oneitatik gustietatik joan izan dira kistañak zerura. Batzuk gizgarbiak, besteak ezkonduak. Batzuk lekaide etxietan euren buruak eskutauta bizi izan diranak, besteak, Noe'ren antzera, gizarte gaiztoaren erdian zintzo ta garbi burua zaindu izan dabenak.

Bizi-bide gustiak onak izanaren, batzuk besteak baño obeak dirala ezin ukatu leike. Garbitasuna gorde ten dabenen bizi-bidea, berez, ezkonduena baño obea da. Ta lekaide-lekaimiena osterantzekoena baño bikañagoa. Elaya ta enadea, egaz joango dira bizkoñen. Zaldia, oñez. Añaña, igerian. Baña eragiozu ba elayari oñez, edo zaldiari egaz edo añañari leoñez, ta bakotxa bere senetik eta bidetik atara ezkerro, danak alpeñik galduta ikusiko dituzu.

Bizi-bidean be alantxe da. Lekaide edo abadetzarako deya daukana ezkontzen ba'da, ari gogoña batuko



dautsa bere buruari ta gogofagoa beragaz bizi bear dauanari. Ta ezkontzarako jayoa dana lekaide edo abadetzan sartzen bada, bere burua ta beste askorenak ondatuko ditu. *Unusquisque proprium donum habet ex Deo.* (I, KORINT. c. VII - 7). Bakoitzak bere deya dauka Jaungoikoa'gandik, batzuk onela ta beste batzuk ofela. Dei ori entzun eta jafaitzean, ortxe dago gure zorion-bidea, oraingo, bizitz onetarako ta gerokorako. ¿Zelan jakin, zein dan gure deya? ¿Zelan aukeratu bakoitzari dagokigun bizi-bidea?

II

BIZIBIDEA AUKERATZEKO ERA

¿Zelan aukeratu baña norberaren bizibidea? ¿Zelan igari, Jaungoikoa'k garbitasuna zaindu-ta geure buruak berari eskintzeko dei egiten daukun ala ezkontzan nai gaituan? ¿Zer egin, arazo astun onetan utsik ez egiteko?

Ez uste, Jaungoikoa'k aingeru bat bialduko dauala, au adiraztera. Askogaz egin izan dau ori. Askori aingeru bitartez esan izan dautse Jauna'k onako edo alako Erlejiñoan (gopatzean) sartzeko; onako edo alako bizi-bidea artzeko; *Osea* igarleari ta *Tobi* gasteari ezkontza artzeko ta nogaz ezkondu bere, adirazi eutsen Jauna'k. *Gontzaga'tar Koldobika'ri* ta *Kostka'tar Estanislau'ri* Jesus'en Lagundian sartzeko dei egin eutsen.

Baña ezta au oi dana. ¿Zer oi da ba? Jaungoikoa'ren deya ta bere gogoa igarteko, bakotxak bere aldetik alegin egin; orixe oi da. Ez egon, esan-agiri berezikoren begira. Esan-agiri bagarik, zoli ta zur ba'gagoz, geure gogo ta biotz bañuan aitzen emongo dauku Jauna'k, bakotxari ondoen dagokigun bizibidea. Onetarako oneixek arauok gogoan euki.

1. Bizitza onetan Bere otsein izan eta gero bera ikusi ta maitatuaz, betiko atsegiñetan bizi izateko, egin eban Jaungoikoa'k gizona. Ta lurgañeko enparau gauzak, bañiz, gizonarentzat egin ebazan; gizona aitaturiko elburu ori jadetsi ta eskuratzen lagundu ta urgazi egientzat. Beraz gauzok, aitaturiko elburu oretara eroaten daben neuriz erabili bear ditu gizonak, eta oretarako eragozten daben neuriz itxi.

Ezañi, bada, arau sustraikor au bizibide-aukeratzeari. Bizibide gustiak Jaungoikoa'k ipiñiak dira. Ta gizonarentzat ipiñiak. Ta gizona azken elburura eroaten laguntzeko jafiak. Beraz elburu ori eskuratzeko izango yakon giñoan aukeratu bear dau bakotxak bere bizibidea. ¿Ezkontza Jaungoikoa'ren aginduak zintzoago bete ta zerua eñazago irabazteko bide izango yatzula uste dozu? Bada ezkontza da zuretzako bizibiderik egokiena. ¿Ezkontzan baño garbitasunean Jaungoikoa maiteago izan eta zeure burua obeto zainduko zeunkela uste dozu? Orduan garbitasunean iraun, zure bizibidea orixe da-ta. Garbitasunean bertan, Jaungoikoa'ren otsein izan eta betiko zoriona irabazteko, gizarteko bizitza baño lekaidetzakoa zeuretzat egokiagoa dala-ta zagoz? Artu, ba, bizibide ori, zorion-bidea ortxe daukazu-ta.

—Baña, jauna, ori zelan jakin ete neike?

—Ara oretarako:

2. Eskatu bene-benetan Jaungoikoa'ri Andra Maria ta Joseba deuna bitarteko dituzala, ondoen dagokitzun bizibidea aukeratu ta artzeko argia ta gogoa.

3. Zeure baitan sartu; zeure kautan sartu; oartu or zeure bañuan gogo -biotzen eragin eta zirkiñak. ¿Ez al dozu or oartzen onako edo alako bizibidea, bere kautan legez, sañitxo gogora datorkitzula?.. Gogotik kendu ezin dozula?.. Bizibide ori, geyen batez, ondo

erexi ta ortxe zerua eřaztoago irabaziko ete zendukean argia ta ezaguera? Bizide ofetan Jaungoikoa gogotsuago maite izango zeunkeala gogoratuta ęez al da zure biotza nasaitu ta poztuten?..

Oneik oi dira, Jaungoikoa'k ixilik bizibiderako egin oi dituan deyak. Batez bere, emengo atseginkeriak alde batera itxi, ta biotza garbi ta gogoa Jaungoikoa'gan dogula, bizibidea aukeratzeko sayatzen gareanean. Alderantzira, onako edo alako bizibideari biotz-gogo iluna, astuna ta mingotza ba'leutsa norbaitek; a bizibidea gogoratuaren poztu ta lasaituko ezpalitzakio bere biotza, iya ezagun izango litzake Jaungoikoa'k atarako dei-egiten ez dautsala.

4. Inoiz ikusi ez, ta ezagutu ez dodan norbait irudititu, ta neure ordezt, neure lekuan ipini. Ta ondo-ondo gura dautsalarik, eta gauzarik bikaena opa dautsalarik, Jaungoiko gure Jauna'ren aintza geyagorako ta norbaitaren onerako, egiteko ta aukeratzeko esango neuskiona gogoratu. Norbait zeure lekuan ba'lego, ta zer egin bear dauan zeuri itandu ęzer erantzungo zeunskio? ęZer burubide emongo ete zeunskio? Artu zeurtzat bada ari emongo zeunskion burubidea. Eutsin zeuk be ari emongo zeunskion arauari.

5. Eriotz-aldian, il-zorian aurkituko ba'nintz ęzelako neuri ta legez egin izana naiko ete neuke oraingo aukera au? Egin, ba, orain orduan naiko neukeana. Artu orain, zori atan, aldi atan, artu izana naiko neuken bizibidea, orduan poz-pozik eta atsegienez nire burua aurkitu dedintzat.

6. Gogo-begia zeruan dozula, gogora ekaři bizibide bat edo beste artzetik letorkitzuzan onurak eta kalteak; bizibide bakotzeko eragozpen eta eřaztasunak. Eta bai arimako ta bai bizitz onetarako onuratsuen ta

eñazena deritxozuna aukeratu. Baña epaikunde ofetan zeure burua atzipetu ez dagizun, ondo-ondo ezagutzen zaituan autor-entzule bategaz aitu zaite ta bere eretxiari jaraitu.

Zeure bizibidea aukeratzeko onan gertatzen ba'zara, ez dautzu Jaungoikoa'k ofetarako bear dozun argia, ezaguera ta goi-eskaña ukatuko.

Asko ta asko dira edozein bizibidetan itxu-mustuan, ezer oldoztu bage, griña txarñak, diru-goseak, gizarteko eretxiak eraginda sartzen diranak. Euren buruari ari gogoña batu daroatse ta buru arinkeri ori negar samiñez ordaindu oi dabe. Beste askok emen ipiñi ditugun arauz jardun oi dabe bizibidea aukeratzeko. Oneik bere, bizitz onetan bertan izango dabe, alako arazo ta egikizun astunean zuurki jokatzearen saria.

III

NORBERARI EZ DAGOKION BIZIBIDEA ARTZEA EKAÑI OI DITUAN LOÑAK

Giza-bizitz eta zorionaren oñañi ta ardatza da bizibidea. Beraz bizibideko uts egitea, ezta edozein uts-egite, oñañian bertan uts-egitea baño. Oñaña oker daukan etxeak, aren ganeko ariak bere oker izango ditu. Zutik irauteko, eutsigayak bear. Ta eutsigayai bultzaka dago beti. Oña oker daukan gizona, eřenka dabil beti. Ta beti naibagez. Ardatza bijortzen ba'yako burdiari, laster dira txiñingak gelditu. Bada etxe-oñaña legez, ta burdi-ardatza ta gorputza erabilteko oña legez da gizonarentzat bizibidea. Bizibidean uts ba'dagi, oraingo bizitzari asikera eřena ipiñi ta betiko bizitza galtzeko ařisku ta zorian bere burua jarten dau. Etxean

bear dauan oro, ugari euki leike. Osasuna bere bai. Baita agiriko, edo zietzago esateko, azaleko bakea be. Baña ¿zertarako ditu oneik ondasun gustiok biotzean bertan afa daukanak? ¿zertarako ditu enparau ondasunak bañuko pozik ta bakerik izan ezin leikeanak? Ta ¿zer bake izan legike artutako bizibidearen aurka, bere gogoia bultzaka daukanak?

Jaungoikoa'k, eta bere gogoak be bai, ezkontzarako dei egiten dautsa norbaiti. Ta, edo gurasoak, edo senideak, edo ez dakit nor, lekaidetxe baten sartzen dabe. ¿Zelan biziko da gogoz ta pozez, soñean eta sa-belean bear dauana ugari eukiafen, alan konbentura doyan erukaña? Beste bati lekaidetzara dei egiten dautsa Jauna'k, baita bere gogoak bere, gizarteko azi-otazi ta uskeriak itxi, ta lekaidetxe baten sartu ta ondo baño obeto, gogo ta soin, gorputz ta arima Jesus'en otseintzara, Jesus'en mofoitzara bultz daragio. Ta gurasoak, edo senideak edo bere griña txararak ezkontzera ekarten dabe. ¿Zelan pozez bizi daiteke gogoko etxakon bizibidean? Zelan igaroko ditu bizitzako egunak? Bakartaroa, Jesus'en bizitz eta eriotzako jazoak gogoan erabilteko astia eskatzen dautsoe, bai Jaungoikoa'k, bai bere gogoak. Bere burua oso-osorik Jesus maiteari eskiñi ta zerutañen antzera Jaungoikoa'gaz bizi gura leuke. Ta daukan bizieran ardura ta zeregin, poz ta atsekabe, danak dira aragikoyak. ¿Nun izango dau, ba, poza onela bizi danak? ¿Ez al da bere biotza beti mingotza ta gañatza dariola egongo? Bera txarto bizi ta bere ingurukoai txarto bizi eragin; bere burua galtzeko zorian jañi ta berakin bizi beaña dauana be, edo oso deun, edo oso gaizto izateko afizkuan ipiñi. Latzak be latzak dira bizibidea oker artzetik datozen loñak.

Tokitik aterea dagon azuñak, bakerik ez dauka; beti


miñez dago. Oñazea kentzeko edo ausi edo bere lekuan ipiñi egin bear.

¿Nundik sortzen dira ezkonduen artean ainbeste asafe? ¿Nundik ezkontz-austeak? ¿Nundik bata-besteagazko ikusi-eziña ta gofotoa? Ta ez edozelako gofotoa be. Gofortorik biziena ta osakaitzena baño. Emenditxik, bizibidean uts egitetik. Edo ezkontzarako jayoak ez diralako, edo bata bestearantzako ez diralako.

Bizibideko uts-egiteak adabetan eiaz ezta. Beste uts egiteak, astunenak izanda be, lapuñetak, ezkontz - austeak, gizon erailteak, osakai jakiñak dabez. Baña bizibideko uts egitea, bizi gustiko uts egitea da-ta, beragaz dauka beti biotz erdi-erdian unetaraño sartzen yakon arantza zofotza baizen mingotza. Ezkontz auñetik begiratu bada, Jaungoikoa'k atarako dei egin dautzun ala ez. Ez maitekeriz, ez erara datorkizulako, ez atsegin egariz, ez oitura zantañez, ez esamesen bilduñez, ez diru gosez, ez iñork bultz daragitzulako, ez buru arinkeriz, ezta gurasoen aginduz bere, bizibide ofetan sartu. Gurasoen onu, burubide, ta erakutsiak itzalez ta maitekiro entzun ta gogoan artu beaña dabe seme-alabak. Baña geroago dakuskegun legez, J, I., arei jañaitu beañik ez dabe, euren gogoko ezpadira. Gizonari gizon danez dagokiozan eskubide ta eginbeañetan seme-alabak buru-jabe dira. Jaungoikoa baño beste nagosirik ez dauke. Beraz Jaungoikoa'ren auñez-aur gogoratu bear, iya bizibide a dagokion ala ez. Ta ezkontzarako ba'da, biziera onetako eginbeañak beteteko gai izango ete dan ala ez. Ta lekaidetzarakoa baizen arduraz edo arduratsuago aztertu, ta adialdu, ta gogoratu bear dabela deritxogu ezkontzarako bizibidea artu nai dabenak. Mutil edo neskatila batek lekaidetzarako gogoa agertu ordukoxe, asten yakoz etxeko ta auzoko senide, adiskide ta eza-

gunak: ¡Arduraz ibili! ¡Gauzak ondo aztertu, galdu etzaitezana! ¿Zer? ¿Jaungoikoa'gana zuzen baño zuzenago joan gura dauana, ta doyana, galdu? Ez. Eztago olakorik. Arerioak irundako matasa nastua dirudi onek. Lekaidetzan ba-dauka nok aztertu, baita bere deya benetakoa dan ala ez ikusteko astia bere, burua oso ta betiko Jaungoikoa'ri opaldu aurretik beintzat.

Begie beste orenbeste ezkontzarako deya dabena; ikusi, aztertu, adialdu arestian esan daroagun legez, gero alpefik negar egin eta beste batzuei eragiteko biderik izan ez dagien.





XV IKASKIZUNA

EZKONTZA (Jařaya)

On ete ezkontza. — Ezkongeyak. — Ezkongei-ereduak. — Isaak eta Eřebeka. — Tobitxo ta Sara. — Idekoak alkafekin. — Dirua ta ezkontza. — Inoren edeřagaitik egiten diran ezkontzak. — Senitarteko ezkontzak. — Ezkongeyak eta osasuna. — Ezkontza, ikurton. — Zefarako dan ezkontzako ikurtona. — Jaungoikoa'ren asmoak ezkontzan. — Ezkontzako ikurtonaren onurak. — Goi-eskar edo grazia. — Bakarizatea. — Ausi eziņa. — Ezkontz-erea. — Esteguak. — Ezkontzen Meza edo Jaupea.

EZKONTZA ONA DA. Edonoz izan dira ezkontza txarřa dala esan izan daberen gizon gaizto-biurřiak. Ez siņesbageko ta siņausle artean bakařik, baita eleiztar artean bere. Len izan dira ta geroago ta gegayo izango dirala uste geinke. ¿Zegaitik ete? ¿Garbitasuna maite dabiela-ko ala? ¡Bai zera! Oituretan geroago ta endekatuago goyazelako. Batzuk lizunkeriz biotza ustelduta dabe. Oneik eztira ezkontzeko gai. Biotz ustelak ezin leike

iñor maite izan. Abereak baño be beerago jatzita dagoz onetarikoak. Ikusi ainbeste gura izan ta ezin bein be ase griña txarrik sortu-azotako atsegin-gaia. ¡Zorigaiztokoa oneitarikoen bat bizi-laguntzat artu daroana! Ta aldi onetan, askotxo dira-ta, arduraz ibili, arazo onetan diarduenak.

Beste batzuk berekoikeriz, batez bere mutil artean, ez dabe ezkondu nai; ezkontzaren igesi dabilta; mutilzar gelditzen dira. Garbi-zale diralako egin ba-dagie jederto! Ezin leike iñok be zer esanik euki. Eztira, baña, askotan garbi-zale diralako orela gelditzen, buruzale diralako baño. Aukeran bizi nai dabe; lasai, bake-tsu, ezeren ardura barik. Eztabe leporatu nai ezkontza ondorengo egin-bear eta gurutze astunik. Geroago, ausaz, urtietan aufera doyazala euren buruari igari dagioenean; iñoren laguntasun beara dabela oartu dagienean, orduan bai ezkondu gurea sortuko yake, ta ez edozeñegaz, eri inguruan dan gasterik lirain eta aberatsenagaz baño.

Beste batzuk arokeriz gelditu oi dira ezkongee. Oñezkorik nai ez ta zaldizkorik eldu ez, beti amesetan eta bein bere amesik egiztu ezin. Oneik bai erukaia dirala; eztabe, ba, ez Jaungoikoa'gazko irabazirik, ezta gizarteak be, ez ditu aintzakotzat artzen. Eztago, beste guzurti batzuk esan oi dabenez, gizon edo emakume bakoitzarentzat, nai ta ez, ezkontzeko legerik. Norberaren eskuan itxi dau Jaungoikoa'k, nayan dauan bizibidea artzea. Nai ba'dau ezkondu. Nai ba'dau ain bagarik. Nai ba'dau lekaidetzan. Nai ba'dau gizartean. *Bakoitzak nai dauana egin begi* — diño Paul deunak.

Giza bizitza, baña, maitasuna da. Norbait maite izan bage ezin bizi daiteke gizona. Edo Jaungoikoa, edo Jaungoikoa-aren beste norbait, edo burua neuriz

gañera, maite bear. Jaungoikoa-aren, ezkongegelditzen diranak, gerotxoago esango dogunez, ezkonduak baño gorago dagoz. Baña lizunkeriz, edo arokeriz, edo buru-maitekeriz ezkongegelditzen diranak, oneik ezin leikez iñungo maletan sartu, batez bere, burua lotute-ezañen ezkontzeke gelditzen diran mutilzar berekoyak.

* * *

Ezkontza ona da — diño Agustin deunak (TRACT. 9 IN 10, POST. ININT.) — *Jaungoikoak ipiñia da-ta*. Samuñean be samuñak dira Jauna'k, Adan bakañik ikusita, esan ebazan itzak: *Ezta ondo gizona bakañik izatea: Egin dayogun bere ideko laguna*. (GENES. 11 - 18). *Lozoñuak artu-azo eban, ba, Adan, eta lotan egoala, aren sayetzetatik bat kendu, ta onen lekua aragiz bete eban Jauna'k. Eta Adan'i kendu eutson sayetzaz emakumea egin eta Adan'i ondoratu eutson*. (IBID. 21-22). Oneixek dira gure lenengo gurasoak eta ludiko lenengo senar-emazteak. Bakañik izan ez zedin, Eba laguntzat emon eutsan Jauna'k Adan'i. ¡Izan be! Gabak egunari ta egunak gabari legez, alkañi dañayoe biztaldi onetan atsegiñak atsekabeari ta negañak pozari. Baña bakañik izatekotan ¿zertarako emengo ondasunak? ¿zertarako emengo atsegiñak? ¿Zoriondun izan ete leiteke bakañik? Atsegin-atsekabietan alkañen lagun izateko ezkondu ebazan, ba, Jauna'k lenengo senar-emazteak.

Aldi oro izan dira deun andiak ezkontzako bizieran. Giza-legean ontasun eta deuntasunaren erpiñetara eldu ziran Jaungoikoa'ren adizkide ta moñoi zintzo Noe, Abañan, Isaak, Jakob eta beste asko. Mois'en Lege aldian, Mois bera, beste iñor ez lako Jauna'ren bañu-

-bañuko adiskidea; Samuel, Tobi aita-semeak, Job deuna, Dabit biotz zabaldu gizona, Susana, Judit, Ester, Joakin eta Ane deunak, Zakari ta Elisabete eta beste amaika.

Lege Bañian, Jesukristo'k ikurton izatera jaso eban ezkerro, ugariagoak dira askozaz ezkontzaren goi-eskar edo graziazko emaitzak. Agintari ta mendeko, aberats ta beartsu ta txiro, goiko ta beko, nekezari ta osterantzeko, irabazpide ta iñarkun gustietakoak dagoz, ezkontzan Jaungoiko - Legea zietz gorde, biotz garbiagaz Jaungoikoa maite izan, eta ezkontzako bustaño astun eta neke-loñak egonari, eroapenez, alkar maitasun samuñez eroan izan dabezanak. Jaungoikoa'gazko bilduñez seme-alabak azi ta irakatsi onez arein gogoak landu ta mendu izan dabez. Goiko ondasunetan ipiñi izan dabe euron uste osoa, ta ondorengo ezkondu gustiai itxi dautsez, zer ikasi, ta nori jañaitu.

Onein artean dagoz Elena deuna, Konstantin Kaiseraren Ama; Eustaki ta Teopiste, senar-emazte deunak, Agapita ta Teopisto ziñopa deunen gurasoak, Bidal eta Baleri, Gerbasi ta Protasi'ren gurasoak; Balerian ta Koikile senar-emazte ziñopa edo martiriak; Peli eta Blaude; Orensi ta Pazientzi, Orensi gongotzain eta Laurentzi ziñopa ospetsuaren aita-amak; Monike, Agustin deunaren bir-ama ta ama diranen eredia; Erroma'tar Pantzeske deun entzutetsua; Fernando, Kolobika ta Esteban erege deunak; Endika ta Kunegunde, Alemani'ko agintari deunak; Isidor ta bere emazte nekazari deunak; Txantal'dar Jone Pantzeske alargun deuna. Oneik, eta beste zenbatu ezin alak, ezkontzako bizibidean jadetxi izan dabe deun izan eta Eleiz Amak deunestea. Edozein deun naiz giza-gurenen bizitza irakuri ba'daizu, begiratu iya nor ete zan bere ama. Ta

deun gustietan ama deuna ta giza-gurenetan ama be gurena aurkitu daikezu. Ona da, ba, ezkontza. *Ta ondo egiten dabie alabatxoa ezkontzen daben gurasoak. Qui matrimonio jungit virginem suam, bene facit.* (I, CORINT. VII - 38).

* * *

Baña, *ezkontzen ez dauanak, obeto dagi* — dañai Belduak. Ezkontzen danak ondo, baña garbi izatearen, ezkontzen eztanak, askoz obeto. Bizibide gustietan, beerengoa da ezkontza. Ezkontza baño beste len aitaturiko edozein bizibidetan, Jaungoikoa'ren gogoa bete ta zerua irabazteko eñaztasun geyago dagoz. Beste edozein bizierakoak baño ezkonduak era geyago daukaz, berenez, Jaungoiko - Legea ausi, betiko egiakaz aztu, emengo azi-orazi ta ondasunetan biotza ta gogoa lañegi ipiñi, oben egin, eta zerua galtzeko.

Siñestu beañeko egia da. Alantxe ebatzita dauka Eleiz Ama'k Trento'ko Batzar Nagosian: *Iñorbaitek esan ba'dai, gizkarbi, edo ezkondu bakoena baño obea dala ezkonduen bizibidea; ta gizgarbi, edo ezkondu barik irautea eztala obe ta zoriontsuago, ezkondua bizi izatea baño; ANATHEMA doibazkatu edo Eleizatik jaurti bedi.* (SESS. XXXIV, CAN. X).

Paul Beldu deunak dirausku zergaitik dan au. Diño bada: *Ezkongabea Jauna'ri yagokonaz arduratsu dabil, nundik eta nora Jaungoikoa'ri eder egingo; ezkondua, bañiz, luñekoaz, emazteari atsegin nayaz. Bitara dago. Senañik bageko neska, Jaungoikoa'ri datzakonetan arduratsu dabil, soñez ta gogoz deun izateko; senarduna, bañiz, luñekoaz arduratsu dabil, senañari atsegin guraz.* (I KORINT. VII-33).

Neskuts eta eskongien ardurea Jesus maitearen naya egitea da. Atarako dabez oso-osorik, Jesus'entzat, euren gorputz, ta biotza. Baña ezkonduen ardura nagosia, edo gustia, lurki ta lagunarena da; Jesus'entzat ezer gorde bagarik, edo onetan zati bi egiña, bata lagunarentzat eta joan-etorrientzat, ta bestea Jesus'entzat. *Et divisus est.* Ara ba or, ezkonduak ez dautsazala Jesus garbiari bere biotza ta gorputza osorik eta garbi emoten, gizgarbiak legez.

Bizibidietatik berengoena da, ba, ezkonduena. *Gizgarbien bizibidea, ufea; ezkondu bakoena, zidaña; ta ezkonduena, burdiñea;* olantxe diño dala Gotzain deun batek. (S. ALDHESM., CORN. A LAP. COM. AD EPIST.) *Eguzkiak legez argi egiten ei dabe gizkarbiak: ixiotutako argiak legez ezkongiak, ezkonduen bidea, bañiz, iluna da. Gizkarbia, ondasun ugaritsua; ezkontzekea, beaŕekoa oztaz daukana; ta ezkondua, txiro ta beartsua. Gizgarbian bizitzea, bake osokoa; ezkontzakena, buŕukan irabazitako bakezkoa; ta ezkonduena, lotuta dagozanen bakezkoa.*

Uŕeagaz, eguzkiagaz, ugaritasunagaz ta pozezko bake onagaz bat egin daroye ba, Guraso deunak, gizgarbi-bizitza.

Zidaŕagaz, argi piztuagaz, arerioak uŕean daukazan gudako bake irabaziagaz, ta nora ezekoa baño geyago ez daukanagaz, garbitasuna galduaŕen, garbatu ta Jesus'en maitasunez ezkondu bagarik gelditzen diranena.

Burdiñeagaz, laño arteko ilunagaz, lotuen bakeagaz ta ezeuki lañagaz ezkonduena.

Ta gauza oneitan batetik bestera dagon aldea jarten dabe bizibidietan bere.

Ta gaitz oneik eztira ezkontzari berez datorkozanak. Ezkontzearen zeregiñai ta egin-beaŕai baño. Ez-

kontzea ona da, diño Gergori deunak. (MARK. MATRIM., LECT. 2, PROP. 1). *Bonum est conjugium*. Baña eztira onak ezkontzeari dañraikozan egikizunak, aragiaren argaltasunari ta emengo ardurai ta loñai begiratu ezkeru. *Sed mala sunt, quæ circa illund ex hujus mundi cura succrescunt...*

«Bide onetik joan-añen, bide basteñeko laañak uratu leikiez geure jantziak» — diño deun andiak. Beste ainbeste, ezkontzea ona izanañen, zerurako bide zuzena izanañen, gurari gaiztoen eta biztaldiko ardura lañegien laañak oratu ta eltzen dautse, geyenez, ezkonduai, ta zerurako bidean atzera eragiten dautse.

¿Zer egin ba orduan? Belduak dasana: *Epea labuñada. Beraz, emaztedunak, emazterik eztabelakoan bebiltz; negar dagienak, eztagielakoan; pozik dagozanak eztagozalakoan; eta luñekoetan diñarduenak, ez diñarduelakoan... iraizekoa, lasterdoana, da, ba, ludi onen irudia.* (I AD. KORINT. VII - 29).

EZKONGEYAK

Ona emen ezkondu nai dabeneztat buru - austerik latzena, korapilorik gaitzena ta arazorik astunena. ¿Nogaz ezkondu? ¿Nun eta zelan aurkitu norberaren ideko laguna? *Mulierem fortem quis inveniet?* «¿Nork eta nun idoro emakume maratza?» *Procul et de ultimis finibus pretium ejus*. Uriñetatik, ludi-basteñetik ekañi oi diran bitxien erakoa da aren saneuñia edo balioa. *Confidit in ea cor viri sui, et spoliis non indigebit*. Onelako andrearen senañ nasai bizi da, ezereen kezka ta ardura bage; eztauka, bañiz, etxea ornitzeko zerbaiten bila ibili beañik, bear dan gustia emazteak gertu dauka-ta. Artulea ta liñoa etxeratu daroaz, ta gogotik

irun, bere eskuz. Goizean goiz, eguna baño len, jagiten da; otsein eta langilari bear daben janaria gertatzen dautse ta mirabeai bere, euron langaya. Etxe-inguruko baster gustiak arakutzen ditu, bakoitza nun eta zelan dabilan ikusteko; ta beste enparauak bakoitza bere sailean jañi ondoren, ardatzari eldu ta goruetan ekiten dautso. Txiro ta eskean dabilzanentzat esku zabalak daukaz. Aren etxea ezta, ez neguaren, ez otzaren bildur; ba-dago an zer jan eta zer jantzi; bakotxak soñeko biña dabez ta jakia ugari».

Etxeko-andre maratzaren irudi au Goteun berberak egiña da (DE PARÁBOLIS SALOMONIS, XXXI, 10...); ta Espiritu Santu berberarenak dira etxeko-andre perkatxari or dagiozan goralben opagañiak bere. Baña goragañi ta omengañi izanañen oñelako emaztea, diño: *Mulier timens Deum ipsa laudabitur*. «Jaungoikoa'gazko bildur dan emakumea, orixe da goragañi». Enparau onbide ta onoimenak Jaungoikoa'gazko bildur-etik sortzen dira; oñixen gain datzaz; bildur ori da beste oitura onen oñañi ta eustazpia. Beraz oñañia kendu ezkerro, etxerik gogoñena bere luñera erazten dan legez, Jaungoikoa'gazko bildurña kendu ezkerro, enparau onoimenak bere luñera datoz.

Jaungoikoa'gazko bildurduna, maratza, arduratsua, zolia, apatza, eskuzabala, sendoa, mena ta langiña; ara or ezkongeyak, naiz emaztegeya, naiz senargeya dala, bear dituan onoimen eta onbide, edo biotz.-gogoko ondasunak. Baña ¿nun eta zelan aurkitu oñelako bitxi bikain-bakana? Ona oñetarako arauak:

LENENGO. Otoi egin. Ondasun eta emaitz gustiak, goitik, Aita Jaungoikoa'ren eskuetatik datorkiguz. Bear izan aldietan, premiña - ordu gustietan, biotza jaso ta eskatu biar dautsogu Jaungoikoa'ri bere goi - eskar ta

laguntza. ¿Bada noz beafago kistañak zeruko laguntasuna, bizi dan arteko biziera artzera doanean baño? ¿Beste lagun bategaz, betiko bat - egitera, doanean baño? ¿Jakitun edo ez jakin, bik, zuzen - uste edo oker - uste bik, ondo - eritxi edo gaizki - eritxi bik, aziera bik, aituera bik, nayera bik, gizon batek eta emakume batek, beti alkañegaz, aragi baten izateko bustaño astuna, ta ausi ezin leikean ikurton edo sakramentua artzera duazanean baño? ¿Noz premiñago, Jaungoikoa'ri gogoz eskatu beaña? ¿Noz beafago goi - argia, norberari dago-kion lagun bategaz bat egiteko baño?

Gurasoak emon legikeoez umeari etxaguntza ta ondasunak; baña emazte ona, Jaungoikoa'k baño ez. (PROVER. XIX - 14), dirausku Jauna'k Salomonen'en aoz. Jaungoikoa da bakañik, ezkondu gura daunari, lagun ona emon legikiona. Jaungoikoa'ri eskatu bear ba.

Beste joan - etoñi ta gora - bera askotan bere bai, baña ezkontzan baizen argiro Jauna'ren atza agiri danik... ez dakit giza-jazopenetan ete dagon be. Iru maña beintzat ditu gure ele edo izketeak gure bizikide edo erikide artean. Batzuk, *ezagunak*: oneikaz ez dogu alako artu emon andirik izaten. Urin samañetik agurtu, begirakunen bat, noz edo noz itzen bat... Beste batzuk, *lagunak*: naiz dirala eskola - lagunak, naiz auzo - lagunak, naiz bide - lagunak... Oneikaz ezagun utsagaz baño artu - emon geyago izan oi dogu. Baña biotza ikutu-teraño ez dira eltzen. Lagunekazko artu - emonak bañukoak baño azalekoak sañiago izan oi dira. Beste batzuk, *adizkideak*. Esia estutuaz doyan neuriz biotza zaurituaz dua. *Ezagunak* asko dira; *lagunak* gitxiago; *adiskidiak* oso gitxi. Baña jau añaña! adiskide oñein artean be, batek bakañik daroatzuz begiak; batek bakañik jo zaitu biotzean; bat eta betiko zure idekorik idoro dozu. ¿Zer

ete dauko, ba, ořek besteak ez dabenik? ¿Beste gustiak baño onago ete da? Ez. ¿Besteak baño edeřago? Ez. ¿Besteak baño aberatsago? Ezta. ¿Zer dauka, bada, besteak ez dabenik? Zeuretzako egiņa dala. Aren biotza ta zure biotza biok batera izateko egiņak dirala. ¿Ez al dozu emen argiro Jaungoikoa'ren eskua ikusten?

EZKONGEI EREDUAK

ISAAC ETA EREBEKA. Lege Zařeko guraso deun oneitan argiro dausku Jaungoikoa dala senar - emazte zintzoen biotza alkařegaz bizi izateko batzen dituana. Jauna'ren eskua, bařiz, ezta laburtu; ta orduan jazo zana jazoten da gaur bere, bide zuzenez egiten diran ezkontzetan.

Abařan zartu zan; eun ta beřogei urte ebazan; Isaak'ek bere bai, beřogei. Ta seme au ezkontzeko aldia zala gogoratu, ta emazte bat zuzentzeko asmoa artu eban. Baņa, bera bizi zan Kanaan - baster areitako neskarik ez eban nai, emengo gustiak jainko - aizunzale ziran ba, ta ustelduta be ba - egozan. Bere jayoteři ta senidetan begia ezaři eban. Abařan antxiņa Kanaan'era etorteko Mesopotamia'tik urten zanean, etxean gelditu zan Nakor bere anaya. Onen ondorengoak ugari ziran, eta euron arteko neskatila bat nai eban eřaintzat artu.

Onetarako Eliezer ondasun - zařari deitu ta esan eutson: *Isterpean eskua ipiņi ta zin - egin bear daustazu, eztozula Kanaan'go alabarik nire semearen emaztetzat artuko.*

Abařan'ek nai ebanez zin - egin eutson Eliezer'ek eta amar *gamelu* artu, ta eskuarte ta ondasun ugariak aldean ebazala, bidean jaři zan, Nakor bizi zan urira. Ta, joan - da - joan, ez zer egin, ez nora jo ez ekiala geratu zan, eři - inguruan iluntzietan ur - eske etoři oi

ziran oxin - ondoan. Estualdi onetan begiak gora jaso ta otoi au egin eutson Jauna'ri: *Abañan nire ugezabaren Jaun - Jaungoikoa: gaur, ordu onetan, lagun zakidaz, ta nire nagosiagaz eruki zaite. Ona ni oxin - ondoan, ta eriko alabak ur - eske etoriko dira. Nik, ba, neskatiā bati esango dautsot: — Makurtu pitxaña, ura edan dagidan. Eta berak erantzunten ba'daust: «Bai, edaizu ta zure gameluai bere, edaten emongo dautset». Axe izango da zure otsein Isaak'en emaztetzat autu dozuna.*

Otoi au egin ebanekoxe, or nun datoñen Érebeka, neskatiā lirain - edeña benetan, pitxaña lepoan ebala txairo - txairo oxinera ur - eske. Itufira jatzi zan, pitxaña bete, ta etxeruntz abiau zanean, Eliezer'ek bidera urtenda ba-diñotso:— *Neskatiā, ur piskat emongo ba'zeunst zure pitxañetik.*

— *Bai, ene jaunoi* — ta berialaxe pitxaña besoetara artu ta edaten emon eutson.

Arek edan ebanean jardetsi eban: *«Baita zure gameluentzako bere ura atarako dot, banan - banan gustiak edateraño».*

Moñoi zintzoak, Érebeka'ren egiñetatik ezagutu eban axe zala, Jaungoikoa'k aren ugezaba gastearen emaztetzarako eukana. Itandu eutson iya noren alaba zan, eta jakin eban Abañan'en loba txikia zala, bere jatorizkoa, beraz.

Eliezer'ek, añituta, esker - otoi au egin eutson Jauna'ri: *Onetsia ene ugazaba Abañan'en Jaun - Jaungoikoa; ez ditu, bada, bere erukia ta egia nire nagosiagandik aldendu ta bide zuzenetik ekañi naroa nire ugezabaren anayaren etxera.*

Oñen añigariak ez ausaz, baña bai ori baizen zuzenak izan oi dira, Jaungoikoz egiten diran ezkontzetan, Jauna'ren bideak.

TOBITXO TA SARA

TOBI AITA. *Neptali* urian jayo zan Tobi. Gastetxoa zala il yakoan gurasoak, baña beti gogoan izan zituan umearoan aita-amagandik artutako ikasbide ta erakutsi onak. Israel'go érege Jeroboan'ek egindako ufezko txalak gur-egitera joanaren bere erkidiak, Tobi Jerusalem'go txadonera etofi oi zan, Jauna gur-egin eta, Legeak agintzen ebanez, Jauna'ri amarenak eta asikiñak eskintzera.

Salmanasar, Asiri'ko éregeak, Isíael'darak menberatu ta joputzat eroan ebazanean, baita Tobi be beronen emazte ta Tobitxo seme gastetxoagaz Ninibe'ra eroan ebazan. Len etxean legez, orain atzerian bere, egiñen onai zerayen, eta ez eban egundo siñesbakuen oitura txaragaz bere gogoa kutsutu.

Salmanasar'i begiko egin yakon Tobi ta nora-nai joateko ta nai ebana egiteko eskubidea emon eutson. Eskubide onegaz jopu-talde gustiak ikertu ta danai ondo esan eta gogoa jasoten iñardun Tobi'k.

Bein baten, Érages eritxon urira eldu zan, eta Gabelo bere senide ta eritara estutasun lañian ikusirik, aldian eroyan diru gustia bere eskuz egindako agiri baitan emon eutson.

Egun areitan, *Salmanasar* il zan eta *Senakerib* bere ordez jañi zan; baña semea etzan aita baizen ona jopuentzako; ikusi bere ezin egin ebazan.

Tobi'k, aldantza onegaz, lengo eskubideak galdu ta bere senide ta erkide gaxuai zegaz lagundu be ez ebala gelditu zan. Alan da be, egunero ikerten ebazan bere senideak eta poztu ta, al ebanez, beartsuak sorosi be egiten zituan: gose ziranai jaten emon, bilosak jantzi ta ilak obiratu.

Biraoa zala bide, triskantza gogoñaz zigortu eban Jaunak Jerusalem inguruan *Senakerib* bakaldun aña. Etxeruntz etoñela, asperguraz, bidean aurkitzen ebazan Israel'dar jopuak ilten ebazan, eta Tobi'k ildakuen gorpuak arduraz eortzi ta lur emoten eutsen. Au jakin ebanean *Senakerib'ek*, Tobi ilteko ta eukan gustia kentzeko agindu eban. Orduan Tobi, bere emazte ta semeagaz, adiskide baten etxean eskutau zan, arik eta *Senakerib*, beñogeta boskañen egunean, bere semeak il eban arteraño.

Tobi bañiro bere etxera biurtu zan eta, len legez, eñuki-egintzai beste amasei urtian baketsu ekin eutsen.

Jai baten, bazkari eder bat gertau eban bere eñitar batzuekaz jateko ta arein biñ bialdu eban Tobitxo. Bidean joyala Isñael'dar bat ilda idoro eban, eta, etxera etoñi, ta aitari esan eutson. Aita, mayan bazkaldañak itxita, ilagana joan zan, eta lepoan artuta, bere etxeko zulo batera eroan eban, gero obiratzeko asmoz. Senide ta lagunak asañe egiten eutsoen: —*Len bere, lan au bide dala zure burua galtzer jañi dozu, iñotsoen, eta bañiro be oñetan aстера zoaz?* Baña Tobi, bakaldunari baño bilduñago yakon Jaungoikoa'ri, ta egunez ilen gorpuak etxeratu ta gaberdian obiratzten ebazan. Goiz baten, ilak lurperatzetik oso nekatua etxeratzen zala, orma ondoan atsedeen artzen jezañi zan; eta luak artu eban, eta orma goyan egoan enada kabitik zirin egin-bañia begietara jausi yakon eta itxututa gelditu zan. Jaungoikoa'k neke-loñau bialdu eutson, ondorengoai aren egonañi ta eruapenaren ikaspidea, Job deunarena legez, emoteko. Tobi, ba, egoerarik negargañienetan aurkitu zan; ezer barik, nok eta nun irabazi ez, eta len besteai egindako ugitxu ta laguntza biñian. Baña bere uste sendoak ez eban zirkiñik egin. Itxas ertzeko ar-

kaitzak baizen gogor iraun eroyan Jaungoikoa'gan. Senide ta lagunak, baita bere emaztea be, irika ta destañez asi yakozan. *¿Nun da zure itxaropena? ¿Nun zure eruki-egintzen saria? ¿Nun zure ugitxoak? ¿Nun zure obiratzeak?*

Ez egizue oñela jardun, iñotsen Tobi'k, bada deunen jatorikoak gara, ta Beragan zintzo irauten dabena aginduta daukan bizitza itxaroten dogu. Baña emaztea enparauen antzera gaizki-esaka ikusirik, negari emon eutson eta Jauna'ri eskatu eutson, añen ainbeste gaiztakeritik atera ta Beragana eruan egiala.

SARA'REN OTOYA. Egun atan bertan, naibage biziak jo eban Sara, Erágel'en alabea, Eráges'en bizi zana. Neska onek sasi senar izan ebazan, bata bestearen onduan; baña *Asmodek* gogaiztoak saspirak il eutsozan, beragana eldu baño len. Beñola, aitaren mirabe bati asafe egin eutson, uts-egiten artu ebalako. Neskamia jarki egin yakon eta lotsa barik iñotson: *Ez al dogu, añen, egundo zure seme-alabarik ikusiko, ¿gizon itzale oñen alabarik! ¿Zer ba, sasi gizon il dituzun legez ni bere il gura nozu ala?*

Biziro mindu eban Sara mirabearen lotsabagekeri onek, eta etxeko gela baten sartu ta iru gau-egun egin ebazan otoi ta barauz, ezertxo jan eta edan barik:

Ba-dakizu, Jauna — iñoan — egundaño eztodala gizon-miñik izan ta griña gaiztoetatik nire gogoa zaindu izan dodala. Dantza-zaliekaz eztot egundo burua bat egin; ezta buru ariñekaz be enaz ibili. Gizona, bariz, Zu'gazko bilduñez, ez gurari txañez, artu neban. Eta edo neu enintzan areintzako, edo, ausaz, eurak etziran neuretzako; bada, bear-bada, beste batentzako izango nozu. Zure asmoak ezta goz ba gizonaren eskuetan.

Jaungoikoa'k, Tobi ta Sara'ren otoi ta eskariak batera aitu zituan. Tobi'k au ezagaturik, il bear ebalakoan, semea beragana erakañi, ta Jaungoikozko gurasoak emon legiozan onu, burubide ta erakutsirik edere-nak emon eutsozan. Azkenez esan eutson, Gabelo'ri dirua epetan emon eutsola ta Erages'era joan eta axe eskatu bear eutsola, bera bizi zan artean.

Zuk agindutako gustia egiteko gertu nago, — erantzun eutson Tobitxo'k aitari. — Baña Gabelo eztof ezagutzen eta berak be ez neu; ¿zer ezaugarri emon nengio ba? Gañera arako biderik be eztaikit.

Zuaz ba — erantzun eutson aitak — eta ia lagun egiteko gizon zintzo bat aurkitzen dozun.

Etiket urtenaz batera, mutil gaste lirain bategaz topo-egin eban; soñeko ta tayuz, bidezta zirudian. Tobi'k ba-diñotso: — *¿Nundikoa zaitugu, gaste mardul ori? — Israel'daña — erantzun eutson. — Medotaren erialderako biderik ba'aldakizu? — Bai, ba-dakit; sañi ibili izan ditut bide oñeik eta Erages'en bizi dan gure anai Gabelo'renean egon be bai. — Itxoizu, añen, izpar gusti oneik neure aitari iragañi arteraño.*

Aitak beriala bialdu eban Tobitxo gaste arengana, etxera joateko esatera. Etxean sartu, ta Tobi agurtu eban esanaz: — *Poza zurekin betiraunez. — ¿Zer poz izan daiket nik, itxututa nagoan eta zeruko argia ikusten eztofan onek? — Sendo iraun, laster osatuko zaitu Jaungoikoa'k - eta. — ¿Nire semea Gabelo'nera eruan ete daikezu?*

— Bai, eroan eta ekañi be egingo dautzut. — Ondo ibili bada, ta Jaungoikoa zuekin izan bedi, ta aingerruak lagun bekitzue.

Ta biderako jana gertau, ta biak abiatu ziran.

ESKU ESKATZEA. Erages'era eldu ziranean, Tobitxo'k

lagunari itandu eutson: —¿Nun egingo ete dogu gaua? Gotzonak erantzun eutson: —Ara, ementxe bizi da Eragel deritxon gizon bat zure senitarte ta erkikua: onek, Sara deritxon alaba bakara dau, ta ez dauka beste seme-alabarik. Bere euki gustiak zuri dagokituz ta emaztetzat eskatu bear dozu. Aitari eskatu egiozu ta eztautzu ukatuko.

Tobitxo'k erantzun eutson: —Emakume onek saspí senar bat-banaka izan dituala eta saspírak gogaiztoak il dautsazala entzun izan dot. Bildur naz, ba, neuri bere, beste oren beste jazo, ta nire guraso gixajuen zartzaroa samíñez jatziko ete dan ilobira. Gotzonak erantzun eutson: —Aitu, ta erakutsiko dautzut nortzuk garaitzen dituan gogaiztoak. Jaungoikoa burutan artu ez, ta adimenik ez dauken asto ta zaldia bai-lira legez, griña txarai jarein-da ezkontza artzen dabenak; oneixek bereganatzen ditu gogaizto edo diabruak. Baña zu ezkontzen zareanean, gelan sartu ta iru egunean ez ikuturik egin; biok otoi egiten jardun. Eta irugañen gaba igarotakoan, ez gurari gaiztoz, seme-alaba guraz ta Jaungoikoa'gazko bilduñez baño, artuko dozu neskarbia.

Joan ziran, ba, Eragel'enera ta oso txera edeña egin eutsien.

Tobitxo'ri begiratuta, Ane bere emazteari inotson: —¡Gaste onek bai daukala gure lobatxuaren antz aundia!

Gero gastiai itandu eutsien: —¿Nunguak zarie gure anai gasteok? —Neptali - erkikoak, Ninibe'ko jopu taldekoak gara. —Ta, Tobi, nire anaya ¿ezagutzen al dozue? —Bai, ezagutzen dogu.

Ta on asko esaten ziarduala, gotzonak esan eutson: —Tobi ori, gaste onen aita dozu. Au entzunaz, Eragel-

ek Tobitxo besarkatu ta negaiez mosuka asi yakon. Baita Ane ta Sara be negaia erioela egozan. Apari eder bat gertatzeko agindu eban Erágel'ek, baña Tobitxo'k esan eutson: —*Eztot nik gaur ez jan, ez edango, areik eta nire eskaria onetsi, ta Sara zure alaba emaztetzat agindu arte.*

Eskaera onek izutu eban Erágel, beste saspirai yazo yakena jazoko ete yakon bilduez, ta erantzuteko espaz egoala, gotzonak esan eutson: —*Ez bilduñik izan; emoyozu zure alaba emaztetzat Jaungoikoa'gazko bildurdun dan oni, beroni yagoko-ta; orixegaitik eztau bestek bereganatu al izan.*

Orduan Erágel'ek alabearen eskumea artuta, Tobitxo'ren eskumeari ezañi eutson esanaz: —*Abañan, eta Isaak, eta Jakob'en Jaungoikoa zuekaz bedi, ta Berak alkartu bizayez, ta aren onespena zuekan bete bedi.*

Senidientzat gertau eben aparia, estegu-apari biur-tu zan.

Tobitxo ta Sara ezkon - bañiak, lagunak len esan eutson, lenengo iru gabak otoitzetan igaro ebezan. —*Deunen semeak gara — iñotson Tobitxo'k Sara'ri — ta Jaungoiko'rik ezagutzen eztabenak legez ezin ezkondu geintekez.*

Auxe zan Tobitxo'ren otoyá: —*Jauna, zeuk dakizu, ez lizunkeriz, oñordekoak izan-guraz baño, artu dodala neure arébau emaztetzat, geure umeak zure izena aldi oro goretsi dagien.*

Eta Sara'k: —*Eruki gutzaz, Jauna, eruki gutzaz; biok batera osasuntsu eldu gaitazan zartzañora.*

Tobitxo esteitan egoan bere aitama-giñeráben etxean, baña ba-zekian bere aita ta ama luze eretxirik, neke-miñetan egongo zirala, ta naigabe onetatik atera nai izan ebazan. Baña bidean ipiñiázo eban arazorik astu-

na, ondiño egin barik eukan. Lagunari deitu ta bere kezka ta burutantziñoak adirazi eutsozan. Laguna bertatik bidean jañi zan, eta Gabelo'ri agiria biurtu, dirua eskuratu, Tobitxo'ren ezkontza ta enparau jazoera gustien bañi emon, eta estei-onduak zirauela itzuli ziran bañi Eragel'enera. Gabelo'k bere ongile Tobi zañaren semea ikusi ebanean, besartean artu ta laztandu eban, eta Jaungoikoa'ren asmoak gur-egin eta ezkon-bañiak onetsi ebazan, ondorengo luzea opa izanaz.

Tobi zaña ta bere emazte Ana, kezkaz ta artega egozan semearen etxera biurtzeari luzeegi eretxirik.

— *¿Zergaitik ez ete dator nire semea?* — iñoan Tobi'k. — *¿Ez ete da, ausaz, Gabelo ña izango ta ez dautsoe dirurik emon gurako?*

— Ama gaxuak bañiz: — *¡Ai, ene semea! ¿Zergaitik bialdu ete zaitugu bidezti tayuz urñetara, gure begien argi ori, gure zartzaroko laguntza, gure bizitz-poza, gure ondorenaren itxaropena? Ez geuntzun, ez, gurgandik alde egiten itxi bear.*

Tobi beti eroapen andiko, emaztea poztuten asi zan esanaz: — *Ez zaitte geyegi estutu; ixildu zaitte; gure semea onik izango da; oso zaindua zan, ba, lagun eroan eban gizona.*

Baña alpeñik; ama egunero basterik-baster ebilen nunbaitetik begiztauko ete eban edo, bere semearen kerixea.

Bitartean Eragel'ek iñotson: — *Tira, gelditu zaitte emen; neuk bialduko dot etxera geznaria, aitari zure bañi emoteko.*

Tobitxo'k erantzun eutson: — *Ara: nik ba-dakit nire aita ta amak egunak zenbatzen diarduena ta arein gogoa oñazez suminduta dagona.*

Alegiñak-alegin egin ebazan Eragel'ek Tobitxo gel-

di-azoteko, baña ezin eikeala ikusirik, ondasun gustien erdia emon eutsien eta pozik bialdu zituan seme-alabok esanaz: — *Jaungoikoa'ren gotzon deuna zuen bidaldian izan bedi, eta gaitzik bage eroan bizayez, eta zuen gurasoak ondo aurkitu, ta gure begiak zuen seme-alabak ikusteko izan beitez.*

Gurasoak alabatxoa besarkutu ta mosu emon eta bialdu eben esanaz: — *Aitama-giñerabai dedu ta lotsa izan, senaía maite izan, sendia erabili, etxea eratu ta bere burua garbi zaindu egiala.*

Itz laburak, baña benetan esakoyak, emakume ezkonduen izaera ta egin bear gustiak artzen dituen itzak.

IDEKOAK ALKAÑEKIN

Bigaz bat egiteko da ezkontza. Batago ta zoriontsuago izango dira ezkonduak. Eta alkañen idekoago ta bat-izateko gertuago. Gauza gustietan da oso ona, ta ederto dirudiana, bardintasuna. Baña ezkonduentzat, nai-ta nayezkoa deritxot. Biak ba'dira Jaungoikoa'gazko bildurdunak, eleiztar zintzoak, aziera onekoak. Biak ba'dira andi-usteari, euki-nayari, alpeferiari, ta okerkeri ta obenari, dana-dala, bardin begiratzen dautsenak: Biak ba'dira, gitxi gora-bera, adin bardiñekoak, — «gitxi gora-bera» diñot, iru edo lau urteren alde ta gizonezkoagan geyagorena bere, aintzat artugañi ez diralako; — biak ba'dira enda ta odol bardiñekoak, ta gitxi gora-bera, euki bardiñekoak; — emen be «gitxi gora-bera» diñot norbera baño ezkongei aberatsagoa artzeko asmoa, asmo zuzena ba'da beintzat, ona izan leiteke. Gorago igoteko jasa berez dagokio gizonari. Ta diru ordez euki legikez beste ezkongeyak edo on izatea, edo jakituri ta entzute ospetsua edo irabazpide bikaña ta abar; — biak

ba'dira ifits, izakera ta griña bardiñekoak; biak ba'dira Eleiz Amak agintzen dauan legez gertauta, ta Jesukristo gure Jauna'k ipiñiriko asmoz, alkar maite izateko eta zerurako seme - alabatxoak azteko asmoz ezkontzen diranak; oneik bai, oneik onetsiko ditu Jauna'k eta zoriontsu izango dira.

Baña bata Jaungoiko-zalea ta eleiztar ba'da ta bestea gauza oneik aintzakotzat artzen ez dituana; bata gaste liraña ta bestea zar azal zimurtua; bata aberats-aberatsa ta bestea ezeuki ta txiroa; bata nekazaria ta bestia andikia edo andiki useñekoa; bata estu piña ta bestea nasai ezerk eragiten ez dautsana; bata euki-gura ta egin-gura zale, ta bestea burugin gastalaria; bata beargin arduratsua ta bestea itxi alpeña... Zer maitasun izan leiteke onein artean? Maitasuna, ba, alkañen antzeko izatetik sortzen da; antz geyago ta maitasun goriagoa. Alkañen antzik ezpadago, maitasunik bere ezin egon leiteke.

Lenengo egunetako txiribiri gaña itzali ta amatautakoan, geroago ta otzago joango dira biotz oneik. Zoriontasunik ezin izan leiteke onein artean. Edo norberak eztaukan akats edo obena, lagunari arpegian ezañi leikiolako. Edo bataren eretxi ta bizieriagaz bestea bat egingo eztalako.

Oso itxusi ta naskagañi, ta negargañiak bere bai, dira batez be neskatiña gaste ta agure zaar edo mutil gaste ta atso zaar arteko ezkontzak. Diru amofuz egin oi dira ezkontz oneik. Baña bein baño sañiago jazo da, diruak joan-da, begiz be ikusi nai ez dan atso edo agure zaaña etxean geratzea.

Ezkõndu auñetik begiratu ba, nor ta zelakoa aukeratzin dozun betiko laguntzat. Ez itxu-itxuan ezkontzarik egin. *Zaldi bat etxera ekañi bear ba'da, idi edo biga*

*bat erosi bear ba'da, itanduten da ta ardura andiagaz alan bere, zeinbat urte ete dituan, jalea ete dan, joi-kerarik edo joteko griñarik, edo estulik edo beste gaitzik ete daukan. Moñoi bat artu bear ba'da, zintzoa ta oitura onetakoa ta langiña dala jakin bage ez da etxeratzen. ¿Eta betiko zure laguna artuko dozu, zelakoa dan jakin bage? Auxe diño Jeronimo deunak. Eta dañai: ¿Nor arduratzen da ezkongeyaren oitura on eta izakereagaz? Inñor be ez. «Nullus omnino». Ze diru ta ondasun daukan itanduten da, baña enparau gauzarik... ¡bai zera! Zaña da nunbait gexo au. Augaitik dabiltz gauzak dabiltzan legez. Augaitik ain uriak ezkondu zoriontsuak. Onetan mutilak baño neskatilak uts geyago egiten dabela uste dot. Mutilak, edo tentelen batzuk ezpadira edo griña txañez begiak lausotuta ezpadabez, obeto aztertu, ta adialdu ta oldoztu oi dabe egoki ete yaken ala ez *urlia* laguntzak. Jesus'en Terese deunak esana da, ta zuzen alan be: *Mutilai, jolas egiteko, neskatila buru-ariñak yakezala gogoko; baña ezkongeya aukeratzeko aldian, neskatila onenai ezarten dautsela begia.**

Neskatila aroputz, buru-jaso ta jantzi-zaleren bat ikusitakoan, onelako autuak erabili oi ditue mutil sentzundunak: *Edeña baizen eroa da. Ori ez da guretza-ko ofaztuten. ¿Nok irozo oñen jantzia?*

Ondo egiten dabe. Ezkontzako korapiloa eriotzaz baño uratu ezin leitekeana da. Lotu aurretik gogoratu nor ta zelakoa dan bizi-laguntzat artu nai dana.

Berebat egin bear leuke neskatileak bere. Ez orkozkoletik urten orduko jairik-jai ta jolasik-jolas ibili, beti gauza bat gogoan eta asmotan dabela, beste zeregiñik eta eginkizunik ezpaleukean legez. Kristo gure Jauna ezkeroz, gizona beste da emakumea bere. Eztabe

neskatilak, senargei bat ařapatzeko, euren burua lotsa-
galdu ta nabarmendu beařik, ez burua erakus-guraz,
ez jolas usteletan ibiliaz, ez jantziera bařegariz, ez bi-
loskeriz. Ezta lenengo datořenari *bai* esan beařik bere.
Gizon-emakumen eskubideak onetan beintzat, bardiñak
dira. Mutil zuuřak emaztegeya artu auřetik, egoki izan-
go ete yakon ala ez, bene-benetan arteztu daroan legez,
baita zuek bere, *bai* esan auřetik ondo aztertu ta begi-
ratu zuen zorionerako ala zuen negar-bide izango ete
dan eskua eskatzen dautzuen gizongeya.

Ta onetarako, Jaungoikoa'gana jo. Senar ona, emaz-
te ona letxe Jauna'ren amaitza da. Ezta ori eřirik-eři ibili-
-ta eskuratzen. Bati baño geyagori jazoten yake, atez-
-ate, salgei dabilan soñeko edeřari jazoten yakona
etxeko erdirik be eskiñi ez kalean. Esku-artean erabili-
tako lorarik etxako iñori atsegin izaten. Ez lizunkeri
zingirara jatzi senargei bila. Ez zuen biotzak obenez
zikintzeko zorian jaři. Jaungoiko-zale, zintzo, maratz,
men, garbi, begiratuak izan zaiteze zuen bizitz agerbide
gustietan, autu, jardun jantziera, ibilera, jolas ta oiture-
tan. Auxe da Jaungoikoa'gandik bizi lagun ona jades-
teko bide zuzena. Ta emoten ezpadautzue, ez estutu,
ezkontzarako nai etzaitualako izango da.

DIRUA TA EZKONTZA

Sustrayan gaitza daukan landaria, lur onian ego-
nařen, beti izango da erkiña. Oñařia loka daukan ormia,
beti dago jarkera txařagaz, jausteko ařiskuan, azaletik
eder antza izanařen. Beste ainbeste jazoten da ezkon-
tzeko biziareagaz. Asieran uts egiten da; oñařia loka
jaři; sustraya gexotuten yako ezkontzeari, ta lenengo-
-lenengotik geratzen dira ezkonduak alkařen arteko

gaitzagaz, ta atsegin barik eta bake on bagarik bizi izateko gexoagaz. ¿Aritzeko al da bada, gero alkar ez artzea?

Saŕi egin oi dira, laster aitzu edo amaituten diran luŕeko gauzakaitik, bestela egingo ez litzakezan edo egin bear ez litzakezan ezkontzak. Jaungoikoa'gazko bilduŕa ta ezkongayen alkar-maitasuna, aintzakotzat artzen ez diran ezkontzak. Laguna bere gogoko ez dala, ta a baño beste bat bere laguntzak gogoan obeto jausten yakola, egiten diran ezkontzak. Ezkontza oneik sustrayan daroye gaitza, ta iñundik-iñora ezin leitekez zorientsu izan, onela ezkontzen diranak.

Onein artean dagoz diruagaitik egiten diran ezkontzak.

Eztiñogu ezkonduak ezabela aintzat artu bear *dote* ona, edo bizibide baŕian zegaz bizi eukitea. Esakun zaŕak diño: *Ezkondu baño len, etxea*. Ta Paul deunak baŕiz, gurasoai yagokela seme-alabai zegaz bizi lagatzea. Goyan izaŕak eta beyan lur igeŕa ondasun dirala, ezkontz-oñaŕia ipintea, gauza baltza da.

Ezkontz-laguna *dote* onekoa izatea, zerbait geyago daukana edo aberatsa nai izatea, eztau iñok deungatzat esten, dirua ta ondasunak dagokioen neuŕiz artu ezkerro. Bidebagekeria ta sail gaiztokoa, aberatsa dala-ta, norberaren gogoko eztanagaz ezkontzea da. Alako ezkontzeak, asiera eŕena daroa beragaz. *Emaztea artzen dauanak ezkontzari utsagaitik, biaramona dau damu-eguna, gaitz daŕaikonagaitik*.

Ezkongeya etxako norbaiti gogoko, edo ordia, edo jokolaria edo oitura nasayetakoa, edo axetsua, edo kistar - usain gitxikoa, edo alpeŕa, edo jatoŕi ba - dezpada - koa, edo osasun makalekoa dalako. Oneitariko utseite edo griña txarŕak dituala - ta, gogoa ilten yako; ezin



iruntzi; ezin baruan sartu. Baña ezkontsari ugariduna dalako, aberatsa dalako, eguneroko irabazia eskuetan daukalako, edo aundiki artekoa dalako, ezkongeyari maitasun izpirik ez dautsala, eskontzen da aregaz. Ezkontza onek sustrayan daroa afa. Ezetatik bere ezin leitekez gozatsu bizi.

Batetik, dirua ta ondasunak axia legez dira. Askotan, bapere igafi bagarik, keya legez eskutatzen dira. Au saritan esaten dausku Idazti Deunak. Eta egunero ikusten dogun gauzea da. Gizon bat naiz emakume bat da asko, etxerik gogorrenak lufera erazteko; etxeguntza osoak galtzeko.

Dirua bide dala, gogoko eztan lagunagaz ezkontzen dana, diruagaz lenago ezkontzen dala, esan legi, lagunagaz baño. Laguna gura ez leuke, ta dirua gura leuke. Ta laguna bagarik dirua ezin dauanean, gura ez dauan laguna, gura dauan diruagaitik, artu daroa. ¿Ta zer jazoten yake, alako dirugurako ezkonduai? Ez gitxitan jaso oi yaken, maite daben dirua joan, eta maite eztaben lagunagaz geratu.

Baña diruak eta ondasunak iraun-da bere ¿zetan gelditzen da gogoko etxakon lagunagaz ezkontzen dana? ¿Zeinbat senar - emazte aberats eta bake txafeko ikusten dira? ¿Ez al da egia, bake gaiztoa egiten dabeen senar - emazterik geyenak, zerbait eukian dagozanak dirala?

Beartsu edo mee samar bizi diran senar - emazteak, bake geyago oi dabe euren artean.

Ezta, ba, ezertxo, senar - emazteen bake ta zorionerako, diru asko euki ta aberats izatea. Diruagaitik ezkondu danari, laster aitzu duakioz lagunak ekañi zitudan ondasunak, eta biziro gogoratu aren utseiteak. Len dirua zala - ta, artu eban laguna. Orain laguna ez euki-

teáren emongo leuke dirua. Ez egin, bada, diruari ta eukiari poztuta, bestela egingo ez-litzaken ezkontzarik. Ez esan: *Ezkontzari ona dauka - ta... Etxe onekoa da-ta... Aberatsa da-ta... alkar artuko dabe*. Begiratu lagun - geyaren oitura ta ekandu onari, zintzotasunari, kistartasunari, ta beragazko maitasunari.

Ezkonduen arteko bake ta zorion - itufia, onbide oneitan dago.

IÑOREN EDEÁAGAITIK EGITEN DIRAN EZKONTZAK. Geroago ta ufiago doyazala dirudi iñoren edeáez egiten diran ezkontzak. Gaur eguneko gasteak buru - jaso samarák yatzuz, ta onako arazo astunetan ez eze, arintxoagoetan bere ez dagoz iñoren mende jarteko. Ezkontzari buruz oso ondo egiten dabe.

Kaltegarí be kaltegaría da, edo gurasoak bitarteko dirala, edo senideak, edo ugezaba, iñoren edeáez edota zemai ta bilduez, egundo gogoan sartu ez yakon lagunagaz ezkontutea. Sustrai gexoko ezkontza da au. Igali onik ezin ekaí legike.

Egia da; seme - alabak eztabe ezkontz - itzik emon bear, al dala gurasoen naya bagarik, edo gurasoen orde z dagozanai esan bagarik, eta euren zuzeneko nayaren aurka. (CATECHIS. ROM.) Gurasoen gogoa ta onespena seme-alaba ezkontubai zorion-bide izango yake.

Geyenean, seme - alabak baño obeto dakie gurasoak eurei ondoen yagokoen laguna. Gurasoak Jaungoikoa'ren orde z dagoz. Seme - alaben ona nai dabe. Seme-alabak baño burua astunago dauke. Adimen zoíotzagoa ta ezaguera argiagoa. Ta geyenez, umearen ezkontzeari ta ezkongeyari obeto begiratuko dautsa guraso elduak, gasteak berak baño.

Ziyo oneik dirala - ta esaten yukue seme - alabai: **LENENGO**, gurasoai eretxia eskatu bage ezkontza egitea,

al izan ezkerro, oben dala. BIGARENA, guraso elduen ta Jaungoikozkuen eskuetan itxi daikiela umeak, euren bizibideko laguna aukeratu ta ezkontza egitea. IRUGAREN, guraso elduen naya egiñagaz ezkontzan, Jaungoiko beraren naya egin daroye zelanbait umeak. Ta alako ezkontzak asiera ona daroa beragaz. Zer - ikusi aundia dauke guraso elduen gogo ezaz egiten diran ezkontzak, ta oi dira, ez gitxitan, amai gaiztokoak, Begie, ba, seme - alabak onetan bere, beste edozein arazo astunetan legez, guraso zuzenen esana. *Baña guraso eldu ta Jaungoikozkoen esana, ez alako guraso eltzake, buru-arin eta diru-zale diranen esanik.*

Guraso, ta senide, ta ugezaba, naiz beste edozeñek, bañiz, ez bekio iñori ezkontzarik aitatu, bere nai osoko, gogo osoko ta ezaguera osoko lagunagaz ez dala. Ez dagiola iñoiz iñori, ez umeri, ez moñoiri, ez menbekori, ez besteri, esirik edo munarik ipiñi dote ezkontzaria, edo etxia edo adiskidetasuna ukatu, urliagaz ezkontzen ezpada. Bizitz onetan inpernu edo gaiztoki txiki bat eta gero betiko andi bat irabazi eragin ez dagioen.

SENITARTEKO EZKONTZAK

Eleiz Ama'k eragotzita daukaz senide - ezkontzak. Ta ezkontzok eragotzita daukaz: LENENGO, senitarteko odolari yagokan lotsa onagaitik. BIGAREN, ezkontza onen eta Jaungoikozkoen bitartez, zabaldu dedin kistar artera ta len senide ez ziranen artera ezaguera, adiskidetasuna, ta alkar maite izatea. IRUGAREN, senidiai obenetarako bidea kentzearen. LAUGAREN, jakintsuak eta gizarteko gexo zenbakuntzak erakusten dauskue-nez, senitartetik sortzen diran umerik geyenak gexotiak, goñak, eroak, ergelak eta makuñak izan oi diralako.

— ¿Ta ezin iñor iñoiz ezkonduko da senideagaz?
 — Asko senidegaz, ez. Beste askogaz, bai. Senikera batzuk ez ditu Eleizeak egundo azkatzen. Beste batzuk bai. Goitik berako senide eragozpena, ez dau egundo Eleiz Ama'k jasoten. Ezin legike, ba, iñoiz ezkondu aitita ilobiagaz. Osterantzeko senide-ezkontzak, irugarren belauneragiño galazota dagoz. Ta aide ezkontzak edo ezkontzatik bertatik ernetzen dan aidetasunekoak, bigarren mailaraño. Eragozpen oneik ipinteko legez, jasoteko bere eskubidea dauka Eleiz Ama'k. *Zergaiti* edo zio astuna ta egiazkoa bear dabe baña senideak, alkarrekin ezkontzeko eragozpen ori Eleiz Ama'ri jaso eragiteko. Onen - onena Eleiz Ama'ren gogo - nayari jaraitu. Auxe da biderik zuzenena gauza gustietan. Baita ez gitxien ezkontzetan. Jaungoikoa'ren naya ta Eleizearen naya bardiñak dira. Eleizearen nayari ezkontzan jaraitzen dautsanak, beragaz daroa asiera ona, baita Jaungoikoa'ren onespen eta keriza ugari-onurakoña be.

EZKONGEYAK ETA OSASUNA

Ez aldunak, ez osagileak, eztabe eskubiderik gexota gexotiai ezkontza eragozteko. Eragozpenak ipiñi naiz kendu egiteko eskubidea, Eleiz Ama'ri bakañik emon izan dautso Jauna'k.

Baña ezkondu bear dauanak, ezkongeya aukeratu, edo bayetza emon aurretik, arduraz begiratu biar dau, osasuntsua dan ala ez. Gaur, gauza jakintzakoa da, gexorik geyenak odolez datorkiguzala. Odol onekoak edo odol zitaldutakoak izatea, gexobereak edo osasuntsuak izatea, onera edo txañera makurtuak izatea, gurasoi zor dautsie askotan seme-alabak. Erantzupen latza izango dabe ba, gastearoa oitura txañetan erabiltearen,

osasuna galdu, gexo naskagañiak batu, ta gero, munduz aspertuta dagozarian ezkondu, ta ezkontza bidez seme-alabai odol galdua sanetaratzen dautsien gurasoak. Baita lirañago agertzearen edo, gorputza sendo ta gogor zaintzen ez daben neskatilak bere.

«*Gogo sendoa gorputz sendoa*»; orixe da kistar elburua ta amesa, ta orixe bilatu biar dabe ezkongeyak alkañegan.

— *Zetarako da Ezkontzako Sakramentua?*

— *Ezkontzeko ta ezkonduai, alkañekin bizi daitezcan eta seme-alabak zerurako azi dagiezan Jaungoikoa'ren laguntza emoteko, da Ezkontzako Sakramentua.*

Ezkontza ikurton dala Luter'ek eta beronen jañaitzaileak ukatu izan dabe. Gaur egunean, edonun bere, egi au gogoz ta sustraiz irakatsi ta aldeztu beañean gagoz.

Bateatuen artian, ezkontz-itunbena ikurton izatera jaso eban Kristo gure Jauna'k. (KAN. 1012).

Beraz bateatuen artean, ikurton eztan ezkontz-itunbenik ezin izan leiteke. (IBID. 2).

Ezkontza, Kristo gure Jauna'k Lege Bañian ipiñi ebazan saspì ikurtonetatik bat egiz ta benetan ezuala, gizonak Eleizan asmaua baño, ta goi-eskar edo graziarik be emoten eztauala norbaitek balesa, anatema izan bedi. (TRIDENT. SESS. XXIV-CAN. 1).

EZKONDU, senar-emaztegeyak alkañegaz batu, lotu, ezkontz-arazoetako bata besteagaz itundu, da. Alkañtze onetan, senargeyak bere gorputz jabetasuna emaztegeyaren eskuetan ipiñi daroa; ta emaztegeyak, berebat, gorputz jabetasuna senargeyaren eskuetan. Alkartze au, itunben au, ezkongeyak alkañekin lotzen dituan

korapilo au, jaso eban Kristo gure Jauna'k ikurton izatera. Ezkongeyak eurak dira ba sakramentu onen artzaile, ta egile bere bai. Ezkontz-itzak esanaz batera, *bai* esanaz batera, bear danez gertauta ba'dagoz beintzat, jausi doa ezkonduen gain, biak alkañegaz betiko bustartu ta goi-eskar ta graziaz arein gogoak sendotuko dituan Jesukristo'ren Odola.

Itzaltsu dirausku Paul deunak: *Sakramentum hoc magnum est, ego autem dico in Christo et in Ecclesia.* (EPHES V, 32). Ikurton au andia da; baña, nik Kristo ta Eleizari buruz diñot. ¿Zer esan gura ete dau emen Belduak? Eskutapen sakona iragarten dausku itz oneitan Paul deunak. Senar-emaztien alkartasuna Kristo ta Eleizaren arteko alkartasun irudia dala dirausku. Alkartze au bitariko da ba. Bata, Jaungoiko-Semea'k gizatasuna beretu ta beraganatu ebaneko ezkontza. Bestea, Kristo gure Jauna'k bere odolaz erositakoakaz daukan batasuna. Alkartze, ezkontze, batze (bada itz gusti oneikaz adirazi daroye Guraso Deunak) bikoitz onen irudia da ezkontza. Ta Kristo gure Jauna'k Eleizagaz dituan artu - emonen antzekoak dira senar-emazteak alkañegaz dabezanak. Adan lotan egoala, beronen sayetzetik atara eban legez Jauna'k lenengo emaztea, Kristo gure Jauna, Gurutzean, eriotz-lotan egoala, bere sayetzetik sortu zan baita Eleiz deuna bere, diño Guraso Deun batek.

Beraz, Jaungoiko-Semea'k gizatasuna beraganatuaz donetsi eban legez, ta Kristo gure Jauna'k Eleizea eskar ta graziz donetu daroan legez, baita, bere eskar ta grazi donetzalea ixuri daroa, bear dan legez alkartzen diran ezkonduen gain. Aundia da, ba, benetan ikurton au, ta gizartean izan daiteken alkartzeetatik deunena senar-emazteen alkartasuna.

Giza - maitasuna bikaindu, ta ezkontz batasun

ausi - eziña sendotu, ta senar - emazteak donetuko ebazan eskaña Kristo gure Jaun berberak nekaldi ta eriotzaz irabazi euskun. (TRID. LOC. CIT.).

Giza-maitasuna bikaindu. Ta ez edozelan bikaindu; bikaintasunean erpiñeratu; ondasunean gorengo galu-fera jaso. *Jaungoikozko eskañak ezotu daroa senar-emazte arteko batze au, ta arerioen eraso ta ekiñaldi ta lizunkeritik zaindu, diño Tertulian'ek.*

Kistar arteko ezkontzetan, ugaritasuna baño geyagotzat etsiten da sakramentuaren deuntasuna, dirausku Agustin Deunak.

Gure arerioak ezkontza beeratu ta ostikopetu nai leukie. Oretan diñardue. Bai, ba: Ba-dakie ezkontza gizadi oñaria ta sorburu edo itufi dana. Ta itufia ziteldu ezkerro, gizona ondatuta dago. Ezkontzari gañantzia kentzearen edo, esaten ei eban Luter'ek: «Luía landu, ta zapatagintzan jardun, eta ezkondu, an arenbaten dirala, eztirala bata baño bestea deunago».

Ta oraingo arerioak auferago doyaz. Onein eretxiz, gizon-emakume arteko alkartzeak emekeriak edo maitekeriak ei darabiltz, ego-axiak orbel igeña erabili oi dauan legez. Oneik, bai, euren buruai jakitunak deitu ta erotu egin dirala. ¿Nok uste ainbesteraño aberetu ta astotu biar dauala gizonak? Eleizeak, ostera, ikusi dogun baizen gora, Kristo gure Jaun eta Eleizaren ondoan jarteraño, jaso daroa ezkontza. Ezkonduen artu-emon eta alkañenganako eginbeñak, Kristo gure Jauna'k Eleizeagaz daukazanetatik ebatzi daroaz. Irakurgaña da Paul deunaren idazkia. *Emazteak, Jauna'ri legez, senañai memberatu bekiez; emaztearen buru senaña da, Eleiza'ren buru Kristo dan legez. Beraz, Eleiza Kristo'ren menbean dagon legez, emazteak bere, senañen menbean begoz gustirako.*

Zuek, senañok, zeuon emazteak maite izan egizuez,

Eleiza Kristo'k maite izan eta bere burua arentzat emon eban legez... Oñela, senařak euren soñak legez euron emazteak maite izan bear dabez. Norberen emaztea maite dauanak, bere burua maite dau. Inork eztau, ba, bere aragia gořoto izaten, azi ta zainduten baño, Kristo'k bere Eleiza legez. Oñela, ba, zuenean be, bakotxak bere emaztea bere burua baizen maite begi; emazteak, bařiz, senařari lotsa berakuskio.

JAUNGOIKOA'REN ASMOAK, EZKONTZAN

¿Zertarako ipiñi ete eban Jaungoikoa'k ezkontza?
 ¿Zein izan ete zan Jaungoikoa'ren asmoa ezkontza jar-tean? ¿Zein ete da ezkontzari, ezkontza danez, dago-kion elburua?

Garantzi andikoak dira itaun oneik, eta norberak ikasi ta beste batzuei irakatsi beařekoak, batez bere aldi onetan. Bada beste edozein arazotan legez, ezkon-tzan bere, *finis regula cæterorum*, «Eginbear gustien arau ta neuřia, elburuak damosku».

Lenengo ta bein, seme-alabak izan eta azteko ipiñi eban Jaungoikoa'k ezkontza: *Crescite et multiplicamini et replete terram.* (GEN. I. 28). «Geitu ta ugaritu ta luřa bete egizue».

Gero, bai etxeko azi-ořazi ta zeregiñetan, bai seme-alabak azten, alkaři laguntzeko: *Faciamus ei adjutorium simile sibi.* (IBID.).

Azkenez, griña txarēn osagařitzat. Zilegi diran atse-giñak neuřiz artu ezkerro, ba, galerazota dogozenen kuteřik eztabe izango giza-griñak. *Quodsi non se continent, nubant; melius est enim nubere quam uri.* «Buruari garbi eusteko ezpadira, ezkondu; eřetea baño obe da ba ezkontzea». (KORINT. VII, 9).

Lenengoa da, baña, ezkontzaren gunean sartzen dan asmoa ta oni buruz jardun beara dogula deritxat, irakatsi beara daukagun gustiok. Ots-egin, ots-egin artzaintza lepoan daukazuenok, bada gu ixilik eta erdi-lotan egon garean bitartean, otsoak gure artaldean sartu dira ta triskantza gogora egin daroe. Ixilik egonda, eztoigu ezertxo irabazten. Irakatsi, irakatsi ezkonduai euren eginbearak. Bai Paul deunak, bai Belduen Buruak, ezkontzaren donetasun eta anditasunari ez eze, ezkontz-zeregiñai yagokiezan gauzak toki askotan arduraz idatzita itxi ebezan. Ba-ekien ba, Jauna'k argituta, kistar eñiari onura asko letorkiola, siñesmendunak ezkontzaren deuntasuna ezagutu ta garbi zaintzetik; alderantzira, kalte asko letorkion legez Eleizeari, deundasun ori ezagutu ez, edo aintzat ez artzetik. (CAT. C. TRID. P. 2. C. 8).

Irakatsi, diñotse Eleiz - Legediak be txaunburuai, irakatsi ezkonduai ezkontzaren deuntasuna, ezkonduen alkañegazko eginbearak eta gurasuen umiekazkoak. (CAN. 1033). Buaz ba bein betiko gure artetik, ezta-kienai begiak zabaltzeko izukeria ta atso-keskak. Ondo zabal daukiez, zoritxañez. Gauza oneik, bear dan begirunez, azaldu edo entzutean oben egin daroanak, bere eñuz oben egin daroa.

Seme - alabak eginbeara, ezkontzaren eñayetatik sortzen da. Oñetarakoxe alkartzen dira senar-emaztiak. Oñetarakoxe itxi daroa, ezkontz-itz bidez, bere gorputz jabetasuna emazteak, senaen eskuetan, eta senaak, emazte-eskuetan. Giza-lege au ausi daroye, edo seme-alabarik ez izateko alegin egiten daben ezkonduak, edo umea sortuta gero, eldu baño len, botateko alegin egiten dabenak. Giz-eraiak, deituten dautse Trento'ko lkasbideak, sorkundea osagañiakaz galerazo edo sortua aldia baño len botaten daben ezkonduai.

Eleiz-Ama'k, doibazkatu — exkomulgau — egiten ditu ume-galtzeko alegin egiten dabena, ama ta gusti, umea galdu ezker. (CAN. 2350). Astunenetarikoa da obena au ta izugarriak ortik datorzan kaltiak. Eta ez uste gure eria ortik garbi dagola. Nik eztaikit sarkalde bari; baina sorkaldea, onetan, buruz bera auzenen dua.

Zegaitik bete bear dabe agindu au ezkonduak? LENENGO, Jaungoikoa'k eskatzen dautsielako. Aitatasun oro Jaungoikoa'gandik dator. ¡Ba-lekie gurasoak aita izatea zer dan! Jaungoikoa'k, gizon egikeran, bere langidetzat artu. ¡Ta onetan bere uts egin!

Jaungoikoa'k ipiñia da, ba, agindu au ta ezin leike atzera egin.

Gero, etxe, eri, sendi ta baster gustietako zoriona edo zoritxara umeak ugari izatean dago. Edonun idoro leikez egi au aldeztuten dabena idaztiak. Jakitun, eri-gizon, aldun, osagile, gizarte-ardura zerbait dabena gustiak diardue gaur, gaitz galgari onen osakai bila.

Sit fecunda in sobole: «Umietan ugaria izan bedi», eskatzen dautsa Eleiz-Ama'k Jauna'ri emakume ezkonbaria onestean. *Zure emazia mats - mordua bezin ugaria, etxe inguruan.*

Zure seme-alabak areitz-pipitak legez, zure mai inguruan.

Olantxe onetsia izango da, Jaungoikoa'gazko bildur dan gizona. (Ps. 127).

Jaungoikoa'ren onespina da, ba, bai erientzako ta bai gurasoentzako, seme-alaba uguritasuna. Ezpegie, bada, ezkondu berekoyak esaten jardun: «Bizieria garesti dago: ezin geinke seme-alabarik azi». Gauza jakina da: «ume geyago ta eriak aberatsago, ume geyago ta sendiak gogorago».

Gitxiago ondiño: «Gexotia naz; makala naz: ezin

neike umerik azi». Osagile jakintsuen eretxiz ezkondu gustiak bear dan beste bider ama izatea nai ba'lebe, osagilerik geyenak gosiak ilgo ei lituke.

Eztabe, ba, iñundik eta iñora bere, euren burua edertzerik; oben onen bañuan, berekoitasun eta afo-keria baño eztira agertzen.

EZKONTZAKO IKURTONAREN ONURAK

Ezkonduen bustaia astuna da; ardura ta egin-bear astunak daroaz beragaz. Baña bear dan eraz, gogo garbi ta gertaera zuzenez, artu ezkerro, baita zama ta zeregin astunok arintzeko onura ta laguntzak bere, beragaz daukaz sakramentu onek. Eztabez gustiz gitxi-tu edo kendu egiten, ardura ta naibagiok, ezpada puska bat arindu, senar-emaztiak eñazago jaso dagikiezan. Ezkontza Jaungoikoa'ren bidetik artuañen eta ezkon-duak alkar maite dabela biziañen, oraindiño gaitzak eta naibagiak, atsekabiak eta aragiaren gañamurak izango ditue azkontzako bizieran, diño Paul deunak. Au siñes-tuta bizi bear dabe senar-emazte gustiak. Zama ta egin-beaño arindu ta bizitzako gora-berok eñazago ta goza-tsuago iragoteko, ezkontzaren iru onura aitatuko ditugu: 1.^a GOI-ESKAR EDO GRAZIA. 2.^a BAKARTASUNA. 3.^a IRAUPENA.

GOI - ESKARA. Beste enparau ikurtonak legez ezkon-tzak bere, bear danez gertauta artzen dauanari, eskaña emon daroatso. Baña ezkontza *bizien* ikurtona da - ta, oben astunean dagonak, biar dan lez ezkontza artzeko, autorkuntza on baten bidez Jaungoikoa'ren grazian jañi bear dau. Lenago azaldu dogunez, ikurton bakotxak goi - eskar bi emon daroatsoz artzañeari: Bata, gogoa donetuteko; bestea, ikurton bakotxaren egikizunai ko-bru emoteko. Ugutzak eskar bi emoten ditu: Bata, jato-

rizko obena kentzeko; ta bestea, kistar - siñesmenian zal iraun eta Jesukristo'ri jañaitzeko. Sendatzak goi - eskar bi emoten ditu: Bata, gogoa deun egiteko; ta bestea, ugutzan artu gendun siñesmena sendotu ta indartzeko. Ikurton bakotxaren lenengo eskaña galdu leike kistañak. Eta edozein oben astunez galdu daroa. Obena dagoan ariman, goi - eskañik eztago. Baña bigañen eskañak, ikurton bakotxaren sailari dagokioazanak, ikurton bakotxak bere egikizunak betetako emoten daukun eskañak, oneik zelanbait geugan iraun daroe. Ona, ba, emen, bear dan legez ezkontzera eltzen diranak artzen dabezan goi - eskañak. Biak ondo autortu ta Jaungoikoa'ren grazian ikurton au artzen ba-dabe, biai geituten yake arimako eskaña; oben ariñak parkatzen yakuez; ta goi - eskañaren aurka jagiten diran areriuak garaitu ta azpiratuteko indaña emoten yake. Ta onezaz gañera, biai emoten yakie eskar berezia, senar-emaztiak alkar maite izateko; bizitz onetako naibage ta joan-etoñiak eroaten alkañi lagunduteko; alkañegaz beti bake-tsu bizi izateko; seme-alabak izan eta zerurako azteko. Sayatu beitez, bada, ezkongeyak ikurton au bear dan gertaera ta asmoz artzen.

BAKAR IZATEA

Gizonak bere buru-jabetasun osoa dauka. Ezkondu edo ez ezkondu, bere eskuetan dago. Inortxok be ezin leike oñetara beartu. Baña ezkontzekotan, *senar bakotxak bere emaztea ta emazte bakotxak bere senaña, bat eta betiko*, auxe da Jaungoikoa'k ipiñitako legia.

BAKAÑA TA AUSI EZIÑA DA EZKONTZA. Bakaña egin eban Jaungoikoa'k asieran ezkontza. Emazte bat baño ez eutsan emon Adan'i. Ta biyoen arteko batasun au obe-

to adirazteko, ez eban Jauna'k bustiñagaz egin Eba'ren gorputza Adan'ena legez, ta gero putz-eginda gogoa ezari; ezpa-be, Adan'en sayetsetik atara ta eratu eban emaztearen gorputza, Eba, Adan'en zerbait bai litzan. Luzaroan iraun eban gizartean senar-emazte-bakar-lege onek. *Lamek* izan zala dirudi lenengoz lege au ausi ebana. Baña Tertulian'en eretxiz, uriol edo euri-jasa aldiraño ez eutson iñok jaraitu. Euri-jasa ondoren ludia edo gustiz edo iya beintzat aituta, agortuta, gelditu zan, eta gizonez eñazago bete zedin, Jauna'k laga eutson gizon bakotxari, emazte bat baño geyago artzen. Baña bein-bez, emazte bati senar bat baño geyago izaten; au ba, agiri-agirian giza-lege aurka litzake.

Jesukristo gure Jauna'k bañiro lengo malara jaso eban ezkontz-batasuna. Beñola Parisai'tarak eldu yakozan Jesukristo'ri, zirikatzeke asmoz esaten: *Zilegi ete yako senarari, edozer dala-ta, bere emaztea iztea? Jesus'ek erantzun eutsien: Askaldian gizona egin ebanak, aña ta emea egin ebazala eztozue irakufi ala? Eta esan eban: Auxe dala-ta, gizonak aita ta ama itxiko ditu ta emazteari ezariko yako, ta biak aragiz bat izango dira. Eztira, ba, bi; aragi bat baño. Beraz ezpegi gizonak banandu, Jaungoikoa'k batu daroana.*

Ba-diñotse besteak: *Zer dala-ta ba, agindu eban Mois'ek ausi-agiria emon eta jareiteko?*

Jesus'ek diñotse: *Zuen biotz gogorkeriz laga eutzuen Mois'ek zuen emazteak bialtzen, baña askaldian etzan ofela izan.*

Nik, bañiz, dirautzuet: iñork bere emaztea itxi edo zapuzten ba'dau, ezkontz-ausle da, ta arek itxitakoa artzen dauanak bere, ezkontza ausi daroa. (MAT. XIX).

Batasun au baita Trento'ko batzar nagosiak bere ebatzi eban. Ta ziñez, ezkontzan emazteak senarari ta

senafak emazteari, biak alkañi, gorputz-jabetasun osoa emon daroatsie; biak bata bestearen zorpean gelditzen dira. ¿Zelan zatitu leike, ba, ezkonduak, berea eztana?

Gañera, ezkontza, seme-alabak azi ta senar-emazteak alkañi lagundu ta alkañekin bakian bizi izateko egin eban Jaungoikoa'k. Baña jakin-jakiña da emazte asko dagon etxean ezin izan leitekela ez bakerik, ez seme-alabak ondo azteko biderik. Batasun onetik sortzen dira, bai sendi zoriondasuna, bai ezkontzaren betiko iraun beaña. Orixegaitik jaurtitzen dautsez ain ari-kada gogoñak gure arerioak. Batasuna apurtu ezkeroba, sendia apurtuta dago: an eztago ez gurasorik, ez seme-alabarik.

Batasunak esiz josten ditu ezkonduen biotzak. Batasunez, emaztea senafari ta senaña emazteari zor yako. Senafak emazteari ta emazteak senafari bakar-bakarrik eta osoro zor dautse biotza. Ezin, beste ituritik urik edan ez eze, edateko kuterik be euki legikie. Griña loya itxua ta alditsua da. Batzuk etxeko bazkaririk onena ta txukunena baño, iñungo makalo ustela gozoago ereisten dabe. Goteun edo Espiritu Santuaren esana da: *Aquæ furtivæ dulciores sunt*. «Lapurretako urak gozoago iduri». (PROV. IX).

AUSI EZIÑA. Batasunetik sortzen da iraupena, ezkontzan. Ezkontzako bustafia betikoa da. ¿Jaungoikoa'ri otoi eginda, ezkontzako biziarea ondoen yagoztzula alegiñez jakinda, zeure gogoko lagun on maite bategaz ezkondu zara? Bada eriotzak baño bestek ezin kendu leiketzu lagun ori. ¿Beste askoren artean, berari ondo eretxita, zeuk aukeratu dozu? Bada bera edo zeu il artean zeurea izango da beti; ta zu, berea izango zara. Ezta ezkontzako itunbena gaur baikua, ta biyar ezkoa. *Senafaren menbean dagon emaztea, gizona*

bizi dan arteraño legiari lotuta dago; gizona ilgo ba'litz orduantxe gelditzen da legetik azke. (Rom. VII). Jaungoikoa'k bustartu dituanok, eriotzak bakarik azkatu legikez. ¡Au bai poza alkar maite daben senar-emaztientzat, beti alkarégaz biziko dirana jakitea! Inok be alkarégandik ezin bakartu izatea.

Ezkonduen batasuna Jesukristo'k Eleizea'gaz daukan batasunaren irudia dala diñosku Paul deunak. Jesus'ek Eleiz deun bere ezkonari itxiko ezteutson legez, senarik bere, ez dautsa itxi bear bere emazteari. Eleizeak ez dautso itxiko bere ezkon onari; emazteak bere eztautso itxi bear senarari.

Jesus'ek maite dau bere Eleizea, ta Eleizeak Jesus. Senarik bere, maite bear dau bere emaztea, ta emazteak bere bai, senaria. Jesus'ek eztau egundo jango bein Eleizea'ri emondako itza; ezta Eleizeak be, Jesus'i emondakoa. Alantxe senar-emazteak bere, alkar gorde bear dautse beti, bein emondako itza.

Or dabiltz gure arerioak, guzur ta abar, Eleizeak diruagaitik ezkontzak austen dituala esaten. Guzur utsa da ori. Eleizeak eztau egundo nastau diran arteko ezkonduen korapilorik azkatu. Inoiz azkatzekotan, aundiekaz, bakaldunekaz egingo eban ori. Or dagoz, ba, edestia ziñaldari edo lekuko (testigu) dala, Lotari bere emazte Tietberge itxi gurarik: Pilipe, France'ko bakalduna, Berta bere emaztea itxi ta beste bat artu nayaz: VIII-gařen Endika, England'eko bakalduna, Katariñe Aragoi'taía itxi ta beste bategaz ezkondu guraz: Napoleon, altsua ta aña VII-gařen Pi espetxetuari lenengo emaztearen ordez beste bategaz ezkontzeko axu eta baimen eske. Etziran baña egundo Aita Santuak ořetara jafi. Ezin leike gizonak banandu, Jaungoikoa'k batu dauana.

EZKONTZ - EREA

ESTEGUAK. Giza-gogoa azteko, aukera-aukerakoak dira eleizkizun edo eleiz-oikuntzak; Eleizeak ikurton emokeran erabilten dituan otoi ta jarduerak. Ta eurotatik aberats eta ikurkor edo esan-gurenetarikua, ezkontzerea. Eleiz-gogoz, ezkondu, goizaldean egin bear da. Lenengo, ondo autortu. Ezkonduak bizitz gorengo mañara eldu dira; gorago eztabe igoko. Egin, bada, ordurarteko garbitasun oso - osokoa, biziera bañari oñari sendoa jarteko.

Adionez betoz ezkongeyak Eleizara ta gogoz entzun begie jaupari edo abade jaunak ezkonduen eginbeñak iragañi ta adiraziaz, egin daroetsen itzaldia.

EGIUNE EDO ITUNBENA. Egiune ta itunbenik astun eta gañantzitsuena. Txaunburuak itanduten dautse ezkongeyai, batak bestea senar-emaztetzat nai ete daben. *Bayetz* erantzunaz batera, ikurtona artzen dabe ta bein betiko biak alkañegaz lotuta gelditzen dira.

Jaupariak, alkañi eskuak emon - azo ta «Aitearen, Semea'ren eta Espiritu Santu edo Goteunaren» izenez batu ta onesten ditu.

EMAITZ ETA ERESTUN - ONESPENA. Eñoma'tañakandik artu eban Eleiz Ama'k ezkon-saritzat emaitzak eta erestuna eskintzeko oiturea. «Onetsi, añen, diñotso Eleizeak Jauna'ri; onetsi zure otsein onek bere emazte kutunari eskintzen dautsazan emaitzok, zure onespenez urgaztuta, maitasun - korapiñoz biok alkarturik, poz-atsegiñez zure moñoi artean aldi oro bizi daitezen».

Erestun bata artu ta onetsi ondoren, senañari eskui-ko laugañen atzamañian ezarten dautso.

Bigañen erestuna bere onetsi, ta senañari emoten dautso, emazteari ipiñi dagion.

Gero, eskuak batu, emaztearenak azpian eta senařarenak gañean dirala, ta emaztearen eskuetan izten ditu diruak, esanaz: *Emazte, erestun eta diru oneik, ezkontz-ikur edo ezaugaritzat emoten dautzudaz. Emazteak erantzuten dautsa: Neuk bere aintzat artzen ditut.*

Zintzotasun eta garbitasun-ikurá daroe erestunak. Bata bestearenak eta betiko, dirala adirazten dabe.

Otoi batzuk eginda gero, eskumako eskuetatik eldu ta eleizan sartzen ditu eresi au esanaz:

Beati omnes qui timent Dominum: qui ambulant in viis ejus. «Zoriontsuak Jauna'gazko bildur diranak: aren bidez dabiltzenak».

Labores manuum tuarum quia manducabis: beatus es et bene tibi erit. «Zure esku-lanaz irabazia jaten ba'dozu, zoriontsua zu; ondo duaketzu».

Uxor tua sicut vitis abundans, in lateribus domus tuæ. «Zure emaztea mats-mordo ugariaren antzekua izan bedi, etxe-inguruan».

Filii tui, sicut novellæ olivarum, in circuitu mensæ tuæ. «Zure seme-alabak, gaimeluráitz edo olibo-altsumak legez izan beitez, mai inguruan».

Ecce sic benedicetur homo, qui timet Dominum. «Ona, olantxe onetsiko dau Jauna'k, bere bildur dan gizona».

Benedicat tibi Dominus ex Sion; et videas bona Jerusalem omnibus diebus vitæ tuæ. «Onetsiko al zaitu Sion'dik, zeru goitik, Jauna'k; eta ikusiko al dituzu betiraunez Jerusalem'go, donokiko, ondasunak».

Et videas filios filiorum tuorum, pacem super Israel. «Ikusiko al dituzu, baita, zure umien-umiak bere, Israel'gain bakia».

OTOYA. «Onetsi begiz Jaungoikoa'k zuen aoko autuak. Olantxe. Maitasun zintzuaren korapilo ausi-

-ezindakoz lotu begiz zuen biotzak. Olantxe. Oraingo ondasunez mardul izan, ta seme-alabetan garbi ta ugari; eta adiskidiekaz eten barik poztu zaitezala. Olantxe. Ondasun iraunkorak, zuen senide ta adiskidietaraño zorionez elduko diran ondasunak bemotzuez Jauna'k, eta gustioi betiko atsegiña. Olantxe».

OTOYA. «Onetsiko al zaitue Goiko Jaun altsuak. Olantxe. Deun gustien Bakaldunak. Olantxe. Bemotzue bere maitasunaren gozotasuna, ta gizaldi onetan zoriontsu alaitzea. Olantxe. Baita seme - alabakazko poza, ta urte askoren buruan, zeru goyan bizi-tokia bere bemotzue, amaibako egunetan bizi ta agintzea daukan Jaungoikoa'k. Olantxe».

Ezin samurago, biziago ta txukunago adirazi leikez, Eleizeak ezkon-bañiai opa dautsezan ondasunak, bai bizitz onetarako, bai gerokorako.

EZKONDUEN MEZA EDO JAUPEA

SAREREA. (TOB. 7, 15, 8)

«Israel'en Jauna'k batu zagiezala; ta zuekin izan beite bi bakañakaz erukitu zana; ta orain, Jauna, ugarriago onetsi egizuz, aŕen. (127-G. ERES.) Zorionekoak Jaungoikoa'gazko bildur diranak: aren bidez dabil-tzanak».

OTOYA

«Aditu, aŕen, Jaungoiko algustidun eta erukior oŕek, gure bidez egin dozun au; zure onespenez zietzago egiztu daiten. Amaibako egunetan zurekin bizi ta Bakaldun dan Jesukristo gure Jauna dala bide. Olantxe».

IDAZKIA

Paul Bialdu deunak Epesi'taíai egindako irakurgaya. (EPHES. 5, 22, 23).

«Anayak: Emazteak, Jaunari legez, senaíai men-egin bekioe, emaztearen buru senaía da, ba, Eleizaren buru Kristo dan legez; alako soñaren alako jareigilea. Beraz, Eleizea Kristo'ren menbe dagon legez, emazteak bere, senaíaren menbean begoz gustirako. Zuek, senaíok, zuon emazteak maite izan egizuez, Kristo'k Eleiza maite izan eta aren alde bere burua emon eban legez, itzez ta ur-ukuztez garbi ta deun eginda, bere begietan Eleiza aratz agertu - azoteaíen ezertariko orban, zimur edo olakorik bage. Olantxe senaíak be, euron gorputzak legez maite izan bear dituez euren emazteak. Emaztea maite dauanak, bere burua maite dau. Inork eztau, ba, egundo bere aragia gofoto izan; azi ta zaindu, bai, osterá, Kristo'k Eleiza legez; bere gorputz-atalak gaitu ba Kristo'k geu, bere aragi ta azur. Augaitik, gizonak bere aita ta ama itxiko ditu ta bere emazteari itsatsiko yako, ta biak aragi bat egingo dira. Aundia da eskutapen au; Kristo ta Eleizaren artekoaz diñot neuk. Ofela, ba, zuenean bere, bakotxak bere emaztea, bere burua baizen maite begi; emazteak, baíz, senaíari lotsa berakuskio».

GOIZPARKIA (MATH. 19, 3-6)

«Beñola, parisaitaíak Jesus'eganatu ziran, zirikatze-ko asmoz, inotsoela: Zilegi ete yako senaíari, emaztea edozergaitik iztea? Jesus'ek erantzun eutsen: Ez al dozue irakuí Egileak, astetik, ar ta eme egin ebazala ta esan ebala: Augaitik, gizonak aita ta ama itxiko ditu,

ta bere emazteari itsatsiko yako, ta biak aragiz bat izango dira? Añezkero, beraz, eztira bi, aragi bat baño. Ezpegi, ba, Jaungoikoa'k batua, gizonak banandu».

OTOYA

«Entzun, ařen, Jauna, gure eskariak, eta gizaldia zabaltzeko ipiñi zenduan eralguntza gogo onez lagundu, zure laguntzaz iraun dagian, zure asmoz batu doyanak».

OTOYA

«Zure almenaren indařez oro ezerezetik sortu dituzun Jaungoikoa: Luřasoaren oñaria jaři ezkeroz, Jaungoikoa'ren antzera egindako gizonari, emakume-soñari giza-soñetik asiera emoteařen, aldendu ezindako emakume-laguntza sortu zenduan ori, batetik etořiak ezin berezi leikezela irakatsirik: ezkontz-batasuna, Kristo ta Eleizearen alkartasun irudia izateraño donetu zenduan Jaungoikoa: Zeu bide zareala, emakumea gizonari batu, ta gizabatzetatik lenen au, ez jatořizko obenaren zigorez, ezta euri-jasaren epaikundez bere, ez ondatzeko onespenez ondu zenduan Jaungoikoa: begiratu eřukiz zure mirabe oni, bada ezkontz artzera dualarik, zure laguntzaz urgazi guran dago; maitasun-eta otzandasun-bustaria izan bedi beragan; zintzo ta garbi ezkondu beite Kristo'ren gogoz; ta emazte deunen jařaitzale iraun begi; Eřakel baizen maitagaři izan bekio bere senařari ta Eřebeke baizen burutsu ta Sare baizen urtetsu ta zintzo; ezpegi ezertxo bere, onen agintzetatik bereganatu, arek gaiztakeri-sortzaleak; Siñesmen eta aginduai lotuta iraun begi; oe bakařari elduta, ikutu

txařetatik alde; bere aulkeria, lege - indařez sendotu begi; lotsaz ben, begirunez agurğarı, ta goi-jakintzaz ikasi izan beite; umez ugaria, zindoa ta eřugea; eta deunen atsedentokira ta zeruko bakaldeřira eldu beitez; ta ikusi begiez biok euron umien umiak irugarıen eta laugarıen belaunerařo, ta opagarı dan zartzarora eldu beitez. Amaibako egunetan... Jesukristo berbera dala bide. Olantxe».

* * *

Biar bařo geyago luzatuta bere, ezkontz-erea onen zietz ipiři nai izan dogu, ementxe agiri dalako gure Eleiz Ama'ren gogua ezkontzari buruz: ezkontza zer dan eta zertarako jaři eban Jaungoikoa'k; ezkonduen egin-beařak; ezkonduai Eleizeak opa dautsezan ondasunak. Betoz gero gure arerioak Eleiz-gogoa iluna dala-ta; kistar zintzoak, bizi izateko pozik ezin izan leikela-ta. ¡Amaika esan eragin daroye ez-jakiřak eta zitalkeriak!

ESTEGUAK

Ezkontz - eguna senide ta adiskidiekaz ospatzea, gauz ona ta bidezkoa da. Jesus be joan zan bere Ama deunagaz Kanaan'go esteguetera, ta ezkon-baři arein alde egin eban lenengo bere alatz edo miraria. Egin bada estegua, bear ba'da. Bařa kistar usařagaz, esate ta gogo garbiagaz; nasaikeri, zorakeri ta lizunkerı bagako alaitasunagaz. Orduan, bai, Jesus izango dala gure arteko esteguetan ta berak onetsiko dituala gure ezkon-baři ta sukalde bařiak.

JAUNGOIKOA'REN AINTZARIK GURENERAKO

